Hernaniko Udala

HERNANIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO
ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN
TESTU BATEGINA

2011ko APIRILA

BEHIN BETIKO ONARPENA



A AGIRIA - MEMORIA

A.2 - INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

UDALEKO HIRIGINTZA BULEGOA

Hernaniko Udala

HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINA

2011ko APIRILA

A.2. AGIRIA

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

MEMORIA

EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

BEHIN BETIKO ONARPENA

UDALEKO HIRIGINTZA BULEGOA

ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN AURKIBIDE OROKORRA

A agiria – MEMORIA

A.1 – Hirigintza-antolamenduaren eta horren exekuzioaren azalpen-memoria eta justifikazio-memoria
A.2 – Ingurumen-iraunkortasunaren txostena

B agiria – HIRIGINTZA-ARAUAK

B.1 – Hirigintza-arau orokorrak
B.2 – Hirigintza-arau bereziak

C agiria – KATALOGOA

D agiria – EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARLOKO BIDERAGARRITASUN-AZTERKETA
JARDUKETA-PROGRAMA

E agiria – PLANOAK

I – Informazio-planoak
II – Antolamendu orokorraren planoak
II.1 – Hirigintza-erregimen orokorra
II.2 – Komunikazio-sare orokorren eskemak
II.3 – Zuzkidura-sarea (sistema orokorrak)
II.4 – Zerbitzu-sare orokorren eskemak
II.5 – Gainjarritako antolamendu-baldintzak
III – Katalogoko planoak (C agiriari atxikiak)
IV – Antolamendu-plano argigarriak
V – Antolamendu xehakatuko planoak (B.2. agiriari atxikiak)

ERANSKINAK

– Hernaniko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2010). Endara Injenieritza.
– Urumea Ibaiaren Azterketa Hidrauliko Osagarria (2009). Ikaur.

A-2. AGIRIAREN AURKIBIDEA. INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

Sarrera 1

Aurrekariak 1
Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa 2

1. Hernaniko hirigintza-planeamendurako Arau Subsidiarioen berrikuspenaren helburu estrategikoak eta aztertutako aukerak 4

1.1. Hernaniko arau subsidiarioen esparrua eta denborazko helmena 4
1.2. Arau subsidiarioen helburuak 4
1.3. Aztertutako aukerak 5
1.4. Arau subsidiarioak betetzeko faseak 11
1.5. Arauen agirian antzemandako informazio-hutsuneak 12
1.6. Parte-hartze publikoa: partaidetza-maila eta erabilitako prozedura 12

2. Lurralde-esparruaren eta esparru fisikoaren analisia 14

2.1. Beste plan eta programa batzuekiko elkarrekintzaren analisia 14
2.2. Hernaniko hiri antolamenduko arau subsidiarioek eragindako eremuan, ingurumenaren azterketa, diagnosia eta balioespena 28

3. Hartutako esku-hartze estrategikoak. hartutako antolamenduaren zioak garapen iraunkorraren printzipiotik abiatuta. 55

3.1. Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa 55
3.2. Izaera sektorialeko esku-hartzerako proposamenak 56
3.3. Lurzoru ez-hiritargarria gunetan banatzea 61
3.4. Gainjarritako antolamendu-baldintzak 61
3.5. Garapen iraunkorraren printzipiotik abiatuta onartutako antolamenduaren justifikazioa 63
3.6. Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena eta gipuzkoako foru aldundiko diputatuen kontseiluak 2007ko ekainaren 12an hartutako erabakiak bete direla justikatzen duen memoria 67

4. Arau subsidiarioen berrikuspenean (2007) eta testu bateginean (2010) proposatutako aukeren ingurumen-azterketa konparatua 72

5. Arau subsidiarioen testu bateginaren proposamenek eragindako inpaktuen identifikazioa eta balorazioa 75

5.1. Sarrera 75
5.2. Eraginen ezaugarriak zehazteko eta eraginak baloratzeko metodologia 75
5.3. Hirigunea erdigunea (cc) lurralde-eremuan egindako proposamenetatik sortutako eraginen azterketa. 78
5.4. Hirigunea iparra lurralde-eremuan egindako proposamenetatik sortutako eraginen azterketa 82
5.5. Hirigunea mendebaldea lurralde-eremuan egindako proposamenetatik sortutako eraginen azterketa 88
5.6. Hirigunea hegoaldea lurralde-eremuan egindako proposamenetatik sortutako eraginen azterketa 92
5.7. Hirigunea mendebaldea lurralde-eremuan egindako proposamenetatik sortutako eraginen azterketa 96
5.8. Urumea erdialdea lurralde-eremuan egindako proposamenetatik sortutako eraginen azterketa 100
5.9. Urumea goialdea lurralde-eremuan egindako proposamenen eraginen analisia 107
5.10. Ur-arloan dituen eraginen azterketa 112

6. Neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen proposamena 114

6.1. Testu bategineko helburuak eta estrategiak egokitzeko proposamena 114
6.2. Identifikatutako inpaktuei aurre egiteko neurri babesleak eta neurri zuzentzaileak 114

7. Arau subsidiarioen eraginak ikuskatzeko programa 119

7.1. Kontrol-helburuak 119
7.2. Segimendua egin beharreko sistema, alderdi edo aldagaiak identifikatzea 119
7.3. Ikuskapen-programaren diseinua 119
7.4. Betetze-mailaren adierazleak. erreferentzia-mailak 120
7.5. Azterketa xehatua gerorako utzitako alderdiak 122

8. Laburpen-dokumentua 123

ERANSKINAK

1. Arriskuan dauden flora-espezieak
2. 30T WN88 eta 30T WN89k arriskuan dauden espezietzat katalogatutako fauna-espezieak
3. Balizko arkeologia-guneak
4. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerei eusten dieten edo eutsi dieten kokalekuak
5. Bide- eta trenbide-azpiegituren eraginaren mendeko guneak

IRUDIAK

Zk.	Izenburua	Orrialdea
1a	Antolamendu-proposamena. Hasiera batean onartutako agiria (2004)	9
1b	Hirigunea sailkatzeko proposamena. Behin betiko onartutako agiria (2007)	10
2	Lurralde-ereduak. Donostiako Lurraldearen Zatiko Plana	16
3	Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Ingurumen-gaiak	18
4	Hezeguneak Antolatu eta Babesteko Lurraldearen Arloko Plana. Antolamendu-kategoriak	20
5	Kostaldea Antolatu eta Babesteko Lurraldearen Arloko Plana. Antolamendu-kategoriak	21
6	Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Antolamendu-kategoriak	22
7	Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Planaren eragina planeamenduan	24
8	Udal-barrutiko landaretza-unitateak	35
9	Arrisku teknologikoak. Salgai arriskutsuen garraioa (Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza)	51
10	Arrisku teknologikoak. Seveso II (Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza)	52

OHARRA:

Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina behin betiko onesteko agiri honetan, Lurralde Banaketako kapitulu honetan egiazta daitekeenez, eremu geografiko nahiz hirigintza-eremu eta azpieremu batzuen izenak egokitu egin dira eta, ondorioz, baita horien erreferentzia-inizialak ere. Hernaniko Udaletxean erabili ohi diren ildo linguistiko, ortografiko eta toponimikoak jarraitu dira horretarako.

Hona hemen aldaketa horiek egiteko erabili diren baliokidetasunak:

- (CC) CASCO / CENTRO ..... (HE) HIRIGUNEA / ERDIALDEA
  CH – Casco Histórico — HS – Hirigune Historikoa.
  EN – Ensanche — ZG – Zabalgunea.
- (CN) CASCO / NORTE..... (HI) HIRIGUNEA / IPARRA.
  AG – Agustinas — AG – Agustindarrak
- (CO) CASCO / OESTE..... (HM) HIRIGUNEA / MENDEBALDEA.
  OA – Oarso — OA – Oartzu.
  LA – Latxunbe — LA – Latsunbe
- (CS) CASCO / SUR..... (HH) HIRIGUNEA / HEGOA.
- (CP) CASCO / PERIFERIA..... (HK) HIRIGUNEA / KANPOALDEA.
- (UB) URUMEA / BAJO ..... (UB) URUMEA /BEHEA.
  AK – Akarregi — AK – Akerregi.
- (UM) URUMEA / MEDIO ..... (UE) URUMEA / ERDIALDEA.
  PK – Puerto-Karabel — PK – Portu- Karabel.
  OS – Osiñaga — OS – Osinaga.
- (UA) URUMEA / ALTO ..... (UG) URUMEA / GOIA.
  EP – Epele — EP – Epela.
  ER – Ereñozu — ER – Ereñotzu.
- (SNU) SUELO NO URBANIZABLE ..... (LEH) LURZORU EZ HIRITARGARRIA.
  Meandro Akarregi — Akerregi Meandroa

PLANOEN AURKIBIDEA

Ingurumenaren diagnostikoaren planoak		
Zk.	Izenburua	Eskala
A.1	Kokalekua	E 1:200.000
A.2	Orografia	E 1:45.000
A.3	Interes geologiko eta geomorfologikoko guneak	E 1:45.000
A.4	Hidrologia	E 1:45.000
A.5	Ahalmen agrologiko handiko lurzorua	E 1:45.000
A.6	Landaretza interesgarria	E 1:15.000
A.7	Natura-gune babestuak	E 1:45.000
A.8	Naturaren ikuspegitik interesgarriak diren beste gune batzuk	E 1:45.000
A.9	Paisaia	E 1:45.000
A.10	Arrisku naturalak	E 1:45.000
A.11	Izan daitezkeen arriskuak	E 1:45.000

Ingurumenaren analisiaren planoak		
Zk.	Izenburua	Eskala
B.1a	“Hirigunea Erdigunea” eremuko jarduketak	E 1:2.500
B.1b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Hirigunea Erdigunea eremuan	E 1:2.500
B.2a	“Hirigunea Iparra” eremuko jarduketak	E 1:5.000
B.2b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Hirigunea Iparra eremuan	E 1:5.000
B.3a	“Hirigunea Mendebaldea” eremuko jarduketak	E 1:5.000
B.3b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Hirigunea Mendebaldea eremuan	E 1:5.000
B.4a	“Hirigunea Hegoa” eremuko jarduketak	E 1:3.000
B.4b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Hirigunea Hegoa eremuan	E 1:3.000
B.5a	“Hirigunea Aldiriak Mendebaldea” eremuko jarduketak	E 1:6.000
B.5b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Hirigunea Aldiriak Mendebaldea eremuan	E 1:6.000
B.6a	“Urumea Behealdea” eremuko jarduketak	E 1:5.000
B.6b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Urumea Behealdea eremuan	E 1:5.000
B.7a	“Urumea Erdialdea” eremuko jarduketak	E 1:5.000
B.7b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Urumea Erdialdea eremuan	E 1:5.000
B.8a	“Urumea Goialdea” eremuko jarduketak	E 1:6.000
B.8b	Ingurumenaren gaineko baldintzatzaileak Urumea Goialdea eremuan	E 1:6.000

SARRERA

AURREKARIAK

1998an, Hirigintza Planeamendu Orokorra berrikusteko prozesuan murgildu zen Hernani. Prozesua luzea izan da, baina amaieran dago jadanik, eta arau subsidiarioen testu bategina onartzea izango da azken pausoa. Hain zuzen ere, testu horren barnean dago agiri hau: "Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa" edo, beste era batera esanda, "Ingurumen-iraunkortasunaren txostena".

Labur-labur, espedientea bideratzeko prozesuaren mugarri nagusiak aipatuko ditugu jarraian, prozesu horren barnean baitago ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura —espedientearen memorian (A agirian), zehazkiago azalduko dugu prozesua—:

- Udal-planeamendurako arau subsidiarioak. 1996ko ekainaren 27an onartu zituzten behin betiko.
- Planeamendua berrikusteko prozesuaren hasiera. 1998ko urtarrilean hasi zen.
- Arau subsidiarioen berrikuspenaren aurrerakina. 1998ko abenduan aurkeztu zuten.
- Aurrerakina egiteko irizpide eta proposamen orokorren onespena. Udalbatzak onartu zituen, 1999ko apirilean.
- Prestatutako proiektua ez bideratu eta berrikuspen-prozesua berriz hasteko erabakia. 1999ko maiatzeko udal-hauteskundeen ondorioz, udalbatza berria eratu zen, eta hark onartu zuen erabakia, 2001eko abenduaren eta 2002ko urtarrilaren artean.
- Arau subsidiarioen berrikuspen-prozesua berriz hastea. 2002an hasi zen prozesua berriz.
- "2002 txostena". 2003ko maiatzean aurkeztu zuten, eta berrikuspen-proiektu berria idazteko oinarriak finkatu zituen.
- Arau subsidiarioen hamar aldaketa. 1999 eta 2003 artean bideratu zituzten.
- 1999ko proiektua berreskuratzea. 2003ko udal-hauteskundeetatik sortutako udalbatzak berreskuratu zuen 1999ko proiektua eta, 2004ko maiatzean, agiria prestatzeko agindu zuen, hasiera batean onartzeko.
- Arau subsidiarioen proiektuaren barneko **"Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa"**. 183/2003 Dekretuko xedapenei jarraitzen die, eta prozedura arautzeko abiapuntua izan zen.
- Udalak **"Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aurretiazko txostena" egiteko eskatzea** Gipuzkoako Foru Aldundiari. 2004ko maiatzean egin zuen eskaera Udalak.
- Arau subsidiarioen berrikuspen-proiektua hasiera batean onartzeko erabakia. Udalbatzak onartu zuen, 2005eko martxoan.
- Arau subsidiarioen berrikuspen-proiektuan 16 eremuren funtsezko aldaketak sartzeko erabakia. Udalbatzak onartu zuen, 2006ko martxoan. Agiri horrek proposatzen zuen hiri-antolamendua ezberdina zen erabat, baina **"Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa" ez zuten egokitu**.
- Espedientea ("Arau subsidiarioen proiektuaren testu bategina" izenekoa) behin-behinean onartu eta, behin betiko onar zezan, espedientea Foru Aldundiari igortzeko erabakia. Udalbatzak onartu zuen, 2006ko irailean. **Orduan ere ez zuten egokitu "Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa"**.
- "2006ko irailaren 15ean behin-behinean onartutako arau subsidiarioen proiektuko hutsen zerrenda" izeneko agiria onartzeko erabakia. Udalbatzak onartu zuen, 2006ko abenduan eta 2007ko urtarrilean, eta arau subsidiarioetako oinarrizko xedapenak aldatu zituen. **Orduan ere ez zuten egokitu "Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa"**.
- "Arau subsidiarioei buruzko dokumentazio gehigarria Kosta Zuzendaritzarentzat" izeneko agiriaren onespena. 2007ko martxoan onartu zuten, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri zioten, espedientean sartzeko.
- "2006ko irailaren 15ean behin-behinean onartutako arau subsidiarioen proiektuaren aldaketa eta hutsen zerrenda berria" izeneko agiria onartzeko erabakia. Udalbatzak onartu zuen, hilabete geroago (2007ko apirilean).

- **“Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren eranskina”**. Udalbatzak onartu zuen, 2007ko maiatzean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri zion. Aurreko agirian oinarrituz egin zuten eranskina, eta adierazten zuen funtsezko zer aldaketa izan ziren ingurumenaren gaineko eraginaren baterako aurreko ebaluazioaren (2005ean hasiera batean onartutakoaren) aldean. **Besterik gabe, adierazten zuen ebaluazioko zer gai aldatu edo osatu behar ziren testu bategina prestatzeko**, baina ez zituen osatzen gaiok.

- **“Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena”**. Garapen Iraunkorreko Departamentuak argitaratu zuen, 2007ko maiatzaren 23an, eta zera zioen: “Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioan egin beharreko aldaketen aniztasuna eta hedadura ikusirik, behin betiko txosten hau egiteko helburuetarako, komenigarria izango zatekeen eranskinaren proposamena baztertzea (alegia, lan hori ez atzeratu eta testu bategin baten bidez ez egitea) eta lana behin betiko onespenaren aurretik egitea”.

- Arau subsidiarioak berrikusteko espedientearen behin betiko onespena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen, 2007ko ekainaren 12ko bilkuran (GAO 163, 2007/08/21ekoa), eta bat egin gabeko hainbat agirik osatzen zuten: “Arau subsidiarioen proiektuaren testu bateginak” —behin-behinean onartutakoa—, “Hutsen zerrendak”, “Kosta Zuzendaritzarentzako dokumentazio gehigarriak” eta “Aldaketa eta hutsen zerrenda berriak”.

- **Diputatuen Kontseiluaren erabakiak** hainbat baldintza ezarri zituen testu bategina prestatzeko. Besteak beste, nabarmentzekoa da hau, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedurarekin duen harremana dela medio: **”Hasierako onarpena jasotzeko aurkeztu zen ingurumen eraginaren baterako balorazioaren azterketaren eduki osoa berrikusi behar da eta horretarako, jada Hernaniko Udalak berak «Behin-behineko Onarpenaren Azterketaren Eranskina» izeneko dokumentuan adierazitako ildoak jarraituko dira. Dena den, azterketa honek burutuko duen azterketaren azken edukia behin betiko berrikuspena onartzen duen ebazpenetik erator litezkeen hirigintza dokumentuaren aldaketetara egokitu behar da**”.

- “Hernaniko hirigintza-planeamendurako arau subsidiarioak berrikusteko prozesuaren azken fasea osatzeko esparru-akordioa” agiriaren onespena. Espedientea behin betiko onartu aurretik egindako hauteskundeetatik sortu zen udalbatzak onartu zuen, 2008ko uztaileko osoko bilkuran, eta Udaleko arkitekto aholkulariak 2007ko abenduan egindako txostenean oinarritzen zen. Testu bategina idazteko "proposamen metodologiko" bat egin zuen esparru-akordioak, horixe aldarrikatu baitzuen Diputatuen Kontseiluaren ebazpenak.

Aipatutako esparru-akordioan finkatutakoarekin bat, **Hernaniko hirigintza-planeamendurako arau subsidiarioen berrikuspenaren testu bategina** prestatu du Udaleko Hirigintza Bulegoak. Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12an onartutako erabakiari jarraitzen dio testuak, baina aldaketak ezartzen ditu hainbat eremutan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legera egokituta dago.

Agiri hau *Ingurumen-iraunkortasunaren txostena* da, eta espedientea osatzen du. Hain zuzen ere, aurreko paragrafoan aipatutako testu bategina osatzen du, eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozeduraren barnean dago —ebaluazio horri buruzkoa da hurrengo atala—.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIOA

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra garatzeko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak arautzen du ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa. 3/1998 Legeak helburu jakin bat lortzeko sortu zuen ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa: planek eta programek ingurumenean izan dezaketen eraginaren analisia sartzea planeamendu-prozesuaren lehen faseetan.

Geroago, Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea sartu zen indarrean. Estatuko oinarrizko legea da, eta aurreko legediaren helburuekin bat dator.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren aplikazio-eremua ezartzen du 183/2003 Dekretuko 3. artikuluak. Ebaluazio hori behar duten planen artean, hirigintza-planeamendurako arau subsidiarioen berrikuspena dago.

Agiri hau (ingurumen-iraunkortasunaren txostena) aurreko atalean aipatutakoari jarraituz prestatu dute, eta bere helburua ez da berrikuspen-prozesuaren baterako ebaluazioaren esparruan aurretik egindako lanak hastea, baizik eta haren edukiari jarraipena ematea eta hura osatu eta planeamendurako arau subsidiarioen testu bateginera egokitzea.

Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txosteneko xedapenei eta oharrei eta Diputatuen Kontseiluaren 2007ko ekainaren 12ko Akordiotik sortutakoei jarraitzen die ingurumen-iraunkortasunaren txosten berriak; Gipuzkoako

Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak argitaratu zuen ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena.

Hori dela eta, hauek dira agiri honen egitura osatzen duten kapituluak:

- Sarrera.
- 1. Arau subsidiarioen testu bateginaren helburu estrategikoak eta aztertutako aukerak.
- 2. Lurralde-esparruaren eta esparru fisikoaren analisia eta diagnostikoa.
- 3. Testu bategineko jarduketa estrategikoak eta onartutako antolamenduaren justifikazioa, garapen jasangarriaren printzipioaren ikuspegitik.
- 4. Berrikuspen-agiriko (2007ko) eta testu bategineko (2010eko) proposamenen ingurumen-azterketa konparatiboa.
- 5. Arau subsidiarioen testu bategineko proposamenen eraginaren identifikazioa eta balorazioa.
- 6. Babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak hartzeko proposamena.
- 7. Arau subsidiarioen eragina ikuskatzeko programa.
- 8. Sintesi-agiria.

Nabarmentzekoa da ingurumen-iraunkortasunaren txostenak planoz osatutako agiri bat hartzen duela barnean. Hain zuzen ere, 27 planok osatzen dute agiria. 11 (A.1, A.2, etab.) informazio-planoak dira, lurralde-esparruaren eta esparru fisikoaren diagnostikoan oinarrituz egindakoak. Beste 16 planoen artean, berriz, antolamendu-plano argigarriak (B.1a, B.2a, B.3a, etab.) daude, batetik, eta Hernaniko hirigunea osatzen duten zortzi lurralde-eremuetako ingurumenean eragina duten baldintzatzaileak adierazteko planoak, bestetik.

Hernaniko Udaleko Hirigintza Bulegoak prestatu du hirigintzako agiria. Ingurumen-iraunkortasunaren txostena, berriz, Ekolur Asesoría Ambiental SLL enpresako teknikari hauek prestatu dute: Tomás Aranburu nekazaritzako ingeniari teknikoak, Eduardo Etxenike delineatzaileak eta Estela Cuevas editore eta maketatzaileak.

1. HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA AZTERTUTAKO AUKERAK

1.1. HERNANIKO ARAU SUBSIDIARIOEN ESPARRUA ETA DENBORAZKO HELMENA

Udal-barrutia da planeamendu orokorrerako, Hernaniko hirigintza-planeamendurako arau subsidiarioen lurralde-esparrua, eta 40,25 km^2 neurtzen du.

Testu bateginak jorratzen duen lurraldea Donostiako Eskualde Egituraren barnean dago. Donostialdea eta Bidasoa Beherea eskualdeek osatzen dute Donostiako Eskualde Egitura eta, Hernaniz gain, beste 12 udalerrik osatzen dute

Behin betiko onartu eta 16 bat urterako sortu da udal-planeamendua.

1.2. ARAU SUBSIDIARIOEN HELBURUAK

Arau subsidiarioak berrikusteko prozesua amaitzea izan da testu bategina osatzeko helburu nagusia. 1998an hasi zen prozesu hori, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak agiri hori eskatu zion Udalari, 2007ko ekainaren 12an.

Irizpide eta helburu orokor hauek izan ditugu kontuan testu bategina osatzeko:

- Udalerriak lurraldearen barnean dituen baldintza estrategikoak eta hirigunearen aukerak aprobetxatzea.
- Landa-lurzoruaren okupazioa eta hiritartzea txikiagotzea.
- Berrikuspenak aurrez ikusten duen bizitegi-garapenaren neurria egokitzea, aurreikuspen zuhurragoetan eta, antolamendu orokorrari jarraituz, hiri-bilbean esku hartzeko benetako beharretan oinarrituz, finkatutako eskubideek ematen dituzten aukerak kontuan izanik.
- Aurretik zegoen industria-ehuna mantentzea, jarduerak lekualdatu beharra dagoenean izan ezik.
- Erabilera bateragarriak ez bereiztea, hirigunearen askotariko funtzionaltasun konplexua sustatuz.
- Eskualde osoan eragina duen garapen-nukleo estrategiko bat eratzea.
- Hirigunea jasangarritasun-irizpideen kontra garatzeko aurreikuspenak mugatzea eta, ahal bada, deuseztatzea.
- Gune Libreen Sistema Orokorra (hiriguneko eta landaguneko parkeak) aztertu eta osatzea.
- Ekipamendu komunitarioko eta zerbitzuetako sistema orokorren sarea aztertu eta osatzea.
- Komunikazio Sistema Orokorraren antolamendua egokitu eta osatzea, mugikortasun jasangarrirako eskemaren eta proposamenen arabera eta Gipuzkoako Foru Aldundiak arlo honetan egiten dituen txostenen arabera.
- Landa-lurzoru ez-hiritargarriaren antolamendua berraztertzea, lurraldea antolatzeko indarrean dauden tresnetara eta aplikatu beharreko araudira eta babes-planetara egokitu eta naturaren ikuspegitik balio berezia duten balioen eta elementuen babesa modu eraginkorrean ziurtatzeko.
- Hirigintza-antolamendua osatzea, araudi orokorraren eta bereziaren barneko erregimen arautzaile baten bidez.
- Ondare kulturalaren eta naturalaren katalogoa eta haren babes-erregimena osatzea
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko xedapenekin bat ez datorren lurzoruaren sailkapena zuzendu eta lurzoru hiritarra kategorizatzea.

Aurretik zeuden mugek utzi diguten heinean, antolamendu bihurtu dira helburu eta irizpide orokor horiek guztiak. Testu bateginak bere egin du antolamendu hori, eta hauek dira haren oinarri estrategikoak:

- Urumea ibaiaren haranaren hondoa babestea, hiri-garapen berriek lurzorua okupa dezaten galaraziz.
- Urumea ibaiaren haranaren hondoak eta ibaiertzek Ergobia eta Arano artean eratzen duten eremua antolatu eta naturaren, biodibertsitatearen, nekazaritzaren eta ekoizpenaren, paisaiaren… ikuspegitik dituen balioak bereziki babesteko lurzorutzat sailkatzea.
- Udalerrian balio erantsi handiko eta nagusiki publikoa den sustapeneko jarduera ekonomiko selektiboak (parke teknologikoa, industrialdea, hirugarren sektoreko erabilerak, hotel-erabilerak…) kokatzea lehentasuntzat sustatzea.
- Galarreta eremua eskualdean garrantzi estrategikoa duen ardatzetarako erreserbatzea, jarduera ekonomikoak garatzeko.
- Bizitegi-garapenaren sabaia egokitzea, eskaintza zentzuzko eta errealistagora egokitzeko ahal den neurrian.
- Jasangarritasun-irizpideetan oinarrituz, hiri-ehunaren aukerak ahal bezainbat aprobetxatzea, birmoldaketa-lanak hasi eta funtsean bizitegitarako eta zuzkidurarako diren garapenak kokatzeko.
- Egungo zuzkiduraren maila handiari eusteko irizpidean oinarrituz, Gune Libreen Sistema Orokorrerako (hiriguneko parkeetarako) lurzoru-erreserbak handitzea.

- Sareen gaineko ikusmolde orokorrarekin (sareak, batetik, hiriguneko, udalerriko eta eskualdeko eta, bestetik, oinezkoentzako, bizikletentzako eta motordun ibilgailuentzako saretzat hartzearekin) bat datorren eta mugikortasun jasangarrirako plan batek gidatzen duen bide-sistema orokorra sortzea.

1.3. AZTERTUTAKO AUKERAK

Hernaniko arau subsidiarioak berrikusteko prozesua 1998an hasi zen, eta hamarkada bat baino gehiago luzatu da. Iraun duen bitartean, antolamendurako hainbat aukera aztertu ditugu. Aukera batzuei prozeduraren fase guztietan eutsi diegu eta, antolamendua xehakatu bitartean, egokitu egin ditugu. Beste batzuk, berriz, baztertu egin ditugu, hainbat arrazoi direla medio: arrazoi ekonomikoak, politikoak, ingurumen-arrazoiak…

Kontuan izan beharra dago, espedientea bideratu bitartean, hainbat egoera sozioekonomiko izan direla, aldaketak izan direla Udalean, lurraldea antolatzeko beste plan batzuk edo arloko beste plan batzuk egin dituztela, udalez gaindiko azpiegiturak planifikatu dituztela, aldaketak izan direla legedian… Horrek guztiak eragina izan du antolamendu-proposamenetan.

Hernaniko Udaleko Hirigintza Batzordean eta herritarrek parte hartzeko guneetan (administrazio publikoetan, erakundeetan, partikularren baitan) aztertu ditugu aukera horiek guztiak. Parte hartzeko prozesua desorekatua eta irregularra izan da —dagokion atalean azalduko dugu prozesu hori, *1.6. Herritarren parte-hartzea* atalean—.

Lehen esan bezala, aztertutako aukerak baldintzatu ditu udalez gaindiko planen bidez onartutako garraio-azpiegituren eraikuntzak edo aurreikuspenak, eta espedientea horretara egokitu behar izan dugu. Azpiegitura horien artean nabarmentzekoak dira hauek, lurraldean duten eragina dela medio: A-8 autobidearen zati berria Aritzeta eta Oiartzun artean —udal-barrutiaren iparraldeko muturretik igarotzen da—, Urumeako autobidearen zatiketa eta abiadura handiko trenarentzat proiektatutako bidea —Astigarragatik Urnietara darama, Hernanin barrena—.

Atal honen ondoren, hainbat irudi erantsiko ditugu, espedientea bideratzeko fase batzuetan eta besteetan hirigunea garatzeko egin ditugun proposamenak konparatzeko.

4. Aukeren ingurumen-azterketa kapituluan, indarrean dagoen agirian (behin betikoan, 2007koan) egindako proposamenen eta azkenean testu bateginean onartutako proposamenen ingurumen-azterketa konparatiboa egingo dugu.

1.3.1. BIZITEGI-GARAPENERAKO AUKERAK

Aukera batzuk oso zaharrak dira, eta Hernaniko Plan Orokorraren esparruan proposatu zituzten. 1954an onartu zuten plan hori, eta hirigunea hedatzeko helburua zuen argi eta garbi. Planak hainbat gune hiritargarri proposatzen zituen, eta, mende erdi geroago, jarduketa-proposamen bihurtu dira proposamen horiek.

Bizitegi-garapenerako onartutako jarduketen artean, nabarmentzekoak dira hauek, beren hedadura eta lurraldean duten eragina direla medio: etxebizitzak kokatzeko orientazio egokia duten (hegoaldera, ekialdera ematen duten) mendi-hegal behereetan lurzoru gehiago okupatzeko jarduketak eta aurrez zeuden guneen gaineko eremuak (Sagastialde, Villas, Santa Barbara). Beste jarduketa aipagarri batzuek, berriz, egungo hiri-bilbeko hainbat eremu (Txantxilla, Florida) birgaitu edo partzialki birkalifikatzea dute helburu. Azkenik, beste jarduketa batzuek hedadura txikiagoa dute, baina garrantzizkoak dira egitura orokorraren koherentziari eusteko; aurrez zeuden guneetan (Antziolan, Etxeberrin, Elizatxon, Portu-Karabelen, Martindegin, Ereñozun) oinarritzen dira, eta hiri-bilbeko hutsuneak okupatu edo mugak zabaltzen dituzte.

Proposatutako etxebizitza berrien kopurua nabarmenki aldatu da berrikuspena bideratzeko faseetan barrena. Hasiera batean onartutako agiriak (2004koak) 4.347 etxebizitza berri proposatzen zituen. Alabaina, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailak txosten bat argitaratu zuen 2005eko martxoaren 29an, eta zera kalkulatu zuen: “2.274 etxebizitza berriko eskaintza gehienez ere, kopuru hori nahikoa baita 2005 eta 2013 arteko behar endogenoei erantzuteko”. Eskaintza gehiegizkoa zen, beraz, eta behin-behinean onartutako agiriak (2007koak) 2.748 etxebizitza berrira ekarri zuen. Azkenean, behin betiko onartutako agiriak (2007koak) 2.857 etxebizitza berriko erreserba ezarri zuen. Zortzi urteko indarraldia du agiri horrek, eta 357 etxebizitza berri proposatzen ditu urteko; hau da, aurreikuspena % 25 inguru (538 etxebizitza) handiagoa da Lurralde Antolamendu Sailak adierazitako gehieneko kopurua baino.

Testu bateginak 2.693 etxebizitza berriko sabaia ezartzen dio bizitegi-garapenari. Erreserba hori txikiagoa da onartutako berrikuspen-proiektuak (2007koak) onartzen duena baino, 164 etxebizitza gutxiago proposatzen baititu, eta hori bat dator hazkunderik handieneko urteetako (1996 eta 2000 arteko eta 2001 eta 2005 arteko) batez besteko eraikuntza-erritmoarekin eta 2002ko hirigintza-txostenaren emaitzekin: batetik, urteko 128 eta 130 etxebizitza egin zituzten, hurrenez hurren, aipatutako aldietan, eta, bestetik, txostenak aholkatu zuen 900 eta 1.400 etxebizitza arteko (urteko 113 eta 175 etxebizitza berri arteko) bizitegi-erreserba antolatzea zortzi urterako.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da aipatutako faseen artean etxebizitzak egiten jarraitu dutela. Aurrez zeuden etxebizitzatzat hartzen ditugu etxebizitza horiek, eta, hortaz, aipatutako kopuruak analizatu beharra dago, hori kontuan izanik. Alde horretatik, arau subsidiarioen berrikuspena onartu ondotik (2007tik), 238 etxebizitza egiten ari dira Elizatxo, Txantxilla, Latsunbe eta Ereñozu azpieremuen artean: zehazki, 9 Elizatxon, 190 Txantxillan, 15 Latsunben eta 24 Ereñozun. Horrenbestez, proposatutako etxebizitzen egiazko kopurua 2.455ekoa da. Urteko 150 etxebizitzako eraikuntza-erritmora ekartzen badugu, datozen 16 urteetarako bizitegi-garapena ziurtatzen du aurreikuspen horrek.

Planeamendu orokorra gauzatu ondoren, 10.228koa izango da Hernaniko etxebizitza guztien kopurua: 7.535 etxebizitza 2009ko abenduaren aurrekoak izango dira eta hirigunean egongo dira, eta 2.693 etxebizitza, berriz, berriak izango dira, testu bateginak proposatutakoak. Kopuru horiek hasiera batean onartutako agiriak eta behin-behinean onartutakoak proposatzen zituztenen antzekoak dira, agiriok 10.153 eta 10.037 etxebizitza proposatzen baitzituzten guztira hurrenez hurren, baina etxebizitzak 16 urtean egingo dituzte zortzi urtean egin beharrean.

Aipatutako faseen arteko desberdintasunik aipagarriena etxebizitza horiek egiteko azaleraren ingurukoa izan da: hasiera batean onartutako agiriak 192 ha kalifikatzen zituen guztira bizitegitarako; arau subsidiarioen berrikuspenak, berriz, 161 ha; eta testu bateginak, azkenik, 120 ha.

Arau subsidiarioak berrikusteko prozesuan beherantz jo dute dentsitate txikiko bizitegi-garapenerako proposamenek. Hasieran (aurrerakinean, 1999an), Villaseko, Etxearreko, Santa Barbarako eta Sorgintxuloko sektore hiritargarrietan lurzoru-kontsumo handia zekarten proposamenak egin zituzten: hektareako 15 etxebizitza Viilasen, 12 Etxearren, 8 Santa Barbaran eta 15 Sorgintxulon. Ondoko faseetan, berriz, proposatutako dentsitatea handitu zuten: hasiera batean onartutako agiriak (2004koak) eremu horietarako dentsitate handiagoa (hektareako 40 etxebizitzakoa Villasen, 30ekoa Etxearren, 40koa Santa Barbaran eta 45ekoa Sorgintxulon) proposatu zuen, baina ez zituen txikitu eremuak, eta bizitegien eskaintza nabarmen handitzea ekarri zuen horrek. Ildo berean, arau subsidiarioen berrikuspen-agiriak (2007koak) 41,2 ha xedatzen zituen garapen mota horretarako. Testu bateginak, azkenik, 29,21 ha-ra mugatu du bizitegitarako azalera, hau da, eskubide finkatuen arabera posible den neurririk txikienera.

Arau subsidiarioak berrikusteko prozesuan, bizitegi-garapenak kokatzeko hainbat aukera bazterrean gelditu dira azkenean, edo neurri berriak proposatu dituzte. Lurraldean zuten eragina dela medio, nabarmentzekoak dira proposamen hauek:

- Galarretan bizitegi-gune bat garatzeko proposamena (hasiera batean onartutako agiria, 2004koa) eta hiri-bilbetik bereiz jarduera ekonomikodun bizitegi-gune bat sortzekoa (behin-behinean onartutako agiria, 2007koa). Kokalekuaren estrategikotasuna dela eta, jarduera ekonomikoetarako erabiliko da dena.

- Etxearreko mendi-hegalean bizitegi-gune bat garatzeko proposamena (hasiera batean onartutako agiria, 2004koa) eta Antziolako ibarrean bizitegi-gune bat garatzekoa (behin-behinean onartutako agiria, 2007koa). Antziola eta Galarreta lotzen dituen errepidean oinarritzen ziren biak, baina neurri berriak proposatu dituzte, eta Antziolan aurrez zegoen gunean oinarritutako garapen txikiago batera mugatu dituzte bizitegi-guneak.

- Portu inguruan aurrez ikusitako lurzoru-okupazioa ere nabarmen murriztu da, eta, azkenean, gunea bi muturretan (Portun eta Karabelen) zabaltzera mugatu da bizitegi-guneak garatzeko proposamena. Inguru horretan arrisku handia dago Urumea ibaiaren ibarra urak har dezan, baina, horri esker, landa-lurzorua izaten jarraituko du. Aipatzekoa da Portun bizitegi-guneak garatzeko hasierako (2004ko) proposamena, 848 etxebizitza berri egitea xedatu eta Portu edo Etxolaberri ubidearen 130 metro estaltzera behartzen baitzuen.

- Santa Barbarako mendi-hegalean aurrez ikusitako bizitegi-garapenari eutsi diogu, baina Sorgintxulorekiko mugan dagoen eremuan bakarrik, eta alde batera utzi dugu hiri-bilbea hegoalderantz, Urnietako udal-barrutiraino zabaltzeko hasierako proposamena (hasiera batean onartutako agiria, 2004koa).

1.3.2. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO GARAPENERAKO AUKERAK

Desberdintasun handiak izan dira jarduera ekonomikoetarako garapenen aukeren artean ere: bai jardueren tipologiaren ikuspegitik, bai lurzoruen okupazio berrien eta proposatutako kokalekuen ikuspegitik.

Aztertutako azalerei dagokienez, hasiera batean onartutako testuak 143 ha-ko azalera proposatzen zuen jarduera ekonomikoetarako; behin-behinean onartutako agiriak, 163koa; eta arau subsidiarioen berrikuspenak (2007an onartutakoak), 160koa. Testu bateginak, berriz, 153 ha-ko azalera xedatzen du.

Lurraldean eta esparru sozioekonomikoan duen garrantzia dela medio, nabarmentzekoa da Galarretan industria- eta teknologia-ardatz bat sortzeko proposamena, aurrez zeuden industrialdeak birgaitzen baititu, hiritartuta dauden

eremuen eta A-8 autobidearen arteko hutsuneak betetzen baititu eta hegoalderantz egiten baitu, Sorgintxulo auzoaren mugetaraino.

Jarduketa horrek zuzeneko lotura du hiri-bilbean (bereziki, Florida auzoan) bakartuta gelditu diren industrialde zaharkituak zaharberritu eta birgaitzearekin. Azkenean, aurreko faseetan planteatutako aukerak (eremu osoa birgaitu eta bizitegitarako erabiltzeko proposamena) alde batera utzi, eta erabilerak (bizitegi-garapen eta jarduera ekonomiko bateragarriak) nahastea erabaki dugu. Aurrez zegoen industria-lurzoruaren zati bat (3,7 ha) bakarrik birkalifikatu dugu bizitegitarako, arrazoi hauek direla medio: Bide Sistema Orokorraren beharrak, hirigunea jasangarritasun-printzipioekin (lehengoratzearekin, lurzoruaren okupazioa arrazionalizatzearekin, Mugikortasun Planarekin) bat birmoldatzeko beharra eta aurrez zeuden jardueren eta bizitegi-erabilera mugakideen arteko bateraezintasuna. Kaltetutako enpresak industrialde mugakideetara eta Estubegi sektorean (Galarretan) sortuko den industrialde berrira lekualdatzea proposatzen du testu bateginak.

Jarduera ekonomikoak kokatzeko beste proposamen batzuek Zikuñagako eremu txikiagoetan (Andolan), Martindegin, Epelen eta Zubiondo industrialdean dute eragina. Oro har, Urumea ibaiaren ibarreko industrialdeak (Epele, Ibarluze, Eziago, Zikuñaga, Ibaiondo, Zubiondo eta Martindegi) finkatu ditugu.

Arau subsidiarioak berrikusteko prozesuan alde batera utzitako proposamen artean, nabarmentzekoak dira hauek, beren hedadura eta lurraldean eta ingurumenean duten eragina direla medio:

- Altzuetako ibarrean lurzorua jarduera ekonomikoetarako okupatzeko proposamena. Hasiera batean onartutako agiriak (2004koak), behin-behinean onartutakoak (2007koak) eta behin betikoak (2007koak) egiten dute proposamen hori, baina testu bateginak xedatzen du landa-lurzorua izaten jarraitu behar duela Urumea ibaiaren ibarreko eremu horrek, eta bereziki babestu beharrekotzat sailkatzen du, arrazoi hauek direla medio: Urumea ibaiaren zati bat “LIC Urumea ibaia” izendatu izana, urak hartzeko arriskua eta eremuak nekazaritzaren eta paisaiaren ikuspegitik duen balioa.

- Akerregiko meandroan industrialde bat sortzeko proposamena. Izapideen hasierako faseetan (aurrerakinean, 1999an) egin zuten proposamena, baina ondoko agiriek ez zuten barnean hartu. Hain zuzen ere, aurrerakinak proposatzen zuen meandroa birkalifikatu eta Urumea ibaiaren bidea aldatzea, mozketaren bidez; hartara, industria-pabiloiak koka zitezkeen ibaiaren bide berriaren eta abiadura handiko trenarentzat proiektatutako bidearen artean. Eremu horrek, ordea, ezaugarri hidrauliko bereziak ditu, eta, horregatik, bereziki babestu beharrekotzat hartzen du testu bateginak. Orobat, zera xedatzen du testu bateginak: eremua erreserbatzea, administrazio hidrauliko eskudunak mozketa lehorra egin dezan, urak meandroan gora dauden hiriguneak hartzeko arriskua txikiagotzeko. “Urumea ibaiaren bokalearen eta Altzueta gunearen (Hernani) arteko zatiari dagozkion azterketa hidraulikoa eta antolaketakoa” proiektuaren barnean dago jarduketa hori —Gipuzkoako Uren Lurralde Zerbitzuak idatzi zuen azterketa hori, eta 2008ko urtarrilaren 29an onartu zuten, URA Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez—.

1.3.3. MUGIKORTASUN/IBILERRAZTASUNERAKO ETA GARRAIO-AZPIEGITURETARAKO AUKERAK

Mugikortasun/ibilerraztasunaren eta garraio-azpiegituren alorrean ere desberdintasun handiak izan dira izapideen fase batzuetan eta besteetan egindako proposamenen artean. Esan bezala, aldaketak izan dira udalez gaindiko azpiegituren plangintzan eta udal-planeamendua egokitu beharra egon da horregatik, baina, gainera, bestelako proposamenak ere aztertu ditugu berrikuspen-prozesuan, hala nola hauek:

- Hernani iparraldean, Galarreta eta Martindegi artean saihesbidea egiteko proposamena. Hasiera batean onartutako berrikuspen-agiriak eta behin-behinean onartutakoak egiten zuten proposamen hori, baina prozesuaren azken faseetan alde batera gelditu da azkenean.

- Mendebaldean, Sorgintxulo eta Santa Barbara artean saihesbidea egiteko proposamena. Donostiako Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerakinak egiten du proposamen hori, testu bateginak bere egiten du, eta Mugikortasun Jasangarrirako Hernaniko Planak baliozkotzen du —testu honen prestakuntzaren esparruan osatu dute Mugikortasun Jasangarrirako Hernaniko Plana—. 1.200 metro linealeko bide berria da, 700 metro lineal Santa Barbara mendiaren adarren azpian egiten dituena, eta hau du helburu: egungo zeharbideko (GI-2132 errepideko) zirkulazioa arindu eta zeharbidea hiri-kale bihurtzea. Horretarako, auzo mugakideetan (Santa Barbaran, Arrigoainen, Elizatxon, Lizeagan, Txantxillan, Karobietan…) eragina duen oztopo funtzionala kendu beharra dago, eta GI-131 errepidearen (Urumeako autobiaren) eta N-1 errepidearen (Errekalde) artean zirkulatzeko baldintzak hobetu.

- Hiri-bilbean motordun ibilgailuen zirkulazioa berrantolatzeko proposamena. Aipatutako mugikortasun-planetik sortu da proposamen hori, eta testu bateginak bere egiten du. Hain zuzen ere, hiriko bide-sare nagusia, bigarren mailako hiriko bide-sarea eta zirkulazio mugatuko areak sortzea proposatzen du testu bateginak. Berrantolaketa horri esker, orobat, kaleak birdiseina ditzakegu eta motorrik gabe ibiltzen direnentzako

(oinezkoentzako eta txirrindularientzako) bide-sare bat sor dezakegu. Horren guztiaren osagarri, besteak beste, hirigunearen sarreran aldirietako aparkaleku bat egiteko proposamena dugu. Karabel-Landare inguruan egongo litzateke aparkaleku hori, Renferen geralekuaren inguruan, eta igogailu batek lotuko luke erdigunearekin.

Testu bateginak proposamen-multzo bat hartzen du barnean. Aipatutako planak ezarritako eskematik sortu dira proposamen horiek, eta espedienteko *A. Memoria* agiriko *10.6. Mugikortasuna* atalean ageri dira, baita dagozkion planoetan ere.


1.3.4. LANDAGUNEAK ANTOLATZEKO AUKERAK

Landa-lurzoru ez-hiritargarriaren antolamenduan ere izan dira berrikuspen-agiriaren egokitzapenak, gune babestuak (natura-parkeak, hezeguneak, arriskuan dagoen fauna, paisaia…) babesteko lurraldeko antolamendu-plan berrietara egokitu baitugu agiria. Orobat, kontuan hartu ditugu ingurumen-gaien eskumena duen agintaritzak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostenean ezarritako xedapenak.


Oro har, prozesuaren hasierako faseetan proposatutako aukerek ez zituzten kontuan hartzen lurraldearen antolamendurako artezpideetatik eta une horietan bideratzen ari ziren beste plan batzuetatik (Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planetik, arriskuan dauden espezieak kudeatzeko planetatik) sortutako xedapenak. Are gehiago, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak ingurumenaren gaineko eraginari buruz egindako behin betiko txostenak zioenez, berrikuspen-agiriak (2007koak) bere egiten zuen hasierako faseetan ezarritako landa-lurzoruaren antolamendua, baina aldaketak behar zituen, neurri handiagoan egokitzeko lurraldearen antolamendurako artezpideetan xedatutako sailkapenera; orobat, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioak (hasiera batean onartutako agiriak) LEHa antolatzeko egindako proposamena eta beste xedapen espezifiko batzuk espedienteko gainerako agiriei erantsi beharra omen zegoen.

Dagokion atalean azalduko dugunez, testu bateginak kontuan hartzen ditu xedapen horiek eta, gainera, babestuta egongo diren areak, ingurumenaren ikuspegitik balio handiagoa dutenak zabaltzen ditu. Hartara, planeamenduaren babespean kudeatu ahal izango ditugu area horiek. Besteak beste, nabarmentzekoak dira jarduketa hauek:

- Udalerriko lurzoru guztiaren % 91 lurzoru ez-hiritargarria izatea.
- Landa-lurzoruaren % 31 (zehazki, 1.126 ha) bereziki babestu beharrekotzat kalifikatzea. Planetako eta udalez gaindiko legediko xedapenen zein horiek osatzen dituzten udal-proposamenen emaitza da hori.
- Urumea ibaiaren ibarreko lurzoruak landa-lurzorua izaten jarraitzea. Babes berezia duten areei eremu interesgarriak gehitzen dizkie testu bateginak, hala nola Akerregiko meandroa, Portuko ibarra eta Altzuetako ibarra. Berrikuspen-prozesuak iraun duen bitartean, area horietan bizitegi- edo industria-garapenak kokatzea proposatu dute, baina horiek guztiak bateraezinak dira eremua babestearekin, interes berezia baitu ingurumenaren ikuspegitik eta ezaugarri hidrauliko bereziak baititu.
- Gainjarritako baldintzak kontuan hartzea eremu jakin batzuen hiri-antolamenduan. Eremu horietan, beharrezkoa da jarduerak eta erabilerak modulatzea, haien ezaugarri bereziak (bai koalifikazioari, naturaren edo kulturaren ikuspegitik duten balioari dagozkionak, bai arrisku natural edo antropiko mota jakin batzuei dagozkienak) kontuan hartuz.
- Berrikuspen-agiriak Osiñaga eta Lastaola izendatzen dituen bi landaguneak barnean ez hartzea. Izan ere, bietako batek ere ez ditu betetzen indarrean dagoen lurzoruari eta hirigintzari buruzko legeko 29.1. artikuluak landagunetzat har ditzagun xedatzen dituen hirigintza-baldintzak.



Hasiera batean onartutako agiria (2004). Antolamendu-proposamena.



Behin betiko onartutako agiria (2007). Hirigunea sailkatzeko proposamena.

1.4. ARAU SUBSIDIARIOAK BETETZEKO FASEAK

Testu bateginak beharrezko eta egoki deritzo planeamendu orokorrerako tresnan proposatutako hiri-antolamenduaren exekuzioa programatu eta aurrez ikusitako garapenen ekonomia- eta finantza-arloko bideragarritasuna egiaztatzeko xedapenak sartzeari. Arau subsidiarioak berrikusteko proiektuak (2007an onartutakoak) ez zekarren halako xedapen eta egiaztapenik, baina espedienteko D agirian zehaztu dugu programazio hori, “Jarduketa-programa. Ekonomia- eta finantza-arloko bideragarritasun-azterketa” izenburukoan.

Eskubideak finkatu ditu 2007an arau subsidiarioak berrikusteko araudia argitaratzeak, eta horrek ekarri du testu bateginak ahalmen mugatua izatea berrikuspen horretan xedatutako gehiegizko bizitegi-hazkundea txikitu eta, hirigintza- eta jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta, aldirietako bizitegi-eremu jakin batzuk deuseztatzeko. Arazo horri aurre egiteko, bizitegi-lurzoruaren erabilera arautu eta antolatu behar izan du testu bateginak, jarduketa-programaren bitartez; horretarako hainbat lehentasun eta epe xedatzen ditu jarduketa-programak.

Agiriak barnean hartzen ditu aipatutako eskubide finkatuak, eta, baieztatzen duenez, onartutako antolamenduak proposatzen duen bizitegi-garapenari esker, “16 urtetik gorako denboraldian aurrez ikustekoa den hazkunde-eskari arruntari erantzun diezaiokegu”. Orobat, kontuan izan beharra dago egungo egoera ekonomikoak zalantzak sortzen dituela administrazio publikoetan eta partikularrengan.

Testuinguru horretan, hiri-antolamenduaren exekuzioa programatzen du proiektuak, eta hiru epe ezartzen ditu, bata bestearen atzean: lehen bi epeek launa urte irauten dute, eta bada beste epe zehaztugabe bat. Hain zuzen ere, jarduketa hauek egingo ditugu epe zehaztugabe horretan: onartutako hirigintza-estrategiaren arabera, lehenbiziko zortzi urteetan beharrezkoak edo komenigarriak ez direnak eta denborazko esparru jakin batean sartzen zailak direnak, Udalak edo beste administrazio batzuek aurrekontua izatearen, diru-laguntzen, udalez gaindiko erakundeen diru-laguntzen edo hirigunea birmoldatzeko prozesuen mendean baitaude.

Planeamendu orokorra indarrean sartu eta zortzi urteko epean jarduketa-programaren berrikuspena egin eta bideratu beharra xedatzen du programak berak, xedapenak berretsi, egokitu edo aldatzeko.

Programak ez du arautzen udalez gaindiko komunikazio-sistema orokorren exekuzioa, erakunde eskudunek onartzen duten programazioaren mendean baitaude lanok, hala nola abiadura handiko trena, ADIFen geltokia eta geralekua hobetzeko lanak, hegoaldeko saihesbidea (GI-131 errepidea) eta mendebaldekoa (GI-2132 errepidea) zatitzekoak eta txirrindularientzako hiriarteko sarea (Txalaka eta Portu artekoa) egitekoak.

Halaber, programak ez du arautzen gaur egun dagokien jarduketa-programa duten hiri-garapenen exekuzioa, arau subsidiarioen aldaketek, garapen-planeamenduek, onartu dituzten edo bideratzen ari diren urbanizatzeko jarduketa-programek eta Udalak sinatutako hirigintza-hitzarmenek zehazten baitute hura. Horrelakoak dira eremu hauetan aurrez ikusitako garapenak: Sagastiyan (SG.04 eta SG.05 areetan), Floridan (FL.08 arean), Galarretan (GA.05, GA.06, GA.07, GA.08 eta GA.09 areetan), Txantxillan (TX.01 arean), Latsunben (LA.03 arean), Martindegin (MA.02 arean), Karabelen (PK.02 arean), Villas-Transpacarren (VI.05 arean) eta Arrigoainen (SB.03 arean). “Lehentasunezko jarduketa integratuak” dira horiek guztiak, eta berehala egin behar dituzte.

Lau urteko lehenengo epean, programak hainbat jarduketa integraturi ematen die lehentasuna. Hiriguneko eremuei dagozkie jarduketa horiek guztiak, eta antolamendu-lanak egin eta zirrikituak betetzera behartzen dute. Egiturazko helburu estrategikoak lortzearekin lotuta daude, eta eremu hauetan egingo ditugu: Etxeberrin (ET.04 arean), Floridan (FL.07 arean), Karobieta-Atsegindegin (KA.03 arean), Lizeagan (LI.03 arean) eta Martindegin (MA.03 arean), bizitegitarako; Epelen (EP.02 arean), jarduera ekonomikoetarako; eta Martindegin (MA.01 arean), zerbitzu-azpiegituretarako.

Halaber, lehen lau urteetan gune libreen sistema orokorrak eta lokalak, ekipamendu komunitarioko sistema orokorrak eta lokalak eta komunikazio-sistema orokorrak eta lokalak osatzeko jarduketak ere xedatzen ditu programak:

- Ispizua gune publikoa – parkea (CH.01), Politena parkea (ET.04), Nisuma etxeko hiri-lorategia (SG.03).
- Transpacarreko udal-zentroa (SG.04) ordezkatzea.
- Bidea eta tunela Florida eta Landare lotzen dituen trenbidearen azpian, biribilgune berria Akerregin, aldirietako aparkalekua Karabelen, zubi berria Karabelen, Karabel inguruko bidea.

Lau urteko bigarren eperako programatutako jarduketak ere lur hiritar hiritargarrian egingo ditugu. Sistema orokorrak osatuko dituzte, eta bizitegi-garapenek zein jarduera ekonomikoek eratuko dituzte: CH.03, FL.09, VI.06, EL.02, PK.06 eta OS.02 areetan, bizitegi-garapenek, eta ZE.09 arean, jarduera ekonomikoek. Zehazki, jarduketa hauek programatu ditugu epe horretarako: Atzieta parkea (CH.03) zabaltzea, Mendi Mendian parkea (VI.06) zabaltzea, Leoka gune publikoa – parkea (CH.03) sortzea, Ereñozun eta hilerrian ekipamendurako partzelak eskuratzea, Elizatxo eta Lizeaga artean hiri-igogailu bat egitea, Portun trenbidearen peko tunel bat egitea.

Gainerako bizitegi-garapenak egungo hiri-bilbearen aldirietako lurzoru hiritargarriari dagozkio, eta Antziolan (AN.07 arean), Sagastialden (SG.06 arean), Santa Barbaran (SB.04 arean) eta Portun (PK.03 arean) kokatuko dira. Jarduketa-programak xedatzen duenez, ezingo ditugu egin planeamendu orokorra behin betiko onartu eta zortzi urte igaro arte gutxienez.

Sistema orokorren eta sistema lokalen barneko beste jarduketa batzuk epe zehaztugabean programatu ditugu, hala nola Mendi Mendian parkea zabaltzea, Antziolan; Zikuñaga-Eziagoko erriberako pasealekua egitea; Latsunbeko kultura-etxearen eta musika-eskolaren eraikuntza; hiri-igogailuak paratzea Larramendi eta Sandiusterri artean, Urbieta eta Karobieta artean eta Latsunbe eta Karobieta artean; trenbide gaineko pasabidea egitea Bestizanen (Floridan); hiriguneko bidegorri-sarea sortzea; eta Mugikortasun Jasangarrirako Planetik sortutako beste zenbait jarduketa.

1.5. ARAUEN AGIRIAN ANTZEMANDAKO INFORMAZIO-HUTSUNEAK

Ez dugu antzeman informazio-hutsunerik.

1.6. PARTE-HARTZE PUBLIKOA: PARTAIDETZA-MAILA ETA ERABILITAKO PROZEDURA

1998an hasi zen espedientearen bideratzea, eta ordutik gaur arte hainbat fase izan dira partaidetza-mailaren eta erabilitako prozeduraren ikuspegitik, parte-hartzearen unean uneko tratamenduaren arabera. Alde horretatik, gogoan izan beharra dago prozesuak iraun duen bitartean hainbat aldaketa izan direla udalbatzan, 1993ko, 2003ko eta, azkenik, 2007ko udal-hauteskundeen ondorioz.

Jarraian, herritarren parte-hartzearekin zerikusia duten gertakari nagusiak laburbilduko ditugu.

1.6.1. LEHEN ETAPA (1998-1999)

1998an aurkeztutako hirigintza-txostenean oinarrituta, arau subsidiarioen berrikuspenaren aurrerakina prestatu zuten, eta 1998ko abenduan aurkeztu.

Agiria hasiera batean onartu ondoren, 45 egunez jendaurrean jartzea erabaki zuten. Espedientearekin bat, lehen fase horretan “agiria jendaurrean azaltzeko jardunaldiak eta kaltetutako herritarrekiko zuzeneko elkarrizketak antolatu zituzten”, eta Hernaniko herritarrek eta alderdi politikoek 194 iradokizun aurkeztu zituzten orduan. Iradokizunak aztertu, eta “Hernaniko planeamendurako arau subsidiarioen berrikuspenari buruzko iradokizunen txostena" agirian bildu zituzten. 1999ko martxoan aurkeztu zuten txostena, eta, hilabete geroago gutxi gorabehera (zehatz-mehatz, 1999ko apirilaren 20an), Hernaniko arau subsidiarioen berrikuspen-agiri orokorra prestatzeko irizpide eta proposamen orokorrak (aurrerakina) onartu zituen Udalbatzak.

1.6.2. BIGARREN ETAPA (1999-2003)

1999ko ekainean, arau subsidiarioak berrikusteko agiria aurkeztu zuten, baina Udalak ez zuen hasiera batean onartu ere egin. 1999ko azaroan, tokiko gobernu-batzorde berriak erabaki zuen onartzeko uztea berrikuspen-proiektua bideratzeko erabakia, hirigintza- eta zuzenbide-txosten baten esperoan. 2003ko maiatzean, *2002 txostena* delakoa aurkeztu zuten, eta txostena jendaurrean egon zen 2003ko irailera bitartean.

2003ko hauteskundeen ondoren, udal-gobernua berriro aldatu zen, eta udalbatza berriak aurreko proiektuari heldu zion.

1.6.3. HIRUGARREN ETAPA (2003-2007)

2004an, 1999an aurkeztutako agiriari heltzea erabaki zuten. Eguneratu egin zuten, baina oinarriei eta irizpideei eutsi zieten. Udalbatzak hasiera batean onartu zuen agiria, 2005eko martxoaren 10ean, eta horren ondoren jendaurrean egon zen beste hiru hilabetez, 2005eko uztailaren 14ra arte.

Agiria jendaurrean egon zen bitartean, 834 alegazio aurkeztu zituzten, eta, 2006ko martxoaren 30eko osoko bilkuran, hasiera batean onartutako agiriaren kontra aurkeztutako alegazioei erantzun zieten. Batzuk onartu egin zituzten eta, orobat, beste aldaketa asko egin zituzten proposatutako antolamenduan; adibidez, hasiera batean aurrez ikusitako 4.500 etxebizitzetatik 1.500 kendu zituzten. Horrek guztiak funtsezko aldaketak eragin zituen 16 eremutan, eta, hortaz, agiria jendaurrean jarri zuten beste hilabete batez. Epe horretan, 118 alegazio aurkeztu zituzten.

2006ko irailaren 15ean, arau subsidiarioen berrikuspenaren testu bategina (2006ko uztailekoa) onartu zuen Udalbatzak, behin-behinean. Ondoren, aldaketak egin behar izan zituzten agirian, eta osatu egin behar izan zuten, administrazio publikoaren (Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren, Kosta Zuzendaritza Nagusiaren, Uraren Euskal Agentziaren, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzarraren…) arloko hainbat

txostenetara egokitzeko. Aldaketa horien ondorioz, agiri hauek prestatu behar izan zituzten: 2006ko irailaren 15ean behin-behinean onartutako arau subsidiarioen proiektuko hutsen zerrenda, arau subsidiarioei buruzko dokumentazio gehigarria Kosta Zuzendaritzarentzat, 2006ko irailaren 15ean behin-behinean onartutako arau subsidiarioen proiektuaren aldaketa eta hutsen zerrenda berria eta, azkenik, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren eranskina.

2007an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena argitaratu zuen.

2007ko ekainaren 12ko bileran, arau subsidiarioen berrikuspena behin betiko onartzea erabaki zuen Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak, eta hainbat baldintza ezarri zituen, zegokion testu bateginak bete zitzan. 2007ko abuztuaren 21eko GAOn argitaratu zuten erabaki hori.

1.6.4. LAUGARREN ETAPA (2007-2010)

2008ko uztailaren 24an, Hernaniko hirigintza-planeamendurako arau subsidiarioak berrikusteko prozesuaren azken fasea osatzeko esparru-akordioa onartu zuen Udalbatzak, eta, onespen horri erantzunez, testu bategina prestatzeari ekin zion Udaleko Hirigintza Bulegoak.

2009ko urtarrilean, ekainean eta abenduan antolatutako azalpen-saioetan, Udaleko Hirigintza Bulegoak testu bategina osatzen duten zatiko agiriak, agiri grafikoak eta idatzizko agiriak eman zizkion Udalbatzari.

2010eko maiatzaren 16an, osoko bilkuran testu bategina hasiera batean onartzeko proposatzea erabaki zuen Udalbatzak. Testu bateginak barnean hartzen zituen hauek: Ezker Batuko udal-taldearen proposamenak (agiriak proposatzen zuen antolamendua hobetzekoak); 2007tik aurrera Udalak partikularrekin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin, Hernaniko Industrialdearekin, Donostiako Teknologi Elkartegiarekin, Aizkibel SArekin, Etorlurrekin… sinatutako hirigintza-hitzarmenetatik sortutako xedapenak; eta Udalbatzak hainbat gairi (Florida auzoa antolatzeari, hilerriaren eta Urumeako autobiaren arteko eremua antolatzeari, Latsunbe eta Antziola arteko bide-sareari eta Hernani eta Ergobia artean motorrik gabe ibiltzen direnentzako bide bat sortzeari) buruz onartutako ebazpenetatik sortutakoak.

Testu bateginaren agiria osatu ondoren, Hirigintzako Aholkularitza Batzordean aurkeztu eta jendaurrean jarriko dute, aurreikuspenei jarraituz. Orobat, agiria herritarren artean ezagutarazteko programa bat egingo dute. Gaur egun, programa hori diseinatzen ari dira, eta jarduketa hauek hartuko ditu barnean:

- Agiria aurkezteko hitzaldiak.
- Agiria ezagutarazteko argitaratuko duten udal-aldizkaria etxez etxe banatzea.
- Hirigintza-proposamen nagusiak kultura-etxean erakustea.
- Hitzordua egiten duten bisitariei (partikularrei, elkarteei, kaltetuei…) udal-aholkularitza ematea.
- Agiria Interneten (Udalaren web orrian) argitaratzea espedientea bideratu bitartean.

2. LURRALDE-ESPARRUAREN ETA ESPARRU FISIKOAREN ANALISIA

Kapituluaren hasieran aztertuko dugu zer lurralde-egituraren barnean sartzen den Hernaniko hirigintza-planeamendua, eta lurraldea antolatzeko planen, arloko antolamendu-planen edo ingurumena babesteko planen barnean lurraldearen antolamenduan nolanahiko eragina duten xedapenak nabarmenduko ditugu.

Kapituluaren bigarren zatian udal-barrutiko ingurune fisikoaren diagnostiko xehea egingo dugu, eta testu bateginean onartutako proposamena egiteko aztertu ditugun ingurumen-elementuak eta -aldagaiak nabarmenduko ditugu.

Aurreko agirien aldean, berregokitu eta luzatu egin dugu kapitulu hau, hauek kontuan izanik: ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostenaren ebazpena, hainbat administrazio eskudunek egindako arloko txostenak eta espedientea bideratu bitartean informazioan, plangintzan eta lurralde- eta ingurumen-legedian izandako aurrerapenak eta aldaketak.

2.1. BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARREKINTZAREN ANALISIA

Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskineko 2. paragrafoak xedatzen duenarekin bat, jarraian zehaztuko dugu zer planek eta programak duten eragina aztertutako eremuan edo zer planek eta programak izan dezaketen eragina arau subsidiarioen berrikuspenak antolatutako gaietan. Orobat, plan, programa eta lege horien irizpideak, helburuak eta agindu edo arau lotesleak laburtuko ditugu.

2.1.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bitartez, behin betiko onetsi zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamendurako artezpideak. Lurraldearen antolamenduari eta arlokoari buruzko gainerako agiriak dokumentatu eta idazteko erreferentzia-esparrua eratzen dute artezpideok.

Hauek dira lurraldearen antolamendurako artezpideen helburuak: jarduera ekonomikoak eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesuak arautzea eta arloko politikak gauzatu eta burutzeko erreferentzia-esparrua eratzea. Horretarako, lurraldearen antolamendu-eredu bat proposatzen dute, eta hainbat irizpide eta arau ezartzen dituzte, prozesu horiek bideratu eta arautzeko. 20. kapituluak eskualde-egiturak mugatzen ditu, eta Donostiako Eskualde Egituraren barnean sartzen du Hernani.

Xedapen, irizpide eta orientabide orokorrez eta 22. kapituluko (“LAA aplikatzeko arauak” kapituluko) xedapen espezifikoez gain, artezpideek hainbat erreferentzia aipatzen dituzte Donostiako Eskualde Egiturako lurralde-eredua taxutzeko. Hauek dute eragina Hernanin:

- Donostiako, Lezoko, Pasaiako, Errenteriako, Oiartzungo, Astigarragako eta Hernaniko udal-planeamenduak bateratzeko mekanismoak proposatzeak. Hernanirako, zehazki, zera proposatzen dute artezpideek: koherentzia handiagoa ematea Donostiak, Astigarragak eta Hernanik Urumea ibaiaren ibarrean eratzen duten hiriguneari.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeari dagokionez, Lurraldearen Zatiko Planak eta dagozkien lurraldearen arloko planek Andoain-Astigarraga ardatza jarduera ekonomikoetarako areatzat har dezaten proposatzeak
- Proposatutako edo funtsezkotzat hartutako garraio-azpiegituren artean, abiadura handiko trenak, Legazpi eta Irun arteko aldiriko zerbitzuak eta, eskualde-egiturak elkarrekin lotzeko elementua den aldetik, Andoain-Hernani-Oiartzun ardatzak.
- Eskualde Egituraren barneko babestu beharreko elementuen artean, Aiako Harria parkeak. Aisialdirako eremuen artean sartzen dute artezpideek.

2.1.2. DONOSTIAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

Esan bezala, Donostiako (Donostialdeko eta Bidasoa Behereko) Eskualde Egituraren barnean dago Hernaniko udal-barrutia. Donostiako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana hasierako fasean dago, eta fase horrek hamarkada bat iraun du gutxi gorabehera. 2008an, “Irizpide, helburu eta konponbide orokorrak” agiria argitaratu zuten haren esparruan, eta hortik atera dugu jarraian emango dugun informazioa. Nolanahi ere, txosten hau egiten ari garen honetan (2010eko ekainean), agiria laster argitaratzekoa da, hasiera batean onar dezaten.


Donostialdea – Bidasoa Beherea Eskualde Egiturako lurralde-eredua garatzeko antolamendu-irizpideak xedatzen ditu Lurraldearen Zatiko Planak. Oro har, egungo hirigintza-eredua finkatu eta sendotzea proposatzen du, hau oinarri hartuta: “Eskualde Egituran berezko hiri-nortasuna duten hainbat biztanle-gune izatea”. Eskualde Egituraren hazkunde globala ebazteko, “eskualde bakoitzaren proportziozko hedapena” proposatzen du, “bere hiriguneen hirigintza-

egituratik abiatuta". Hala ere, ñabardura bat egiten du irizpide horri buruz: "harrera-ahalmen handiena duten udalen hiri-hedapeneko indizeak gorantz haztatzeko irizpidea, erdialdeko hirigunerik jendeztatu eta dentsifikazio-mailarik handienekoetan hazkunde-inertziak geldiaraztea proposatzen den aldi berean".

Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerakineko antolamendu-proposamenen artean, nabarmentzekoak dira hauek, udalbarrutian duten eragina dela medio:

- Ingurune naturala babestu eta kontserbatzeko eremuak: Aiako Harria natura-parkea, Urumea Ibaia Garrantzi Komunitarioko Lekua, Santa Barbarako urmaela.
- Hiri inguruko parkea: Oriamendi – Santa Barbara.
- Urak har dezakeen Urumea ibaiaren ibarraren antolamendu integratua.
- Paisaiaren ikuspegitik esanguratsuak diren erliebeak kontserbatu eta hobetzea: Santa Barbarako muinoa eta Ibarluze.
- Garraio- eta komunikazio-sarea: abiadura handiko trena, Urumeako autobia, zirkuituko errepidearen Bakero eta Arrigoain arteko mendebaldeko saihesbidea, ibilbide bigunen sarea.
- Bizitegi-garapena. Aurrerakinak hiru eremu proposatzen ditu bizitegi-garapen berrietarako: dentsitate ertaineko (ha-ko 20-60 etxebizitzako) garapen bat Antziola-Sagastialdeko mendi-hegaletan, dentsitate handiko (ha-ko 60 etxebizitzatik gorako) garapen bat Floridako eta geltokiko eremu lauetan, eta dentsitate txikiko (ha-ko 20 etxebizitzatik beherako) garapen bat Jauregi inguruan. Orobat, babes ofizialeko etxebizitzen sustapen intentsiborako hainbat eremu proposatzen ditu: geltokia, Florida, Sagastialde eta Antziola.
- Jarduera ekonomikoak: Intentsitate txikiko enpresa-parke berri bat Galarreta-Jauregi inguruan, industria-erabilerak finkatzeko eremuak (Akerregi-Orbegozoko ibarra) eta jarduera ekonomikoetarako area berriak (Elorrabi-Altzuetako ibarra).

Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerakinak bi antolamendu-eredu proposatzen ditu. Bati *eredu funtzional* deritzo, eta bide- eta trenbide-azpiegituretan eskumena duen erakunde bakoitzak egindako proposamenen emaitza da. Besteari, berriz, *hautabidezko eredu* deritzo, eta aurrerakinaren egileek berek proposatutakoa da. Ondoko irudian bi ereduen araberako proposamenak ditugu.



2. irudia. Donostiako Lurraldearen Zatiko Planeko (aurrerakineko) lurralde-ereduak.

2.1.3. ONARTUTAKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK

Lurraldearen zatiko planek bezalaxe, lurraldearen antolamendurako artezpideak garatzen dituzte lurraldearen arloko planek, eta euskal administrazioen arloko antolamendu-tresnak arautzea dute helburu. Onartutako lurraldearen arloko planen artean, hauek dute eragina Hernaniko hirigintza-planeamenduan:

- EAEko Kantauriko Isurialdeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. 415/1998 Dekretua.
- EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. 41/2001 Dekretua.
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamendua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana. 262/2004 Dekretua.
- EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorra (1999-2010). 250/1999 Dekretua.
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana. 160/2004 Dekretua.
- EAEko Kostaldea Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. 43/2007 Dekretua.

Izapideak hasi dituzte horietako plan batzuk aldatzeko:

- EAEko Kantauriko Isurialdeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa. 2007ko urriaren 29an eta 2008ko apirilaren 2an onartu zuten hasiera batean.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa. 2005eko urtarrilaren 15ean onartu zuten hasiera batean.

2.1.3.1. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana


Ubideen (Urumea ibaiaren eta haren ibaiadar nagusien) ezaugarriak zehazten ditu Lurraldearen Arloko Planak, ingurumen- eta hirigintza-osagaiak eta osagai hidraulikoak kontuan hartuz. Zehatz-mehatz, ibaiadar hauen ezaugarriak zehazten ditu Planak: Oialume, Epele (edo Landarbaso), Usoko, Etxolaberri (Urruzuno), Otsuenea (Arrilimoi) eta Errotaberri (Portu).

Ingurumen-osagaiari dagokionez, “ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak”, “lehentasuneko interes naturalistikoa duten zonetako ertzak” eta “leheneratzeko premia duten ertzak” bereizten ditu Planak. Ondoko irudian ikus dezakegu ingurumen-osagai horretan oinarritutako tarteen banaketa.

Osagai hidraulikoari dagokionez, berriz, udal-barrutian sartzen denetik ibaian behera Etxolaberri (Urruzuno) ibaiadarrarekin bat egiten duen arte, III. mailakoa (100 eta 200 km^2 arteko arro isurlea duen ibai-tartea) da Urumea. Etxolaberri (urruzuno) ibaiadarrarekin bat egiten duen lekutik itsasoratu arte, berriz, IV. mailakoa (200 eta 400 km^2 arteko arro isurlea duen ibai-tartea) da.

Hirigintza-osagaiari dagokionez, azkenik, Planak kontuan hartzen du udalen hirigintza-planeamenduetako sailkapena, eta, horregatik, hirigintza-planeamenduak bideratzean gertatzen diren aldaketen mendean dago ertzen definizioa (“esparru garatuetako ertz”, “hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten esparruetako ertz” edo “hiriarteko komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertz” izatea).

Planeko araudiak atzerapen espezifikoak xedatzen ditu, ingurumen-osagaiaren eta osagai hidraulikoaren arabera zehaztutako kategoriekin eta arro isurlearen arabera zehaztutako ibai-tarteen mailekin bat. Lur naturala aldatzen duen jarduketa orotan (egitura finkoen zein desmuntagarrien nolanahiko eraikuntzan eta instalazioan, lur-berdinketan, lur-mugimenduetan…) aplikatu behar dira atzerapen horiek, kasu hauetan izan ezik: batetik, herri-lanetan eta azpiegituren instalazioan eta, bestetik, kultura-ondarea babesteko behar bezala justifikatutako ekintzetan.



3. irudia. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Ingurumen-osagaia.

2.1.3.2. EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bitartez onartu zuten behin betiko EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Besteak beste, hauek xedatzen ditu dekretu horrek: Planak zer lurzorutan duen eragina; Planaren indarraldia, berrikuspena eta aldaketa; jarduketen erregimen ekonomikoa; trenbidearen aldameneko eremuen babes-erregimena eta erabilera- eta eraikuntza-baldintzak; etab.

Lan honen esparruari dagokionez, abiadura handiko trenak Irun eta Andoain artean egiten duen bidea Urumea ibaiaren haranetik igarotzen da. Ergobiako geltokitik (udal-barrutiaren muga ingurutik) hego-hegomendebaldera darama, Akerregiko meandroa eta ibarra eta Elorrabi-Altzuetako ibarra zeharkatuz, eta Urnietako udal-barrutirantz egiten du ondoren, hegomendebalde-mendebalderantz.

2.1.3.3. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamendua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana

Abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez onartu zuten behin betiko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamendua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana. Jarduera ekonomikoen eta logistikoen hiru gune nagusi bereizten ditu Planak EAEn, eta *jarduera logistikoen zona* deritze. Biztanleriarik handiena biltzen duten eta jarduera ekonomikoen garapen-mailarik handiena duten guneei dagozkie zona horiek, eta horietako bat Donostia eta Bidasoa Beherea arteko eremuak osatzen du. Planak garraio- eta komunikazio-azpiegitura nagusiak sendotzeko aurreikuspenak egiten ditu zona horietarako.

Gune horiez gain, Planak beste hainbat area estrategiko aipatzen ditu, eskualde-egituren buru nagusien inguruek eta komunikazio-korridoreetan zehar dauden korridore espazialek osatutakoak, eta hiriko jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako garapen berriak kokatzeko “lehentasunezko eremutzat” hartzen ditu. Horietako bat Urumeako korridorea da. Eremu horietarako, “ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzoruak antolatu, kudeatu, sustatu eta garatzeko lehentasunezko politika proposatzen da. Era berean, aurriak kentzeko prozesuak bultzatzea eta (…) industria-ehun zaharkituak birmoldatzeko prozesuak bideratzea planteatzen da”. Planak "lehentasunezko intereseko udalerritzat” hartzen du Hernani —xedapen loteslea da hori—, “lehentasunezko eremuari” atxikita dagoen zatiari dagokionez. "Lehentasunezko interesa" duten udalerrietarako, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen hirigintza-arloko antolamendu-, kudeaketa- eta sustapen-politika proposatzen du Planak:

- Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzeko oinarrizko politika.
- Enpresak lekualdatu eta hutsik dauden guneak jarduera berrietarako berreskuratzeko erraztasunak emanez, zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzeko plan berezia.
- Egungo industrialdeak bultzatu, desblokeatu eta sustatuz, industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko plan berezia.
- Planean interes estrategiko orokorrekotzat hartutako guneetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.

Prebentzio gisa, Lurraldearen Arloko Planak nabarmentzen du ekonomia- eta produkzio-jardueren garapenetik babestu beharreko eremuak finkatzea komeni dela, landagunean hirigintza-garapen intentsiboko jarduketak ugaritzea saihesteko. Orobat, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko araudira egokitu beharra azpimarratzen du, jarduera ekonomikoetarako lurzoru hiritargarriko plataforma horizontal berriek eraginik izan dezaten saihesteko.

2.1.3.4. EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorra (1999-2010)

250/1999 Dekretuaren bitartez onartu zuten EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorra, eta 1999-2010 aldirako proposatutako jarduketak biltzen ditu. Hauek dira Hernaniko udal-barrutiko lurraldean eragina duten jarduketak:

- Obra nagusia: azpiegitura berriak
    - Donostiako bigarren saihesbidea (A-8): G.1, 1-2 kodea. 2003 eta 2007 artean egitekoa. Gaur egun, egiten ari dira.
    - Urumeako autobia (Martutene-Hernani): G.1, 1-5 kodea. 1999 eta 2001 artean egitekoa. Burutua.
    - Hernaniko hego-ekialdeko saihesbidea (1. fasea): G.1, 1-6 kodea. Burutua.
    - Urnietako saihesbidea (1. fasea): G.1, 1-7 kodea. 2002 eta 2004 artean egitekoa. Gaur egun, egiten ari dira.

- Obra nagusia: bidea zatitzea

- Andoain eta Hernani arteko saihesbidea (2. fasea): G.1, 2-6 kodea. Luzera: 7,5 km. 2008 eta 2010 artean egitekoa.

2.1.3.5. EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bitartez onartu zuten EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana, behin betiko.

Hezeguneen bilakaera nolakoa den jakin eta, hala badagokio, beharrezko babes-neurriak hartzeko, EAEko hezeguneen inbentarioa sortzen du Planak, eta Santa Barbarako urmaela (B2G2) sartzen du inbentarioan, "kareharriekin loturiko aintzira txikien eta urmaelen" kategorian (B2 kategorian).

Bestalde, hezegune babestuen katalogoa sortzen du Planak, EAEko hezegune nagusien babesa ziurtatzeko, eta hor sartzen du Santa Barbarako urmaela. Katalogoko hezeguneen babes-erregimena adierazten du Planak. Dioenez, "II. multzoko hezeguneei [tartean, Santa Barbarako barrualdeko urmaelari] LAPeko araudia aplikatzen zaie zuzenean, eta araudi hori loteslea da udaleko hirigintza-plangintzarentzat". Santa Barbarako urmaelaren ingurua berariaz eta modu loteslean antolatzen du Planak, eta antolamendu-multzo zabalago batean sartzea proposatzen du; antolamenduak harrobiaren eremua ere hartuko luke barnean, eta olgetarako eta kulturarako parke bat osatuko luke.

Planak hiru multzotan sailkatzen du antolatutako eremua:

- 1. gunea. Ur-lamina eta ur-bazterrak. Dolinako kubetaren hondoa eta ur-bazterreko ezponda.
- 2. gunea. Hurbileko zerrenda. 65 m-ko sestra-kurbak mugatua, errepidea hegoaldetik inguratuz.
- 3. gunea. Ingurunea. 100 m-ko erradioa duen zerrenda perimetrala, ur-bazterraren mugatik hasita; lurzoruaren egungo topografiara eta okupaziora egoki daiteke.

Agiriko antolamendu-kapituluko dagokion matrizeak (Dekretuko 12. artikuluak) arautzen ditu gune bakoitzeko antolamendu-kategorietako erabilerak eta jarduerak. Dagokion antolamendu-planoan ageri dira antolamendu-kategoriak, eta ondoko irudian ikus ditzakegu.



Kodea	Kategoria	Kodea	Kategoria
EP	Babes berezia	AG	Nekazaritzako eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
MA-1	Ekosistemen hobekuntza	FP	Basogintza zaintzailea
MA-2	Berreskuratu beharreko gune degradatuak	U	Lurzoru hiritarra


4. irudia. EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

2.1.3.6. EAEko Kostaldea Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Udal-barrutiaren zati bat EAEko Kostaldea Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko antolamenduaren barnean dago, eta Udalaren hirigintza-planeamenduak lurzoru hiritar eta hiritargarriari buruz xedatzen duenari lotzen zaio Plana.

Lurzoru ez-hiritargarria antolatzeko hainbat kategoria proposatzen ditu Planak. “Antolamendu-kategoriek harrera-gaitasunaren arabera definitutako sektoreetan zonakatzen dute lurraldea, kontserbaziorako balioaren arabera, eta horietako bakoitzari lurzoruaren erabileren eta jardueren araudi bat aplikatuko zaio bere ezaugarrien arabera, erabilera eta aprobetxamendua zehazteko”.

Planeko udal-planeamenduaren gaineko eraginen agiriak dioenez, Hernaniko udal-barrutian Planak ez du eraginik Udalaren hirigintza-planeamenduan.



5. irudia. Kostaldea Antolatu eta Babesteko Lurraldearen Arloko Plana. Urumea barrualdea. Antolamendua.


2.1.4. BIDERATZEN ARI DIREN LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK

Hauek dira behin betiko onartu ez dituzten eta idazketa-prozesuaren fase aurreratu batean dauden lurraldearen arloko planak:

- EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. 2005eko urtarrilaren 10ean onartu zuten hasiera batean.
- Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Plana. Hasiera batean onartu dute.
- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko PLana. 2008ko urriaren 13an onartu zuten hasiera batean.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Hasiera batean onartzeko agiri bat (2009koa) du.

2.1.4.1. EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Hainbat antolamendu-kategoria proposatzen ditu EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, eta bakoitza aplikatzeko arau espezifikoak garatzen ditu. Era berean, erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizeak erregulatzen ditu arauok eta, Plana indarrean sartzen denean, loteslea izango da matrize hori. Planak antolamendu-kategoria hauek proposatzen ditu Hernaniko udal-barrutiko lurzoru ez-hiritargarrirako:



6. irudia. EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako gunea eta landazabala. Udal-barrutiaren iparraldeko erdiak osatzen du nagusiki, eta Planak bi azpikategoria bereizten ditu barnean:

    - Balio estrategiko handiko eremuak (Altzuetako, Otsinagako, Portuko eta Akerregiko ibarrak, baita Sagastialdeko, Jauregiko… mendi-hegaletako hainbat eremu ere). Planak nekazaritza-sektorerako balio estrategikoaren ikuspegitik aztertzen ditu eremuok eta, hortaz, lehentasunezkotzat hartzen du haiek mantendu eta beste erabilera batzuetatik babestea.

    - Trantsizioko landa-paisaia. Batetik, ekoizteko ahalmenik txikiena duten guneek eta, bestetik, belardiek eta baso-unada txikiek estalitako landazabalak osatzen dute. Arau orokorrarekin bat, nekazaritzako azalera erabilgarria eta lurzoruen gaitasun agrologikoa mantendu beharra dago eremuotan.

- Mendia. Zuhaitz-, zuhaixka-, sastraka- eta belar-espezieak hazten diren landa-lurrek osatzen dute, espezie horiek laborantzaren berezko espezieak ez badira eta hiriko guneetan edo parkeetan eta lorategietan ez badaude betiere.

    - Basoa. Zuhaitz-estalkia (bai bertako basoak, bai espezie aloktonoz oihandutako basoak) mantentzeko asmoz sortutako lurrak dira. Hedadura kontuan hartuz, nabarmentzekoak dira udal-barrutiaren hegoaldean dauden lurrak, hala nola Urumea, Epele, Usoko, Etxolaberri… ubideen ibarrak.

    - Mendi meatsa. Zuhaitzik gabeko edo zuhaizti meats edo degradatuko guneek eratzen dute. Hedadura kontuan hartuz, nabarmentzekoak dira Oindi mendiaren ipar-ekialdeko mendi-hegalean dauden eremuak.

    - Haitzak. Harrizko hormatzarrak dira, hala nola Oindikoak eta udal-barrutiaren hegoaldeko muturrekoak (Argarateko harkaitzak eratzen dituztenak).

- Ingurumena hobetzeko gunea. Gune degradatuak dira, lurzoru eskasekoak edo higadura-aztarna handikoak. Planak azpikategoria honetan sailkatzen du Santa Barbarako harrobia.

- Azaleko urak babesteko gunea. Ibaiek eta errekek eta dagozkien babes-guneek eratzen dute.

- Gainjarritako baldintzak dituen gunea. Aipatutako antolamendu-kategoriei gainjartzen zaizkie baldintzok, eta jarduera jakin batzuk garatzeko modua mugatzen dute, kasuan kasuko arrisku motaren arabera:

- Akuiferoen zaurgarritasuna. Kutsadurak kalte egiteko arrisku handia edo oso handia duten lurpeko akuiferoak betetzeko areei dagokie baldintza hau; Hernanin, udal-barrutiaren iparraldeari —oro har, erpintzat Galarreta, Florida eta Santa Barbara dituen hiruki bat da—.

- Higatzeko arriskua duten areak. Ezaugarri litologikoak eta erliebearen ezaugarriak direla medio, higadura-fenomenoak sortzeko arrisku handia dago area hauetan. Hori dela eta, gune hauetarako irizpide orokorra da landare-estalkia mantentzea, halakorik badago, edo landare-estalkia sartzea, landare-estalkia meatsa bada. Hedadura kontuan hartuz, nabarmentzekoak dira Etxolaberri ibaiaren azpiarroko mendi-hegalak, udal-barrutiaren hegoaldeko muturrean.

- Interes naturalistikoa duten areak. Naturaren ikuspegitik balio berezia duten areak dira, hala nola lurraldearen antolamendurako artezpideek interes naturalistikoko tokitzat proposatutakoak. Horietako batzuk (adibidez, Aiako Harria natura-parkea) Natura 2000 sareko Kontserbazio Gune Berezi izendatzeko aukeratu dituzte.

EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko antolamendu-kategoriak. Hernaniko udal-barrutia			
Kategoria	Azpikategoria	Azalera (ha-tan)	Udal-barrutiaren azaleraren %
Nekazaritzako eta abeltzaintzako gunea eta landazabala	Balio estrategiko handiko eremuak	191,1	% 4,8
	Trantsizioko landa-paisaia	811,0	% 20,3
Mendia	Basoak	1.976,5	% 49,6
	Mendi meatsa	43,5	% 1,1
	Larre menditarrak – haitzak	3,3	% 0,1
Ingurumena hobetzeko gunea		7,9	% 0,2
Izendatutako natura-gune babestuak		625,5	% 15,7
Lurzoru hiritarra		327,2	% 8,2
Guztira		3986,0	% 100,0
Gainjarritako baldintzak		Azalera (ha-tan)	Udal-barrutiaren azaleraren %
Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten areak		169,8	% 4,3
Higatzeko arriskua duten areak		683,6	% 17,2

2.1.4.2. Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Plana

Gipuzkoako Errepideen Lurraldearen Arloko Planak Gipuzkoako eskualde-sareko 18 errepide eta Gipuzkoako toki-sareko errepideak (177) aztertu eta planifikatzen ditu. Horixe egiten du GI-2132 errepideak Errekaldetik Lartzabalera Astigarran barrena egiten duen bidearekin eta Hernaniko udal-barrutitik igarotzen diren gainerako toki-errepideekin ere.

Planaren aurrerakinak 22 jarduketa proposatzen zituen bide-azpiegiturak eraiki edo birmoldatzearen alorrean, baina horietako bat ere ez zuen aurrez ikusten udalerrirako.

2.1.4.3. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko PLana

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planaren helburu nagusia da “etorkizunean Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko beharrezko azpiegituren kokalekua xedatzea, Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arauzko agirietan ezarritako jasangarritasun-irizpideei jarraituz, eta Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integralak eta hura garatzeko agiriak finkatzen dituzten helburuak lortzea”.

Behin-behinean onartutako Planaren agiriak ez du proposatzen hiri-hondakinak kudeatzeko inolako azpiegiturarik Hernaniko udal-barrutirako.

2.1.4.4. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea sortzea proposatzen du Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak. Haren zati bat eraikita dago jadanik. Sarearen helburua da bizikletaren erabilera hiriko eta hiriarteko eguneroko garraioan sartzea, motordun ibilgailurik gabeko mugikortasuna sendotzeko. Egituratu egiten du sareak, Lurralde Historikoko eskualde eta eskualde-egitura guztiak zeharkatu eta lotzen baititu. Hasiera batean onartutako agiriak proposatzen duen sareak 424 km neurtzen du, eta bederatzi bidek osatzen dute.

3. ibilbidea, Donostia eta Beasain artekoa, Urumea eta Oria ibaien haranetatik igarotzen da. Astigarragatik sartzen da udal-barrutian, eta Urnietarantz darama. Ibilbide horrek badu Karabel eta Epele artean Urumea ibaiaren ibarreko industrialdeetan sartzen den adar bat.



7. irudia. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Hasiera batean onartutako agiria. "E. Plangintzarekiko eraginak".

Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokorra definitzen du Planak, eta, harekin bat, hauek osatzen dute Sistema: bizikleta-bideak hartutako plataformak, jabari publikoko eremuak eta zortasunekoak, eta bidearen elementu funtzionalek. Definizioaren helburua da bizikleta-azpiegiturak modu eraginkorrean jartzeko lurren behar bezalako erreserba eta hornikuntza ziurtatzea. Plana indarrean sartzen denean, kalifikazio horren ondorioz, definizio hori loteslea izango da hirigintza antolatzeko tresna guztientzat eta, tartean, Udaleko hirigintza-planeamenduarentzat.

Bide-proposamenaren zehaztasunaren arabera, xedapen horren lotura-mailak bereizten ditu Planak. Hernaniri dagokionez, 3. ibilbidea loteslea dela xedatzen du eta, bidea gehiago zehaztu bitartean, Karabel eta Epele arteko adarra loteslea izatea iradokitzen du.

Udalerria: HERNANI			
Titulartasuna	Kidetutako kategoria	Luzera (m-tan)	Xedapen-mota
Oinarrizko Foru Sarea (Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea)	Egungo Foru Sarea	541,79	Lotura
	Foru Sare Berria	2.194,82	Lotura
		4.759,78	Iradokizuna

Iturria: Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Hasiera batean onartutako agiria. "E. Plangintzarekiko eraginak".

2.1.5. HIRIGINTZA-ERREFERENTZIAZKO LEGE-ESPARRUA

Hirigintza Erreferentziazko lege-esparrua osatzen dute Udal Planeamendu Orokorrek eta aztergai dugun kasuan, zehazki, 1996ko ekainaren 27an behin betiko onartutako Hernaniko Arau Subsidiarioek.

2.1.6. ARLO- EDO INGURUMEN-ARAUDIA

Arlo- edo ingurumen-araudiari dagokionez, honako arau hauetan xedatzen diren zehaztapenak hartu dira kontuan:

- Kosten 22/1998 Legea, uztailaren 28koa.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bateratua onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Urarena.

- 60/2000/EE Esparru Zuzentaraua, urari buruzkoa.
- Azaroaren 25eko 17/1994 Foru Araua, Gipuzkoako errepide eta bideena.
- 108/1995 Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa, Gipuzkoako herri-onurako mendien katalogo berria onartzen duena.
- Azaroaren 21eko 43/2003 Legea, mendiei buruzkoa.
- 7/2006 Foru Araua, Gipuzkoako mendiena.
- Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratari buruzkoa.
- Abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretua, zaratari buruzko 37/2003 Legea garatzen duena, ingurumen-hotsen ebaluaketari eta kudeaketari dagokionean.
- 1567/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, 37/2003 Legea garatzen duena zonakatze-akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoari dagokienez.
- Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30ko 16/94 Legea. Lege hori garatzen duten xedapenen artean daude arriskuan dauden espeziei buruzko kudeaketa-planak eta Eremu Natural Babestuen Sarea osatzen duten elementuak arautzen dituztenak.
- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalen eta fauna eta landaretza basatien babesari buruzkoa.
- Europako Batzordeko Erabakia, 2004ko abenduaren 7koa, Atlantikoko eskualde biogeografikoko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda onartzen duena, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera.
- 240/1995 Dekretua, Aiako Harria aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena.
- 241/1995 Dekretua, Aiako Harria aldea parke natural deklaratzen duena.
- 87/2002 Dekretua, Aiako Harria Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailearen zati arautzailea onartzen duena.
- Foru Agindua, 2004ko maiatzaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mustela lutreola bisoi europarraren kudeaketa plana onartzen duena.
- Foru Agindua, 2004ko maiatzaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Galemys pyrenaicus muturluze piriniarra kudeatzeko plana onartzen duena.

2.1.7. IKERKETA-EREMUAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN BATZUK

2.1.7.1. Aiako Harria parke naturala

Euskal Herriko Natura Babesteko 16/94 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoan parke natural deklaratutako bederatzi parke babesten ditu eta Aiako Harria horietako bat da. 'Aiako Harria' parke naturalak 6.913 hektarea ditu guztira. Parkeko azalera osoaren %83 inguruk jabetza publikoko izaera du. Azalera horrek Irun, Oiartzun, Errenteria, **Hernani** eta Donostia-San Sebastian udalerriak hartzen ditu eta 620 hektarea Hernani udalerriaren barnean sartzen dira.

Eusko Jaurlaritzak Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onartu zuen apirilaren 11ko 240/1995 Dekretuaren bidez (EHAA 105, 1995eko ekainaren 5koa). Era berean, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak parke natural deklaratu zuen apirilaren 11ko 241/1995 Dekretuaren bidez (EHAA 105, 1995eko ekainaren 5koa).

NBAPko aldibaterako xedapenak honako hau adierazten du: *"Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 6.2. atalean ezarritakoarekin bat etorriz, Aiako-harria aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planean ezarritako zehaztasunetara egokituko dira Donostia-San Sebastián, **Hernani**, Irun, Oiartzun eta Errenteria udalerriei eragiten dieten lurraldea edo ingurune fisikoa antolatzeko tresnak*".

NBAP onesteak dituen ondorioetako bat honako hau da: "*nahitaezkotasuna, plan hau muga izango da lurralde edo ingurune fisikoa antolatzeko bestelako tresna guztietarako, eta tresna horien zehaztapenak ez dira nahiko izango planaren xedapenak aldarazteko. Lurralde edo ingurune fisikoaren antolamendurako tresnak, NBAP-rekin bat ez badatzo, plan horri egokitu beharko zaizkio (...)".*

Aiako Harria parke naturalaren administrazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-organo eskudunari dagokio. Gipuzkoako Foru Aldundiak parke naturalaren administrazioa arautu zuen maiatzaren 4ko 46/1999 Foru Dekretuaren bidez (GAO, 1999ko maiatzaren 18koa). Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, 2002ko apirilaren 16ko 87/2002 Dekretuaren bidez, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailearen (EKPE) zati arautzailea onartu zuen.

2.1.7.2. Natura 2000 Sarea

Natura 2000 Sarea bereziki zaindu beharreko Europako guneen sare ekologikoaren zati dira Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL). Habitat naturalei buruzko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera arautzen eta deklaratzen dira gune horiek, eta arau hori biodibertsitatea zaintzeko tresna nagusia da, horri esker Europako habitat naturalak eta fauna eta landaretza basatia babesten baitira.

Europako Batzordeak gune bat GKL izendatzeko kontuan izan behar diren garrantzi komunitarioko habitat eta espezieak babesteko behar diren neurriak ezartzeko konpromisoa hartu behar da. Neurri horietako bat da gune horietako kudeaketa-plan zehatzak egitea —gaur egun idazteko fasean daude (2010. urtea)— eta horiek oinarri izango dira Bereziki Zaindu beharreko Guneak (BZG) izendatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan proposaturiko eta Europako Batzordeko GKLen hasierako zerrendan dauden 52 GKL horietatik bi gune, eskualde biogeografiko atlantikoan kokatzen direnak, zati batean edo osorik Hernani udalerrian daude.

- A.- Urumea Ibaia Garrantzi Komunitarioko Lekua (ES2120015 kodea).

Hasierako mugaketaren arabera 74 hektarea ditu, eta horietatik 71 Hernani udalerriari dagozkio; hain zuzen, Urumea ibaiko ibilgua eta ertzak hartzen ditu, Nafarroako Foru Erkidegotik Gipuzkoan sartzen denetik Hernaniko herrigunera arte. Guztira 10 km-ko luzera du +50 eta +15 koten artean.

- B.- ‘Aiako Harria’ Garrantzi Komunitarioko Lekua (ES2120016 kodea).

Guztira 6.779 hektareako azalera du, eta horietatik 620 ha inguru Hernani udalerrian daude; hain zuzen, Hernaniko hego-ekialdeko muturrean kokatuta dagoen mendi-eremu zabala osatzen dute. Leku hori, GKL izendapena izateaz gain, Natur Eremu Babestu deklaratu zen (Aiako Harria parke naturala).

2.1.7.3. Urumea ibaiaren Azterketa Hidraulikoa eta urez bete daitezkeen inguruak

Hernani udalerria urak hartzeko arriskuari buruz egin diren azken azterketak, eta birgertatze-epeetan (10, 100 eta 500 urte) urez bete daitezkeen inguruak zehazten dituztenak, honako hauek dira:

- EAEko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala; 1988ko abenduaren 22an emandako Dekretuaren bidez behin betiko onartutako EAEko Ibai eta Erreka Ertzak —Kantauri aldeko isurialdean— Antolatzeko Lurraldeko Arloko Planean sartzen da, Urumea ibai-ibilguaren goiko zatiari —Epele Epele auzoko goiko urei— dagokionez.

- Urumea ibaiko bokalearen eta Altzueta gunearen (Hernani) arteko zatiari dagozkion azterketa hidraulikoa eta antolaketakoa; Gipuzkoako Uren Lurralde Zerbitzuak idatzi zuen eta 2008ko urtarrilaren 29an Uraren Euskal Agentziako (URA) zuzendari nagusiak hartutako ebazpenaren bidez onartu zen, eta aurretik idatzitako zatikako azterketak bateratzen ditu, Astigarraga-Epele mugen arteko ibai-ibilguari dagokionez.

- Xehetasun Azterketa Osagarria; 2009an idatzi zen Hernaniko Udalarentzat, Arau Subsidiarioen berrikuspen-prozesuan azaldutako hiri-garapenerako proposamen zehatzen bideragarritasuna aztertze aldera.

2.1.7.4. Tokiko Agenda 21

Gipuzkoan 87 udalerrik parte hartzen dute Tokiko Agenda 21 prozesuan eta Hernani horietako bat da. Hain zuzen ere, Hernanik 2003an ‘Ingurumen Diagnosia’ jarri zuen martxan eta hori abiapuntutzat hartu zuen ‘Tokiko Ekintza Plana’ zehazten eta ondoren 2007an plan hori ebaluatzen duen prozesua aurrera eramateko.

Andoain, Astigarraga eta Usurbil herriekin batera, Hernanik udalerrien elkartea eratu du Agenda 21 garatzeko xedearekin. Lau udalerri horiek ‘Udaltalde 21 Buruntzaldea’ proiektua garatzeko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten IHOBE sozietatearekin eta Gipuzkoako Aldundiarekin. Halaber, ‘Udalsarea 21’ edo ‘Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko’ kide da.

Testuinguru horretan, Hernaniko Udalak ‘Tokiko Iraunkortasunaren Saria’ lortu zuen (2008. urtean), ‘Hernaniko natur-ondarearen azterketa eta Hernaniko landare mehatxatuen mikro-erreserben sarea' egiteagatik[1].

Hernaniko Udalak Tokiko Agenda 21 egitasmoaren barruan orain arte burutu dituen beste ekintza batzuk honako hauek izan dira:

[1] Aranzadi Zientzia Elkartea. 2007. urtea

- Udal teknikari eta langileei zuzenduta, Tokiko Agenda 21 egitasmoa aurkezteko hitzaldiak egin dira. Udaleko Sail desberdinen arteko lankidetza.
- Tokiko Agenda 21 egitasmoa eta iraunkortasunaren kontzeptuak landu dira Artelatz enpresa eta ikastetxeekin batera.
- Hondakinen kodeak banatu dira herritarren artean, hauek kontzientziatzeko asmoarekin.
- San Markos Mankomunitatearekin batera, etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsuen bilketa bereziaren kanpaina egin da; hondakin horiek dira, hala nola, sukaldeko olioa, bonbilla, pintura eta berniz poteak, etxetresna elektriko zaharrak...
- Zikuñagako eta Osinagako oinezkoen zubiak berritu dira, oinezkoen bideak suspertzeko asmoarekin.
- Aisialdirako Urumea ibai bazterrak egokitu dira, bideak berreskuratuz, atsedenlekuak berrituz…
- Epela auzoan zarata-kutsadura aztertzeko neurketa egin da.
- Udalerriaren zarata-maparen lehen fasea burutu da.
- Etxebizitza hutsen azterketa egin da.
- Sakelako telefonoen antenen eragina aztertu da.
- Udalaren energia-kudeaketa aztertu da, kontsumoa gutxitzeko asmoarekin proposatutako neurriak hartzen dira.
- Irisgarritasuna aztertu da eremu desberdinetan.
- Herriko enpresen egoera aztertu da: kokapena, jarduera-mota, jarduera-lizentzia, hondakinen kudeaketa…
- Diagnosiaren emaitzak ezagutzera emateko eta jendearen iritzi eta komentarioak biltzeko, bederatzi bilerez osatutako kanpaina bat egin da.
- EHU eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, aire-kutsaduraren azterketa-proiektu bat garatzen ari da.
- Kiroldegian eguzki-energia erabiltzeko proiektu baten azterketa eskatu da.
- Martxan jarri da dagoeneko zarata-maparen bigarren fasea.
- Hernaniko turismo-baliabideen azterketa bat burutu da.

2.2. HERNANIKO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEK ERAGINDAKO EREMUAN, INGURUMENAREN AZTERKETA, DIAGNOSIA ETA BALIOESPENA

2.2.1. IKERKETA-EREMUAREN DEFINIZIOA. KOKAPENA

Ikerketa-eremuak Hernani udalerriko azalera hartzen du; hau da, Hernaniko Arau Subsidiarioek antolatzen duten eremua, hainbat ingurumen-alderdi izan ezik, Arau Subsidiarioek ingurumenean izan ditzaketen eraginak aztertzeko ikerketa-eremua handitzea beharrezkoa den kasuetan, alegia.

Udalerriak 40 km^2-ko hedadura du gutxi gorabehera. Lur-eremu hori mugatzen dute iparraldean, Donostia eta Astigarraga udalerriek; ekialdean, Errenteria herriak eta Donostia hiriak hartzen dituen Urdaburu eta Landarbaso guneek; hegoaldean, Elduain eta Arano herriek —azken hori Nafarroako Foru Lurraldean kokatuta dago—; eta mendebaldean, Lasarte-Oria eta Urnieta herriek.

Hernani udalerria honako orri hauetako laukiek mugatzen dute (1:5.000 eskalan): PTIII-c, PTIV-c, PSI-c, PSII-c, PSIII-c, PSIV-c, QSI-c, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako kartografiaren arabera (http://b5m.gipuzkoa.net).

Udalerria Gipuzkoako Lurralde Historikoan dago; hain zuzen ere, Donostialdea eskualdean kokaturiko herria da. Donostialdea eta Bidasoa Behealdea eskualdeak hartzen dituen 'Donostia-San Sebastian' Eremu Funtzionalaren barruan dago. Eremu horretan 398.000 biztanle inguru bizi dira eta 376 km^2-ko hedadura du. Lurralde-esparru honetan, Hernani udalerriari dagokio biztanleria horren %5 eta etxebizitzen %4,6 edo jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren %11,5.

Jarduera-eremuaren kokapena lurralde-esparruan hemen ikus daiteke: ***I.1. Planoa: Kokapena.***

2.2.2. KLIMA

Isurialde atlantikoko klima mesotermikoa da; hau da, tenperatura leuna da eta euri ugari egiten du. Prezipitazioen urteko batez bestekoa 1.400 eta 1.500 mm artean kokatzen da. Aipagarria da tenperaturak neurrizkoak direnez, bereziki neguen leuntasuna nabarmentzen dela. Urteko batez besteko tenperaturak 13ºC ingurukoak izaten dira kostaldean. Latitudeak eguzki-orduak baldintzatzen ditu; horrela, eguzkiaren argiak gehienez ere 16 ordu irauten ditu udan eta gutxienez 9 ordu inguru neguan. Urteko intsolazio-orduak, batez beste, 1.645 ordu dira. Erliebea bihurgunetsua bada, lurrak egiten dituen itzalguneen ondorioz, gerta liteke egunaren lehen eta azken orduetan, elkarrengandik hurbil dauden lekuen artean intsolazio aldetik desberdintasun handiak izatea.

2.2.3. OROGRAFIA

Udalerriak, oro har, erliebe menditsua du. Udalerriaren hego-partean aldapa handiak nagusitzen dira; hain zuzen, %30 baino handiagoko maldak ditu, Urumea bailarako hondo meharrera bideratzen direnak. Ur behera Landarbaso errekaren elkargunean Urumea bailara zabaltzen da eta iparraldera aldapa txikiagoak ugari dira, bereziki Urumea ibaiaren ezkerreko ertzean; hau da, Hernani herrigunea kokatzen den aldean, gutxi gorabehera +40-ko kotara.

Udalerriko kotarik altuena Antxista mendiaren gailurra da (+834), eta udalerriko hegoaldeko muturrean kokatuta dago, Urumea ibaiaren (Etxolaberri azpiarroa) eta Oria ibaiaren (Leitzaran azpiarroa) arroen arteko isurialdeen banalerroan. Kotarik txikiena Urumea ibaiaren ibarra da +5-ko kotarekin, Astigarraga herriarekin mugaturik ipar-ekialdeko muturrean kokatzen da.

Hernani udalerriak dituen aldapak, bost maila edo klasetan sailkaturik, hemen adierazten dira: ***I.2. Planoa: Orografia***

2.2.4. GEOLOGIA

Geologia-eskualdeari dagokionez, Hernaniko udalerria Pirinioen mendebaldeko muturrean dago, Euskal-Kantauriar Arroan; hain zuzen, Euskal Arkua izeneko eremuan. Bost Hiribilduen mendigune paleozoikoaren zati bar hartzen du. Hernanin, geologia-unitate hauek bereizten dira, Euskal Herriko Mapa Geologikotik jasotako datuen arabera (EEE, 64-II eta 64-IV orrialdeak):

- Donostia unitatea: udalerriaren iparraldea hartzen du. Bost litologia-eraketa bereizi dira: Triasikoa Keuper faziean, Jurasikoa, Urgondarra, Gainurgondarra eta Goi-kretazikoko Flyscha.

- Bost Hiribilduetako paleozoikoa. Ereñozu Blokea: udalerriaren hegoaldeko erdia hartzen du. Litologia-eraketa hauek daude: arbel eta grauwaken txandaketa, hareharri eta konglomeratuen txandaketa, eta beste batzuk; esaterako, hareharri kuartzofeldespatikoak, limolita gorriak edo konglomeratu silizeoak.

- Kuaternarioa: ibai-metaketak. Nolabaiteko garrantzia dute, Urumea ibaiaren behe-ibilbidean.

2.2.4.1. Interes geologikoko gune eta eremuak

Interes geologikoko gune bat jaso da antolamenduan, Ereñozuko faila izenekoa. Haren behatze-guneetako bat udalerrian dago. Gune horren interes-maila “eskualdekoa" da, eta hauskortasun-maila, berriz, “baxua”..

Hauek dira interes geologiko handieneko eremuak:

- Higadura-gainazalak eta haiei lotutako metaketak (bi eremu). Alubioi-metaketa esekiak dira (100 m), eta haien azterketak aukera emango luke Oria-Urumea drainatze-sistema ulertzeko, bai eta sistema horrek itsasertzeko erliebearen egituran duen eragina ulertzeko ere. Interes-maila: eskualdekoa. Hauskortasun-maila: ertaina. Balioa: 4.

- Hernani-Urnieta korridore tektonikoa. Haustura-lerro garrantzitsua da, eta ondo garatutako egiturazko bailara eratzen du. Nabarmentzekoa da alubioi-metaketen potentzia Urumea bailaran (70 m). Interes-maila: nazionala. Hauskortasun-maila: baxua. Balioa: 3.

- Santa Barbarako eremu karstikoa. Hirigunearen hego-mendebaldean, kareharri bioklastikoen orban bat nabarmentzen da, non eremu karstiko txiki bat garatu den, lapiazak eta dolinak dituena. Oso multzo gizatartua da; izan ere, harrobi handi bat dago (Santa Barbara), kareharri urgondarrak ustiatu dituena. Interes-maila: tokikoa. Hauskortasun-maila: altua. Balioa: 3.

- Andoain-Urnieta intzisio linealeko errekak. Intzisio lineala flysch detritiko-karetsuan. Interes-maila: tokikoa. Hauskortasun-maila: baxua. Balioa: 3.

- Urumearen meandro itxurako bailara itxia. Urumeak sortutako ibai-arroila. Ibaiaren goi-ibilbidea oso bihurgunetsua da eta material paleozoikoen gainean igarotzen da. Interes-maila: eskualdekoa. Hauskortasun-maila: baxua. Balioa: 3.

- Onyi mendiaren hegaleko metaketak. Bloke-kolubiala eta hondar xehekoa, Onyi mendiaren gainazalean. 2,7 km2-ko azalera dute, gutxi gorabehera. Interes-maila: tokikoa. Hauskortasun-maila: baxua. Balioa: 2.

- Tximistaeneako higakinak eta bloke-kolubiala. Material hareharritsuko blokeak, Aginagako gainetik higatuak. 1 m-ko diametroa ere izan dezakete. Interes-maila: tokikoa. Hauskortasun-maila: baxua. Balioa: 2.

Interes geologikoko guneak ***I.3 planoa: Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak*** izeneko planoan daude adierazita

2.2.5. GEOMORFOLOGIA

Geomorfologiari dagokionez, unitate hauek bereiz daitezke Hernaniko udalerrian:

- Alubiala: Urumea ibaiaren eta ibaiadar nagusi batzuen ibarra hartzen du.

- Terrazak: alubioi-jatorrizkoak eta azalera txikikoak. Metaketa esekiak dira, Urumearen ibarraren egungo kota baino kota altuagoan daudenak.

- Metatze-hegalak. Hegalen behealdeek malda leunagoak dituzte ibarbide nagusien inguruetan, eta aukera ematen dute material finak metatzeko eta lurrak sakonera handiagoa izateko.

- Higadura-hegalak. Udalerriko azaleraren zati handiena hartzen dute. Malda handiak, % 30etik gorakoak, dira nagusi. Zenbait eremu, higadura-prozesu biziagoak izan dituztenak, higadura aktiboko eremutzat definitu dira.

- Bloke-kolubiala: Onyi mendiaren iparraldeko mendi-hegaleko eta Tximistaeneako eremuko multzoak nabarmentzen dira.

- Dolinak, lapiaz estalia eta erdiestalia: eremu karstikoetako eraketa tipikoak. Santa Barbararen inguruan eta udalerriaren ipar muturrean daude.

I.3 planoa: Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak planoan higadura aktiboko eremuak eta egitura karstikoak (dolinak eta lapiazak) nabarmendu dira.

2.2.6. HIDROLOGIA

2.2.6.1. Azaleko urak

Hernaniko udalerria, gehienbat, Urumea Unitate Hidrologikoan dago. Soilik eremu txiki batek, Santa Barbararen mendebaldean, isurtzen ditu urak Oria ibaiaren arrora, izen bereko unitate hidrologikora.

Urumea Unitate Hidrologikoak 302 km^2-ko azalera du. Horietatik, 272 km^2 arro nagusikoak dira, eta gainerakoak (30 km^2 inguru), ondoko itsas arro txikitakoak dira. Horietako bat, Igara arroa, udalerrian sartzen da (hain zuzen, Balentegi errekaren goiburua).

Urumea ibaiak, Urumea Unitate Hidrologikoaren ardatz nagusiak, 57 km inguruko luzera du, eta horietatik, 33 Gipuzkoan daude (14,4 km inguru Hernaniko udalerrian). Morfologiaren aldetik, bi tarte erabat desberdin bereiz daitezke. Lehenbiziko tartea ibaia udalerrian sartzen denetik Fagollagaraino doa. Meandro itxurako bailara itxia da, oso estua da eta V forma du, oso nabarmena. Bigarren tartea Fagollaga igarota hasten da (Landarbaso-Epele errekaren bokalearen inguruan). Hor, bailara zabaltzen da eta alubioi-ibar handiak ageri dira.

Ibaiadarrei dagokienez, Atlantikoko isurialdeko ibai guztiek (Urumea ez da salbuespena) adar askoko drainatze-sarea dute. Urumea ibaiaren eskuineko aldean, hain zuzen, hauek dira ibaiadar nagusiak: Usoko (Latxe ere esaten diote, eta haren azpiarro osoa Hernanin dago) eta Landarbaso (edo Epele; haren azpiarroak Astigarraga, Donostia eta Errenteriako lurraldeak ere hartzen ditu). Ezkerraldean, berriz, hauek nabarmentzen dira: Etxolaberri (baditu beste izen batzuk: Urruzuno, Olaberria...) eta Otsuanea.

Azkenik, Hernaniko udalerriaren zati txiki batek, Oria ibaiaren arrora isurtzen ditu urak; hain zuzen, Galarmendiko errekaren sorburuak: Lasarteko hirigunean amaitzen da eta 1.4 km^2 baino ez ditu hartzen.

I.4 planoa: Hidrologia planoan, drainatze-sareko elementu nagusiak adierazten dira.

2.2.6.2. Ur-masak: presioak, inpaktuak eta arriskuak

'EAEko demarkazio hidrografikoen ezaugarriak' (Eusko Jaurlaritza, 2005) lanean, ur-masak mugatzeko eta tipifikatzeko lehen hasierako proposamena egin zen, bai eta ur-masa horien presioen eta inpaktuen azterketa ere.

Hernaniko udalerrian zenbait ur-masa identifikatu dira. Hain zuzen, ibaien kategorian, ur-masa natural bat (Urumea-A) eta trantsiziozko ur-masa bat (Urumea). Ur-masa horiek *I.4. planoa: Hidrologia* planoan identifikatu dira, eta jarraian ageri den taulan laburbiltzen dira haien ezaugarri nagusiak:

<u>'Urumea-A' ur-masa</u>

Urumea A ur-masa (ES013R018010) Iparralde III demarkazioan dago, 34 km-ko luzera du, 178,94 km^2-ko lotutako arroa, eta 78,5 km^2-ko elikatze-arroa. Presio global handia du, oro har. Presio nagusiak unean uneko isurketak eta hidrologia-aldaketak (emaria hartzea eta erregulatzea), eta, neurri txikiagoan, morfologia-aldaketak (azudeak eta babesak) da.

Ibaia / Erreka	Ur-masaren identifikazioa	Mota	Presio-maila globala	Inpaktua	Uraren Esparru Zuzentaraua ez betetzearen arriskuak	Arriskuak sortzen dituzten presioak
Urumea, Landarbaso, Etxolaberri,	Urumea-A	Ibaia	Altua	Inpakturik gabe	Txikia	-
Urumearen estuarioa	Urumea	Trantsiziozkoa	Ez da garrantzitsua	Egiaztatua	Handia	Marearteko galera

Eusko Jaurlaritzaren zaintza-sareak Urumea ibaiko Hernaniko bi laginketa-guneetako datu historikoak ditu, bai eta ibaian beheragoko beste gune batekoak ere (azken gune hori Astigarragako udalerrian dago). Gune horiek ***4. Planoa: Hidrologia*** planoan identifikatuta daude:

- UR-320: Ugaldetxon dago (Hernani). Kontrol-aldia:1993-2006.
- UR-400: Lastaolan dago (Hernani). Kontrol-aldia: 2002-2007.
- UR-434: Ergobia auzoan dago (Astigarraga). Kontrol-aldia: 2000-2006.

2007ko kanpainako emaitzen txostenetik laburbilduta, alderdi hauek nabarmen daitezke:

- Urumea-A masari dagozkion hiru estazioen ekologia-egoera "Ona" eta "Neurritsua" artekoa da.
- Uraren baldintza orokor fisiko-kimikoen ("oso onak") eta arrain-komunitatearen azterketan, hiru estazioetarako balorazioak bat datoz.
- Espezie potentzial hauek adierazten dira: aingira, mazkarra, ezkailua, platuxa, izokina eta amuarrain arrunta. 6 espezie horietatik, 5 detektatu dira (2007ko laginketa). Ale-kopuruari dagokionez, izokina da nagusi (2003an, ezkailua zen). Arrain-faunaren dentsitatea "baxua" da.

Masa	Estación	Fitobentos	Macroinver-tebrados	Peces	IFQ	CE (>LD)	CE (>NC)	QBR	Alteraciones hidromorf.	Estado ecológico
Urumea-A	URU320	Muy Bueno	Muy Bueno	Bueno	Muy Bueno	Sí	Sí	Moderado	Deficiente	Moderado
	URU400	Muy Bueno	Bueno	Bueno	Muy Bueno	Sí	No	Moderado	Deficiente	Bueno
	URU434	Muy Bueno	Moderado	Bueno	Muy Bueno	Sí	No	Malo	Deficiente	Moderado

Tabla 957 Diagnóstico final de Estado Ecológico de la masa Urumea-A. Años 2004-2007.

IFQ: Indize fisiko-kimikoa;
CE (>LD); Kutsatzaile espezifikoen kontzentrazioa detektatze-mailatik gorakoa da,
CE (>NC): Kutsatzaile espezifikoen kontzentrazioa kalitate-arautik gorakoa da,
EE: Egoera ekologikoa.

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. UTE Ondotek II, Uraren Euskal Agentziarentzat

Irakurleak informazio gehiago nahi izanez gero, azterketa hori kontsulta dezake Eusko Jaurlaritzaren webgunean. http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informe_estudio/red_rios/es_red_agua/2007.html

Urumea-A ur-masako Etxolaberri, Usoko eta Epeleko goialdeko (Landarbaso) erreken uraren kalitateari buruzko datu historikoak daude. Denek adierazten dute uraren kalitatea bikaina dela, ura hondatu ditzaketen giza jarduera handirik ez dagoelako.

'Urumea' trantsiziozko ur-masa

'Urumea' trantsiziozko ur-masaren azken tartea udalerrian sartzen da, 1,2 km gutxi gorabehera; hain zuzen, Astigarragako mugatik Landare-Ibaiondo arearaino.

Ur-masa hori ia guztiz bideratuta dago Loiolatik bokaleraino, baina baita ere Hernaniko zenbait tartetan. Oro har, ur-masaren presioa "baxua" da. Egoera ekologikoaren balorazioa, berriz, "onargarria" da.

Kalitate biologikoaren egoerak okerrera egin du 1995etik 2007ra. Balorazio horren arrazoiak dira gutxitu egin direla aberastasun biologikoaren balioa, pisziboroen ehunekoa eta bertako espezieak, eta arrain zapalik ez dagoela. Nabarmentzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak izokin arrunta berriro sartzeko plana duela martxan, eta horrek, gainera, aukera eman du itsas amuarraina berreskuratzeko, eta, dirudienez, kolaken ale-kopuruak gora egiteko. Hala adierazten da, Urumea trantsiziozko ur-masaren 2007ko kanpainaren emaitzen txostenean[2].

Inpaktua ibai-sarean

Urumea ibaian, nabarmentzekoa da ura erabilera hidroelektrikoetarako hartzen dela. Guztira, 5 ur-jauzi hidroelektriko daude Hernaniko udalerrian (guztiz edo haien zati bat). Halaber, ur-bolumen handia hartzen da industriarako. Hernaniko udalerrian, ibaiaren zati handienean, ura bilduta dago, edo aipatutako aprobetxamenduetarako ur-hartzeen eraginpean.

Era berean, nabarmentzekoak dira babes "gogorren" bidez egindako bideratzeak. Bereziki garrantzitsua da Karabelen eta Akarregiko meandroaren hasieraren arteko bideratzea. Horrez gain, jabari hidrauliko publikoaren eta alubioi-ibarren zati handi bat zenbait giza jardueratan erabiltzen da; besteak beste, urbanizazioetan eta azpiegituretan.

[2] UTE Ondotek II, Uraren Euskal Agentziarentzat.

Etxolaberri errekan, inpaktua txikia eta garrantzi gutxikoa da. Beste hainbeste esan daiteke Usoko errekari buruz. Epele-Landarbaso errekari dagokionez, inpaktuak garrantzitsuak dira eta ibaiaren behe-ibilbidean pilatzen dira: ur-desbideratzeak, eta gero, horma bertikal bidezko bideratzeak. Azkenik, nabarmentzekoa da, halaber, hirigunean barrena dabiltzan ur-ibilgu txiki batzuen egoera penagarria. Antziola erreka da egoera txarrenean dagoenetako bat, oraindik ere isurketa handiak egiten baitira bertara.

2.2.6.3. Domeinu hidrogeologikoa

Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoan (1/100.000), Energiaren Euskal Erakundeak eginean, “Hernaniko Sektorea” izeneko eremua ageri da, iparraldeko antiklinorioaren domeinu hidrogeologikoan. Hernaniko Sektorea hirigunearen mendebaldean dago (Santa Barbararen inguruan) eta arrezife-kareharrien azaleramendua da. Oso karstifikatutako kareharriak dira, eta tamaina handiko sakonuneak dituzte. Azaleramenduaren azalera 1,4 km^2-koa da, eta kanpo-arro txiki bat dago (0,7 km^2), baina haren urak sarbegien bidez infiltratzen dira. Zuzeneko prezipitazioen infiltraziotik eta kanpo-ekarpenetatik jasotzen ditu urak. Ur-sarreren bolumena 1,5 Hm^3-koa da; hau da, eremu horretako euri erabilgarriko 700 mm-en % 100. Irteerak Karreroko eta Kurtidorako iturrien bidez dira, eta emariak 20 l/s-koak dira, batez beste. Kurtidorako iturriko emaria industria-erabileretarako da.

Bestalde, “Hernaniko Sektoretik” kanpo, baina domeinu hidrogeologiko berean, Landarbaso iturria dago, eta haren batez besteko emaria 10 l/s-tik gorakoa da. Kareharri bioklastikoen azaleramendu bati lotutako iturria da, iragazkortasun ertainekoa. Hernaniren hornidurarako biltzen da iturri horretako ura.

4. planoa: Hidrologia planoan, besteak beste, Uraren Esparru Zuzentarauko 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenean adierazitako iturriak ageri dira.

2.2.6.4. Babestutako eremuen erregistroa (Uraren Esparru Zuzentaraua)

Azaleko ur-bilketetarako eremu babestuen erregistroan (Uraren Esparru Zuzentarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena), giza kontsumorako erabiltzeko (biztanle-entitatearen iturria) lau bilgune identifikatzen dira aztertutako esparruan. Hauek dira:

Bilgunea	Kokapena: UTM		Emaria (l/s)	Sistema
	X	Y		
Iturriandieta	586796	4789448	0,09	Martindegi
Ostalekueta	587943	4790034	0,09	Martindegi
Aparrain	587663	4787069	0,89	Ereñozu-Pagoaga-Epele
Lizarregi	588108	4787352	0,89	Ereñozu-Pagoaga-Epele

2.2.7. ITSAS-LEHORREKO MUGAKETA

22/1988 Legearen –uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa– 3. artikuluan, Estatuaren itsas-lehorreko jabari publikoaren (aurrerantzean, ILJP) ondasunen azalera zehazten da. Besteak beste, itsasertza eta erriberak hartzen ditu. ILJPk itsasbeherako lerro eskoratu edo gehieneko ekinozio-lerroaren eta ekaitzik handienetan olatuak iristen diren mugaren arteko eremua hartzen du, eta ibaiertzetan barrena ere hedatzen da, itsasaldien, zingiren eta abarren eragina heltzen den tokiraino.

Kostaldeei buruzko Legearen 6. artikuluan eta hurrengoetan, ILJPren barruko eremurako araudia zehazten da, eta adierazten da domeinu-ondare horiek besterenduezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak direla.

Kostaldeei buruzko Legearen II. kapituluko 23. artikuluan eta hurrengoetan, ILJPren babes-zortasuna zehazten da. Babes-zortasuneko eremua 100 metrokoa da, itsasertzaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta, eta luzatu ahal izango da, Estatuko administrazioak, autonomia-erkidegokoak eta udalak horretan ados jartzen badira.

Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan, ILJPren babes-zortasuneko eremuko erabilerak eta jarduerak zehazten dira.

Hernaniko Udalerrian, ILJP udalerriaren ipar-ekialdeko muturrean sartzen da, Florida-Akarregiko meandroa arean. ILJPren eta haren babes-zortasunaren mugaketa ***I.4. planoa: Hidrologia*** planoan adierazi da.

2.2.8. LURZORU-MOTAK ETA MOTA AGROLOGIKOAK

Udalerriaren hegoaldean (Urumearen bailara itxiak eta ibaiadarrak; besteak beste, Etxolaberri, Usoko eta Landarbaso), material paleozoikoen gainean, ‘kanbisol distrikoak’ dira nagusi, eta erabilera-ahalmen txikia edo oso txikia dute, kokatzen diren hegalen maldaren arabera, batez ere. Malda txikiagoko metatze-muino eta -hegaletan,

erabilera-ahalmen ertaina izan dezakete. Hein txikiagoan, “kanbisol humidikoak” daude. Nolanahi ere, azken horien erabilera-ahalmena txikia edo oso txikia da.

Epele-Landarbaso errekaren ur-bateratzearen ondoren, Urumearen bailara zabaldu egiten da eta maldak txikiagoak dira. Iparraldeko esparru horren zati handienean, “kanbisol distrikoak” daude, erabilera-ahalmen ertainekoak. Urumearen alubioi-ordokian, “kanbisol gleikoak” dira nagusi, eta horien erabilera-ahalmena handia da.

Udalerriaren ipar-mendebaldeko muturrean, oinarrizko egitura litologikoak txandakatzen dira “lubisol ortikoekin” (zenbait motatako erabilera-ahalmena dute, lurzoruen maldaren eta sakonaren arabera), “gleisol eutrikoekin” (metatze-lurretan sortuak dira, eta haien drainatze-ahalmena ez da nahikoa) eta “errensinekin” (erabilera-ahalmen handikoak).

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1988an egindako Mota agrologikoen mapan (E:1/25.000), adierazten da udalerriko hegoaldean nagusi direla VII. mota agrologikoko lurzoruak, egokiak landaredia iraunkorra izateko. Iparraldean, VII. motako lurzoruak –malda handiko (>% 30) hegaletan eta ibarbideetan– txandakatzen dira IV. eta VI. motetako lurzoruekin –malda txikiagoko (% 12-30) muino eta hegaletan–. Azken horiek egokiagoak dira argi eta garbi abeltzaintza-erabileretarako, eta % 20tik beherako malda duten lurzoruetan (IV. mota), labore-txandaketa izaten da, bazka-laboreak tarteko. Azkenik, mapan, ahalmen handieneko eta muga gutxieneko lurzoruak biltzen dituzten zenbait eremu adierazten dira (II. eta III. motak). Eremu horiek, batez ere, Urumea ibaiaren ibarrean daude, edo ibaiadarren ibarbideetan, oraindik industria-, bizitegi edo azpiegitura-garapenek okupatu gabeko eremuetan.

Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren Hasierako Onarpena agirian, “Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zona eta Landazabala” kategorian, “Balio Estrategiko Handia” azpikategorian, biltzen dira ahalmen agrologiko handieneko lurzoruak, eta horiek bat datoz Mota Agrologikoen Maparen (1:25.000 eskala) II., III. eta IV. motekin.

I.5 planoa: Ahalmen agrologiko handiko lurzoruak planoan, “Balio Estrategiko Handiko” lurzoruak adierazten dira, Mota Agrologikoen Mapak eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak emandako informazioa egungo egoerara egokituta, eta ondoren, eta eremuak aipaturiko azterketa eta planetan erabilitakoa baino eskala zehatzago batean zehaztu ondoren,. 25 eremu identifikatu dira, guztira 181 Ha inguru dutenak.

2.2.9. LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

Kapitulu hau egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzak egindako lan bat hartu dugu oinarri: ‘EAEko Habitaten Mapa (2007)’. Baina beste lan batzuk ere kontsultatu ditugu, hala nola ‘EAEko Baso Inbentarioa (2005)’, ‘EAEko Fauna eta Flora Mehatxatuaren Katalogoa’ eta ‘EAEko zuhaitz apartekoen zerrenda’.

2.2.9.1. Landaredi potentziala

Aztergai dugun arean, landaredi-unitate hauek osatuko lukete landaredi potentziala:

- Haltzadi kantauriarra: ibaiertzetan eta erreka-bazterretan halakoen basoak egongo lirateke; batez ere, Urumea ibaiaren ibarrean, eta Errotaberri, Otsuanea, Epele, Usoko eta Etxolaberri erreketan.

- Harizti azidofilo eta harizti/baso mistoa: ia udal-barruti osoa hartuko luke, eta estai muinotarrean nagusi izango litzateke. Espezie nagusia haritz kanduduna (*Quercus robur*) izango litzateke, eta haiekin batera, baina edafikoki lehorrenak diren eremuetan, arteak (*Quercus ilex*) izango lirateke azpimarragarri.

- Pagadi azidofiloak: udalerriaren hegoaldeko muturrean, eta estai menditarrera iritsita, pagadi azidofiloak izango lirateke nagusi mendi-hegaletan 600-800 metro inguruko kotan, betiere hegalak zer orientazio duen. Espezie nagusia pagoa (*Fagus sylvatica*) izango litzateke.

- Ameztia: beste baso-mota bat ere egongo litzateke estai menditarrean (baina ez pagadiak bezain zabalak), eta batik bat, lurzoru silizeoetan; ameztia, hain zuzen. Espezie nagusia ametza (*Quercus pyrenaica*) izango litzateke, eta tartean zuhaitz hibridoak ere ugari agertuko lirateke, haritz kandudun eta kandugabearenak (*Quercus petraea*).

- Harri-azaleratzeekin lotutako landaredia: kareharrizko harkaiztegiak edo harkaiztegi silizeoak diren, bi eremu bereiziko lirateke. Alde batetik, beraz, kareharriekin lotutako landare-komunitateak leudeke, ez oso zabalak, udalerriaren ipar-mendebaldeko muturrean diren kareharrizko azaleratzeetan, eta batik bat, Santa Barbara inguruetan; eta bestetik, harkaiztegi silizeoetakoak egongo lirateke, denak ere gutxi eta zenbait mendiren gailur-inguruan: Onddi, Erkaitz, Azketa, etab.

2.2.9.2. Lurzoruaren erabilerak

Gaur egun lurzoruak dituen erabilerak eta landaredi potentzialak maiz askotan ez datoz bat. Gaur egungo erabilerak bi alderdi nagusiren baitan daude: hiri-garapenen baitan (bizitegi-garapenak, industria-garapenak, azpiegiturak), eta nekazaritza- eta basogintza-ustiapenaren baitan.

1999an (ordukoa baita azken nekazaritza-errolda), 273 ustiategi zeuden Hernaniko udalerrian, betiere erroldaren arabera, eta ustiategi horiek guztira 2.056 ha kudeatzen zituzten (udalerriaren azalera osoaren %52). Ustiategien %56 aziendadunak ziren, eta haiek baliatzen zituzten lurrak, berriz, kudeatutako lurren %47.

Erroldako ustiategiak eta azalera osoa. 1999						
Guztira		Aziendadunak		Aziendarik gabeak		Udalerriaren azalera
Ustiategiak	Hektareak	Ustiategiak	Hektareak	Ustiategiak	Hektareak	Hektareak
273	2.056	153	979	107	1.077	3.987

Iturria: EUSTAT

Lurzoruaren erabileren banaketari buruzko informazio kuantitatiboari dagokionez, 'Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Inbentarioa (2005)' hartu dugu iturri.

Lurzoruaren erabileren banaketa (hektareak eta ehunekoak). 2005						
	Harkaiztegiak	Basogintzako erabilera	Sastrakadia/ Larrea	Belardiak eta soroak	Erretenak	Ez-emankorrak / hiritartuak
Hektareak	2	2.636	220	737	11	379
Ehunekoa	%0,05	%66,15	%5,52	%18,49	%0,28	%9,51

Iturria: EAEko Baso Inbentarioa (2005).

Lurzoruaren erabileren banaketa aztertuta, bi datu dira azpimarragarri: alde batetik, zuhaitzek azalera osoarekiko zein ehuneko handia hartzen duten (udalerriko azaleraren %65etik gora), eta bestetik, azalera osoaren %20 inguru belardiak eta soroak izatea.

Basogintzarako azalera zuhaiztu osoa espezieka banatzeko informazioa ere 2005eko Baso Inbentariotik hartu dugu.

Hernaniko baso-azalera zuhaiztua (hektareak eta ehunekoak). 2005			
	Konifero guztiak	Hostozabal guztiak	Espezie guztiak
Hektareak	1.355	1.278	2.633
Ehunekoa	%51,5	%48,5	%100

Iturria: EAEko Baso Inbentarioa (2005).

Azalera zuhaiztu osoaren %51,5 inguru koniferoen baso-sail landatuei dagozkie. Horietatik %68 intsinis pinua (*Pinus radiata*) dira, eta gainerakoa, berriz, hauek: %14, larizio pinua (*Pinus nigra)*; %10, alertzea (*Larix kaempferi*); %5, Douglas izeia (*Pseudotsuga menziezii*); eta beste guztia, Lawson altzifrea (*Chamaecyparis lawsoniana*), itsas pinua (*Pinus pinaster*)...

Bestalde, azalera zuhaiztu osoaren %48,5 inguru hostozabalei dagozkie. Horietatik %15 sail edo zuhaitz landatuak dira, eta gainerako %85a, berriz, berezkoak, kalitatearen eta kontserbazioaren aldetik zenbait mailatakoak. Azpimarratzekoa da harizti/baso misto atlantikoa, hostozabalek hartzen duten azalera osoaren %64 inguru da eta. Pagadiak, berriz, urri dira: hostozabal guztien %7 baino gutxixeago.


2.2.9.3. Landaredi-unitateak

'Landarediaren Mapa'[3] (Eusko Jaurlaritza, 2005) izeneko lanean bildu eta Hernaniko udalerriari dagozkion formazioak landaredi-unitate hauetan multzokatu dira:

	Landaredi-unitateak	Azalera (hektareak)
	Harkaiztegi silizeoetako landaredia	1,8
	Belardi menditarrak	2,7
	*Mesobromion*aren albitz-belardi eta larreak	3,6
	Haltzadi/sahastia	86,9

[3] Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2005ean egindako "Landarediaren Mapa". European Nature Information System (EUNIS) delakoan ezarritako landaredi-kategoriak hartzen ditu kontuan.

	Pagadi azidofiloa eta pagadi/harizti azidoa	31,9
	Hostozabalen baso mistoa (*Quercus robur* nagusi dituzten hariztiak, *Castanea sativa*ren baso edo sail landatu zaharrak, eta ameztiak)	675,8
	Gazte-faseko edo fase andeatuko hostozabal-baso mistoa	78,7
	Txilardi/otadi/iratzedi atlantikoa	208,6
	Hostozabal landatuen sailak	438,4
	Konifero landatuen sailak	1.337,6
	Belardi, larre, fruta-arbola eta labore-lur atlantikoak	760,5
	Hiri-parkeak eta lorategiak	32,0
	Erauzketa-eremu utziak	9,4
	Hiri-lurzorua eta landaredi erruderal-nitrofiloa	301,7



8. irudia. Udalerriko landaredi-unitateak. Iturria: EUNIS Mapa (Eusko Jaurlaritza, 2005). Egilea: EKOLUR.

2.2.9.4. Landaredi interesgarria

Landaredi interesgarriari buruzko informazioa gaurkotu eta xehetasun handiagoz ezagutu behar litzatekeela iritzita, landaredi interesgarriaren mapa bat egin da, 1:10.000 eskalan (***I.6. planoa*: *Landaredi interesgarria***). Mapa egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak utzitako ortofoto baten fotointerpretazioa egin zen, lehenbizi, eta gero, hartan lortutako orbanak landa-lana eginez egiaztatu.

Landare-unitate hauek nagusi diren eremuak hartu dira landaredi interesgarritzat:

1. Harkaiztegi silizeoetako landaredia
2. Kareharrizko gailurreko eta haitzebakien oineko baso mistoa
3. Pagadia
4. Ameztia
5. Hariztia edo hostozabalen baso mistoa
6. Haltzadia

Eremu horiek guztiak 183 orbanetan bildu eta identifikatu dira, eta guztira 821,5 hektareako azalera hartzen dute, udalerri osoan han-hemen banatuta. Eragile horren mendeko lurzorua Hernaniko udalerriaren azalera osoaren %20 inguru da.

<u>1- Harkaiztegi silizeoetako landaredia</u>

Lurzoru eta harri-azaleratze silizeo bakanak dira, eta floraren aldetik urri samarrak gehienetan. Flora kasmofito silizikolari dagokionez, badira zenbait landare, hala nola *Hurpezia selago*, *Sedum hirsutum*, *S. Anglicum*, *Jasione montana*, *Galium saxateli*, *Umbiliculus rupestris*, *Polypodium spp.*, *Asplenium billotii*... Eta badira, halaber, txilardi-landareak: *Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, *Vaccinium myrtillus*, etab. Harrien arteko zuloguneetan, ugariak dira zenbait pteridofito, hala nola *Dryopteris dilatata* eta *Blechnum spicant*; eta lurzoru sakonago eta freskoagoetako 'korridoreetan', berriz, *Luzula sylvatica*ren populazio sarriak dira ugari, eta *Hymnophyllum tumbrigense* ere bada.

Hernaniko udalerrian zenbait barruti txiki daude mendi-gailur eta -adarretan: Onddi, Mulisko, Antxistako Arria, Zaburu, Erkaitz, Agiña, Urdaburu... Eta sakanak ere hor dira, lurzoru silizeoan. Horiek guztiak udalerriaren hegoaldeko erdian daude, eta 1,8 hektarea inguruko azalera dute guztira.

2- Kareharrizko gailurreko eta haitzebakien oineko baso mistoa

Kareharrizko gailur eta hegal oso harritsuetan, lurzoru ia garatugabea dutenez gero, baso-formazio urria agertzen da, zenbait zuhaitz eta zuhaixkaz osatua: hurritza (*Corylus avellana*), astigar arrunta (*Acer campestre*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), hesilaharra (*Rhamnus catharticus*), hostazuria (*Sorbus aria*), elorriak (*Crataegus monogyna*, *Prunus spinosa*)... Haritz kanduduna eta gaztainondoa ere hor izaten dira, eta egutera batzuetan, ametz ilaunduna ere bai: *Quercus pubescens* edo haren hibridoak edo artea (*Quercus ilex*).

Landaredi-unitate honen basotxoak daude, esate baterako, udalerriaren ipar-mendebaldeko kareharrizko harkaiztegietan (Santa Barbara, Bidaurreta...).

3- Pagadi azidofiloa

Estai menditar ia osoan, pagadiak (*Fagus sylvatica*) dira baso potentzialak. Lurzoru azidoak nagusi dituzten eremuetan, eta batik bat estai menditarrean (plubiositate handiagoko eremua denez gero), pagadi azidofiloak izaten dira. Baso-mota horretako flora urria izaten da espezieen aldetik, eta haietatik gehienak beste baso azidofiloetako berberak dira, gainera: *Ilex aquifolium*, *Vaccinium myrtillus*, *Deschampsia flexuosa*, *Blechnum spicant*, *Oreopteris limbosperma*, *Veronica officinalis*, *Luzula multiflora*, *Oxalis acetosella*, etab.

Hernaniko udalerriko barruti bakan eta txiki gutxi batzuetan baso-mota hori dago, oraindik ere, maiz askotan andeatuta edo haltzadiekin batera tartekatuta, bai ibarbideetan (Olaberriko erreka) bai mendebaldera begira dauden hegaletako goialdeetan (Muarri, Erkaitz, Urdaburu, Malmazar).

4- Ameztia

Ametz arrunta (*Quercus pyrenaica*) mendi silizeoen gailurretako eta eguteretako baldintzetan moldatzen da ondo. Ameztietako flora zenbait landare azidofilok osatzen dute: *Pseudarrhenatherum longifolium*, *Pteridium aquilinum*, *Arenaria montana*, *Deschampsia flexuosa*, *Potentilla erecta*, *Vaccinium myrtillus*, *Melampyrum pratense*, eta soilguneetan, *Agrostis curtisii*, oteak, txilarrak, etab.

Gaur egun, ametz-baso txiki eta hondatu gutxi batzuk baino ez daude, tartean haritz kandudunarekin sortutako hibridoak direla, gainera, eta denak ere udalerriko hego-ekialdeko gailur batzuetan; hots, Ortzaika, Isteizar eta Merru inguruetan.

5- Hariztia edo hostozabalen baso mistoa

Harizti/baso misto atlantikoak badaude gaur egun, baina gutxi-asko hondatuak denak ere. Landaredi-unitate honen eremu potentzialaren zati handi bat belardi edo labore-lur atlantikoak dira, eta orobat, sastrakadiak eta pinu-sailak.

Baso mistoak dira nagusi, eta haietan, berriz, haritz kanduduna (*Quercus robur*). Baso-mota hori altitude txikiko eremu ez oso azido edo ia neutroetan izaten da, eta halakoetan beti egon ohi dira, besteak beste, lizarrak (*Fraxinus excelsior*), hurritzak (*Corylus avellana*), gaztainondoak (*Castanea sativa*), astigar arrunta (*Acer campestre*), elorria, zuhandorra eta sahatsa. Belar-geruza ere harizti azidofiloetan baino garatuxeago egoten da halakoetan. Proportzio txikiagoan, haritz kandudunaren harizti azidofiloak ere badaude, betiere estai muinotarreko hegal azidoetan. Zenbait espezie azidofilo izaten dira haietan, hala nola *Blechnum spicant* eta *Pteridium aquilinum*, eta zuhaitz-espezie batzuk ere bai, batzuetan, hala nola *Castanea sativa*, *Ilex aquifolium* eta *Betula celtiberica*.

Harizti edo hostozabalen baso mistoen gazte-faseko nahiz fase andeatuko areak ez dira landaredi interesgarritzat hartu, baina batzuetan zail samar gertatu da haiek zehatz mugatzea, zenbait areak bi unitateen ezaugarriak baitituzte, izan. Oso andeatutzat jotako areak zuhaitz edo zuhaixka kolonizatzailez osatuta daude hein handi batean, eta oso dira urri haritzen, gaztainondoen eta abarren zuhaizti helduak. Ugari dira sahats ilunak (*Salix atrocinerea*), urkiak (*Betula celtiberica*), zuhaixka-erako haritz txikiak, hurritzak (*Corylus avellana*), lizarrak... Unitate honetan azpimarratzekoa da zein ugari den landare arrotz bat, kanpotarra, inbaditzaile moduan jokatzen duenez gero: sasiakazia (*Robinia pseudacacia*).

Hariztia edo hostozabalen baso mistoa da, ezbairik gabe, udalerriko landaredi-unitate interesgarrietan ugariena, eta Etxolaberri errekaren nahiz Usoko errekaren arroetan dago unitate hau gehien. Udalerriko iparraldeko erdian baso mistoa da nabarmen (andeatu samarra, alabaina), Jauregiko ibarbideetan, hain zuzen.

6- Haltzadia

Ibaiertzetako lurzoru hezeetako haltzadiek eta lizardi/zumardiek osatzen dute landaredi-unitate hau. Haltzadietan espezie nagusia haltz beltza (*Alnus glutinosa*) da, baina beste espezie batzuk ere izaten dira harekin batera, hala nola lizarra (*Fraxinus excelsior*), haritz kanduduna (*Quercus robur*), hurritza (*Corylus avellana*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), oilarakan edo zumalakarra (*Frangula alnus*), etab.

Urumea ibaiaren nahiz beste ibaiadar batzuen ertzetan (Epele, Errotaberri...), inoiz berezko izandako haltzadiaren ordez *Platanus hybrida* eta beste espezie exotiko batzuk daude landatuta tarteka, maiz, eta gaur egun tamaina handiko aleak dira, gainera. Landaredi horrek berezkotasunik batere ez duen arren, landaredi interesgarrien artean sartu da, ibaien eta erreken egoera ekologikoari eusten lagungarri direla eta.

7- Beste leku batzuk

Aurreko unitateetan barnean hartu ez diren eremu batzuk ere sartu dira landaredi interesgarrien artean, zenbait area babestu elkarren artean lotzen dituztenez gero interesekoak direlako. Alde horretatik, identifikatutako areen parte dira, halaber, hostozabalen zuhaizti gazteak dauden lekuak, espezie autoktonoen heskaiz osatutakoak, sastraka atlantikoa dagoen lekuak, eta hostozabal hostoerorkorren sail landatuak (*Quercus rubra*, nagusiki) dauden area batzuk.

2.2.9.5. Habitat interesgarriak

Habitat Zuzentarauko I. Eranskinean[4] barne hartutako habitat naturalei dagokienez, beheko taulako unitateei dagozkien areak hartu dira natura-intereseko eremutzat. Taulan garbi adierazi da EUNIS sistemako landaredi-kategoria bakoitzari zer kode eta legenda dagozkion, eta habitat interesgarri edo lehentasunezko horiei Zuzentarauaren arabera zer kode dagokien. Habitat horiek, guztira, 154 hektareako azalera dute.

EUNIS kodea	EUNIS legenda	Habitat kodea (*)	EUNIS legenda
F4.23(X)	Txilardi atlantikoa, *Ulex sp* nagusi duena	4030	Txilardi lehor europarrak
F4.237	Berezko txilardi atlantikoa, *E.vagans* eta *E.cinerea* dituena	4030	Txilardi lehor europarrak
E1.26	*Mesobromion*aren albitz-belardi eta larreak	6210*	Belardi lehor erdinaturalak
E1.71	*Nardus stricta* multzoak	6230*	*Nardus*en belar-multzoak
E2.21	Sega-belardi atlantikoak, larratu gabeak	6510	Altitude txikiko sega-belardi elkorrak
H3.1	Harkaiztegi silizeoetako landaredia	8220	Harkaiztegi silizeoetako landaredi kasmofitikoa
G1.62	Pagadi azidofilo atlantikoa	9120	Pagadi azidofiloetako *Ilex* oihanpeak
G1.21(Z)	Urertzeko haltzadi eurosiberiarra	91E0*	*A.glutinosa*ren eta *F.excelsior*ren baso alubialak
G1.7B1	Amezti eurosiberiarra	9230	*Q.robur* eta *Q.pyrenaica* dituzten harizti galego-portugesak
G1.7D	Gaztainondo-baso edo -sail zaharrak	9260	*Castanea sativa*ren basoak

(*) Habitat Zuzentarauak lehentasunezkotzat hartutako habitatak. Albitz-belardiei dagokienez, "*orkideak ugari diren parajeak*" hartzen dira lehentasunezkotzat, eta halaxe dira Hernaniko udalerriko orbanak.

Beste habitat batzuk ere sartu dira landaredi interesgarria duten eremuen artean, nahiz eta Europako Zuzentarauaren I. Eranskinean habitat naturalen zerrendan ez egon. Hauek, hain zuzen:

- *Quercus robar* nagusi duen baso azidofiloa (G1.86 – EUNIS); landaredi interesgarriko eremutzat hartutako azalera osoaren erdia da, gutxi gorabehera (%51,3).
- Pagadi/harizti azido atlantikoa (G1.82 – EUNIS).

Zuzentarauan zerrendan dauden zenbait habitat, aldiz, modu puntualean sartu dira landarediaren aldetik natura-interes duten eremuen artean, kontuan hartuz Hernaniko udalerrian –eta oro har isurialde atlantiko osoan– oso hedadura eskasekoak direla, eta hortaz, udal-barrutian ez dutela babes-neurri osagarririk behar, landaredi interesgarri diren aldetik. Habitat hauek dira:

[4] Europar Batasunak interesgarritzat jotako habitat-motak, iraunaraziko badira zaintza bereziko eremu izendatu beharrekoak.

- Altitude txikiko sega-belardi elkorrak (6510 – Habitat kodea).
- Txilardi lehor europarrak (4030 – Habitat kodea).

2.2.9.6. Flora-espezie mehatxatuak

Gauza berezi moduan, bada azpimarratu beharreko zerbait: udalerriko habitat batzuetan flora mehatxatutzat jotako zenbait espezieren aleak daude. 'EAEko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Katalogoa'[5] erregistro publikoa da, Euskal Herriko Natura Babesteari buruzko 16/94 Legeak sortua. Babestuko badira neurri bereziak behar dituzten espezieak, subespezieak eta populazioak biltzen ditu hark, eta guztira, flora baskularreko 6 populazio eta 130 espezie daude.

Azken urteotan EAEn egindako flora-azterlan batzuen ondorioz, Katalogoa aldatu egin da[6], eta flora baskularreko beste 21 espezie sartu; gaur egun, beraz, 152 espezie eta 5 populazio hartzen ditu barnean Katalogoak. Espezie horiek lau taldetan banatu dira, mehatxu-maila kontuan hartuz. Hona hemen taldeak, mehatxu-maila handienekotik txikienekora: Galtzeko Arriskuan (7 espezie katalogatu), Kalteberak (37 espezie katalogatu), Bakanak (83 espezie eta 2 populazio katalogatu) eta Interes Berezikoak (25 espezie eta 3 populazio katalogatu).

Duela gutxi, 2010. urtearen hasieran, hain zuzen, 'EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorria' egiteko proposamena onartu da; eta laster, beraz, EAEn bizi diren flora baskularreko espezie basatien mehatxu-maila aztertuko da berriro, osorik, NBNBren (Natura Babesteko Nazioarteko Batasuna) irizpideei eta kategoriei jarraituz.

Hernaniko udalerrian bederatzi espezie identifikatu dira, eta haien kokalekua 1x1 km-ko lauki-saretan zehaztu. Informazio guztia **I. Eranskin**ean bildu da: lauki-sare bakoitzean identifikatutako espezieak, haien kokalekua, eta katalogo bakoitzaren arabera espezie horiei dagokien babes-maila.

Beheko taula honetan espezie horien habitata laburbildu da, batetik, eta bestetik, espezie horiek zer lekutan identifikatu diren.

Hernaniko udalerrian identifikatutako espezie mehatxatuen habitata eta kokalekua		
Izen zientifikoa	Habitata	Kokalekua
Ophioglossum vulgatum	Belartza hezeak: haran-hondoetako hariztiak, haltzadiak, iturburuak	Galarreta-Zabalegi
Stachys palustris	Belartza hidrofiloak: ibaiertzak eta hezeguneak	Galarreta (belar-areka)
Dryopteris aemula	Lurzoru azidoak, ezpondak	
Soldanella villosa	Erreka sartuen bazterretako ezpondak edo eremu higroturbatuetan, substratu silizeoen gainean	Errekastoak: Izeneder, Apaizeta, Azketa, Bartola, Santodomingo eta Ursaltueta
Trichomanes speciosum	Erreka silizeoetako ur-jauzien zuloguneetan	Errekastoak: Pagoaga, Leitziturri, Latsa, Ursoko, Branketa, Lizarregi, Larrakaitz, Sagarreta, Kartola, Purgatorio, Azketa, Erramuerreka, Saratsain eta Urmendi
Hymenophyllum tunbrigense	Harri silizeoetako leku gerizpetsuak; eskuarki, sakan estuak, eta erreka mehartu eta izerditu egiten diren paretak dituzten errekasto mehartuak	Onddi mendia, eta errekasto hauek: Apaizeta, Azketa, Sagarreta eta Kartola
Pinguicula lusitanica	Substratu silizeoaren gaineko ur-jarioak, iturburuak eta zohikaztegiak	Onddi mendia
Ilex aquifolium	Harizti-orlak, hariztiak eta ameztiak	Fagollaga, Urdabururen hego-hegala
Veratrum album	Era askotakoak; nagusiki, mendi-larre hezeak	Santodomingo errekaren goi-ibarra

Flora mehatxaturako habitat interesgarriak

Espezie mehatxatuek zer ezaugarri ekologiko behar dituzten ikusita, habitat hauek dira interes handienekoak (garrantzi handienekotik txikienekora), espezie horiek babesteari eta iraunarazteari begira:

- Lurzoru silizeoetako sakanak eta errekastoak.
- Harkaiztegi silizeoak.

[5] EAEko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Katalogoa, Basatiena nahiz Itsasokoena. 1998ko uztailaren 10eko Agindua.
[6] Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko sailburuaren Agindua, 2003ko maiatzaren 20koa

- Lurzoru silizeo edo azidifikatuetako zohikaztegiak, iturburuak eta beste leku heze batzuk.

Espezie mehatxatuak iraunarazteari dagokionez, beraz, oinarri-oinarrizkoa da sakanetan eta errekastoetan ibaiertzeko landaredia errespetatzea, eta ibilguaren bi alboetan babes-zerrenda bat sortzea, lurrik iraul ez dadin. Horixe da proposamen nagusia, eta alde horretatik:

- Harkaiztegi silizeoak babeserako kategoria batean sartzea proposatu da, lurzoru ez hiritargarriaren antolamenduaren barruan. Hernaniko udalerriaren hegoaldeko erdian dauden gailur gehienak silizeoak dira, hain zuzen.

- Hezegune guztiak babestu beharrekoak dira, eta halakoak lehortuko edo hondatuko lituzketen jarduera guztiak, berriz, saihestekoak. Hezeguneak dauden lekuak hedadura txikikoak dira, guztira, eta haiek babesteak, beraz, ez dakar murrizketa handirik, halako lekuetan egin ohi diren erabilerei dagokienez.

2.2.9.7. Herri-onurako mendiak

Azaroaren 21eko 108/1995 Foru Dekretuak dioen bezala, mendiak *herri-onurakoak* izendatzeak mendi-ondarea iraunaraztea, sendotzea eta indartzea lortu du. Gipuzkoako Herri Onurako Mendien Katalogoak, hain zuzen, herri-onurakotzat aitortutako mendi guztiak biltzen ditu, bai titulartasun publikokoak, bai babestekoak aitortutakoak.

Dekretuaren I. Eranskinean, Katalogoan sartuta dauden mendien zerrenda zehazten da, eta haien artean, hauek dagozkio Hernaniko Udalari:

Gipuzkoako Herri Onurako Mendien Katalogoan sartuta dauden mendiak			
Identifikazio-zenbakia	Izena	Jabegoa	Edukiera publikoa (ha)
2.040.1	Aparrain	Hernaniko Udala	116,04
2.040.2	Kartola	Hernaniko Udala	105,53
2.040.3	Usoko-Epelerreka	Hernaniko Udala	277,06
2.040.4	Ereñozuburua	Hernaniko Udala	11,80
2.040.5	Santa Barbara	Hernaniko Udala	20,30

2.2.10. FAUNA

2.2.10.1. Fauna komunitate potentzialak

Hernaniko udal-barrutian, oso modu sintetikoan, giza jarduerarik gabeko hiru fauna komunitate potentzial handi daude.

- Baso naturalak: baso hostoerorkorrez (pagadiak, hariztiak eta ameztiak) beteta daude lur gehienak; horrenbestez, halako basoetan ohikoak diren animalia komunitateak izango lirateke udalerrian biziko liratekeenak; mota bakoitza, hasiera batean, dagozkion berezitasunekin; dena den, baso hauetako lur asko aldatu egin dira arrazoi ugari direla medio: urbanizazioengatik, bestelako eraketa batzuekin ordezkatuta (larreak, sastraka, baso-landarediak…) edo modu batera edo bestela aldatuta (argitze guneen ondorioz, espezie jakin batzuen inbasioak eraginda, ...); aurrerago ikusiko den moduan, aldaketa horrek faunaren egoera aldatzea ere eragin du (zenbait espeziek pairatu duten jazarpen zuzenaz gain).

- Ur ibilguak: ibaiak, errekak (gutxi gorabeherako ur jario jarraituaz) eta putzuz betetako zonalde txikiak ere topa daitezke; horrela fauna espezifiko samarra aurkitu daiteke, horien artean, uretako espezieak edo anfibioak nahiz ibaiertzeko espezie tipikoak; alderdi horretatik, Hernaniko udalerrian sare hidrografiko sendoa dago, fauna ugari eta anitz hori gordeko lukeena; ur ibilguei lotutako komunitate horien egoerari dagokionez, ibilgu eta hezeguneek izan duten bilakaera bera izan dutela esan daiteke: kutsadura, aldaketa morfologikoa, ibilguaren egoeraren aldaketa, migrazioei ezarritako trabak eta komunitate horietan ondorio kaskarrak izan dituzten bestelako esku-hartzeak.

- Haitz kareharritsuak: hedadura urrikoak baina fauna-espezie bitxidunak. Horietako komunitateek ere arazoak izan dituzte jasandako presioaren eraginez (nabarmentzekoa da erauzketa-jardueren eragina).

2.2.10.2. Faunaren egungo egoera

Aurreko epigrafean hainbat faktore aipatu dira, gizakien esku-hartzerik gabeko baldintzetan egongo litzatekeen faunarekin alderatuta oso bestelako egoera izatea eragin dutenak. Atal honetan, alderdi horri dagokionez, funtsezko kontuei buruzko gainbegiratu labur bat egiten da eta, bide batez, irakurleari gonbita egiten zaio atal hau garatzeko oinarri modura erabili den dokumentazioa begiratzeko informazio zehatzagoa aurki dezan.

Azken batean, kapitulua osatzeko argitaratutako eta argitaratu gabeko hainbat azterketetan eskuragarri dagoen informazioa erabili da. Zehazki hauek erabili dira:

- Atlas de Vertebrados de la Comunidad Autónoma (Alvarez eta beste batzuk, 1983)
- Atlas de Aves Nidificantes de Gipuzkoa (Aierbe eta beste batzuk, 2001)
- Gipuzkoako Foru Aldundiak arrain-faunari dagokionez egindako hainbat ikerketa
- Aiako Harria -Aiako Harria Parke Naturala GKL fitxa
- Urumea GKL fitxa
- Bisoi europarraren (Bison bonanus) eta Pirinioetako desmanaren (Galemys Pyrinaicus) planekin lotutako dokumentuak.

Hernaniko udal-barrutia bi UTM lauki-saretan barneratzen da: 30WN88 30T eta WN89.

Horrekin guztiarekin, bereziki EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan barneratzen diren espezieen presentzia hartu da kontuan (167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa; 1997ko uztailaren 8ko Agindua eta 2003ko maiatzaren 20ko Agindua). **II. Eranskin**ean katalogo horri so udalerrian bizi diren espezieak barneratze dira. Zenbait kasutan espezie horietako batzuk Hernaniko udal-barrutian bizi direla ziurta daiteke; beste kasu batzuetan, ordea, ustezko presentzia baino ezin daiteke aipa.

- Arrain-fauna

Udal-barrutia zeharkatzen duen sare hidrikoan orotara 8 arrain espezie identifikatu dira. Horietako bat, kolaka (*Alosa alosa*) alegia, arraro gisa katalogatzen dena. Jarrera migratzailea duen desagertutako espezie horretako hainbat ale bakandu ikusi dira azken urteotan eta oso aldizka. Dena den, ibaiaren egoera lagungarria da espezie hori berreskuratzeko.

Saneamendu-lan handiak egin dira eta, horri esker, arrain-faunaren baldintzak hobetu egin dira. Jarioan diren ibilguak gehiago errespetatzen dira (oraindik ez daude egoera egokian) eta arrainentzako pasabideak gaitu dira hainbat presa txikitan. Bide horretatik, aipagarria da GFA egiten ari den lana, izan ere, izokin arruntaren (*Salmo salar*) populazioa berreskuratzeko ahalegin handia egiten ari da. Espezie hori 1940. urtean desagertu zen ingurune horietatik eta azken hamarkadan arroan ikus daiteke berriro.

- Anfibioak

Hernaniko udalerrian 8 anfibio espezie aurki daitezke. Horietako bakarra ere ez da EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan agertzen. Guztiak oso ohikoak dira Gipuzkoan. Orokorrean, besteak beste, giro hezeetan, baso hostoerorkorretan, otalurrean edota sastraka artean agertzen diren espezieak dira.

- Narrastiak

Hernanin 11 narrasti espezie aurki daitezke. Horietako bat Interes Bereziko Kategorian katalogatuta dago: Eskulapioren sugea (*Elaphe longissima*). Espezie hori udalerrian bizi dela esan dezakegu ia segurtasun osoz, habitat higrofiloetan ibili ohi da: basoak, landazabalak,… Gainerakoak Lurralde Historikoan ohikoak diren espezieak dira. Horien hedadura zabala da eta ez dute inolako mehatxu aipagarririk. Zenbait espeziek gizakiaren presentzia ere aprobetxatzen dute.

- Hegaztiak

Hernaniko udalerrian hegazti espezie asko dago, hala, ehun inguru daudela ere esan dezakegu. Horien artetik, 16 katalogatuta daude: 8 Interes Berezikoak, 6 Arraroak eta 2 kalteberak. Guztiek ez dute status bera udalerrian, izan ere, horietako batzuen artean ohiko presentzia edo habi bidezko presentzia ia ziurra dela esan dezakegu; beste batzuen kasuan, ordea, zalantza gehiago daude, nahiz eta udalerritik gertu dauden ingurunetan topa daitezkeen (hori dela eta, Hernanin ibil daitezke maiz). Adibide batera hontz handia (*Bubo bubo*) aipa dezakegu, Izan ere, Santa Barbara inguruan halako animalia bat aurkitu zen hilik; hala ere, une honetan ez dakigu herrian finkatutako bikoterik dagoen ala ez.

II. eranskinean espezie horietako bakoitzaren egoera zein den ikus daiteke. Haien beharrizanen arabera, honela bana daitezke:

- Lehenik eta behin, ibai edo ibaiertzetan ohikoak diren espezieak aurki daitezke, batez ere, martin arrantzalea, uhalde-enara eta ur-zozoa. Horiek Hernanin bizi direla ziurtasun osoz esan dezakegu.

- Bigarrenik, basoetako hegaztien taldea dugu. Espezie ugari dago basoan baino bizi ez direnak (aztorea, gabiraia eta baita okil txikia ere), horien presentzia ia ziurra dela esan dezakegu. Badira basoa behar arren ingurune horretara mugatzen ez direnak, hau da, bestelako habitat zabalagoetan ere ibil daitezkeenak, esate baterako, landazabaletan (belatza, erlatxori europarra, miru gorria,…). Espezie horietako batzuk udalerrian

sakabanatzen direla esan daiteke iz ziurtasun osoz.

- Hirugarrenik, landazabal atlantikoa nahiago izaten duten hiru espezie aipatu behar dira: Mirotz zuria, zata arrunta eta lepitzulia. Oso litekeena da horiek udalerrian bizitzea eta, habiak udal-barrutian jarri ez arren, ingurunetan jartzen dituzte.

- Azkenik, harkaitzekin lotura estua duten bi espezie dauzkagu: Belea eta hontz handia. Belearen kasuan, jakina da inguruan jartzen dituela habiak. Hontz handiari dagokionez, esan bezala, zalantza asko daude, ez dakigu une honetan udalerrian halako alerik bizi den ala ez, baina duela gutxi arte bikoteren bat bizi zela esateko arrazoiak daude (datu hori harrigarria ere izango litzateke).

- Ugaztunak

Ugaztunei dagokienez, Hernanin 5 espezie katalogatu identifika daitezke. Horien presentzia ia ziurra edo ziurra da: 2 Desagertzeko Arriskuan (Pirinioetako desmana eta bisoi europarra), 1 kaltebera (muxar grisa) eta 2 Interes Berezikoak (ipurtatsa eta basakatua).

- Pirinioetako desmanari (*Galemys pyrenaicus*) dagokionez, kudeaketa-plan bat dago abian, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduz onartua. Espeziearentzako interes bereziko eremu hauek daude Hernaniko udal-barrutian: Urumea ibaia, Epele auzoaren eta Pagoaga auzoko udalerri-mugaren arteko eremua, eta Landarbaso (Epele izenez ere ezaguna), Latxe (Ursoko izenez ere ezaguna) eta Urruzuno errekak.

- Bisoi europarrari (*Mustela lutreola*) dagokionez ere, kudeaketa-plan bat dago abian, hori ere 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduz onartua. Espeziearentzat interes berezikoak diren eremuak desmanaren berdinak dira.

- Muxar grisari dagokionez, hedadura handi samarra duten baso hostoerorkorretan ibili ohi den espeziea dela esan daiteke. Hala, oso litekeena da udalerriaren hegoaldera lekututako harizti eta pagadietan ibiltzea. Antzeko zerbait esan daiteke ipurtatsari eta basakatuari dagokienez; hala ere, lehenengoak ura behar du nahitaez.

2.2.10.3. Hernaniko faunaren interesgune nagusiak

- Ibaietako ibilgu eta ertzak, bereziki Urumea ibaikoak eta Landarbaso, Ursoko eta Urruzuno erreketakoak, izan ere, gaur egun “Desagertzeko Arriskuan” diren bi espezie bizi dira bertan (Pirinioetako desmana eta bisoi europarra), edo espezie horiek bizitzeko baldintza egokiak ematen dira. Urumea ibaian ziurra da hiru arrain espezie migratzaile bizi direla. Horrez gain, aldizka beste espezie bat ikus daiteke, kolaka, hain zuzen (EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan “Arrarotzat” jotzen den espeziea). Aipagarria da, halaber, izokin arruntaren (*Salmo salar*) presentzia, arroan berriro barneratu dena arrakasta osoz. Horrez gain, aingira (*Anguila anguila*) aipatu behar da, izan ere, azken horren inguruan kudeaketa-plan bat dago abian espeziea EAEn berreskuratzeko. Ukaezina da sare hidrikoaren gainerako zonaldeak ere interesgarriak direla; dena den, ez goiburuan aipatutako bi ibilguak bezain interesgarriak.

Ibaietako inguruneekin lotutako eremu horiek, beste espezie interesgarri batzuen habitatak ere badira. Aipagarriak dira bertan aurki daitezkeen bi hegazti espezieak, hots, martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) eta ur-zozoa (*Cinclus cinclus*), EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan “interes berezikotzat” jotzen direnak. Ibai inguruko eremua, era berean, atsedenerako gune eta igarobidea da espezie migratzaile interesgarri askorentzat, nahiz eta ez dauden katalogatuta, esate baterako, lepitzulia (*Jynx torquilla*), koartza hauskara (*Ardea cinerea*) eta ubarroi handia (*Phalacrocorax carbo*). Orobat, adierazgarria da Urumea ibaia interesgune dela igarabarentzat (*Lutra lutra*); alde batetik bertako baldintzak onak direlako eta, beste alde batetik, espezie hori berreskuratu eta hedatzeko lagungarri diren zonaldeak (Nafarroa) hurbil daudelako.

Espazio horietan mehatxatutako espezie horientzako interes bereziko eremuak daude. Horiek ikusteko hona jo daiteke: ***I.8***. ***Planoa. Natura interesguneko beste espazio batzuk:***

- Udalerriaren hegoaldeko baso-zona. Bereziki harizti eta pagadi ugari eta zabalak daudelako nahiko segida luzean, izan ere, hegazti eta ugaztunei dagokienez, interes handiko baso-fauna gordetzen dute. Horiekin batera, Urumeako ezkerraldeko ertzean dagoen mendikateko tontorretako eremu irekiak aipatu beharko lirateke (Onyi, etab.).

- Landazabala: udalerriaren iparraldera hirigunetik gertu dagoen landazabala interes txikiagoko gunetzat har genezake. Dena den, habitat horretan katalogatutako espezieak ibiltzen dira eta horregatik badu bere garrantzia.

- Azkenik, nabarmentzekoa da haitz kareharritsuekin lotutako eremuetan katalogatutako espezieak bizi daitezkeela, nahiz eta une honetan hori ezin daitekeen baieztatu edo ezeztatu. Ingurune horretan eraginik izango lukeen ekintzaren bat egitea planteatuko balitz, aurrez aipatutako espezie horiek edo beste batzuk hor

bizi diren ala ez frogatu beharko litzateke.

2.2.11. NATURGUNE BABESTUAK

Jarraian Hernanin dauden naturgune babestuak (NB) azaltzen dira. Horrekin batera egun duten edota etorkizunerako aurreikusten den babes-maila identifikatzen da. Deskribatutako eremu eta elementuak hemen jaso dira: ***I.7***. ***Planoa. Naturgune babestuak***.

2.2.11.1. 'Aiako Harria' Parke Naturala

Euskal Autonomia Erkidegoan bederatzi dira Euskal Herriko Natura Babesteko 16/94 Legearen babesean diren parkeak. Horietako bat da Aiako Harria.

'Aiako Harria'Parke Naturalak 6.913 hektareako azalera du. Parkeko azalera osoaren % 83 jabetza publikokoa da. Gainerako % 17a 264 jabe partikularren artean banatzen da. Azalera hori udalerri hauetan banatzen da: Irun, Oiartzun, Errenteria, **Hernani** eta Donostia.

Hernaniko udal-barrutian Parke Naturalera atxikitako azalera 620 hektareakoa da gutxi gorabehera, beraz, Parkeko azalera osoaren % 10 baino zertxobait gutxiago.

Hernaniko udal-barrutian barneratzen den azalera BNAP barneko antolamendu-kategoria hauetan banatzen da:

- Babes zonak: babes zonak eremu handiak dira eta horietan lurzorua kaltetzeko eta galtzeko arrisku handia izaten da. Urdaburu mendiaren tontorrean eta mendialdean nahiz Erkaitz-Agiña mendikateko hegoaldeko mazelan kategoria horretako hainbat eremu daude. Baliabide Naturalen Antolamendurako Plan horretan ezartzen denez, hau da zona horietarako helburua: *"lurzorua eta ziklo hidrikoa babestu eta hobetzea, lurzoruaren galera murriztera eta zuhaiztien azalera areagotzera bideratutako jarduerak sustatuz"*.

- Zainketa aktiboko zonak: natura eta kulturaren ikuspegitik interesgarriak diren eremuak dira, ingurumena babestea eta egungo erabilerak mantentzea eta hobetzea eskatzen dutenak. Eremu garrantzitsuenak Akola mendiaren iparraldeko aurpegian (Epele errekarantz beheratzen den mazela), Igoin mendiko hegoaldeko aurpegian (tontorra eta mendialdea) eta Erkaitz mendiko iparraldeko aurpegian aurkitzen dira. Baliabide Naturalen Antolamendurako Planeko helburu nagusia *"naturgunea zaintzea eta egungo erabilerak mantentzea edo hobetzea"* da.

- Abeltzaintza eta Basogintza aldetik potentziatzeko zonak: egun abeltzaintza estentsiboko eta basogintzako erabilerak lehenesten dituzten zonak. Kategoria horretan barneratzen da udal-barrutian dagoen babestutako azalera gehiena. Zonalde horietarako helburua abeltzaintza estentsiboko eta basogintzako erabilerak sustatzea eta antolatzea da. Baliabide Naturalen Antolamendurako Planean adierazten diren ildoen artean hau nabarmentzen da: "*higadura-arriskuak murrizteko beharrezko neurriak hartzea landaredia mota aldatzea eragingo ez duen esku-hartzeen bidez"*.

- Landazabalari dagokion zona: eraikin bati lotutako aprobetxamendua duten larre eta laborantzak dira. Hernanin zona bat zedarritu da Izen-eder baserriaren inguruan (Ereñotzu auzoa). Zona horren definizioak, berez, ez dakar bertan garatzen diren erabilerak ezabatu edo murriztea; baizik eta soilik erabileren aniztasuna sustatzea, zona horretara lotutako bizimoduarekin batera. Hauek dira zona horietarako ezartzen diren helburuak: *"zona horietako erabileren aniztasuna mantentzea, paisaia- eta fauna-aniztasunean horrek duen eraginarekin"* eta *"bizimodua eta erabilera anitzetako ekoizpena hobetzea"*.

2.2.11.2. Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL): 'Aiako Harria' eta 'Urumea ibaia'

Garrantzi Komunitarioko Lekuek (GKL) 'Red Natura 2000' izeneko "Zainketa bereziko zonaldeen Europako Sare Ekologikoa" osatzen dute. 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Habitat Zuzentarauaren bidez arautzen dira eta biodibertsitatea zaintzeko tresna nagusia dira. Horretarako, habitat naturalak eta baso-flora eta -fauna zaindu behar dira Europako lurraldean.

Euskal Autonomia Erkidegoan proposatutako 52 GKLetatik (Europako Batzordearen GKLen hasierako zerrendan barneratu direnak) bi Hernaniko udal-barrutian kokatzen dira osorik edo partzialki, eskualde biogeografiko atlantikokoaren barnekoak biak. 'Urumea Ibaia' eta 'Aiako Harria' GKLz ari gara. Bien artean 697 hektareako azalera osatzen dute Hernanin, hau da, udal-barrutiak duen azaleraren % 17,48.

A.-Urumea Ibaia Garrantzi Komunitarioko Lekua (ES2120015 kodea).

- Hasierako zedarritzearen arabera, GKL horrek 74 hektareako azalera hartzen du. Horietatik 71 Hernaniko udal-barrutian daude. Urumea ibaiko ibilguan eta ertzetan kokatzen da azalera hori, Nafarroako Foru Erkidegotik

Gipuzkoara sartzen den gunetik Hernaniko hiriguneraino. 10 kilometroz luzatzen da +50 eta +15 koten artean.

- Ibaian kokatutako GKL horretan bost espeziez osatutako arrain-fauna aurki daiteke: ibai-amuarraina, ezkailua, aingira, mazkarra eta izokina. Lehen lau espezieak oso ugariak dira. izokina desagertutako espeziea zen, baina GFAk abiarazitako berreskuratze-planari esker, helduen populazio bat ikus daiteke gaur egun. Bestalde, zaintza arloan interes handikoak diren bi ugaztun (bisoi europarra eta desman iberikoa) banatzen diren eremuan kokatzen da Urumea ibaia.

B- 'Aiako Harria' Garrantzi Komunitarioko Lekua (ES2120016 kodea).

- 6.779 hektareako azalera du. Horietatik 620 inguru (% 9,1) Hernaniko udal-barrutian. Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatutako mendi-ingurune trinkoa da. Leku horretan egoera onean diren landaredi natural eraketak topa daitezke. Baso-kutsua du erabat eta harizti eta pagadi azidofilo zabalak ikus ditzakegu. Era berean, faunari dagokionez eremu interesgarria da, izan ere, ibai inguruneko, baso inguruneko, mendialdeko eta harkaitz inguruneko komunitate interesgarriak daude bertan. Horietako asko Europako 79/409 eta 92/43 Zuzentarauetan aipatuak.

- Aipagarria da EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan barneratzen diren bi espezie daudela, "desagertzeko arriskuan" izeneko babeserako kategoria gorenean. Bisoi europarra eta Pirinioetako desmana dira aipatu espezieak.

Aipagarria da, 'Zainketa Bereziko zona' izendatzeko eskatzen diren kudeaketa-planak taxutzeari dagokionez, eremu hauetako egungo zedarritzea doitu egingo dela eta zehaztasun gehiagoz gauzatuko da zedarritzea. Horrez gain, aipatu kudeaketa-planetan egoki ikusten diren aldaketak aplikatuko dira. Horren ondorioz, baliteke txosten honetan adierazten diren zedarritzeak aldatzea.

2.2.11.3. Zuhaitz bereziak

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean Zuhaitz Berezia aipatzen da, ezaugarri berezi batzuk direla medio (tamaina, adina, historia edo egoera) nabarmentzen diren zuhaitzak babesteko xedez. Otsailaren 11ko 23/1997 Dekretuan, zuhaitz berezien artean *Ginkgo biloba* barneratzen da, Eguzki parkean lokalizatua, Hernaniko hirigunean.

Edertasunak eta dimentsioak ematen dio berezitasun hori. 4.5 metroko diametroa du (1.3 metroko altueran neurtua); fustearen altuera 3 metrokoa da eta orotara 21 metro luzatzen da. Adaburuaren diametroa 21 metrokoa da. 100 urte baino gehiago ditu.

Bestalde, Hernaniko Udalak, 2003ko maiatzaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari *Pinus Radiata* zuhaitza berezi gisa izendatzea eskatu zion. Zuhaitz horrek 90 urte baino gehiago ditu, 25 metroko diametroa hartzen du, enborraren diametroa 1,30 metrokoa da eta adaburuarena 17 metrokoa. 'Nere Borda' udal-parke botanikoan dago.

Bi zuhaitz horien kokapen zehatza jakiteko ikus ***I.7. Planoa. Naturgune Babestuak.***

2.2.12. NATURA INTERESEKO BESTE ESPAZIO BATZUK

2.2.12.1. Santa Barbarako urmaela

Hezeguneen bilakaeraren berri izateko eta, hala badagokio, beharrezko babes-neurriak proposatzeko, Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak[7] (HLPS) 'EAEko Hezeguneen Inbentarioa' egin du. Inbentario horretan agertzen da Santa Barbarako urmaela (B2G2), 'Aintzirak eta kareharritik eratorritako urmaelak (B2)' sailkapenean.

Urmaela substratu buztintsuak iragazgaitz bihurtutako dolina batean sortua da, Santa Barbara mendiaren inguruetan.

EAEko hezegunerik garrantzitsuenak babestea bermatzeko, HLPSak 'Babestutako Hezeguneen Katalogo' bat ere egin du, eta Santa Bararako urmaela zerrenda horretan sartu du; katalogoan, zerrendaz gainera, hezegune horientzako babes-araubidea ere ezarri du. II. taldeko hezeguneei (horien artean sartzen da Santa Barbarako urmaela) zuzenean aplikatzen zaie HLPSko araudia, eta loteslea da udalaren hirigintza-planeamenduarentzat.

HLPSak antolamendu berezi bat landu du urmaelaren ingurunearentzat, loteslea hori ere, non urmaela antolamendu-multzo handiago batean txertatzea proposatzen duen, harrobiaren esparrua ere barne hartzen duena, aisialdi- eta kultura-parke bat osatzeko.

[7] 160/2004 Dekretua, 2004ko uztailaren 27koaEuskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana Behin Betiko onartzen duena.

HLPSak hiru gunetan banatzen du antolatutako esparrua:

- 1. gunea. Ur-orria eta ertzak: dolinako kubetaren hondoa eta ertzaren ezponda.
- 2. gunea. Gertuko zerrenda. 65 metroko nibel-kurbak mugatzen du, eta hegoaldean errepidea inguratzen du.
- 3. gunea. Ingurunea. 100 metroko erradioko zerrenda perimetrala, ertzaren mugatik hasita, lurzoruaren topografiara eta egungo okupaziora moldatzen dena.

Gune bakoitzeko antolamendu-kategoriei dagozkien erabilera eta jarduerak dokumentuaren 'Antolamendua' izeneko kapituluaren matrize egokiak arautzen ditu (Dekretuaren 12. artikulua). Ezarritako antolamendu-kategoriak, beheko taulan jasotakoak, HLPSko antolamendu-planoan markatuta daude (txosten honetako 4. irudia, 2.1.3.5. atalean), EAEko HLPSen zehaztapenei buruzkoan, hain zuzen ere.

Santa Barbarako urmaelaren antolamendua (HLPS)			
	EP. Babes berezikoa		AG. Nekazaritza eta abelazkuntzako landazabaleko zona.
	MA-1. Ekosistemen hobekuntza		FP. Babes-basoak
	MA-2- Hobetu edota lehengoratu beharreko areak.		U. Lurzoru hiritarra

2.2.12.2. Pasabide Ekologikoen Sarea

Eusko Jaurlaritzak ikerketa bat egin du EAEko[8] Pasabide Ekologikoen Sareari buruz. Oraindik izapidetu eta onartu ez den arren, arrazoizkoa da aintzat hartzea, erreferentzia gisa.

Pasabide-sarearen helburu nagusia Red Natura 2000 sarearen harremanak eta koherentzia ekologikoa sustatzea da, hala agintzen baitu Europako Batzordearen 92/43/EEE zuzentarauak, berezko habitatak eta basoko fauna eta floraren habitatak zaintzeari buruzkoak, bere 10. artikuluan. Sarea hainbat elementuk egituratzen dute, espezieak lekualdatzeko irazkortasun handiagoko ilara edo pasabide baten inguruan. Egiturazko elementuek 'erdigune-areak' lotzen dituzte; horiek hainbat motakoak izan daitezke: 'lotura-areak', 'lotura-pasabideak', 'lotura-interes bereziko ibai-tarteak' eta 'moteltze-areak'. Sareko elementu bakoitza modu batean kudeatzen da.

Ikerketa horretan lantzen dituzten Hernaniko esparruek azalera nabarmena hartzen dute, udalerriaren ingurumen-balioen aberastasunaren irudi. Hona hemen ikerketak bereizten dituen elementuak:

- Erdigune-area: Aiako Harria Interes Komunitarioko Tokia (IKT). Aipatutako ikerketan erdigune-areatzat jo dute. Intereseko fauna-kontzentrazio handia du. Hernaniko 616 hektarea hartzen ditu gutxi gorabehera, Landarbaso, Ursoko eta Aparrain erreka bailaretan.

- Lotura-pasabidea: 'Aralar-Aiako Harria'. Pasabide hau garrantzitsua da eskualde mailan. Aiako Harria eta Aralar erdigune-areak lotzen ditu eta kilometro bateko luzerako zerrenda igarotzen da udalerritik, Landarbasoko bailaratik Onddi mendiaren ingurura, Larragaingo Lepra, Urumea bailara eta Pardiolako Gainean zehar. 238 hektareako azalera du, gutxi gora behera.

- Ibai-pasabideak: 'Urumea Goialdea-Urumea ibaia', 'Ursoko' eta 'Landarbaso'. Ibai-pasabideen sarea osatzen dute; horiei esker, aurrez aipatutako elementuak elkarrekin lotzen dira.

- Moteltze-area: ikerketak moteltze-area zabal bat egozten dio udalerriari, aurreko elementuetan sartzen ez den udalerriaren hegoaldearen gainerako azalera hartzen duena. Areak horrek 1.877 hektarea ditu, gutxi gorabehera.

Elementu horiek guztiak batera aintzat hartzetik abiatuta, hainbat egiturazko helburu daude ezarritako gune-banaketaren arabera:

- Erdigune-areak: beren osotasun ekologikoari eta eginkizunari (habitatak eta xede-espezieak gordetzea) eutsi eta, hala badagokio, hobetzea.

- Lotura-pasabidea eta moteltze-areak: inpaktuei aurre hartzea, gordetzea eta, hala badagokio, berezko landare-elementuak lehengoratzea edo nekazaritza-, baso-, abere- eta ehiza-aprobetxamenduak mudu

[8] Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasuneko Zuzendaritzarentzako EAEko Ekologia-igarobideen Sarea (IKT, 2005).

jasangarrian ustiatzea. Babes-mailak handiagoa izan behar du lotura-pasabideetan 'tapoi-guneetan' baino.

- Ibai-pasabideak: ubideak mantendu eta hobetzea, ibai-bazterrak bereziki, ibai-tarteen osotasuna eta horien lotura-eginkizuna hobetzeko.

Pasabide Sarearen proposameneko gomendio eta irizpideei jarraiki, zentzuzkoa iritzi zaio Sare hori tokian tokiko elementuekin osatzeari. Hala, bada, Hernaniko ekologia-harremanak bultza litzaketen hainbat esparru aurkitu dira:

- Elorrabiko ibarra eta Portu; horren ondorioz, Urumea ibaiaren pasabide-eginkizuna Osiñagatik Karabel ingurura hedatuko da.
- Udalerri osoan zehar zuhaitz-unadak eta zuhaizti autoktonoak zein zuhaixka eta azpi-zuhaixka autoktonoen eraketak landatzea, bai eta interesdun landare-eraketak ere, ibarretan.
- Hezeguneetan (Santa Barbarako urmaela) landare-eraketa autoktonoak landatzea.

Deskribatutako areak eta elementuak ***1.8 Natura-intereseko beste gune batzuk*** planoan jasota daude.

2.2.13. PAISAIA

2.2.13.1. Paisaiaren ezaugarriak

Hernaniko paisaia menditsua da. Jatorrian Urumea ibaiak egituratzen zuen eta, gerora, elementu lineal artifizialak gainjarri zaizkio (errepideak eta trenbideak); horien inguruan garatu da egungo hiri-ehuna, nekazaritza-lurrez eta basoz inguratuta.

Hiri-gunearen inguruko paisaia-unitateen berezkotasuna urria da, bizitegi- eta industria-area ugari ezarri baitira bai Urumearen bazterrean eta bai udalerriko eremu garaienetan ere. Herriko alderdi honetako ezaugarri berezia Santa Barbarako gandorra da. Hegoaldeko muturrean, berriz, desnibelak nabarmenagoak dira eta berezkotasun ertaineko paisaia-unitateak dira nagusi. Hala, bada, eremu honetan daude paisaia berezienak.

Urumea ibaiaren bailarako behe-aldea, Epeletik Akarregiko meandrora, 'Ibai-eremuko industria-lurrak' izeneko paisaia-unitateek hartzen dute gehien bat. Eremu zertxobai garaiagoetan, berriz, 'Ibai-eremuko hiri-lurrak' izeneko unitatea osatzen duen hiri-gune osoa kokatzen da. Unitate horietan egingo dira, hain zuzen ere, arau subsidiarioetan aurreikusitako jarduera gehienak, baina ikusizko eragina xurgatzeko gaitasun handiko eremuak dira, bailararen beheko aldean, batik bat.

Unitate horien inguruan 'Nekazaritza-lurrak, zelaiak eta laborantza atlantikoak nagusiki, ibai-eremuan' izeneko unitatea gailentzen da; unitate horren barruan sartzen da 'Eremu karstikoko mosaiko mistoa' izendapenarekin, Santa Berbarako eremua. Nekazaritza-eremuaren ikusizko eragina xurgatzeko gaitasuna txikiagoa da aurreko unitateena baino, gaitasun ertaina beheko aldean edo lautadan kokatutako eremuena eta txikia, berriz, maldetan kokatutako eremuena. Herriaren hegoaldeko erdian 'Ibai-eremuko baso-sailak' izeneko unitatea da nagusi, 'Nekazaritza- eta baso-lurren mosaiko' izeneko unitatearekin tartekatuta; hemen eta han, 'Ibai-eremuko harkaitzak' izeneko area txikiagoak ere ageri dira.

Udalerrian bost ikusizko arro daude: 'Lasarte-Oria', 'Hernani', 'Landarbaso', 'Ereñozu' eta 'Pagoaga'.

Lehen bi arroak handiak dira, nahiko gizatiartuak (20.000 biztanle inguru dituzte), eta ezaugarri hauek dituzte: hiri-gune handi samarra (Hernani edo Lasarte), industria-ezarketa nabarmena, errepide- eta trenbide-azpiegitura ugari eta nekazaritza- zein baso-lurren hondo zabal bat.

Gainerako arroak, berriz, arro txiki edo oso txikiak dira, biztanlerik gabeak (Landarbaso), biztanle gutxidunak (Ereñozu) edo oso biztanle gutxidunak (Pagoaga). Horrez gainera, menditsuak dira eta bailaretan baso-elementuak dira nagusi (% 60-85), berezkoak zein landaketak. Azken horiek itxura kolorebakarra ematen diote zeharkako bailara horietako eremu zabalei, Urruzuno ibaiaren eta horretara isurtzen diren erreken bailarei, bereziki (Pagoaga ikusizko arroa), eta partzelatan zatituta daudenez lerro zuzenak gailentzen dira. Nolanahi ere, nekazaritza- eta abeltzaintza-lur isolatuek hausten dute baso-landaketen paisaia beti-batekoa.

'EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa'[9] egiteko aurreproiektuan EAEko ikusizko arroak aztertu dituzte. Emaitzen arabera Hernani, Lasarte-Oria eta Landarbasoko arroen paisaia-balioa oso baxua da; hirugarrena zigortu

[9] IKT eta Paisaia enpresek, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarentzat (2005).

egin dute, gainera, zeharkatzen duten linea elektrikoengatik. Ereñozu eta Pagoaga arroetako paisaia-balioa, berriz, ertaintzat jo dute. Ikusizko arroetako bat ere ez dute katalogo horretan sartzeko proposatu.

1.9. Paisaia planoan ageri dira atal honetan aipatutako ikusizko arro eta paisaia-unitate guztiak.

2.2.13.2. Paisaia-intereseko eremuak

Euskal Herriko natura babestekoa den 16/1994 Legeak paisaia zaintzea aipatzen du helburu nagusien artean, 'berezko ekosistemen eta paisaiaren askotarikotasunari eta berezitasunari eustea', hitzez hitz.

Paisaiaren tratamendua Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen helburuetan ere aipatu zen; azken horiek lehentasuna eman zioten begien bistan dauden eta biztanlearen gehiengoak paisaiaren hautemate harmoniatsuago bat izatea eragingo duten inguruetako paisaia hobetzeko ahaleginari, eta horretarako beharrezkoa da tratamendu berezia behar duten eremuak katalogatzea eta paisaiaren itxura kaltetu dezaketen jarduerak ekiditea.

Horren ondorioz, udalerriko paisaia berezi egiten duten balio nagusiak zehaztu behar dira, bai eta paisaiari negatiboki eragiten dioten alderdiak zuzentzea proposatu eta hirigintza-interbentzioei lotutako paisaia-inpaktuak ezabatu edota gutxitzea bermatu ere, baldin eta aipatutako balioei eta horiek hartzen dituen errealitate fisikoko eremu edo elementu jakinei eragiteko arriskua badago.

Hala, bada, honako hauek behar dute babes berezia paisaiari dagokionez:

- Beren paisaia-balioagatik, hauskortasunagatik eta ikusgarritasunagatik bereziak diren landa-eremuak, udalerriaren, oro har, zein horren barruko hiri-garapenaren ikuspegi berde/berezko/ikusizkoa osatzen dutenak.

    - Udalerriaren iparraldean mota horretako bi area aurkitu dituzte: Oriamendi-Arizmendiko eta Santa Barbarako gandorrak eta inguruak, hiri-guneraino. Hiri- eta landa-eremuaren arteko topagunea dira.

    - Udalerriaren hegoaldean aurreko horiek baino ikusizko hauskortasun handiagoko beste area batzuk aurkitu dituzte: Urdao Txiki eta Izurtegitik udalerriaren hego-ekialdeko mugara doazen gandorrak eta horien inguruak, bai eta Onddi mendiaren gaina eta ingurua ere.

- Okupatzen edo zeharkatzen duten inguruko paisaia osatzen edo baldintzatzen duten eta sare hidrikoaren inguruei dagozkien lurralde-elementuak, Urumea ibaiaren eta horren adarren arroak eta ertzak, bereziki. Lurralde-elementu horiek protagonista aktibo eta pasibo gisa tratatu behar dira, eta landa-eremuan (beren berezko ezaugarriak gordez) zein hiri-eremuan (dagozkion neurriak hartuz eta, bereziki, zuzkidura publikoen sarean sartuz) txertatu.

- Hiri-eremuan arreta eta zaintza bereziak eman behar zaizkie antolamendua edo hiritartze- edo eraikuntza-jarduerak behar dituzten eremuei. Eremu horietan arrazoitu egin beharko dira kalitatezko hiri-paisaia bermatzeko premiazko antolamendu- eta diseinu-planteamenduak, dela horiek udalerriko paisaian egokiro txertatzeko, dela babes bereziko eremuak ez kaltetzeko.

Paisaia-interes handieneko eremuak ***1.9 Paisaia*** planoan kontsulta daitezke.

2.2.14. KULTURA-ONDAREA

Hernanin kultura-intereseko area eta elementu ugari daude, balio historikoa, arkitektonikoa edo arkeologikoa dutenak, hiri-eremuan zein landa-eremuan sakabanatuta. Area eta elementu horiek babes-maila ezberdinak dituzte, indarrean dauden legeen arabera. Elementu eta gune horiek guztiek errespetatu behar dituzte, ordea, 1990eko uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondarearen Legean jasotako aurreikuspenak, bai eta, kultura-ondaretzat jo badira, horientzako lege-xedapen bereziak ere.

Hernanin jarraian xehatutako gune eta elementuak izendatu dira kultura-ondare gisa, bai eta hirigintza-txosteneko *III.1. Katalogatutako Ondareak (udalerrian)* eta *III.2 Katalogatutako Ondareak (hiri-ingurunea)* planoetan jaso ere.

2.2.14.1. Estazio megalitikoak

2003ko uztailaren 24ko 37/2003 Dekretuak (2003ko uztailaren 8ko EHAA, 133. zk.) ezarri zuen 'Gipuzkoako Estazio Megalitiko'en babes-araubidea. Estazio horietatik bi edo, zehatzago, horien zati batzuk, Hernaniko mugen barruan daude: Igoin-Akola eta Onddi-Madoegi.

Igoin-Akola estazio megalitikoak hainbat osagai ditu, Aitzpitarteko kobatik Fagollagakora doazen lurretan sakabanatuta. 14 monumentu megalitiko ditu guztira, eta horietatik 7 Hernaniko lurretan daude, edo ertz-ertzean, inguruko udalerriekiko mugetan. Hona hemen dolmen horien izenak: 'Akolako Lepua I', 'Akolako Lepua II', 'Arritxieta', 'Igoingo Lepua I', 'Sagastietako Lepua I', 'Sagastietako Lepua II' eta 'Igoingo Lepua II'.

'Onddi-Mandoegi' estazio megalitikoa, berriz, Onddi (Hernani) mendiaren gailurretik Mandoegira hedatzen da, Leitzaran eta Urumea bailaren ur-ibilguan. Estazio hau mugarria da Brontze Aroko elementuen banaketa geografikoari dagokionez, Pirinioetako cromlech-eremuaren mendebaldeko muga ezartzen baitu.Estazioa oparoa da; zehazki, 22 monumentu megalitiko ditu katalogatuta.Horietatik zazpi udalerriko lurretan daude, eta inguruko herriekiko mugan bertan:'Ezioko Soroa', 'Ezioko Tontorra', 'Unamene', 'Altxista', 'Etzela' eta 'Mulisko Gaina'ko cromlechak eta 'Altxista'ko dolmena.

2.2.14.2. Gune arkeologikoak

Hernaniko erdi aroko hiribildua Urumea ibaia menderatzen duen muino baten gainean dago, ibai-ahotik kilometro gutxira. Hainbat iturri kontsultatu ondoren, ez da argi gelditu zein diren Erdi Aroan (XIV. mendean) sortutako zatiaren mugak, hori dela eta, proposatutako hipotesietatik zabalena hartuko da 'Intereseko gune arkeologiko'tzat horren hiritartze-garapenerako.

Hernaniko Hirigune historikoko Gune Arkeologikoa kultura-ondasun gisa kalifikatu zen, 'monumentu-multzo' kategoriapean, 1998ko otsailaren 12ko Aginduaren bidez (1998ko martxoaren 31ko EHAA, 61. zk.).

2.2.14.3. Arkeologia-balioko guneak

Hernanin arkeologia-balioko 22 gune izendatu zituen 1996ko azaroaren 11ko Ebazpenak (1997ko otsailaren 21eko EHAA, 36. zk.).Txosten honi atxikitako III. eranskinean jasota daude area horiek guztiak.

2.2.14.4. Ondare historiko-arkitektonikoa

Beren izaeraren arabera, hainbat ondare- eta elementu-mota bereizten dira, hona hemen horien zerrenda eta bakoitza tratatzeko irizpide orokorrak:

- Izendatutako, edo izendapena abiarazita daukaten monumentu-multzoak.
- Izendatutako monumentuak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu / monumentu-multzo gisa aitortzeko proposatutako ondasun higiezinak.
- Udalak babesteko proposatutako ondasun higiezinak.

Zerrenda zehatza Arau Subsidiarioen txosten honetako *C. Agiria – Katalogoa* atalean dago.

2.2.15. UHOLDE-ARRISKUA

Hernanin, Urumeako ibarreko hiri-inguruneen zati bat (bizitegi- zein ekonomia-jardueretakoak) uholde-arriskuan daude, maila handiago edo txikiagoan, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldien arabera. Oro har, egoera hori hiri-garapenaren ondorio da, ibaien arroetako lurrak lau edo lau samarrak hartu baititu, lurralde gorabeheratsu honetan hiritartzerako zailtasun gutxien dituzten inguruak direnez gero. Hala, bada, bailaren beheko aldeak okupatu dira, ez bakarrik Urumea ibaiarenak, baita horren adarrenak ere.

Uholde-arriskuari dagokionez, eta diagnosi orokor gisa, nabarmentzekoa da gaur egun urak area nahiko handiak har ditzakeela (baita 10 urteko birgertatze-aldian ere), Urumeako ibaiaren ertzean kokatutakoak, bereziki: Altzueta, Eziago, Portu, Karabel, Landare, Florida, Zubiondo eta Martindegi. Area horiek Portu, Errotaberri, Loidi eta Epele erreken ahoetan ere hedatzen dira, hein txikiago batean.

'Urumea ibaiaren arroko azterketa eta antolamendu hidraulikoa, ibai-ahotik Altzuetara (Hernani)' [10] txostenak aurretiaz egindako ikerketa partzialak bateratzen ditu, eta berresten du uholde-arriskua dagoela ibarraren gune zabaletan; orobat, neurri ugari proposatzen ditu arroaren jardun hidraulikoa hobetzeko eta ibarreko gune jakin batzuk uholdeetatik babesteko.

Proposamen horiek proiektu berezien bidez gauzatuko dira. Hona hemen zenbait proposamen:

- Eziago-Zikuñaga alderdian, ibarreko bidearen sestra goratzea.
- Eziagon, Urumea zeharkatzeko oinezkoen bi pasabideak kentzea.
- Eziagoko meandroaren ibai-lurrak berreskuratzea, uholde-arriskuko lurralde-zerrendaren barruan dauden pabilioiak eraitsiz.
- Karabel eta Portu auzoen arteko bidearen sestra goratzea.
- Karabeleko egungo zubia eraistea.
- Karabaleko zubiaren ondoko hiru eraikinak eraistea.
- Ibaiaren eskuineko ertzean lezoia eraikitzea, uholde-arriskua duen zerrendarekiko (Ibaiondo) muga osoan zehar.
- Lezoia eraikitzea ibaiaren ezkerreko ertzean, uholde-arriskua duen zerrendarekiko (Karabel-Landare-Zubiondo) muga osoan zehar.
- Akarregiko meandroan lehor-ebaki bat jartzea.

Horrez gainera, ikerketa-txostenak egungo baldintza hidraulikoak alda ditzakeen beste neurri batzuk proposatzen ditu, udalerritik kanpo egitekoak (Donostian, Astigarragan eta Añarbeko urtegian), udalerriko hainbat tokitan uholde-arriskua nabarmenki jaits baitezakete; neurri horiek aintzat hartu beharko lituzkete bai administrazio publikoek (udalak eta Eusko Jaurlaritzak) eta bai eragile pribatuek ere.

Horregatik, Hernaniko udalak Ikerketa Osagarri Xehatua egin zuen 2009an, arau subsidiarioen berrikuste-prozesuan sortutako hiri-garapenerako proposamen batzuen bideragarritasuna aztertu (proposamen horietako batzuek uholde-arriskuan dauden zenbati guneri eragiten die) eta, hala badagokio, proposamen bakoitzari eska liezaiokeen babes-neurriak zehazte aldera, 2008ko Ikerketa Hidraulikoak ezarri zituenenen artean, esan nahi baita.

1995ko otsaileko Arriskuaren Arteztarau Maparen[11] arebera, prezipitazioen isomaximak 250 eta 325 mm/eguneko bitartean daude 500 urteko birgertatze-aldi baterako; horrek esan nahi du drainatze-lan guztietan hartu behar direla aintzat prezipitazio horiek, dagozkien birgertatze-emariekin lotuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide hidraulikoen plangintza Arroen Plan Hidrologikoek ezarritakoaren arabera egin behar da, uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeak ezartzen duen bezala. Kasu honetan *Plan Hidrológico Norte III* izenekoari men egingo zaio. Bestalde, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, Isurialde Kantauriarrari dagokion atalean (E.1.4.) garatu eta xehetasunez azaltzen ditu Lurralde Antolamendurako Artezpideetan lur gaineko urei buruz ezarritako irizpideak.

Horrez gainera, Uraren Euskal Agentziak (UEA) gomendatzen du gune horietarako lurzoruaren erabilera-irizpide bereziak aplikatzea uholde-arriskuaren mailaren arabera; irizpide horiek EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planen 1. eraldaketan gehitu dira, eta izapide-aldian daude.

I.10 Arrisku Naturalak planoan jaso dira uholde-arriskua duten areak, birgertatze-aldien arabera[12].

2.2.16. AKUIFEROEN KUTSATZEKO ARRISKUA

Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoak[13] adierazten duenez, biziki karstifikatutako kareharri arrezifalak azaleratu dira 'Hernani sektorea'n, hots, Santa Barbara inguruko hiri-gunearen mendebaldean. Azaleratzeak 1,4 km^2 hartzen ditu; kanpo-sakonunea txikia da (0,7 km^2), baina horko urak estoldetan zehar iragazten dira. Ura Carrero eta Curtidos iturburuen bidez ateratzen da, 20 l/s emariz, batez beste.

Udalerriaren ipar-mendebaldeko alderdi horretan akuiferoak kutsatzeko arrisku handi edo oso handiko areak aurkitu dira; horrek arrazoitzen du, hain zuzen, arau subsidiarioek lur-azpiko urak babesteko neurri bereziak ezartzea.

I.10 Arrisku Naturalak planoan jaso dira arrisku-mota hau duten areak.

[10] Urumea ibaiaren arroko azterketa eta antolamendu hidraulikoa, ibai-ahotik Altzuetara (Hernani). 2007ko ekaina, Gipuzkoako Uren Lurralde Zerbitzuak idatzi eta Uraren Euskal Agentziako (UEA) zuzendari orokorraren ebazpen bidez onartua 2008ko urtarrilaren 29an.
[11] Iturria: 'Hernanin Epeleko Plan Partzialaren Eraldaketaren arriskuei buruzko txostena'.
[12] GeoEuskadin lortutako informazioa: Ide Ura Web – Euskadiko urari buruzko informazio-sistema (Uraren Euskal Agentzia) 19/06/2010
[13] Euskadiko mapa hidrogeologikoa. 1/100.000 eskala. Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

2.2.17. AREA HIGAKORRAK

Udalerrian hainbat areak daukate higadura-fenomenoak izateko arrisku altua, beren malda, litologia edota landaretza direla medio. Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren higadura-eredua aplikatzearen emaitzak hartu dira oinarri gisa, bai eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kartografian (GESPLAN enpresaren eskutik) jasotako higadura aktiboko areak ere.

Area horietarako irizpide orokorrak hauek dira: lurzoruaren jardunari eragiten dioten ekintzak saihestea, zuhaitz-estalkia mantentzea (gaur egun horrelakorik egonez gero), edo hura jartzea eta zabaltzea lurrak soilduta badaude; izan ere, funtsezkoa baita higadura-fenomenoetatik babesteko.

Area higakorrak ***I.10 Arrisku Naturalak*** planoan jaso dira.

2.2.18. ARRISKU SISMIKOA

Hernani VI intentsitateko gunean dago 2006ko iraileko Arrisku Sismikoaren Aurreko Larrialdi Planaren arabera, hortaz, gertagaitza da eraikinak suntsitzeko moduko lurrikararen bat izatea.

Hala eta guztiz ere, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila) gomendatzen du eraikuntza berrietan aintzat hartzea ‘Eraikuntza-arau sismoerresistentea: zati orokorra eta eraikuntzari dagokiona (NCSR-02)’, irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.

2.2.19. SUTE-ARRISKUA

Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila) ‘Euskal Herriko basogintzako erregaien eredua. 1999’ dokumentuan oinarritzen da sute-arriskuen sailkapena egiteko, arriskua eremu bakoitzeko landaretza-motaren araberakoa baita.

Hernaniko lurrei buruzko informazio-eskaerari erantzun ez diotenez, ezin izan dira datu horiek jaso ***I.10 Arrisku Naturalak*** planoan.

2.2.20. LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERAK GAUZATZEN DIREN EDO GAUZATU DIREN LEKUAK

Otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, EAEko lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoak, kutsatu ahal izan diren lurzoruekin jarduteko modua zehazten du, kutsadura hori duela gutxikoa edo antzinakoa delarik ere.

Horretarako onartu du Eusko Jaurlaritzak, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo lurzorua kutsa dezaketen instalazioak dauden edo egon diren lekuen inbentarioa. Aipatutako dekretuak agintzen du inbentario hori etengabe eguneratu behar dela, eta prozedura ezartzen du beste lurzoru batzuk katalogoan sartzeko edo zeudenak ateratzeko. Dekretuak xedatzen duenez, onartzen den inbentarioa eta horren eguneraketak ‘oso informazio tresna erabilgarria dira lurzoruaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko lan egiten duten eragile guztientzat’. Eta eransten du komenigarria dela ‘gogoratzea arau horretatik eratorritako betebeharrak lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egotearen ondorio direla batez ere[14], (…) ez baita nahikoa jarduera edo instalazio jakin bat onartutako inbentarioan agertzea’.

Lekuren bat lurzorua kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen diren edo gauzatu diren lekuen inbentarioan sartzeak ez du esan nahi derrigorrean kutsatuta dagoenik. Egoera jakin batzuetan, administrazio-prozedura bat bete behar da, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ‘lurzoruaren kalitate-adierazpena’ izenekoa ematean bukatzen dena. Adierazpen horrek ebatziko du lurzorua kutsatuta, eraldatuta edo eraldatu gabe dagoen, aipatutako araudiak ezartzen duenaren arabera.

Hernanin, 165/2008 Dekretuaren bidez onartutako inbentarioaren arabera, 168 lekutan daude edo egon dira lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak. Leku horiek83,2 hektareako azalera dute guztira, eta bakoitzaren batez besteko azalera, berriz, 4.956 metro koadrokoa da.

[14] Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak: EAEko lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 1/2005 Legean, otsailaren 4koa, agertzen direnak, bai eta 14ko 9/2005 Errege Dekretuak, lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda ezarri eta lurzoru kutsatuen adierazpena egiteko irizpideak eta estandarrak finkatzen dituenak, bere I. eranskinean zerrendatzen dituenak ere.

Aipatzekoa da dokumentu horren edukia aztertzean zehaztasun-ezak aurkitu direla inbentarioan jasotako leku horietako batzuen kokapenari, beren muga fisikoei edo izaerari dagokionez. Zehaztasun-akats horiek zuzendu egin behar dira, ordea, dekretuak berak horretarako ezarritako prozedurari jarraiki, izan ere, lehen esan bezala, inbentarioa eta eguneraketak 'oso informazio tresna erabilgarria dira lurzoruaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko lan egiten duten eragile guztientzat', eta 'komenigarria da gogoratzea arau horretatik eratorritako betebeharrak lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egotearen ondorio direla batez ere, (…) ez baita nahikoa jarduera edo instalazio jakin bat onartutako inbentarioan agertzea'.

I.11 Izan daitezkeen arriskuak planoan jaso dira 'Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen diren edo gauzatu diren lekuen inbentarioan' jasotako lekuak, 165/2008 Dekretuak hala onartu baitu.

2.2.21. ARRISKU TEKNOLOGIKOAK


Arrisku teknologiakoak bi multzotan sailkatu dira: salgai arriskutsuen garraioa eta Seveso II Araudia.

A.- Salgai arriskutsuen garraioa

'EAEko Salgai arriskutsuen garraio-jarioaren mapak' (2005) errepidez eta trenbidez egiten diren salgai arriskutsuen (SSAA) garraioari buruzkoak dira, batez ere[15]. SSAAen errepide eta trenbidetiko garraio-jariotik abiatuta, horiek biztanleei zein izadiari dakarkieten arriskua kalkulatu da, 'Transit' ereduaren bidez.

Hernani zeharkatzen duten SSAAen mota eta kopurua aztertu ondoren, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila) esku-hartzeko areak ezarri ditu baldintza gaitzetan gertatuko istripuetarako, nazioarteko esku-hartzeko gidetan oinarritutako 'Salgai arriskutsuak tartean direneko istripuetan esku hartzeko fitxak' agiriaren gomendioei jarraiki.

Esku-hartzeko areak beheko irudi honetan jaso dira:



9. irudia Istripuetan esku-hartzeko areak
Iturria: Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila)


B.- Seveso II Araudia

Seveso II Araudiaren (EBko 96/82 zuzentaraua) eta ondoren onartutako xedapenen helburua da SSAAk tartean diren istripu larrietako arriskuak kontrolatzeko neurriak ezartzea.

[15] 2003an lortutako datuak.

EP.03 Epele (UG) azpieremuko partzelaren barruan biltegi bat dago, 2.000 m^3 binil kloruro monomero gordetzen dituena, partzela horretan baitu egoitza Arkema SA enpresak; hori dela eta, goian aipatutako neurriak hartu behar dira, dagokion segurtasun-eremuan izan daitezkeen hiritartze-jardueren (erabilerak eta eraikuntzak ezartzea) araudi berezi bat gauzatzeko.

Beheko irudian jasotako areetan du eragina aipatutako jarduerak, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila) emandako informazioari jarraiki.



10. irudia. Industria-arriskuak. Seveso II.
Iturria: Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila)

EAEn ez da horretarako araudirik egin ez onartu, ez eta oinarrizko gidalerrorik ere, istripu larriak izan diren tokien ('IL tokiak') inguruko hiritartze-jarduerak arautzeko.Hala eta guztiz ere, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila) lege-hutsartea betetzeko balio dezaketen lege-erreferentzia fidagarri batzuk eman dizkio Hernaniko Udalari planeamendu orokor hau lantzen ari zelarik.Hain zuzen ere, erreferentzia horiek erabiltzen ditu Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak, oinarritzat Kataluniako Generalitat-eko Industria eta Enpresako Idazkaritzaren 8/2007 SIE Agindua harturik, htos, istripu larriei buruzko legeak eragiten dien tokien inguruetako hiri-hazkuntzari buruzkoa.

Jarduera horren eragina izan dezaketen areak ***I.11 Izan daitezkeen arriskuak*** planoan jaso dira.

2.2.22. INGURUMENEKO ZARATA

Ingurumeneko zaratak kalte egiten dio ingurumenari, eraginak baititu hiri- zein natura-inguruetan, osasunean, lasaitasunean eta, azken finean, herriko biztanle eta gainerako izaki bizidunen bizi-kalitatean. Hori dela eta, dagokion arreta merezi du ahal den neurrian zaratari atxikitako arazoak ezabatu edo murrizteko eta, hala badagokio, aurre hartzeko. Xede nagusia zaratarekin lotutako esku-hartzerako irizpideak zehaztea da, batetik, ingurumeneko zarata sortzen duten erabilera ahal den neurrian bateratzeko jarduerak giro isil eta lasai batez gozatzeko eskubidearekin; eta, bestetik, garraio-azpiegiturekin (bidezkoa zein burdinbidezkoa) edo inpaktu akustikoa sortzen duten beste jarduera batzuekin (industria, esate baterako) lotutako zarata ezabatu edo murrizteko.

Neurri horiek udalaz gaindiko administrazioei dagozkien beste neurri batzuekin osatzen dira, esate baterako, bide- eta burdinbide-ardatz nagusien zarata-mapa estrategikoak egitea, mapa horietan zor akustikoen guneak mugarriztatzea eta aipatutako azpiegituren eraginpean dauden eremuetan sustatu beharreko ekintza-planak egitea.

Neurri horien esparrua arloari buruzko lege-xedapenek osatzen dute, besteak beste:

- Zarataren legea, 2003ko azaroaren 17koa.
- 2005ko abenduaren 16ko Errege Dekretua, goiko legea garatzen duena, ingurumeneko zarata neurtu eta kudeatzeari dagokionez.
- 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua, Zarataren Legea garatzen duena, gune-banaketa akustikoari, kalitate-helburuei eta igorpen akustikoei dagokionez.

- 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua[16].

Arlo honetan aintzat hartzekoak dira, orobat, zarata eta bibrazioengatiko kutsadura akustikoaren aurreko udalaren jarduna arautzen duen ordenantza (Udal honek berak sustatu eta behin betiko onartu duena), eta Hernaniko Zarataren Mapa (Udal honen ekimenez eta hainbat alditan osatu dena).

Dokumentu horien edukien arabera, hauek dira gaur egun ingurumeneko zarata sortzen duten gune nagusiak:

- Hiriarteko bide-sarea: GI-131 autobia, G1-2132 errepidea, GI-3401 errepidea, GI-3410 errepidea.
- Hiribideen sare nagusia.
- ADIFen burdinbidea.

Era berean, kontuan hartu behar dira proiektatuta dauden edo eraikitzen ari diren garraio-azpiegitura berriei lotutako beste zarata-gune batzuk ere:

- A-8 autobidea (Aritzeta-Errenteria).
- Abiadura handiko trenbide-sare berria.
-

Aipatutako lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, area akustikoak honela sailkatzen dira:

- Bizitegi-erabilerako area akustikoak.
- Industria-erabilerako area akustikoak.
- Aisialdi-erabilerako area akustikoak (jolaserako edo ikuskizunetarako).
- Hirugarren sektoreko erabileretarako area akustikoak.
- Osasun- eta irakaskuntza-erabilerako area akustikoak.
- Komunikazio-sistema orokorra (errepidezkoa zein trenbidezkoa) eta horri lotutako ekipamenduak.
- Gune natural lasaiak.

Proposatutako area akustikoak behin-behinean zehaztu dira, administrazio eskudunek garraio-azpiegitura nagusien inguruko ‘zor akustikoko guneak’ mugarriztatu bitartean, eta ***I.11 Izan daitezkeen arriskuak*** planoan ikus daitezke.

Bide Azpiegituretako Departamentuak eginda ditu 16.000 ibilgailutik gorako EBBI (Eguneko Batez Besteko Intentsitatea) duten Gipuzkoako Foru Sareko errepideen Zarata Mapa Estrategikoak (ZME). ZME horiekin 2002/49/EE Zuzentarauak eta dagokion Estatuko legeak (1513/2005 Errege Dekretua) agindutako lehen aldia bete dute. Lan hori egiteko, ordea, Mapa Estrategikoaren Unitateak (MEU) zehaztu behar izan dituzte.

MUE horien txostenetan eragin-guneak zerrendatu dituzte, bai eta bizitegi-guneetan eraginak jasotzen dituzten biztanleen ehunekoari garrantzia berezia eman ere. Hala, bada, ardatz bakoitzeko (GI-131, GI-2132, GI-3401) ingurumeneko zarata aztertu da, baina artean ez da ardatz guztiek batera duten inpaktua zehaztu. Informazio xeheagoa nahi izanez gero, datuen iturrira jotzera gonbidatzen dugu irakurlea: http://www4.gipuzkoa.net/corporac/carreteras/web/1carret_ruido.htm.

ADIFek ere egin du Tolosa-Irun tarteko trenbideak duen eraginaren mapa. Eraginak zerrendatzen eta neurtzen dituen kapituluan txosten horien emaitzak aztertzen dira. Aipatutako administrazioek egindako planoak, berriz, dokumentu honen ***V. eranskin***ean jaso dira.

2.2.23. IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA.

2009ko ekainean Hernaniko Udalak Mugikortasun Iraunkorreko Plana egitea adostu zuen; dokumentu horren Aurrerakina urte haren bukaeran aurkeztu zen, eta lau xede-multzo nagusi ditu:

- Herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzea
- Hirigintza-planeamendu iraunkorra sustatzen laguntzea
- Garraioaren ingurumen-inpaktua murriztea
- Energia-balantzea hobetzea

Testu Bateginaren proposamenak aztertzeko garrantzitsua den heinean, ENDARA Ingenieros Asociados SM sozietatek eginiko txostena irakurtzera gonbidatzen dugu irakurlea.

[16] Errege Dekretu horren bidez onartu zen Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) *DB-HR Zarataren aurreko babesa* oinarrizko dokumentua, bai eta martxoaren 17ko314/2006 Errege Dekretua ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena.

2.2.24. AIREAREN KALITATEA

Ingurumenaren kutsadura azaro larria da, kalitate-maila ez oso altuko[17] airea arnasteak giza osasunean eraginak izan baititzake. Industria-aroaren eta egungo mugikortasun-eskaeraren ondorioz gai kutsatzaileen kopuru handiak igortzen dira atmosferara eta, horren ondorioz, ingurune jakin batzuetan aireren kalitate desegokiak giza osasuna eta ekosistemak kaltetzen ditu. Egungo gizarte- eta ekonomia-egoeran hainbat kutsadura-sortzaile badaude ere, hiri-gune handietako eragile kutsatzaile nagusia motordun garraioa[18] da; hala ere, industria ere kutsatzaile garrantzitsua da Hernanin, izan ere, Donostia Eremuko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren % 11,5 bertan baitago.

Gaur egunean EAEn arazo gehien ematen dituen kutsatzailea partikula esekiak (PM_{10}) dira. Hiri-guneetan ez dira betetzen kutsatzaile horientzako egungo airearen kalitate-estandarrak, ibilgailuen garraio ugariaren ondorioz, bereziki. Orobat, NO_2 kopuru handiak izaten dira urtearen edozein garaitan, bai eta ozonoarenak (O_3) ere, noizbehinka, udaberrian eta udan. Oro har, NO_2-kopuru handiak gune jakinetan aurkitzen dira, 'hot spot' deiturikoetan, ibilgailu-trafikoa bizia den tokietan, hain justu.

Industria-jarduerei dagokienez, badira unean uneko datu batzuk, esate baterako, 'Hernaniko industria-atmosferako konposatu organikoen ikerketa'[19], Lastaolako industria-poligonoari buruzkoa; izan ere, kimika-industriak, fundizio bat eta hainbat lantegi baitaude eta, bere kokapena dela medio, udalerriko ingurumen-kontrolaren puntu estrategikotzat jo zuen ikerketa horrek. Aipatutako ikerketaren ondorioen artean, hauek nabarmen daitezke:

- Konposatu organiko hegazkorren (KOH) kontzentrazio ertainak daude, neurrikoak, eta hiri-giroetako ohiko kontzentrazioen antzekoak. Multzo horren barruan, arreta berezia merezi dute hidrokarburo aromatikoek, KOHen guztizkoaren % 80 osatzen baitute; gai batzuen maila erlatiboak altuagoak dira, m-/p-xileno eta etilbenzenoarenak, esaterako, industrian disolbatzaileak erabiltzeari egozten zaizkionak.

- Hiri-guneetan ohikoak ez diren konposatu batzuk ere aurkitu dira (estirenoa eta butil-azetatoa, adibidez); horrek erakusten du industria-jarduerak inguru honi egiten diola.

- Metalezko partikula hegazkorrik ugarienak burdina eta zinka dira, baina maila hiri-guneetako ohikoa da, hortaz, industriak ez du eraginik metalei dagokionez.

- Eusko Jaurlaritzaren atmosfera-kontrolerako sare mugikorreko unitateek emandako datuak tratatzean frogatu ahal izan da kutsatzaile nagusien (CO, NO_x, PM_{10}) mailak, berriz, baxuak direla, hiri-inguruetan ohikoak izan daitezkeen mailekin erkatuta.

EAEn airearen kalitatea ikuskatzeko sareak 11 kontrol- eta ikuskapen-estazio ditu. Donostialdean zazpi estazio daude, Ategorrieta, Puio, Easo (Donostia), Errenteria, Lezo, Irun eta Hernanin. Hernaniko kontrol-estazioa UTM 582.980, 4791028 koordenatuetan (30N gunean) dago.

Sareak airearen kalitate-indize bat ateratzen du hainbat parametrotan oinarrituta, hala nola, SO_2, NO_x, CO, PM_{10}, eta O_3 kutsatzaileetan. Horien balioak denbora errealean neurtzen dira. Estazioetan bana-banako indizeak kalkulatzen dira kutsatzaile bakoitzeko; indize horri 'partzial' deritzo. Estazioko 'indize globala', aldiz, jokabide okerrena duen kutsatzailearen indize partziala da. Era berean, gune bateko estazioetako indize globalik okerrenak zehazten du gune horretako kalitate-indizea.

Airearen kalitate-indizea sei tartetan zatituta dago, eta airearen kalitate-egoera zehazten dute: ona, onargarria, neurrikoa, txarra, oso txarra eta arriskutsua. Tarte bakoitzari kolore bat egotzi diote, beheko taulan adierazten den gisara:

	Airearen kalitatearen deskribapena	NO_2	PM_{10}	SO_2	CO	O_3
	Ona	0-105	0-25	0.62.5	0-5000	0-90
	Onargarria	105.1-210	25.1-50	62.6-125	5001-10000	90.1-160
	Neurrikoa	210.1-252	50.1-65	125.5-146	10001-14000	160.1-180

[17] Osasunaren Mundu Erakundearen APHEIS Programa.
[18] 'EAEko Airearen Kalitatearen Ekintza Planen egungo garapena eta egoera (2009)'
[19] EHUko Ingeniaritza Kimikoko Taldeak egina (2004ko apirila).

	Txarra	252.1-330	65.1-82.5	146.1-187.5	14001-18000	180.1-270
	Oso txarra	330.1-699	82.6-138	187.6-250	18001-24000	270.1-360
	Arriskutsua	>700	>138	>250	>24000	>360

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3614/es/contenidos/informacion/red_calida_aire_capv/es_975/indice_calidad_c.html

Beheko taulan ageri dira azken ikerketa-aldiari (2005etik 2009ra) dagozkion Donostialdeako Airearen Kalitatearen Indizeak (AKI).

Urtea	*Ona*	*Onargarria*	*Neurrikoa*	*Txarra*	*Oso txarra*	*Arriskutsua*	GUZTIRA	Iraunkortasun-adierazlea
2005	203	148	12	2	0	0	365	% 96,16
2006	207	152	6	0	0	0	365	% 98,36
2007	212	146	7	0	0	0	365	% 98,08
2008	239	122	5	0	0	0	365	% 98,63
2009	259	105	1	0	0	0	365	% 99,73

Iturria: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3614/es/contenidos/informacion/historicos_red_aire/es_red_aire/indice.html

Donostialdeako zenbait neurketa-estaziotan lege-hausteak izan dira (Urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretua) 'EAEko Airearen Kalitatearen Ekintza Planen egungo garapena eta egoera (2009)'[20] txostenaren arabera, Errenterian (2004, 2005, 2006, 2007) eta Lezon (2005), zehazki.

[20] Labein-Tecnaliak egina, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarentzat.

3. HARTUTAKO ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK. HARTUTAKO ANTOLAMENDUAREN ZIOAK GARAPEN IRAUNKORRAREN PRINTZIPIOTIK ABIATUTA

Esku-hartzeko proposamen nagusien eskema bat jaso da hirigintza-txosteneko ***IV.1.1. Irudi bidezko antolamendua*** planoan (*E. Agiria – Planoak*). Atal honetan Testu Bategineko proposamenen laburpen bat egin da, iraunkortasunaren ikuspuntutik, bai eta ingurumenean eta lurraldean eragin handiena duten proposamenak zehaztu ere.

3.1. LURZORUAREN SAILKAPENA ETA KALIFIKAZIOA

- Proposatutako antolamenduak 354 hektarea bideratzen ditu hiritartze-erabileretara, hau da, 2007ko ekainean okupatuta zegoen lurzorua (294 hektarea gutxi gora behera)[21] baino 60 hektarea gehiago (% 20).
- 120 hektarea bizitegi-lurzorura bideratuko dira, lehen baino % 43 (36 hektarea) gehiago. Jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruak 153 hektarea hartuko ditu, abenduaren 2009an baino 30 hektarea gehiago, hau da, % 24ko igoera izan da.
- Lurzoru ez-hiritargarriak udalerriko azaleraren % 91 hartzen du, eta lau gune globaletan kalifikatuta dago.
- Azalera horren % 33 babes bereziko eta lur gaineko uren babeserako guneak dira.

Lurzoruaren sailkapena					
Lurzoru mota		Azalera (ha)		Ehunekoa	
Hiri-areak, guztira	Lurzoru hiritarra	293	**354**	% 82,5	**% 8,8**
	Lurzoru hiritargarria	62		% 17,5	
Lurzoru ez-hiritargarria		**3.686**		**% 91,2**	
Udalerria, guztira		**4.040**		**% 100,0**	

Hiri-areako lurzoruaren kalifikazioa							
Gune globala			Azalera (ha)		Ehunekoa		
Bizitegikoa	*A.10* Intentsiboa		34,7	**120,2**	% 9,8	**% 33,9**	
	A.20 Dentsitate ertaina		56,2		% 15,9		
	A.30 Dentsitate baxua		29,2		% 8,2		
Jarduera ekonomikoak	*B.10* Industria erabilera		133,1	**153,1**	% 37,6	**% 43,2**	
	B.20 Hirugarren sektoreko erabilera		19,9		% 5,6		
Sistema orokorrak	Komunikazioen sist. or.	*C.10* Errepideak	27,0	35,0	% 7,6	% 9,9	**% 22,9**
		C.20 Trenbideak	4,6		% 1,3		
		C.30 AHTrako erreserba	3,4		% 1,0		
	D.10 Hiri-gune libreen sist. or.		19,4	**81,2**	% 5,5		
	E.00 Ekipamendu orokorren sist. or.		19,8		% 5,6		
	F.00 Zerbitzu-azpiegituren sist. or.		6,9		% 1,9		
Hiri-areak, guztira			**354,4**			**% 100,0**	

Area ez-hiritarreko lurzoruaren kalifikazioa				
Gune globala		Azalera (hektareak)	Ehunekoa	
Landa-eremuko sistema orokorrak	*D.20* Landa-parkeko sist. or.	22,8	% 0,6	**% 1,1**
	E.00 Ekipamendu Komunitarioko sist. or.	11,4	% 0,3	
	F.00 Zerbitzu-azpiegituren sist. or.	6,2	% 0,2	
Landa eremuak	*G.10* Basoak	1.561,5	% 42,4	**% 98,9**
	G.20 Nekazaritza eta abelazkuntzako landazabalekoa	864,6	% 23,7	
	G.30 Babes berezia	988,0	% 26,8	
	G.40 Lur gaineko uren babesa	93,1	% 2,6	
	G.30 + G.40	137,9	% 3,7	
	C.30 TJPrako behin-behineko erreserba-zerrenda (*)	24,2		
Area ez-hiritarrak, guztira		**3.685,6**	**% 100,0**	

(*) Trenbideko Jabetza Publikorako behin-behineko erreserba-zerrenda (G.20 eta G.30 guneekin gainjarrita)
Iturria: Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko Memoria

[21] 2007ko ekainari dagokion datua, Arau Subsidiarioen Berrikuspen Agiria behin betiko onartu zenekoa. Iturria: *A.1 – Hirigintza-antolamenduaren eta horren exekuzioaren azalpen-memoria eta justifikazio-memoria* (Testu Bategina)

3.2. IZAERA SEKTORIALEKO ESKU-HARTZERAKO PROPOSAMENAK

3.2.1. BIZITEGI-ERABILERA

- Testu Bateginak 2.693 etxebizitza berriko erreserba aurreikusten du datozen 36 urteetarako, hortaz, egungo parkea (7.535 etxebizitza) % 36 handituko da.
- Antolatutako bizitegi-lurzoruaren 120 hektareatatik % 71 lurzoru finkatua da (85 ha), eta gainerako % 29, berriz, garapen berrirako aurreikusitakoa (35 ha).
- Garapen berriko guneen % 24 berrantolatutako lurzoru hiritarra da, % 20 hiri-sareko hutsarteak dira eta % 56 (19 ha) lurzoru hiritargarriko sektore berriak (19,5 ha).
- Bizitegi-garapen osoaren batez besteko dentsitatea 77 etxebizitza/hektareako ratiora iritsiko da (106 etxeb./ha lurzoru hiritarrean eta 56 etxeb./ha lurzoru ez-hiritargarrian).
- Etxebizitza berrien % 60 lurzoru hiritarrean eraikiko da eta gainerako % 40 (1.085 etxebizitza) lurzoru hiritargarrian.
- Bizitegi-lurzoruaren % 35 bizitegi-gune intentsiboa da (>75 etxeb./ha), % 56 intentsitate ertaineko bizitegi-gunea (30-75 etxeb./ha) eta % 24 intentsitate baxuko bizitegi-gunea (30 etxeb./ha, gehienez ere).
- Etxebizitza berrien % 54 babes publikoko araubiderako gordeko da (1.063 babes publikoko etxebizitzetarako eta 398 tasatuetarako).
- Planeamendua gauzatutakoan, hiri-areako etxebizitza-parkea 10.148 etxebizitzakoa izango da, eta gehieneko biztanle-kopurua, berriz, 24.500 ingurukoa (25.900 biztanle udalerri osoan).
- Landa-lurzoruan 431 etxebizitza inguru izango direla estimatzen da.
- Kalkuluen arabera, hiri-areako biztanleriak gora egingo du: 6.463 biztanle[22] gehiago izango dira, egungo biztanleria[23] baino % 34 gehiago.

Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak honako bizitegi-garapen hauek jasotzen ditu, lurralde-eremuka banatuta:

Proiektatutako bizitegirako hirigintza-eraikigarritasuna (etxebizitza berriak)					
Lurralde-eremua	Testu Bategina. 2010				
	Libreak	BOE	Tasatuak	Beste batzuk	**Guztira**
1. Hirigunea Erdialdea	34	9	9	-	**52**
2. Hirigunea Iparra	523	548	173	50 (*)	**1.294**
3. Hirigunea MEndebaldea	136	152	58	-	**346**
4. Hirigunea Hegoa	192	88	20	33 (**)	**333**
5. Hirigunea Aldiriak	66	151	80	-	**297**
6. Urumea Behealdea	8	3	3	-	**14**
7. Urumea Erdialdea	172	100	55	-	**327**
8. Urumea Goialdea	18	12	-	-	**30**
Hiri-area, guztira	**1.149**	**1.063**	**398**	**83**	**2.693**
	% 43	**% 39**	**% 15**	**% 3**	**% 100**

(*) Zuzkidura-egoitza
(**) Sustapen pribatuko etxebizitza hitzartua

2007an Arau Subsidiarioen Berrikuspena onartu zenetik 238 etxebizitza eraikitzen ari dira, lurzoru hiritarreko area hauetan:

- EL.05 (Elizatxo): 9 etxebizitza
- TX.01 (Txantxilla): 190 etxebizitza
- LA.03 (Latxunbe): 15 etxebizitza
- ER.04 (Ereñozu): 24 etxebizitza

Hortaz, Testu Bateginak proposatzen duen etxebizitza-parkearen benetako gehikuntza 2.455 etxebizitzakoa da; horiei dauden edo eraikitzen ari diren 7.773 etxebizitzak gehitu behar zaizkio; horren ondorioz, benetako gehikuntza atal honetako lehenengo taulan adierazitakoa baino txikiagoa da, % 31,5 ingurukoa.

Testu Bateginaren arabera, bizitegi-eraikigarritasuna areagotuko da 18 azpieremutan, beheko taulan zehazten den gisara. Bizitegi-eraikigarritasunaren gehikuntzan, erdia inguru, 120.202 m^2 (t), hiri-guneko (Hirigunea Iparra eremuan) iparraldean kokatutako auzoetan antolatu dira. Nabarmentzekoak dira Floridako (lurzoru hiritarrean, eta FL.09 arearen

[22] Egungo etxebizitza-okupazioaren ratioa: 2,4 biztanle/etxebizitzako
[23] Biztanleria (2009eko abenduaren 31n): 19.447 biztanle (hiri-ingurunean 18.142 bizi direla estimatzen da).

kategorizazioa 'finkatu gabea' da) eta Sagastialdeko gehikuntzak (sektore barruko lurzoru hiritargarria); azken horretan hainbat plan partzial onartu dira, (SG.04 2007/11/29an eta SG.05 2008/05/29an).

Garrantzitsuak dira, orobat, Hirigunea Hegoa, Hirigunea Mendebaldea eta Urumea Erdialdea eremuetan aurreikusitako gehikuntzak, hurrenez hurren: Txantxillan (lurzoru hiritarra TX.01 eremuan, 2008/10/13an onartutako Hiri Antolamenduko Plangintza Berezia duena), Villasen (lurzoru hiritar ez finkatua VI.05 eremuan eta sektore barruko hiritargarria VI.06 eremuan) eta Karabelen (lurzoru hiritar ez finkatua PK.02 eremuan).

Aipatutako esku-hartzeak gauzatuko dira lehenik, aldirietako lurzoruetakoak baino lehen, aurrez ziren gunean oinarritzen badira ere. Azken egoera horren adibideak dira Hirigunea Aldiriak (SB.04 eremua Santa Barbaran) eta Urumea Erdialdea (PK.03 eremua Portun) eremuetako sektore barruko lurzoru hiritargarriko erreserbak.

Bizitegi-eraikigarritasun berria m^2(t)-tan					
Lurralde-eremua	Azpieremua	Area (A) / Sektorea (S)	Birjartzea	Gehikuntza	Guztira
Hirigunea Erdialdea	Hirigune historikoa	A – CH.03	550	4.050	4.600
Hirigunea Iparra	Antziola	S – AN.07	-	6.700	120.202
	Etxeberri	A – ET.03; A – ET.04	-	1.800	
	Florida	A – FL.07; A – FL.08; A – FL.09	2.600	66.200	
	Sagastialde	S – SG.04; S – SG.05; S – SG.06	-	42.902	
Hirigunea Mendebaldea	Karobieta - Atsegindegi	A – KA.03	-	2.550	31.006
	Latxunbe	A – LA.03	-	1.300	
	Villas	A – VI.05; S – VI.06	-	27.456	
Hirigunea Hegoa	Txantxilla	A – KA.03	1.100	18.715	34.260
	Lizeaga	A – LI.03	610	2.340	
	Elizatxo	A – EL.02; A – EL.03; A – EL.05;	1.100	10.395	
Hirigunea Aldiriak	Santa Bárbara	A – SB.01; A – SB.03; S – SB.04;	-	27.400	27.400
Urumea Behealdea	Martindegi	A – MA.03	-	1.260	1.260
Urumea Erdialdea	Portu-Karabel	A – PK.02; S –PK.03; A – PK.04; A –PK.06	500	26.930	30.790
	Zikuñaga-Eziago	A – ZE.06	-	660	
	Osiñaga	A – OS.02	-	2.700	
Urumea Goialdea	Epele	A – EP.04	-	360	4.020
	Ereñozu	A – ER.01; A – ER.04;	-	3.360	
Hiri-area, guztira			**6.460**	**247.078**	**253.538**

3.2.2. JARDUERA EKONOMIKOEN ERABILERA

- Arau Subsidiarioen Testu Bateginak lurzoruaren 153 hektarea kalifikatu diru jarduera ekonomikoetarako; horietatik 133 industria-erabilerarako eta gainerako 20ak, berriz, hirugarren sektorerako. Horrek esan nahi du jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoruak 30 hektareako gehikuntza izan duela, aurrez zegoenarekin erkatuta (123 ha)[24].
- Horietatik, 117 hektarea, hots, jarduera ekonomikoetara bideratutako azaleraren % 77, finkatutako areak dira.
- Etorkizuneko jardueretarako eraikigarritasun-aukera ere handitu egin da, 249.982 m^2(t) gehiago, zehazki, finkatutako partzeletako soberakina zenbatu gabe.
- Galarretako eremuko 19,3 hektareei (*B.20*) hirugarren sektoreko erabilera egotzi eta teknologia-parke bat eraikitzera bideratzeak azaltzen du hiri-arean lurzoru-mota horren ehunekoa areagotzea, hiri-arearen % 5,6ra iristeraino.
- Ezezkoa eman zaie Urumearen ibarra (Altzueta) industria-garapen berrietara bideratzeko proposamenei.

Udalerriko industria-area nagusiak finkatu dira; 117,2 hektarea hartzen dituzte (antolatutako azaleraren % 77) Zubiondo, Zikuñaga, Eziago, Ibarluze, Lastaola eta Epeleko poligonoetan. Gehikuntza jakin batzuk baimendu dira Ibaiondo eta Akarregiko poligonoetan kokatutako partzeletan, baita industria-arearen handiagotze bat ere, ZIkuñagan

[24] 2009ko abenduaren 31ko datuak. Iturria: *A.1 – Hirigintza-antolamenduaren eta horren exekuzioaren azalpen-memoria eta justifikazio-memoria* (Testu Bategina)

(Andola, 2,2, hektarea sektore barruko lurzoru hiritargarrian). Orobat, kalifikatutako lurzoruaren 20,5 hektarea gehitu dira, garapen-planeamendua eduki arren oraindik gauzatu ez dena, Galarretan, Epelen (EP.02) eta Aureolako arean.

Bestalde, Floridako auzoan dago industriarako birkalifikatu den industria-lurzoruaren zati bakarra (3,7 ha), Bide Sistema Orokorrak hala eskatuta, dela inguruko hiri-sareko jarduerekiko bateragarritasun-eza, dela iraunkortasun-printzipioekin bat datozen hiri-birmoldaketarako beharrizanak (hiri-leheneratzea, lurzoruaren okupazioa arrazionalizatzea, Mugikortasun Planaren proposamenak, etab.) direla medio. Bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren gainerako jarduera ekonomikoek bere horretan jarraituko dute eremuan, planeamendu iraunkor baten irizpideen arabera erabilera-nahasketa eta –askotarikotasunari bide emateko.

Lurraldean eta udalerriaren egituraketan duen eragina dela eta, nabarmentzekoa da Galarretako eremuan aurreikusitako esku-hartzea (30,4 ha); zati bat finkatu egingo da eta 205.989 m^2(t) eraikigarritasun berrira bideratuko dira, hots, Testu Bateginean jarduera ekonomikoetarako eraikigarritasun berrira bideratutako lurren % 86, gutxi gorabehera. Lurralde-eremu horretara itzuliko dira zenbait enpresa, Floridako auzotik.

1996ko Arau Subsidiarioetan landa-lurzorua izanik, orain jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoru berria 9,8 hektareakoa da (antolatutako azaleraren % 6). Horietatik 7,6 erabilera industrialetarakoak dira (Galarreta eta Andola), eta 2,2 hektarea hirugarren sektoreko erabileretarako (Galarreta). Okupazio horiek Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren (2007) bidez onartu ziren eta, beraz, finkatutako eskubideak dituzte.

Espazioaren ikuspuntutik, ondoriozko antolamenduan ekonomia-jarduerak garatzera bideratu nahi da batez ere Galarretako eremua, Urumeako ibarreko landa-lurzorua okupatu ordez. Jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoru berriaren 32,6 hektareatatik 27,9 (% 86) Galarretan daude, hain zuzen ere.

Altzuetan (Urumeako ibarra) industria garatzeko proposamenari uko egin ondoren, landa-lurzoruaren beharrizana % 60 jaitsi da gutxi gorabehera, 24,6 hektareatatik 9,6 hektareatara. Erabaki hori garrantzitsua da Urumeako ertzen eta ibarraren babesari dagokionez, horien zati bat Urumea ibaia IKTaren parte baita, eta babes berezia behar duten nekazaritza-, paisaia- eta natura-balioak ditu.

Ekonomia-jardueretako areak					
Lurralde-eremua	Azpieremua	Azalera (ha)			Eraikigarria m^2(t)
		Hirugarren sektoreko erabilerak	Industria-erabilera	Guztira	
Hirigunea Iparra	Agustinak	0,1	-	0,1	Finkatua
	Florida	-	1,6	1,6	Finkatua
Hirigunea Aldiriak, Mendebaldea	Galarreta	19,3	11,1	30,4	+205.989
	Sorgintxulo	-	0,6	0,6	Finkatua
Urumea Behealdea	Landare-Zubiondo	-	11,2	11,2	Finkatua
	Ibaiondo	-	15,5	15,5	+19.850
	Martindegi	-	2,9	2,9	Finkatua
	Akarregi	0,2	9,1	9,3	+4.100
Urumea Erdialdea	Zikuñaga-Eziago	0,5	38,1	38,7	+8.550
Urumea Goialdea	Ibarluze-Lizarraga	-	14,4	14,1	Finkatua
	Lastaola	-	14,4	14,4	Finkatua
	Epele	-	14,4	14,4	+11.493
Guztira		**20,0**	**132,9**	**153,1**	**+249.982**

3.2.3. GUNE LIBREEN SAREA

- Testu Bateginak lurzoruaren 193.990 m^2 kalifikatu ditu Hiri Gune Libreen Sistema Orokorrerako. Horren ondorioz, 7,88 m^2/biztanleko eta 10,9 m^2/etxebizitzako ratioetara igo ahalko da Sistema Orokorrari dagozkion hiri-gune libreen estandarra. Testu Bateginean antolatutako proposamenak gauzatzeak esan nahiko du, praktikan, egungo etxebizitza-parkearen azalera % 49 handituko dela.
- Landa-izaerako aisialdi-parke eta –areak finkatu dira (Asola, Aparrain eta Santa Barbara). Santa Barbarakoa udal-jabetzakoa izango da.
- Testu Bateginak 'Urumeako ibai-parkea' eraikitzea aurreikusten du babes-bereziko gune globaltzat kalifikatutako eremuetan, eta bere garapenerako plan berezi bat lantzeko agintzen du.

Gune Libreen Sarea *II.3.1 Gune libreen eta ekipamendu kolektiboen sarea* deskribapen-planoan ikus daiteke, txosten honetako *E. Agiria – Planoak* atalean.

Hauek dira Testu Bateginean aurreikusitako parke hiritarren sarearekin lotutako jarduera nagusiak:

- Izpizuako parkea (Tilos-ZInkoenea) mantendu eta 3.600 m^2 handitzea (9.160 m^2 izango ditu guztira).
- Atzietako parkea 5.817 m^2 handitzea, horren ondorioz, Balantxa eta Leoka artean hirigune historikotik Urumeako ibarrera jaisten den maldaren azalera osoa espazio publikoa izatera igaroko da (27.731 m^2 guztira).
- Ave Maria-Mendi Mendian parkea nabarmenki handituko da (29.613 m^2), horren ondorioz, parkeak Latxunbe eta Antziola auzoak lotuko ditu iparraldeko muturrean, eta 9,6 hektareako azalera iritsiko du.
- Politena parkearen (Etxeberri eta La Cumbre auzoak) azalera ere nabarmenki handituko da, 4.234 m^2 , hain zuzen ere (parkearen egungo azaleraren % 20).
- Iturmendi parke berria sortzea (20.983 m^2); parkeak Antziola eta Etxeberri auzoak lotzen dituen tranbia zaharraren pasealekua barne hartzen du.
- Planifikatutako gainerako parke hiritarrak finkatzea (Nire Borda, San Antonio, Mesetas, Atsegindegi eta Ereñozu).
- Oraindik titulartasun pribatua duten parke horietako lursailak antolatutako bizitegi-area berrietara atxiki eta Udalari doan lagatzea aurreikusten du, bide batez lursail horietako batzuen bloke-egoera konpontzeko.

Nabarmendu behar da indarrean dagoen planeamenduak 161.067 m^2 bideratzen dituela erabilera honetara, eta horietatik 130.100 m^2 bakarrik gauzatu dira, arestian aipatutako kudeaketa-arrazoiengatik, beste arrazoi batzuen artean. Hala, bada, Testu Bateginean antolatutako proposamenak gauzatzeak, 193.990 metro koadrora iritsi arte, 63.890 metro koadroan handituko du hiri-gune libreetara bideratutako azalera, hau da, egun gauzatuta dagoen azalera baino % 49,1 gehiago.

Gune Libreen Sistema Orokorrari atxikitako jarduera horien osagarri gisa, Testu Bateginak espazio publikoa hobetzera bideratutako jarduera-multzo bat proposatu du hainbat auzotan. Jarduera horiek Gune Libreen Sistema Lokalari dagozkio. Beste batzuen artean, jarduera hauek nabarmenduko ditugu:

- Plaza berriak Florida (2), Lizeaga-Elizatxo, Portu, Karabel, Martindegi eta Osiñaga auzoetan.
- Parke edo lorategi berriak Villas, Portu, Karabel, Txantxilla eta Martindegi.
- Ekarpena Nere Borda eta Iturmendi parkeen handitze-lanei.

Azkenik, Akola eta Aparraingo (238 eta 120 ha, hurrenez hurren) aisialdirako udal-areak atxikiko zaizkio Landa Gune Libreen Sistema Orokorrari, bai eta garai bateko Santa Barbarako harrobiari eta inguruari dagokion azalera ere (22,8 ha); azken horren azalera osoa udalaren jabetzakoa bihurtuko da, hitzarmen bidez.

Testu Bateginak etorkizunean 'Urumeako ibai-parkea' eranstea ere aurreikusi du; parke hori plan berezi baten bidez antolatu beharko da, hain zuzen ere, Testuak babes bereziko gune globalaren barruan sartzen dituen Urumearen ibarreko area (horien artean Akarregiko meandroa) guztientzat agintzen duena.

Testu Bateginak proposatu du, gune libreen sareari lotutako jarduera-irizpide gisa, gauza daitezkeen lurzoru-ekarpenek (etorkizuneko hirigintza-planeamenduaren aldaketa edo berrikusketetatik eratorritakoak) jarraitasuna izan dezatela zehaztutako parke hiritarren sarearekin (Mendi-Mendian, Iturmendi, Politena), eta Udalaren lurzoru-politika bideratuta egon behar dela, batetik, babes bereziko kategoriari dagokion planeamendu orokorrean sartutako lurzoruak erostera eta, bestetik, eta bereziki, dauden parkeak eta aisialdi-areak handitzera edo Urumeako ibai-parkea sortzera.

3.2.4. EKIPAMENDU KOMUNITARIOA

- Testu Bateginak 198.320 m^2 egotzi dizkio Sistema Orokor honi.
- Aldaketa-kopuru handi bat jaso du, kudeaketa-beharrizanetatik, Mugikortasun Iraunkorreko Planaren proposamenetatik, hirigintza-berrantolaketetatik edo hainbat auzotako zuzkidura-beharrizanetatik eratorriak.

Testu Bateginean txertatutako proposamenen artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Partzela berri bat (3.829 m^2) antolatzea, udal-kanposantuaren eta Urumeako autobiaren artean dagoena, babes-zerrenda bat eratu eta instalazioak gehitzeko aukera gauzatzeko.
- Udal-eskolaren eraikina (Elkano eta Sandiusterri kaleetan) eraistea, 1996an 'antolamenduz kanpokoa' izendatu baitzuten. Askatutako orubeak (400 m^2) bide-sare lokala eta plaza bat osatuko ditu, eta lur-azpian aparkalekuak egingo dira.
- Villas auzoko Transpacar udal-partzela birkalifikatzea, eta instalazioak Sagastiya bizitegi-sektorera eramatea.
- Obren Udal Zerbitzuaren instalazioak (2.000 m^2) Estubegiko industria-sektore berrira lekualdatzea (Galarreta).
- Chillida eta Gureak fundazioei Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokor kalifikazioa ematea; 114.169 m^2 hartzen dituzte guztira, eta oraindik ez dira hirigintza-planeamenduan aintzat hartu.

Ekipamendu Kolektiboen zuzkidura *II.3.1. Gune libreen eta ekipamendu kolektiboaren sarea* deskribapen-sarean ikus daiteke, txosten honen *E. Agiria – Planoak* atalean.

3.2.5. MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Hirigintza-antolamenduari mugikortasun iraunkorreko irizpide, helburu eta proposamenak txertatzea izan da Testu Bateginaren ekarpen garrantzitsuenetako bat, planeamenduaren iraunkortasunaren ikuspuntuk; hain zuzen ere, Testu Bategina idazteko egindako Mugikortasun Iraunkorreko Planean (eranskin gisa jaso da txosten honetan) oinarritu dira.

Testu Bateginaren Memoriak adierazten duen bezala 'hiri-mugikortasunaren antolamendua da, hau da, hiriaren eta horren inguruko lurraldearen egituraketarekin lotutako lekualdaketa eta mugikortasun-baldintzen antolamendua, Hernaniko hirigintza-planeamenduak jorratu beharreko funtsezko lanetako bat'. Diputatuen Kontseiluaren 2007ko ekainaren 12ko Ebazpenak, berriz, esplizituki agintzen du Testu Bateginak Komunikazioen Sistemaren proposamenak osoki aztertu eta birpentsatzeko, ingurumenarekiko irizpide iraunkorretan oinarritutako Mugikortasun Plan batetik abiatuta.

Horrenbestez, Testu Bateginaren proposamenak aintzat hartu ditu Hernaniko Mugikortasun Iraunkorreko Planak[25] emandako irizpideak eta proposamenak. Plan hori aztertu ondoren, Arau Subsidiarioen Berrikuspen Proiektua osotu eta sakonean eraldatu behar izan da, txosten honetako *A. Agiria – Memoria*ko *10.6 Mugikortasuna* atalean adierazten den gisara.

Mugikortasun motordunari dagokionez, Testu Bateginak bide-sareak antolatu ditu, berezko erabileraren eta edukiera-ahalmenaren arabera hierarkizatuta:

- Hiriarteko bide-sarea: 2. gerrikoa (A-8), Urumeako Autobia (GI-131), Zirkuituko Errepidea (GI-2132) eta Nafarroarako errepidea. Testu Bateginak sare horretarako egindako proposamenen artean, aipatzekoa da Hernaniko mendebaldeko saihesbidea eratzea, 1.200 metro linealeko luzerakoa (horietatik 700 m.l. tunel-bidez), egungo bide-zatiari trafikoa kentzeko; izan ere, bide-zati horrek hesia osatzen du alde banatan kokatutako auzoen artean (Santa Barbara, Arrigoain, Elizatxo, Lizeaga, Txantxilla, eta Karobieta, besteak beste).

- Egiturazko hiribideen sarea: hiri-ehunaren barneko oinarrizko trafiko-banaketa egituratzen dute, eta ibilgailuak hirigunean zehar ez igarotzeko helburuarekin antolatuta dago. Horretarako, barne-eraztun bat sortzeko lana osatu eta antolatzen bukatu da: barne-eraztunak trafikoa banatu eta erdialdeko gune garrantzitsuenak lotuko ditu perimetralki; hiriarteko bide-sarearekin ere lotuko da, Martindegi, Zikuñaga, Mandazubi, Txantxilla, Sorgintxulo eta Galarretako lotuneen bidez. Jarduera sakonenetako bat Florida eta Landareko errotondak lotzen dituen bidea da, trenbidearen azpitik igaroko dena.

- Hiribideen sare lokala: motordunentzako barne-irisgarritasunerako zerbitzua ematen die antolatutako hirigintza-garapenei. Hirigune historikoan eta zabalgunean trafiko mugatuko guneak ezarri dira bai eta norabide bakarreko tarteak ere, ezintasuna nabaria den kasuetan izan ezik; azken neurri horrek kaleen diseinu berria ekarriko du (toki gehiago oinezkoentzat eta bizikletan doazenentzat eta trafikoa geldotzea, besteak beste).

Proposatutako motordun zirkulazioaren eskema *II.2.2 Motordun bideen eta trenbideen sarea (hiri-eremuan)* planoan ikus daiteke, *E. Agiria – Planoak* atalean, eta Mugikortasun Iraunkorreko Planaren irizpideekin bat dator. Testu Bateginaren Memorian adierazten den bezala, eskema hori 'alda edo doi daiteke, Udalak egoki irizten dituen ikerketa zehatzagoetan oinarrituta', baina gehitzen du 'aldaketa horiek ezingo dutela eraginik izan Testu Bateginak proposatutako funtsezko helburu eta konponbideetan, hots, Mugikortasun Iraunkorreko Planaren proposamenetan arrazoitzen direnetan'.

Testu Bateginak baditu aparkaleku-zerbitzuaren antolamenduari buruzko proposamenak ere; irizpide orokorrak bertan bizi diren pertsonei lehentasuna ematea, erdialdean aparkatzeko eta ibilgailuz iristeko asmoa kentzea eta ibilgailu pribatuak sistematikoki espazio publikoaz jabetzea mugatzea izan dira. Irizpide horiek motorrik gabeko hiri-mugikortasuna (oinez edo bizikletaz) bultzatzearekin lotuta daude.

Bizikleta eta oinezkoentzako sareei dagokienez, Testu Bateginak sare horien egitura nagusiari dagozkion ibilbideak eta zehaztapenak gehitu dizkio udalerriko komunikazio-sareen antolamenduari, *II.2.3. Oinezko eta bizikletentzako bide-sarea (hiri-eremua)* planoan ikus daitekeen gisan (txosten honen *E. Agiria - Planoak* atalean). Proposamenak zehatzago aztertu nahi izanez gero, txosten honetako *A.1 Hirigintza-antolamenduaren eta horren exekuzioaren azalpen-memoria eta justifikazio-memoria* ataleko *10.6.7 Bizikleta eta oinezkoen sarea (motorrik gabeko mugikortasuna)* azpiatala irakur daiteke.

[25] Mugikortasun Iraunkorreko Plana. Endara, Ingenieros Asociados SM

3.3. LURZORU EZ-HIRITARGARRIA GUNETAN BANATZEA

Hartutako hirigintza-antolamenduak Hernaniko azaleraren % 91 jotzen du lurzoru ez-hiritargarritzat.
Hala sailkatutako azaleraren zati txiki bat (3.686 ha) landa-eremuko Sistema Orokorrei dagokie (Komunikazioak, Landa Gune Libreak, Ekipamendu Komunitarioa eta Zerbitzu Azpiegiturak). Gainerako lurzorua honako gune global hauetan kalifikatuta dago Testu Bateginean:

- G.10 Landa-eremua. Basoak (1.562 ha, % 42)
- G.20 Landa-eremua. Nekazaritza eta abelazkuntzakoak eta landazabalekoak (864 ha, % 24)
- G.30 Landa-eremua. Babes berezikoak (1.126 ha, % 31)
- G.40 Landa-eremua. Lur gaineko urak eta horien bazterrak babesteko eremuak (93 ha, % 3)[26].

Kalifikazioa *2.2 Ingurune fisikoaren ingurumen-analisi, -diagnosi eta balioespena* kapituluan zehatutako ingurumen-diagnosiarekin bat egin da, honako alderdi hauek aintzat hartuta: guneen harrera-ahalmena, udalerriko gune zabal batzuen natura-balioa eta, oinarrizko irizpide gisa, ingurumen-interes handieneko elementu eta habitatak gorde eta hobetzea (hala nola, ura, lurzorua, landaredia, fauna eta paisaia).

Ingurumen-iraunkortasuneko txosten honek alderdi hauek nabarmentzen ditu:

- Lurzoru ez-hiritargarriaren gune-banaketa Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek ezarritako antolamendu-kategorietara moldatzen da, Ingurumen Inpaktuari buruzko Behin betiko Txostenaren gomendioei jarraiki.

- Babes bereziko gunea kategoria berezitzat jotzeari esker bi ingurumen-unitate gehitu dira, natura-, botanika-, fauna- eta paisaia-balio aipagarridunak eta, nahi izanez gero, nekazaritzarako agrologia-gaitasun handia dutenak. Unitate horiek mugarriztatzeko ez dira bakarrik babes-araubidea duten areak aintzat hartu, aitzitik, azken horiek handitu dira espazio- eta geografia-koherentziako oinarrizko irizpideen arabera.

- Kategoria honen barruan mugarriztatu eta kalifikatu da Urumea ibaiaren ibarrek eta bailarako behe-aldea, udalerria igarotzen duen tarte osoan, Aranotik (hegoaldean) Astigarragara (iparraldean). Urumea Ibaia IKTan sartutako jatorrizko eremu beraren parte da, eta handitu egingo da hiri-arearen ertzean (Portu) kokatutako nekazaritza-erabilerara bideratutako guneekin eta urak bereziki eragindako guneekin (Akarregiko meandroa). Testu Bateginak gune hau zehazki antolatzeko plan berezi bat lantzea aurreikusten du; izan ere, guneak garrantzia nabarmena du gune naturalen sareak egituratzeari dagokionez (ibaiak lotzea, paisaia-interesa, nekazaritza-balioa, intereseko habitatak, mehatxatutako fauna) eta ‘ibai-parkea’ izendapena ematea aurreikusten du.

- Ildo horretan, aipatu behar da eremuaren zati bati hainbat proposamen egin zaizkiola berrikuspen-prozesuan zehar (Akarregiko meandroan, Portun edo Altzuetan bizitegi- edo industria-garapenak egitea), aurrera egin izanez gero ibai-gune hau gordetzeko eta zaintzeko aukerak murriztuko zituztenak.

- Azaldu bezala zehaztutako proposamenak bat egiten du UEAk urez betetzeko arrisku berezia duten guneentzat xedatutako irizpideekin. Proposatutako antolamendua bat dator, orobat, ‘Urumea ibaiaren arroko azterketa eta antolamendu hidraulikoa, ibai-ahotik Altzuetara (Hernani)’ txostenean aurreikusitako jarduerekin.

- Epelerreka, Aparrain eta Urumea ibaiaren arteko lurrak ere babes bereziko gunearen baitan daude; lur horien ardatza Usoko errekaren arroa da. Gune horren barruan daude Aiako Harriako parke naturala eta IKTko area babestuak, gehi Urumea ibaiaren arrorainoko lurrak (espazio- eta geografia-koherentzia dela medio).

3.4. GAINJARRITAKO ANTOLAMENDU-BALDINTZAK

Testu Bateginak hirigintza-antolamendurako gainjarritako baldintza batzuk ezartzen ditu, goragoko maila arautzaileko lege-xedapenetan edo udal-planeamenduan oinarrituta. Hona hemen Testu Bateginak jasotako baldintzen zerrenda:

- CS.1 KUALIFIKAZIO-FAKTOREAK

  - CS.1.a Agrologia-gaitasun handiko lurzoruak
  - CS.1.b Hondatutako eremuak

[26] Babes bereziko azaleran sartu dira, aldi berean, area horri eta Lur gaineko uren babeserakoari dagozkion 138 hektarea; horrenbestez, bigarren areak 231 hektarea hartzen ditu.

- CS.2 ARRISKU-FAKTOREAK

  - CS.2.a Akuiferoen kutsadura-arriskupeko areak
  - CS.2.b Area higakorrak
  - CS.2.c Urez bete daitezkeen inguruak
  - CS.2.d Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen diren edo gauzatu diren lekuak.
  - CS.2.e Jarduera arriskutsuen segurtasun-area

- CS.3 BABESTUTAKO GUNE ETA ELEMENTU NATURALAK

  - CS.3.a Parke naturalak: Aiako Harria
  - CS.3.b Zuhaitz bereziak

- CS.4 NATURA-INTERESEKO GUNE ETA ELEMENTUAK

  - CS.4.a Interes Komunitarioko Tokiak (IKT).
  - CS.4.b Fauna-intereseko area
  - CS.4.c Natura-intereseko landaredi-areak
  - CS.4.d Mehatxatutako florarentzako babes-areak
  - CS.4.e Hiri-eremuko parke eta zuhaiztiak
  - CS.4.f Hezeguneak (Santa Barbarako urmaela)
  - CS.4.g Interes geomorfologikoko areak
  - CS.4.h Paisaia-babeserako eremuak
  - CS.4.i Ekologia-harremanetarako pasabideak

- CS.5 INTERES ARKEOLOGIKOKO AREAK

  - CS.5.a Estazio megalitikoak
  - CS.5.b Gune arkeologikoak
  - CS.5.b Arkeologia-balioko guneak

- CS.6 LEGEZKO ZORRAK

  - CS.6.a Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko zona
  - CS.6.b Lur gaineko urak eta horien bazterrak babesteko eremuak
  - CS.6.c Babes-zorra (Gipuzkoako errepide eta bideak)
  - CS.6.d Trenbide-zorra
  - CS.6.e Behin-behineko erreserba-zerrenda trenbideko jabetza publikorako. Abiadura Handiko Trena

- CS.7 AREA AKUSTIKOAK

  - CS.7.a Bizitegi-erabilera.
  - CS.7.b Industria-erabilera.
  - CS.7.c Aisialdirako eta ikuskizunetarako erabilera.
  - CS.7.d Hirugarren sektoreko erabilera.
  - CS.7.e Osasun-, irakaskuntza- eta sorospen-erabilera
  - CS.7.f Komunikazio-azpiegiturako sistema orokorrak
  - CS.7.g Gune natural lasaiak

Txostenaren *A. Agiria – Memoria* ataleko *10.9 Antolamenduari gainjarritako baldintzak* azpiatalean banaka azaltzen dira aipatutako baldintza horiek guztiak. Horietatik asko Testu Bategina idazteko egindako lurraldearen eta ingurune fisikoaren analisi eta diagnositik eratorri dira; azken horiek txosten honen 2. kapituluan jaso dira, eta txostenean zehaztutako ingurumen-baliabide eta arriskuen azterketari dagozkio.

Goian zerrendatutako baldintzen mugak *II.5.1* eta *II.5.4* bitarteko planoetan (*E agiria – Planoak*) ikus daitezke; horrez gainera, baldintza bakoitzari dagokion araubide erregulatzailea ere kontsulta daiteke *B.1 – Hirigintza Arau Orokorrak* agiriko Bosgarren Tituluan.

3.5. GARAPEN IRAUNKORRAREN PRINTZIPIOTIK ABIATUTA ONARTUTAKO ANTOLAMENDUAREN JUSTIFIKAZIOA

Garapen iraunkorraren kontzeptua edukitzea kontzientziazio kolektiboa dagoen seinale da. Izan ere, garapen-eredu tradizionalaren lehentasunak auzian jarri ditu, eta zenbait gairi buruzko gogoeta egitea eragin du, esaterako, ekitateari, aniztasunari, integrazio ekonomikoari eta ingurumenaren babesari buruzkoa. Filosofia hori bere baitan hartu du Eusko Jaurlaritzak 2002. urtean onartu zuen Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020). Bertan, jomuga, helburu, eta epe labur, ertain eta luzeko konpromisoak ezarri ziren.

Epe laburreko helburuak eta konpromisoak Ingurumen Esparru Programan (2002-2006) gauzatu ziren. Indarrean egon zen epea amaitu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak koordinatu eta sustatu du II. Ingurumen Esparru Programa (2007-2010). Programa horrek 11 helburu estrategiko ezarri ditu, hau da, programa horren bidez hartutako konpromisoak jasotzen dira bertan.

Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginean proposatutako hirigintza-antolamendua aztertzeko eta justifikatzeko, baloratu da zenbateraino den hura koherentea bi plan horietan ezarritako irizpide, helburu eta konpromisoekin. Horrez gain, 'Hirigintza-planeamenduak iraunkortasun-irizpideez idazteko eskuliburua[27] izeneko txostenean hautatutako irizpideak eta adierazleak ere hartu dira kontuan.

Eskuliburu horretan, *"hiri-eredu trinko eta anitza"* izatearen abantailak definitzen dira. Hau da, hiri-eredu trinko eta sendoa, forma aldetik jarraitutasuna izango duena, funtzio anitzekoa, heterogeneoa eta anitza luze-zabalera osoan. Hiri-eredu hori herri eta antolatuko den lurraldearen arabera egokituta, iraunkortasun-helburuetara ondoen egokitzen dena da.

Jarraian, laburbilduta adierazi ditugu hiri-eredu iraunkorrak kontuan izan behar dituen funtsezko elementuak. Horiek lehen aipatutako eskuliburuan adierazitakoak dira, eta, gero, Testu Bateginak egindako proposamenak, irizpide eta elementu horiekin bat datozenak. Zenbait alderdiri buruzko datuak baditugunez, alderaketak egiteko aukera emango duten adierazleak ere erantsi ditugu, ahalik eta ebaluazio objektiboena aurkeztea baita xedea.

- *Hiri-asentamendu trinko eta polizentrikoak: konplexutasun handiagoko erabileretarako aukera emango dutenak, baina lur, energia eta material gutxiago erabilita, gutxiago kutsatuta eta hurbilago egonda*

- *Dentsitate handi samarrak eta erabilera malgua eta mistoa ematea*

- *Finkatutako hiri-sareak eta eraikitako ondarea optimizatzea: egungo hiria eraldatzea, berreskuratzea eta berritzea, lurzorua eta baliabideak optimizatzeko estrategia eta hiriaren memoria historikoa babesteko estrategia baita*

- *Baliabide-kontsumoa optimizatzea eta hondakin-produkzioa txikiagotzea: lurra, energia, ura eta materialen kontsumoa murriztea, bai eta hondakinen produkzioa eta kutsagarrien isurketa ere.*

- *Mugikortasun iraunkorra eta integratua lurraren erabilerekiko: hurbiltasuna erraztea, ibilgailuekiko mendekotasuna eta haien lehentasuna eta inpaktua murriztea eta bitarteko ez hain agresiboak bultzatzea (oinezkoentzako bideak, bidegorriak, garraio publikoa…)*

- *Etxebizitza duina izatea, etxebizitza-eskubidea funtsezko eskubide gisa bermatzea, toki egokietan eraikita, eta kopuru, irisgarritasun, kalitate eta prezio egokiak bermatuta*

- *Eraikuntza iraunkorra sustatzea, eraikuntzak normalean eragiten duen baliabideen eta hondakinen arteko balantzearen inpaktua murriztuta (eraikinak, egiturak, hirigintza…)*

- *Hiria gune publikoaren arabera egituratzea, gune publiko integratuekin, gune eder, anitzak, irekiak eta elementu natural ugarirekin.*

- *Arrisku natural eta teknologikoak prebenitzea. Prebentzio-printzipioa erabiltzea, gune arriskutsuetako (urak har ditzakeenak, ezegonkorrak..) edo arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak gauzatzen diren guneetako (industrialdeak…) lurra erabiltzeak ekar ditzakeen egoera arriskutsuak eragotzita*

- *Bioaniztasuna eta natura-ondarea zaintzea, habitat naturalak hiri-garapenetik babestuta eta/edo gune naturalak hiri-sarean integratuta*

[27] LKS eta M+A+S Abogados enpresek egina IHOBErentzat —Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa (2005eko martxoa)

- *Landa-eremuari eustea, garapen ekonomikoaren, ekosisteman duen funtzioaren eta ingurumen- eta paisaia-baldintza egokien arteko oreka bultzatuta*

- *Kohesio soziala eta erabakiguneetan parte hartzeko erraztasuna, hiritarrek parte par dezaten mekanismo eraginkorren bidez*

Halaber, 2007-2010 epealdiko Ingurumen Esparru Programan ezarritako zenbait jarduketa-lerro ere bildu dira, eta Testu Bateginaren bidez aurkeztutako proiektuan adierazi, dokumentu horretan hartutako konpromisoak betetze aldera.

1. xedea. 1. Helburu estrategikoa. Aire garbia

- *Airearen kalitaterako ekintza-planak garatzea, bere baitan neurri-multzo bat hartuko duena, tokiko atmosfera-kutsadura gehien bultzatzen duten sektoreetan abian jartzeko (ibilgailuen zirkulazioa, industria-jarduerak…).*

- *Zonakatze akustikoa, eta zarata-mapak eta ekintza-planak egitea, helburua izanik zarataren eraginpean biztanle-portzentaje eta/edo azalera txikiagoa egotea.*

1. xedea. 2. Helburu estrategikoa. Uraren kalitate ona

- *Ibaiak edo ibai-zatiak babesteko ekintzak sustatzea, bai eta lehenera ekartzeko ekintzak ere, ur-masen naturaltasuna berreskuratzeko, arrisku morfologikoak aldenduta.*

1. xedea. 3. helburu estrategikoa. Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta zuzentzea

- *Lehentasuna ematea kutsatutako lurzorua berreskuratzeari, lurzoru ez-hiritargarria birkalifikatzeari eman ordez.*

2. xedea. 5. helburu estrategikoa. Energiaren kontsumo eta produkzio arduratsua sustatzea

- *Energiaren kontsumo iraunkorra bultzatzea garraioan (garraiobideak hobeto erabili, araudi-aldaketak…).*

3. xedea. 7. helburu estrategikoa. Gure dibertsitate biologikoari eustea

- *Natura 2000 Sarea: kudeaketa-neurri egokiak gune horietan.*

- *Gune Natural Babestuetatik kanpo dauden eremuen nahikotasun, koherentzia eta konektibitatea. Babes Bereziko guneak deklaratzea Arau Subsidiarioetan.*

- *Berdeguneen eta ibai-zatien ingurumenaren kalitatea hobetzea hirigunean.*

- *Tokiko administrazioek natura-balio berezia duten lurzoruak erostea eta gordetzea.*

4. xedea. 8. helburu estrategikoa. Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz

- *Mugikortasun Iraunkorrerako Planak egitea eta abian jartzea.*

4. xedea. 9. helburu estrategikoa. Lurraldearen erabilera orekatsua egitea

- *Ingurumenari buruzko irizpideak planeamendu orokorrean eta garapen-planeamenduan kontuan har daitezen sustatzea, hirigintza-planeamenduak iraunkortasun-irizpideez idazteko eskuliburuan ezarritako jarraibideen arabera. Izan ere, eskuliburu horretan, hiri eta herri trinko eta anitzei ematen zaie lehentasuna.*

- *Artifizial bihurtutako lurzoruak erabiltzeari lehentasuna ematea, lurzoru ez-hiritargarriak birkalifikatu baino lehen, batik bat nekazaritzarako lurzorua eta lurzoru naturala zainduta.*

- *Eraztun berdeak egitea udalerriaren eremuan, berdegune gehiago eginda, natura hiri-ingurunean integratuta, biodibertsitatea bultzatuta eta hiri-sarea kalitate onez handiagoa eginda.*

- *Berdeguneak sustatzea eta gehiago egitea, hiriguneak naturaren bidez aireztatzeko.*
- *Artifizial bihurtu eta erabiltzen ez diren lurzoruak berriz ere naturalak izateko eta lehenera ekartzeko programak egitea; esaterako baterako, utzita dauden bideak, neurriz kanpoko urbanizazioak…*

TESTU BATEGINAREN IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK

- Hirigintza-planeamenduak lehen ere aipatu ditugun zenbait irizpide hartu ditu bere baitan. Irizpide horiek hiri-eredu hau sortzea bermatzen dute: trinkoa, gune publiko eta ekipamendu asko dituena, hirigune eroso eta bizitzeko egokia duena, anitza, ondare historiko eta artistikoari balioa ematen diona, jarduera ekonomiko eta industrialen eta hirugarren sektorearen arteko oreka berriz ere lortu duena, sarbide egokiak dituena, motorrik gabeko mugikortasuna bultzatzen duena eta haren natura-ingurune aberatsean integratuta dagoena. Esku-hartze garrantzitsuenetako batzuk adieraziko ditugu.

- Testu Bateginean (2010) hirigunearen azalera nabarmen murriztu da (30 hektarea), Arau Subsidiarioen Berrikuspenak (2007) bere baitan hartzen zuren hirigunearen aldean, eta bere horretan geratzen da aurreikusitako garapenaren zenbatekoa.Testu Bateginak 354 hektarea hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriren antolamendua egiten du, eta Arau Subsidiarioen Berrikuspenak, berriz, 398 hektarea, eta hasieran onartutako dokumentuak (2004. urtea) 405 hektarea aurreikusten zituen.

- Testu Bateginak etxebizitza berrien kopurua pixka bat murriztea proposatzen du, hain zuzen, 164 etxebizitza gutxiago. Egokitze horiek, beste lurralde-eremu batzuetan egindakoekin batera, funtsean, ekonomia-jardueren erabilerari baino ez dagozkio; izan ere, erabilera hori 10. eremuari –Galarreta- esleitu zaio. Eremu horretan, lehenago, 300 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusita zegoen hiri-egiturarekiko gune periferiko batean. Nolanahi ere, Hernaniko hirigunean, planeamenduan araututako antolamendua gauzatu ondoren, guztira 10.148 etxebizitza inguru izango direla kalkulatzen da, kontuan hartuta orain dauden 7.535 etxebizitzak (2009ko abendua). Horrek berretsi egiten du garapenaren zenbatekoari eutsi zaiola lurzoru gutxiago erabilita, hori bai, 16 urteko epea kontuan hartuta, eta ez 8 urtekoa, aurreko planeamenduek bezala.

- Testu Bateginak hiri trinkoago baten alde egiten du, eta hori hala dela nabarmen geratu da, besteak beste, lurzoru gutxiago hartzen baita bizitegi-erabilerarako. Lehen esan dugunez, oro har, bizitegi-eskaintza (etxebizitzen kopurua) bere horretan utziz gero, etxebizitza-kopuru horretarako hartuko den azalerari dagokionez, agerian geratu da alde nabarmenak daudela. Hasierako Onarpenaren fasean guztira 192 hektarea kalifikatu ziren bizitegi-erabilerarako, eta Arau Subsidiarioen Berrikuspenean, berriz, 161 hektareatara murriztu zen, eta Testu Bateginean 120 hektareatara.

- Hiri-eremuen edukiera aprobetxatzearen alde egin da, landa-lurzorua alferrik har dadin eragozteko. Florida auzoa da horren adibide. Hiri-egituran pieza estrategikoa da auzo hori, eta oraingo egoera nolakoa den ikusita ezinbestekoa da dauden industria-erabilerak arrazionalizatzea eta garbitzea, eta, halaber, aldameneko bizitegi-guneen ingurumen-egoera hobetzea. Auzo horretan egingo dira onartutako antolamenduan erabakitako etxebizitza berri guztien laurdena baino gehiago, eta, horrenbestez, Testu Bateginak oraingo hiri-sarea lehenera ekartzearen aldeko apustua (funtzionalki zein ingurumenari dagokionez) egin du eta erabileren nahasketa orekatuari eusteko apustua ere bai (bizitegiak eta ekonomia-jarduerak).

- Dentsitate txikiko bizitegietarako lurzorua 41,1 hektareatik (Arau Subsidiarioen Berrikuspena) 29,2 hektareara (Testu Bategina) murriztu da. Hasierako Onarpenaren fasean 47,4 hektarea kalifikatu ziren. Hiriguneko bizitegi-eremuetan ere murriztu da portzentajea, hain zuzen, %26,7tik %24,3ra. Beraz, nabarmena da lurzoru gutxiago erabiltzea bultzatu nahi dela, eta hiri iraunkorrago baten alde egin nahi dela, mugikortasun eta irisgarritasunaren ikuspuntutik.

- Batez besteko dentsitatea ere, beraz, handiagoa da, eta horrek esan nahi du hiriko zerbitzu-sareen efikazia txikiagoa izan daitekeela eta energia gutxiago kontsumituko dela. 2004. urtean (hasierako onarpena), aurreikusitakoaren arabera, batez besteko dentsitatea hirigunean 53 etxebizitza hektareako zen, Arau Subsidiarioen Berrikuspenean 69 etxebizitza hektareako eta Testu Bateginean, berriz, kopuruak gora egiten du: 77 etxebizitza hektareako.

- Ekonomia-jardueretarako azalera-kopuruak gora egiten bazuen ere, eten egin da joera. Berrikuspen-dokumentuarekiko (2007) behera egin du, 40,4 hektareatik 32,7 hektareara. Hortaz, horrela kalifikatutako lurzoruaren portzentajeak behera egin du %34tik %27ra. Portzentajeak behera egin badu ere, etorkizunean abian jar daitezkeen jardueretarako eraikigarritasunak gora egin du, hain zuzen, lehen 210.147 m^2(sab) zen eta, orain, 249.982 m^2(sab). Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren proportzioak ere puntu bat baino zertxobait gehiago egin du gora hiriguneko azalerarekiko. Hain zuzen, %41,9tik %43,2ra.

- Florida auzoan lehendik zegoen hiri-lurzoru industrialaren zati bat soilik birkalifikatu da lurzoru industrial (3.7 hektarea). Ezinbestez egin behar izan da, Bide Sistema Orokorra dela-eta, zeuden jarduerak eta ondoko bizitegi-eremua bateragarriak ez zirelako, edo hiri-birmoldaketa behar-beharrezkoa zelako iraunkortasun-printzipioen arabera (hiri-eremua lehenera ekarri, lurzoruaren okupazioa arrazionalizatu…). Bizitegi-erabilerarekin bateragarri diren gainerako ekonomia-jarduerak bere horretan utzi dira, eta erabileren arteko nahasketa eta erabilera anitzak planeamendu iraunkorreko irizpideekin koherenteak izan daitezen bultzatu da.

- Hiri-lurzoruan edo hiri-sarean dauden hutsuneetan leheneratzeko eta birgaitzeko esku-hartze handiak arautu dira. Horien artean, nabarmentzeko modukoak dira Txantxillako eta Floridako bizitegi-jarduketak. Izan ere, 935

etxebizitza berri egitea aurreikusi da, hau da, planeamendu orokorrean aurreikusitako etxebizitza berri guztien %35 inguru. Lan horiek egiteaz gain, bi eremu horien ondoko gune publikoetan hobekuntzak egingo dira eta hiriko bide-sistema ere hobetu egingo da.

- Testu Bateginean onartutako etxebizitza babestuen kopurua eta portzentajea handiagoa da (tasatuak + Babes Ofizialeko Etxebizitzak + ostatu-dotazioa), Arau Subsidiarioen Berrikuspenean onartutakoak baino. Guztira, 1.461 etxebizitza dira eta etxebizitza berrien %54; 2007. urtean onartutako dokumentuan, berriz, 1.348 etxebizitza eta %47. Etxebizitza babestu horiek Planak xedatutako lurralde-eremu guztietan daude, eta portzentajeei dagokienez, %32 eta %78 artekoak dira.

Lurralde-eremua	Etxebizitza babestuak	Etxebizitza berriak guztira	Portzentajea
Hirigunea Erdigunea	18	52	%34,6
Hirigunea Iparra	721	1.294	%55,7
Hirigunea Mendebaldea	210	346	%60,7
Hirigunea Hegoa	108	333	%32,4
Hirigunea Aldiriak	231	297	%77,8
Urumea Behealdea	6	14	%42,9
Urumea Erdialdea	155	327	%47,4
Urumea Goialdea	12	30	%40,0
Guztira	**1.461**	**2.693**	**%54,3**

- Hernaniko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plana gehitzeaz gain —ordenantza bereziak eguneratzea aurreikusten da— herriaren erdialdean dauden gune publikoak hobetzeko zenbait esku-hartze proposatzen ditu planak. Esate baterako, Atzieta parkea handitu egingo da, eta Ispizuako (Ezkiaga-Zinkoenea) gune publikoa ere handitu egingo da. Hirigune historikoarekin muga egiten duten areak dira eta erdiguneko eremu horietan bizitzeko baldintzak eta bizi-kalitatea hobetu egiten dira.

- Hiriko Gune Libreen Sistema Orokorrari dagokionez, Testu Bateginean (2010) 26.664 m^2 handitzen da, Arau Subsidiarioen Berrikuspenarekiko (2007), eta, guztira, azalera 193.990 m^2-koa da. Jarduketa horri esker, Sistema Orokorreko hiriko gune libreen estandarra handiagoa izango da 19,0 m^2/etxebizitzako (7,9 m^2/ biz) hirigunean. Testu Bateginean ezarritako proposamenak gauzatu ondoren, praktikan, egun dauden hiri-parkeen azalera %50 inguru handituko da. Izan ere, indarrean dagoen planeamenduak erabilera horretarako erabakitako azaleratik soilik 130.100 m^2. gauzatu dira.

- Hirigunea trinkotzeko proposamena, Testu Bateginean erdiguneko eremuetan zirkulazioaren antolamendurako araututako beste jarduketa batzuekin batera (hirigune historikoan eta zabalgunean zirkulazio mugatuko kaleak, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen sarearen arabera kaleak berriro diseinatu…), baliagarria da joan-etorriak egiteko moduak antolatzerakoan erabilera iraunkorragoak izateko.

- Horren haritik, merezi du nabarmentzea bizitegi-eskaintza berrien %69 tren geltoki batetik edo bietatik (geltokia eta geralekua) 600 metro lineal baino gutxiagoko inguruan kokatu dela (10 minutura oinez). Tren geltoki eta geralekuek udalerria eta hiriburua lotzen dute, Hernani eta eskualdeko beste udalerri batzuk ere bai (Urnieta, Andoain), eta etorkizunean, halaber, Astigarragan egingo duten tren-sare berriaren geltokiarekin ere lotuko dira. Ekintza-ingurune horren barruan, halaber, ekonomia-jarduerarako gune handiak daude; esate baterako, Zubiondo eta Ibaiondo industrialdeak, eta Akarregi eta Zikuñaga industrialdeen zatiak. Bi geltoki horietatik kilometro bateko ingurunetik kanpo (20 minutu oinez) bizitegi-eremu hauek baino ez daude: Antziola Iparraldea (Hirigunea Iparra), Latsunbe (Hirigunea Mendebaldea) eta Santa Barbararen zati bat (Hirigunea Aldiriak). Dena dela, herriarteko autobus-zerbitzu publikoa dute.

- Testu Bateginak oinezkoentzako eta bizikletaz ibiltzeko ibilbide-sare handia zehaztu du, barrualdetik erdiko eremua eta bizitegi-auzoak lotzen dituena, bai eta horiek guztiak ekipamendu-sarearekin, hiri-parkeekin eta lotura intermodaleko guneekin ere (tren-sareko geltokia eta geralekua, eta Landare eta Karabeleko aldirietako aparkalekua). Azken horren kasuan, bestalde, irisgarritasun bertikal baten bidez ere lotuta dago (geralekuko igogailua eta hirigune historikoa).

- Industrialde nagusietara joan-etorriak motorrik gabe egiteko ibilbideak ere gaineratu ditu proposamenak (Galarreta, Florida, Zubiondo, Akarregi, Eziago, Ibarluze, Epele). Florida eta Ergobia arteko lotura ere erantsi du, trenbide-pasagunetik igaro ordez, oinez edo bizikletaz ibiltzeko aukera ematen duen gaineko pasabidea jarrita. Adierazitako bizikleta-ibilbideen artean, bi zati Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarean daude (I.3 Donostia-Beasain ibilbidea, Astigarraga eta Urnieta artean; I.3.3 Karabel - Epele adarra). Horrez gain, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako ibilbidean zenbait aldaketa egitea ere proposatzen du, egun izapide-prozesuan.

- Lurzoru ez-hiritargarriari dagokionez, Testu Bategina egokitu egin da eta onartuta dauden goragoko mailako antolamendurako lege-bitartekoekin bat etorrita egin du eremuaren antolamendua. Lege-bitarteko horiek dira, besteak beste: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (antolamendu-kategoriak, gainjarritako baldintzatzaileak, erabilera-matrizeak), EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (LAP), Hezeguneen LAPa, Itsasertzaren LAPa eta EAEko Trenbide Sarearen LAPa. Horiez gain, izapide-prozesuan dauden beste lege-bitarteko batzuetan hartutako erabakiak ere aintzat hartu ditu Testu Bateginak, esate baterako, Donostiako Lurraldearen Zatiko Plana (LZP), Nekazaritza eta Basogintzari buruzko LAPa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPa eta Ibaiak eta Ertzak Antolatzeko LAParen aldaketak.

- Landa-lurzoruan gune globalak kontuan hartzeaz gain —babes-mailaren arabera arautzen baitira lurzoruaren erabilerak—, Testu Bateginak 'Hirigintzako gainjarritako antolamendu-baldintzatzaileak' zorrotz aztertu ditu, eta horietarako arau-parametro bereziak ezarri ditu. Baldintzatzaile horien artean, honako hauek daude: arrisku-faktoreak (uholde-arriskuak, higadura-arriskuak, jarduera arriskutsuak), ingurumen-interesa —zenbait alderdiri dagokionez— duten balioen, elementuen eta guneen babesa (interes geomorfologikoa, hidrologikoa, agrologikoa dutenak, eta ondare, fauna, galtzeko arriskuan dagoen flora, paisaia aldetik interesa dutenak, Batasunaren Intereseko Lekuak, parke naturalak…).

- Urumea ibaiaren ibilgua eta ertzak zaintzeari lehentasuna ematen dio araututako antolamenduak, ibai-gune naturala delako, eta, halaber, ibaiaren ibarretako nekazaritza-jarduera eusteari ere lehentasuna eman dio, Pagoaga eta Akarregi arteko udalerriaren zatia egituratzen dutenak. Izan ere, ibar horiek hirigintza-garapenetarako erabiltzeko proposamenak zeuden (Akarregi, Portu, Altzueta).
- Eremu horiek bizitegi- eta industria-garapenetarako erabiltzea dezente mugatzen du Testu Bateginak, uholde-arriskua baitute; esaterako, lehen aipatu ditugun Akarregi, Portu eta Altzueta eremuak dira horietako batzuk, eta 'babes bereziko gune' eta/edo 'lur gaineko uren babesa' kategorien barruan sailkatu ditu. Akarregiren kasuan, lursailak gorde dira 'Akarregiko meandroaren ebaketa' egiteko, hala ezarrita baitago lehen dokumentu honetan aipatu dugun 'Urumea ibaiaren bokalearen eta Altzueta gunearen arteko zatiari dagokion azterketa hidraulikoa eta antolaketakoa'.

3.6. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO BEHIN BETIKO TXOSTENA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO DIPUTATUEN KONTSEILUAK 2007KO EKAINAREN 12AN HARTUTAKO ERABAKIAK BETE DIRELA JUSTIKATZEN DUEN MEMORIA

3.6.1. Aurrekariak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Sailak 2007ko maiatzaren 23an eman zuen Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenen Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostena.

Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak adierazten du 'aldekoa' izango dela, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira, hain zuzen, Ingurumen Eraginaren Azterlan Bateratuan (aurrerantzean, IEAB) zein espediente osoan ezarritakoak.

Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak honako hau ezartzen du, hitzez hitz, IEABari buruz:

Hasierako onarpena jasotzeko aurkeztu zen ingurumen eraginaren baterako balorazioaren azterketaren eduki osoa berrikusi behar da eta horretarako, jada Hernaniko Udalak berak «Behin behineko Onarpenaren Azterketaren Eranskina» izeneko dokumentuan adierazitako ildoak jarraituko dira. Dena den, baterako balorazioaren azterketa berritu honek burutuko duen azterketaren azken edukia behin betiko berrikuspena onartzen duen ebazpenetik erator litezkeen hirigintza dokumentuaren aldaketetara egokitu behar da.

Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak planaren alderdi hauei buruzko erabakiak hartu ditu:

- B. Lurzoru ez-hiritargarriari buruzko erabakiak (mugaketa, kalifikazioa, araudi orokorra)
- C. Kontuan hartu beharreko beste erabaki batzuk (araudi orokorra, ingurumen-hotsa, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, ondare historiko eta artistikoaren katalogoa, ibilguetatik zenbateko distantzia errespetatu, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa, komunikazioen sistema orokorra, bidegorriak…).

Gerora, 2007ko ekainaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 'Hernaniko Udal Plangintzako Hiri Antolamenduko Arauen Berrikuspena' jasotzen duen espedientea behin betiko onartzea erabakia zuen, "erabaki honen bigarren eta hirugarren ataletan xedatutakoa izan ezik"; hainbat eremuri buruzkoak ez ziren onartu, behin

betiko onartu aurretik lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa ezinbestekoa zelako (SU-7 Karobieta/Atsegindegi, SU-12 Florida, SU-22 Santa Barbara), edo 'Azterketa hidrauliko global' baten bidez ezarri beharreko baldintza hidraulikoak zeudelako; azterketa horretan, uholde-arriskuko gune gehiago zehaztu ziren (SU-19.3 Karabel, SUE-20.4 Portua, SU-25.5 Martindegi, SUE-14.1 Altzueta, eta SU-33.3 Epele I eraikina).

Erabakiak, halaber, testu bategin batean konpondu beharreko zenbait baldintza ezarri zituen, "*izan ere, dirudienez dokumentu hori idaztea beharrezkoa dela, Hiri Antolamenduko Arauak onartzeko erabaki honetan jasotako baldintza eta zehaztapenen eta (…)*". Ingurumenari eta iraunkortasunari buruzko faktoreekin lotutako alderdiei dagokienez, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txosten honen azterketa-eremukoa, Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak zenbait alderdi zehaztu zituen; hona hemen horiek laburtuta:

Diputatuen Kontseiluak eskatutako zuzenketa horiek zerikusia dute Arau Subsidiarioen Berrikuspen Proiektuan hauteman zitezkeen akatsekin. Ingurumenari eta iraunkortasunari buruzko faktoreekin lotutako alderdiak, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txosten honen azterketa-eremukoa, laburbilduta, honako hauei buruzkoak dira:

- *Proposatutako antolamenduaren egitura orokorra:*
  - *Hiri-lurzoruaren eta lurzoru hiritargarriaren zonakatze orokorra osatu eta zuzendu behar da, grafikoki eta arauen bidez.*
  - *Ibai Ubideen Sistema Orokorra osatzen duten zati gisa grafikoz adierazi behar dira udalerritik igarotzen diren erreka guztiak.*
  - *Unean dauden mugikortasun-arazoak, eta proposatutako garapenak eragingo dituenak aztertu behar dira, bai eta horiei aurre egiteko proposatutako irtenbideak ere. Horretarako, Berrikuspena osatu egingo da dagokion Mugikortasun Planarekin.*
  - *Joan-etorriak oinez eta bizikletaz egin daitezen sustatzeko aurreikuspenak, jarduketak eta irizpideak gehitu behar dira hirigintza-plangintzan. Proposamen hori bizikleta bideen uda- eta foru- sarea, orain dagoena nahiz aurreikusten dena, udalerriko Komunikazioen Sistema Orokorrean sartuz eta grafikoz adieraziz gauzatu behar da.*
  - *Uholde arriskuen eraginpean dauden zenbait eremuri dagozkien araudiei honako hauek gehitu behar zaizkie: LAAek horretarako propio ezarritako erabakiak, indarrean dagoen ibaiei buruzko LAPa, aldaketak eta zehaztasunei buruzko azterketa osagarriak.*
  - *Akuiferoen kutsadurarekiko ahulak diren areentzat kaltegarriak izan daitezkeen garapenei dagozkien araudian IEABn xedatutako neurri zuzentzaileak erantsi behar dira.*
  - *Berariazko araudia ezarri behar da udalerrian dauden ur-hartune handienak babesteko.*
- *Lurzoru ez-hiritargarriaren antolamendua:*
  - *Lurzoruaren beste zonakatze bat ezarri behar da, LAAetako kategorietara egokituta.*
  - *Aiako Harria arearen antolamendua Natur Baliabideen Antolamendurako Planean parke naturalari buruz ezarrita bezala izango da, mugaketa kartografikoa barne.*
  - *'Urumea Ibaia' BIL zerrendan sartutako eremuaren barruan, Urumea ibaiaren ubideari eragiten dion jarduketa orotan, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoetan ezarritakoa aplikatuko da.*
  - *Babes bereziko arearen mugak luzatu egingo dira, BIL zerrendan adierazitako ibaiaren ibilguaren luzera oso-osorik hartzeko.*
  - *Babestu beharreko gune eta elementu naturalei dagozkien erabakiak zuzendu eta osatu behar dira (Urumea Ibaiaren BIL zerrendako mugaketa eta dagokion babes-araudia, Bisoi Europarrari eta Desman Piriniarrari dagozkion areak eta araudia erantsi, Zuhaitz Bereziei buruzko araudia natura-ondareari erantsi...)*
  - *«Eremu higagarriak edo higatzeko arriskua dutenak» gainjarritako baldintzatzaileak eragindako eremuak mugatuko dira eta Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak xedatutako araudi erregulatzailea ezarri.*
  - *Mari Luz Haundi esaten zaion harrobiari dagokion arearen mugaketa zuzendu behar da, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzak baimendutakoaren arabera.*
  - *«Santa Barbarako urmaela» arearen erabilerari eta babesari dagokion mugaketa eta araudia zuzendu behar da, indarrean dagoen Hezeguneen LAPean ezarritakoaren arabera.*
  - *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 6/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritakoari egokitu behar dute Arauek Lurzoru ez-hiritargarriko erabilera- eta eraikuntza-erregimenaren araudia (besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari lotutako etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa).*
- *Hiri-lurzorua eta lurzoru hiritargarriaren antolamendua:*
  - *13 area eta sektoretarako araudi berezietan erantsi behar da ezinbestekoa dela eraikuntzen eta hiritartze-lanen antolamenduan gutxieneko atzeratze-neurriak errespetatzea, indarrean dagoen ibilguei buruzko LAPak ezartzen ditu gutxieneko neurri horiek.*
  - *Dauden industria-jarduera arriskutsuen ondorioz zenbait areatan sortzen diren zor edo kalteak zehaztu behar dira.*

- *Area eta sektoreen araudi xehakatuan horiei eragiten dieten gainjarritako baldintzatzaileak gehitu behar dira, Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenean adierazitako moduan.*

- *Arau bereziak (Hirigintza Fitxak):*

  - *Hirigintza-dokumentazioan gehitu egin behar da 'lurzorua kutsa dezaketen jarduerak egiten dituzten lekuen inbentarioa' izenekoari buruzko informazioa, eta 1/2005 Legea aplikatzetik sortutako erregimena, bereziki udalerriko bost eremu handitan.*

- *Kultura-ondarea:*

  - *Kultura Ondarearen zerrenda eta kokapen geografikoa zuzendu eta osatu behar da, katalogoan jasota dauden zenbait elementu babesteko aplikatu behar den berariazko araudia gehitu behar da.*

- *Ingurumen Eraginaren Azterlan Bateratua:*

  - *"Hasierako onarpena jasotzeko aurkeztu zen ingurumen eraginaren baterako balorazioaren azterketaren eduki osoa berrikusi behar da eta horretarako, jada Hernaniko Udalak berak 'Behin-behineko Onarpenaren Azterketaren Eranskina' izeneko dokumentuan adierazitako ildoak jarraituko dira. Dena den, baterako balorazioaren azterketa berritu honek burutuko duen azterketaren azken edukia behin betiko berrikuspena onartzen duen ebazpenetik erator litezkeen hirigintza dokumentuaren aldaketetara egokitu behar da".*

- *Erabakiaren BIGARREN atalean adierazitakoaren arabera, hiru hirigintza-eremu handien (Florida, Karobieta eta Santa Barbara) behin betiko onarpena eraginkorra izan dadin, "Eusko Legebiltzarraren lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatzekoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean aurreikusitako lurzoruaren kalitatearen adierazpena lortu behar da".*

- *Erabakiaren HIRUGARREN atalean, hemezortzi (18) area eta sektore behin betiko onartzea atzeratu egiten da.*

  - *9.8, 9.9, 9.10, 9.11, 9.12, 21.9, 21.11 eta 28.2 unitateak, horientzako erabakitako lurzoru-sailkapena hirigintzako legearen aurkakoa delako.*
  - *31.2, 31.3 eta 33.3 unitateak, industria-jarduera arriskutsuek eragin ditzaketen zor eta kalteak jakin arte eta horiek erregulatu arte.*
  - *19,3, 20.4, 25.5, 34.1 eta 33.3 unitateak, uholde-arriskuengatik. Azterketa hidrauliko globala onartu arte; izan ere, azterketa horretan uholde-arriskuko gune gehiago zehazten dira eta horiei buruzko antolamendu-irizpide berriak zehazten dira.*

- *Foru-erabakiaren Bigarren eta Hirugarren ataletan adierazitakoaren arabera, atzeratu edo onartu ez direnek, guztira, 57,10 hektarea lurzoruri eragiten die. Hau da, lurzoru-kopuru horretatik 28,80 hektarea hiri-lurzoru industriala da (Arau Subsidiarioek antolatutako lurzoru berriaren %47), eta 28,30 hektarea bizitegietarako lurzorua, 1.541 etxebizitza egiteko lekua (Arau Subsidiarioek proposatutako etxebizitza berri guztien %56).*

- *Erabakiaren LAUGARREN atalean, hitzez hitz, honako ezartzen da: "Hernaniko Udalak espedientearen erabaki eta dokumentu ezberdinak batzen dituen eta erabaki honen lehenengo atalean adierazitako baldintzak betetzen dituen dokumentu bat onartu behar du eta Foru Aldundi honi igorri behar dio gehienez hiru hilabeteko epean".*

- *Horrez gain, dio: "Udalak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aurrean aurkeztutako txostenen edukia aztertu behar du, urei, biodibertsitateari, ingurumen-kalitateari, kultura-ondareari, landa-, barne- eta garraio-garapenari dagokienez, baita Foru Aldundi honetako Garapen Iraunkorrerako, Bide Azpiegituretarako eta Lurralde Antolaketarako eta Sustapenerako Departamentuek igorritakoak ere, aipatu Testu Bateginean hori kontuan hartzea komenigarria den ala ez erabakitzeko".*

- *Erabakiaren BOSGARREN atala Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Ingurumen Eraginaren Adierazpena argitaratzeari buruzkoa da. Testu hori aipatutako erabakiaren I. eranskinean jasota dado. Testu horretan ez da kontuan hartzen bat ez datozela izapidetutako Ingurumen Azterketa (2004an idatzia) eta behin betiko onartu beharreko Planeamenduak ezarritako planeamendua. Azken horretan, halaber, adierazten da gerorako utzi dela eraginei buruzko behin betiko balorazioa eta neurri erregulatzaileen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen definizioa, hain zuzen, Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Ebaluazioaren Azterketa berria idazten denerako. Azterketa hori Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginarekin batera idatzi behar da.*

3.6.2. Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txosteneko eta Diputatuen Kontseiluaren Erabakiko zehaztapenen betetze-maila

- Ingurumen Iraunkortasunaren Txosten honen bidez, Hasierako Onarpen fasean (2004) aurkeztutako ingurumen-eraginaren azterlan bateratuaren edukia oso-osorik eta xehetasun handiz berrikusi dugu.
- Horretarako, kontuan hartu ditugu 'Behin-behineko Onarpenaren Azterketaren Eranskinean' ezarritako jarraibideak (2007ko apirila), 'Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenean' (2007ko maiatza) emandako zehaztapenak eta 'Diputatuen Kontseiluaren Erabakia' (2007ko ekaina).

- Erabaki eta zehaztapen horiez gain, lurraldearen antolamendurako lege-bitartekoak, ingurumena babesteko lege-bitartekoak eta aipatu ditugun txosten horiek egin zirenetik dokumentu hau egin bitartean sortu den ingurumen-arauak ere aintzat hartu dira. Besteak beste, lurraldearen azterketarekin eta ingurumenaren diagnostiko eta balorazioarekin lotutako kapitulu guztiak eguneratu ditugu.

- Bai Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak bai Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak adierazitako beste alderdietako bat hirigintza-dokumentuaren ondorioz egindako aldaketen azterketari buruzkoa da. Horren haritik, Testu Bateginean jasotako proposamenei buruzko informazio guztia eguneratu da, bai eta Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren prozesu luzearen joanean egindako beste proposamen batzuekiko analisi konparatiboa ere, batez ere, Arau Subsidiarioen Berrikuspenean behin betiko onartutakoei buruzkoak. (2007).

- Halaber, eraginen edo inpaktuen identifikazio eta balorazioari buruzko kapitulua, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsaziokoei buruzkoa eta ikuskapen-planari buruzko kapitulua eguneratu egin dira.

- Uneko fasean espedienteak (Testu Bateginak) kontuan hartu dituen ingurumen-alderdi guztietatik eta Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txosteneko eta Diputatuen Kontseiluaren Erabakiko zehaztapenekin bat datozenak, honako hauek dira adierazteko modukoak:

  - Lurzoru ez-hiritargarriaren zonakatze-proposamena aldatu egin da, eta LAAek xedatutako sailkapenetara egokitu da, Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak gomendatutakoari jarraiki.

  - Landa-eremu globalen mugaketa eguneratu egin da, eta, horretarako, honako hauek hartu dira kontuan: indarrean dauden udalaz gaindiko babesari buruzko lege-bitartekoak (Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana, galtzeko arriskuan dagoen fauna kudeatzeko planak, Hezeguneen LAPa, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPa), Uraren Euskal Agentziak hirigunerako egindako azterketa hidrauliko eguneratuak, eta izapide-prozesuan dauden beste lege-bitarteko batzuek egindako proposamenak (Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAPa, BILak kudeatzeko planak —egiten ari dira—, Pasabide Ekologikoen Sareari buruzko aurreproiektua…).

  - Ezarritako eremu globalei (basoa, nekazaritza eta abeltzaintzarako eta landazabala, babes berezikoa, lur gaineko uren babesa) 33 baldintzatzaile gainjarri zaizkio, udalerrian dagoen ingurumenaren natura-aberastasuna babesteari buruzkoak zein berariazko tratamendua eskatzen duten arrisku naturalak eta gizakiak eragindakoak babesteari buruzkoak).

  - Horiek horrela, Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txosteneko eta/edo Diputatuen Kontseiluaren Erabakiko zehaztapenak kontuan hartu dira eta dokumentazio idatzian eta grafikoan jaso dira (memoria, araudi orokorra, araudi bereziak, planoak), honako hauei buruzkoak:

    - lurzoru ez-hiritargarriko erabilera-erregimena (*Eremu globalen eraikuntza, erabilera eta jabetzako erregimen orokorra*),
    - Urumea ibaiaren goi-ibarraren babes bereziko eremua handitzea (*'Babes Bereziko' gune globala*),
    - ibaien eta erreken ertzei buruzko araudia (*CS.6b gainjarritako baldintzatzailea eta eremu globalen eraikuntza, erabilera eta jabetzako erregimen orokorra),*
    - akuiferoen kutsadurarekiko sentiberak diren eremuak (*CS.2a gainjarritako baldintzatzailea),*
    - Ur-hartune handienak (*CS.2a gainjarritako baldintzatzailea),*
    - eremu higagarriak (*CS.2b gainjarritako baldintzatzailea),*
    - kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak (*CS.2d gainjarritako baldintzatzailea),*
    - jarduera arriskutsuen zor edo kalteak (*CS.2e gainjarritako baldintzatzailea),*
    - Aiako Harria parke naturala (*CS.3a gainjarritako baldintzatzailea),*
    - zuhaitz bereziak (*CS.3b gainjarritako baldintzatzailea),*
    - Urumea ibaiaren BILa (*CS.4a gainjarritako baldintzatzailea*),
    - galtzeko arriskuan dauden fauna-espezieentzako interes bereziko areak: bisoi europarra, desmana, izokina (*CS.4b gainjarritako baldintzatzailea),*
    - landarediaren babesa (*CS.4c eta CS.4d gainjarritako baldintzatzaileak),*
    - Santa Barbarako urmaela (*CS.4f gainjarritako baldintzatzailea),*
    - paisaiaren babesa (*CS.4h gainjarritako baldintzatzailea),*
    - ondare historiko eta artistikoaren katalogoa, estazio megalitikoak, gune arkeologikoak, arkeologia egon daitekeen guneak (Ondarearen Katalogoa eta *CS.5a, CS.5b eta CS.5c gainjarritako baldintzatzaileak),*

- itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa (*CS.6a gainjarritako baldintzatzailea)*

- Testu Bateginaren esparruan, Mugikortasun Iraunkorrerako Plana egin da eta espedientearen eranskinean jasota dago. Plan horrek, Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak eta Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak gomendatutakoaren arabera, honako hauek hartzen ditu bere baitan: dauden mugikortasun-arazoen eta proposatutako esku-hartzeek eragindako arazoen azterketa, funtzionaltasunari buruzko analisia, egun dauden eta etorkizunari begira aurreikusten diren errepide- eta garraio-sistemek premiei erantzuteko duten gaitasunari buruzko analisia, eta hautematen diren disfuntzioei konponbidea emateko beharrezkoak diren jarduketen definizioa. Planak egindako gomendio gehienak hartu ditu be baitan Testu Bateginaren antolamendu-proiektuak. Izan ere, irisgarritasuna hobetzeko neurrien aldeko apustua eta joan-etorriak egiteko moduak iraunkorragoak izan daitezen sustatzeko neurrien aldeko apustua egin du.

- Errepide-sareek premiei erantzuteko duten gaitasunaren eta horien funtzionalitatearen analisia oinarri hartuta (hiriartekoa, nagusia, bigarren mailakoa), Mugikortasun Iraunkorrerako Planak sareari buruzko zenbait jarduketa proposatzen ditu, eta Testu Bateginak bere egin ditu. Horien guztien artean, nabarmentzeko modukoa da Sorgintxulo eta Mandazubi arteko mendebaldeko saihesbidea. Horri esker, bi gune horien arteko ibilbidea hiritar kutsuarekin diseinatu ahal izango da, gaur egungo ibilbideak traba handia egiten baitu hiriguneko bi bizitegi-eremuen artean, beste ingurumen-inpaktu batzuen gune bihurtzeaz gain (airearen kalitatea, inpaktu akustikoa). Motordun ibilgailuentzako eta motorrik gabekoentzako sareen antolamenduarekiko eta hierarkiarekiko koherenteak diren beste proposamen batzuk ere gehitu dira; esate baterako, trenbidearen azpiko bideak hobeto jartzeko, Florida eta Portu auzoetara iristen direnak, bide horien gabeziak larriak baitira.

- Testu Bateginak, Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenak gomendatu bezala, oinezkoentzako eta bizikletazaleentzako ibilbideen sarea gehitu du hirigintza-planeamenduan, udalerriko Komunikazio Sistema Orokorraren esparruan. Bi sare horiek hirigunean integratuta daude (bizitegiak eta industrialdeak dauden guneak, hiri-parkeen sarea eta ekipamenduen sarea dauden guneak) eta garapen berrietan ere bai (bizitegiak eta industrialdeak dauden guneak), eta, halaber, aurreikusita edo dagoeneko gauzatuta dauden hiriarteko sareekin lotuta daude. Proposatutako konponbideei dagokienez, mota askotakoak daude. Esaterako, ibilbide horietarako berariazko gune berriak sortzea (espaloiak zabaldu, kaleen diseinua aldatu, bizikletazaleentzako guneak), joan-etorriak egiteko zenbait modu gune berean integratzea (oinez-bizikletaz, autoz-bizikletaz, oinez-bizikletaz-atoz) zirkulazio mugatuko areetan (30 km/h areak, zirkulazio moteleko areak…).

- Testu Bateginak behin behineko zonakatze akustikoa egiteko proposamena gehitu du (*CS.7 gainjarritako baldintzatzailea),* eta indarrean dagoen arloko araudia[28] hartu du erreferentziatzat, udalerria zeharkatzen eta udalaz gaindiko eskumeneko oraingo eta aurreikusitako errepide- eta trenbide-azpiegitura handien zor akustikoen areak definitu bitartean A-8. GI-131. GI-3410, Madril-Irun trenbide-linea, Abiadura Handiko Trena).

- '*Hirigintza Arau Bereziak'* '*C.- Egiturazko hirigintza-antolamendurako zehaztapenak*' eman ditu eta horien artean area edo sektore bakoitzari eragiten dion gainjarritako baldintzatzaileak erantsi ditu ('*8. Gainjarritako antolamendurako baldintzatzaileak*'), bai eta planeamendua garatzeko zenbait irizpide ere ('*9. Babes-irizpideak*'). Azken horren barruan berariazko atal bat erantsi da '*9.2. Ingurumen-neurriak*'.

[28] Zaratari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 17koa; ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez Lege hori garatzen duen 2005eko abenduaren 16ko Errege Dekretua; zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta ateratako zaratari dagokienez Lege hori garatzen duen 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENEAN (2007) ETA TESTU BATEGINEAN (2010) PROPOSATUTAKO AUKEREN INGURUMEN-AZTERKETA KONPARATUA

Kapitulu honetan bi proiektuen arteko desberdintasun handienak biltzen dira (2007an onartutako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren eta Testu Bateginaren uneko proiektuaren artekoa), irizpide eta proposamen globalei eta arlokakoei buruzkoak. Desberdintasun horiek ingurumenaren ikuspuntutik aztertu dira. Horretarako, kontuan hartu da Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategian eta 2007-2010 epealdirako Ingurumeneko Esparru Programan ezarritako ingurumeneko jarduketa-lerroekiko eta konpromisoekiko koherentzia.

Desberdintasun handiak hauteman dira bi proiektuen artean. Besteak beste, lurraldean edo ingurumenean gehien eragiten dutenak nabarmentzen dira. Hauek dira garrantzitsuenak:

- Testu Bateginak proposatzen duen antolamendu berrian 354 hektareako azalera hartzen duen hiri-lurzorua eta lurzoru hiritargarria sortuko dela arautzen da, Berrikuspen Dokumentuan, berriz, 384 hektarea[29], onartutako Arau Subsidiarioetan araututako zenbatekoa bere horretan utzita. Ezarritako antolamenduak 30 hektarea lurzoru ez-hiritargarri inguru hartzea eragozten du, Testu Bateginak 'Babes Berezikotzat' hartu baitu ia azalera guztia (Urumea ibaiaren ibarra).

- Bizitegiak egiteko lurzoruari dagokionez, 33,7 hektarea gutxiago erabaki dira hirigunean; horrek esan nahi du %22 murriztu dela hektarea-portzentajea. Hau da, hasieran 153,9 hektarea aurreikusten ziten eta Testu Bateginak, azkenean, 120,2 hektarea onartu ditu, etxebizitza-kopuruaren eskaintza ia berdina dela. Etxebizitza berrien kopurua %5,7 murriztu da; 2.693 etxebizitza eskaintzen dira eta Berrikuspen-dokumentuan, berriz, 2.857 etxebizitza berri.

- Testu Bateginak iraunkortasuneko irizpideekiko estrategia koherenteagoa ezarri du, dagoen hiri-egituraren edukiera ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu baita, eta landa-lurzoru gehiago hartzea eragotzi baitu. Horrenbestez, Testu Bateginaren antolamenduan etxebizitza berrien %40 lurzoru hiritargarrian egitea arautzen da, eta Arau Subsidiarioen Berrikuspenean egindako proposamenean, berriz, etxebizitza berrien %60 lurzoru hiritargarrian egitea arautzen da. Sektore horien batez besteko dentsitatea ere handiagoa da Testu Bateginean, hain zuzen, 56 etxebizitza hektareako, eta Berrikuspenean, berriz, 41 etxebizitza hektareako.

- Bizitegi-garapen osoaren batez besteko dentsitatearen ratioa 77 etxebizitza hektareakoa da (106 etxebizitza hektareako hiri-lurzoruan eta 56 etxebizitza hektareako lurzoru hiritargarrian); zifra horiek egokitzat hartzen dira hirigune trinkoa eratzeko.

- Testu Bateginaren proposamenak gizarte-integrazio handiago baten aldeko apustua egiten du, babes publikoko erregimeneko etxebizitzen zenbateko guztia handiago baita (tasatuak eta babes ofizialeko etxebizitza), eta, hortaz, etxebizitza babestu / etxebizitza berriaren ratioa handiagoa da, hain zuzen %54 eta Berrikuspen-dokumentuan, berriz, %47. Etxebizitza horiek hirigunea banatuta dagoen zortzi lurralde-eremuen artean kokatuta daude, eta portzentajeari dagokionez, etxebizitza berri guztien %33 eta %78 artekoa da.

- 2007. urtean onartutako dokumentuaren aldean, dentsitate txikiko etxebizitzak egiteko lurzoruaren azalera murriztu egin da, hain zuzen, 12 hektarea gutxiago. Hau da, hiriguneko azaleraren %10,7 izatetik %8,2 izatera pasa da. Berrikuspen-dokumentuan 41,1 hektarea arautu ziren, eta Testu Bateginean 29,2 hektarea, egin zitekeen murrizketa handiena (%29), eskubide kontsolidatuen arabera, dokumentuaren memoriak adierazten duenez.

- Bizitegi-garapenetarako lurzoru gutxiago hartzeak ingurumenaren aldetik garrantzi handiagoa du, 'Urumea Erdialdea' lurralde-eremurako aurreikusita zegoen proposamena aldatu ondoren. Eremu horretan, Urumea ibaiaren ibarreko azalera gutxiago hartuko da (8 hektareatik 1,2 hektareara murriztu da), eta gainerako eremua lurzoru ez-hiritargarri eta 'Babes Bereziko' gune globala da, 1994ko Arau Subsidiarioetan ezarrita bezala. Berrikuspen-dokumentuak ibarrean garapena egitea arautzen zuen, Karabel eta Portu artean (SUE 20.4 'Portu'), hain zuzen, 398 etxebizitza, dentsitatea 50 etxebizitza hektareakoa izanik. Testu Bateginak Portu auzoaren (PK.03) aldameneko sektorean azalera gutxiago hartzea arautzen du, hau da, 94 etxebizitza egitea eta dentsitatea 77 etxebizitza hektareakoa izatea. Lurzoru ez-hiritargarritzat sailkatutako eremuak ingurumen-balioak ditu, eta horiek babestea erabaki da. Balio estrategiko handia duen lurzoru alubiala da, Urumea ibaiaren ibilguaren eta erriberako landarediaren alboan dagoena. Ibaiaren gune horrek baldintzatzaile hidraulikoak ditu, uholde-arriskua du, 100-500 urteko birgertatze aldiekin. Hortaz, gomendatzen da, egindako azterketa hidraulikoekiko koherentea izanik, area ez-hiritargarri izan dadin, lehen bezala. Bestalde, eremu horretatik barrena Etxolaberri edo Portuko errekaren behe-ibilbidea igarotzen da, Urumea ibaiaren urekin bat egin baino

[29] 2006ko irailaren 15eko Erabakiaren 'Hutsen Zerrenda Berriaren' memoriatik ateratako datuak, Diputatuen Kontseiluaren 2007ko ekainaren 12ko erabakiaren arabera egiaztatuta eta zuzenduta.

pixka bat lehenago, eta ezinbestekoa zen zati hori aldatzea, 2007ko Arau Subsidiarioen Berrikuspenak egindako proposamenaren arabera. Orain arte esandakoaz gain, gogoan izan behar da eremu hori zarata handien eraginpean dagoela, Urumeako autobiatik barrena igarotzen den zirkulazioak sortzen duena.

- Bi proiektuen arteko beste desberdintasun nabarmenetako bat hau da: Galarretako hirigintzako azpi-eremuan proposatutako esku-hartzea (AT Hirigunea Aldiriak). Arau Subsidiarioen Berrikuspenak eremu horretan 300 etxebizitza (7,5 hektarea) egitea arautzen zuen, Hernaniko hiri-egituratik kanpo dagoen eremu horretan, hain zuzen. Proposamen hori gauzatzea ez zen koherentea izango, Mugikortasun Iraunkorrerako Planean ezarritako mugikortasun-proposamenekiko, motordun mugikortasunarekiko dependentzia handiegia izango litzateke eta. Testu Bateginak Parke Teknologikoarentzat gordetako sektorea osatzeko bideratzen du leku hori, Miramonen dagoena handituta, halako jardueretarako eremu estrategikoa baita.

- Testu Bateginak, Berrikuspen-dokumentuaren (2007) aldean, ekonomia-jardueretarako azalera-kopuruaren gorako joera eten egin du. Hain zuzen, 40,4 hektareatik 32,7 hektareara murriztu da horretarako araututako azalera. Hortaz, horrela kalifikatutako lurzoruaren portzentajeak behera egin du %34tik %27ra. Portzentajeak behera egin badu ere, etorkizunean abian jar daitezkeen jardueretarako eraikigarritasunak gora egin du, hain zuzen, lehen 210.147 m2(sab) zen eta, orain, 249.982 m2(sab). Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren proportzioak ere puntu bat baino zertxobait gehiago egin du gora hiriguneko azalerarekiko. Hain zuzen, %41,9tik %43,2ra. Galarretako eremuaren, 19,3 hektarea, ezaugarriak dira, hirugarren sektoreari dagokion erabilerakoa dela (B.20) eta parke teknologiko izateko proposatukoa dela. Hortaz, hirigunean mota horretako lurzoruaren portzentajeak horregatik egin du gora, %0,9tik %5,6ra, hiriguneko lurzoru guztiari dagokionez.
-

- Ekonomia-jardueretarako antolatutako azaleraren %76,5 lehendik dauden industrialdeen lurzoru finkatuari dagokio. Florida auzoko hiri-lurzoru industrialaren zati bat soilik birkalifikatu da bizitegi-erabilerarako (3.7 hektarea), zeuden jarduerak eta ondoko bizitegi-eremua bateragarriak ez zirelako, edo Mugikortasunerako Planak proposatutako errepide-antolamendurako behar-beharrezkoa zelako. Birkalifikazio horren bidez, nolanahi ere, erabileren arteko nahasketaren alde egin da (bizitegi-erabilera eta ekonomia-jarduerak bateragarriak), Florida auzoan izaera mistoa eta anitza bultzatuta.

- Ekonomia-jardueretarako lurzoru berriak hartu ziren (landa-lurzorua 1996an) —guztira, 9,6 hektareako azalera—, Berrikuspen-proiektuak arautu zuelako lurzoruaren birkalifikazioa. Berrikuspen-proiektua behin betiko onartuta dago, eta, hortaz, eskubide kontsolidatuak ditu. Azalera horretatik 7,5 hektarea industria-erabileretarako da (Galarreta eta Andola, Zikuñaga auzoan dago azken sektore hori), eta 2,2 hektarea hirugarren sektoreko erabileretarako (Galarreta).

- Testu Bateginaren Memoriak adierazten duenez, amaierako antolamenduak, espazioaren ikuspuntutik —eta ingurumenaren alorreko ondorio positiboak ere eragin dituela esan genezake—, garapenak batez ere Galarretako gunera bideratzearen aldeko apustua egin du, Urumearen ibarrera bideratu ordez. 32,6 hektarea lurzoru berri hartu ditu planeamenduak eta horien %85 baino gehiago Galarretan kokatu dira.

- Horren haritik, Arau Subsidiarioen Berrikuspenak industria-erabilerarako 14,6 hektarea[30] bideratzen zituen Altzuetara, eta Testu Bateginean ez dira onartu, eremu hori babes bereziko landa-lurzorutzat hartzen jarraitzen baitu. Urumea ibaiaren ibarreko gune bat da, eta 'Portu' arearen kasuan adierazi bezala, baditu zenbait balio-multzo, esaterako, nekazaritza, paisaia eta naturarekin zerikusia dutenak, eta horiek babestea erabaki da. Nolanahi ere, uholde-arriskua handia da, Arau Subsidiarioen Berrikuspenean sektorearen antolamendua aurkeztean arriskua handia dela adierazten baita (10 urteko birgertatze-aldia). Bada nabarmentzeko moduko beste alderdi bat ere. Hau da, Altzuetan proposatutako industria-garapena 'Urumea Ibaia' BIL izendatutako gunearen aldamenean dago (jatorrizko mugaketa), eta Testu Bateginak etorkizunean 'Urumearen ibai-parkea' erantsi nahi du, Berariazko Plan Berezi baten bidez zehaztuko dena.

- Testu Bateginak (2010) Hiriko Gune Libreen Sistema Orokorrerako bideratutako azalerari 26.664 m^2 gehiago eman dizkio, Arau Subsidiarioen Berrikuspenarekiko (2007), eta, guztira, azalerak 193.990 m^2 egiten ditu. Jarduketa horri esker, Sistema Orokorrari dagokion hiriko gune libreen estandarra gainditu egin da: 19,0 m^2/etxebizitzako. Testu Bateginean ezarritako proposamenak gauzatu ondoren, praktikan, egun dauden hiri-parkeen azalera %49 handituko da. Izan ere, arazo handiak izan dira erabakitakoa (161.067 m^2) gauzatzeko, eta soilik 130.100 m^2. gauzatu dira.

- Testu Bateginean Hiriko Gune Libreen Sistema Orokorra handitu egin da eta handitze hori honela gauzatu da: Atzietako parkeak (hirigune historikoaren ekialdeko alde osoan finkatuak), Politena parkearen handitze-lanak (Etxeberri), eta Mendi-Mendian parkearen handitze-lanak. Hala gune libre handia sortu da, Hirigunea

[30] Testu Bateginak adierazten du Altzuetako AEn area benetan neurtuta, soilik 6,7 hektarea izango zirela, AHTrentzat gordetakoa kenduta eta ustiatu ezin daitezkeen hegaleko lursailak kenduta.

Mendebaldea (Latsunbe, Latsunbe-Atsegindegi), Hirigunea Iparra (Antziola), Hirigunea Aldiriak (Sorgintxulo), eta Hirigunea Erdigunea (Zabalgunea) eremuetako bizitegi-garapenen artean.

- Finkatu egin dira landa kutsuko aisialdiko parkeak eta areak (Akola, Aparrain eta Santa Barbara). Udalak du azken eremu horren titulartasuna, oso-osorik, udalak hitzarmena sinatu baitzuen aldameneko bizitegi-arearen garapenaren esparruan (Arrigoian). Santa Barbarako antzinako harrobia eta haren ingurua birgaitzeak berebiziko garrantzia izan du ingurumenari dagokionez (natura, paisaia), lurraldeari dagokionez (hirigunea Jauregi eremuko landa-gunearekin integratu da) eta gizarteari dagokionez (hirigunean bizi diren biztanleek aisialdirako eta jolaserako area zabala dute).

- Testu Bateginak 'Urumeako ibai-parkea' egitea aurreikusten du, 'Babes Bereziko' gune global sailkatutako eremuetan. Haren garapena Plan Berezi bat idazten denerako utzi da. Gune horrek ibaiaren ibilguak udalerria zeharkatzen duen luzera osoa hartzen du, eta, besteak beste, eremu hauek: aipatutako Altzuetakoak, Portu eta Akarregiko meandroa. Desberdintasun nabarmenetako bat da, Arau Subsidiarioen Berrikuspen-proiektuarekiko. Agerian dago positiboa dela Urumea ibaiaren landa-ibarra kudeatzeko, hiritar-garapenek hartzen ez duten eremu hori, koherentea dena nekazaritza, paisaia eta naturarekin zerikusia duten balioekin.

- Kasu honetan, Akarregiko meandroaren kalifikazioak aukera ematen du aurreikusitako hobekuntza hidraulikoa gauzatzeko, ebaketa eginda gune horretan. Lan hori agintari hidrauliko eskudunak egingo du. Akarregiko eremu horrek 14 hektarea inguruko azalera har dezake. 2007. urteko Berrikuspen-agiriak ebaketa ez zuen antolamenduan aurreikusi, eta Urumea ibaiaren goi-ibarrean dauden garapen hiritarrak uholdeetatik babesteko ezinbesteko estrategia da.

- Oro har, Testu Bateginak aurkeztutako lurzoru ez-hiritargarriaren antolamendua, aurreko kapituluetan dagoeneko aztertu duguna, askoz ere hobeto dator bat lurraldearen eta ingurumenaren antolamendu- eta babes-planetako erabakiekin zein ingurumenaren azterketarekin —hura egiteko gauzatu zena—. Antolamenduak ingurumen-baldintzatzaile ugari hartzen ditu bere baitan, mugaketa eguneratu egin du eta indarrean dagoen ingurumenaren arloko legedira egokitutako berariazko araudia aurkezten du. Arau Subsidiarioen Berrikuspen-dokumentuak, ordea, Berrikuspen-prozesuaren hasierako faseetan proposatutako antolamendua bere horretan uzten du. Horiek Ingurumenaren Gaineko Eraginari Buruzko Behin Betiko Txostenean ez ziren onartu, eta adierazten zuen sakon berrikusi behar zela.

- Azkenik, eta horregatik ez du garrantzi gutxiago, baizik eta alderantziz, Testu Bateginak proposamen globala egiten du, hirigintza-antolamenduan berebiziko garrantzia duen mugikortasunari eta irisgarritasunari dagokionez. Proposamen horrek, Testua idazteko egin zen Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren ondorioz egina, errepide-sarean eta motorrik gabeko ibilbideetan esku-hartze ugari gauzatzea arautzen du, eta esku-hartze horiek hiri-garapeneko gainerako esku-hartzeetan integratuta daude, osatu egiten dituzte eta horiei eragiten die. Horren haritik, nabarmentzeko modukoa da proposamen-multzoa gauzatzeak —horietako asko eta asko hirigintzako azpi-eremutako esku-hartze konplexuagoetan atxikita daude— ondorio positiboak ekarriko ditu udalerriaren hiri-ingurumenaren kalitaterako, batez ere airearen kalitatearekin, kalitate akustikoarekin, hiri-paisaiarekin, energiaren kontsumoarekin zerikusia duten alderdietarako.

Nolanahi ere, eta ezin zitekeen beste modu batera izan, gogoan izan behar da Testu Bateginak proposatutako esku-hartzeek ere ingurumen-ondorio negatiboak eragingo dituztela, ezinbestez aztertu beharrekoak. Dokumentu honen hurrengo kapituluan dago jasota azterketa hori.

5. ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINAREN PROPOSAMENEK ERAGINDAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

5.1. SARRERA

Hirigintza-plangintzako proiektu batean araututako esku-hartzeek jarduketa-mota asko hartzen dituzte beren baitan, nolakotasunari, kokapenari eta tamainari dagokionez. Proposamen horiek eragindako ingurumen-inpaktuak identifikatzeko, horien ezaugarriak jakiteko eta balorazioa egiteko, ezinbestekoa da aldez aurretik identifikatzea horiek zein eremutan eragingo dituzten ondorioak eta erabakitzea zer ingurumen-aldagai aztertu behar diren.

Guri dagokigun kasuan, Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspen-proiektua (Testu Bategina), aurreikusita dauden esku-hartzeak hiri-eremu guztian eta landa-lurzoruan gauzatuko dira. Hori hala izanik, ezinbestez adierazi behar da hiri-eremuan gauzatuko diren esku-hartze handienak hirigintzako azpi-eremu jakinetakoak direla eta zortzi lurralde-eremuetan kokatzen direla —proiektuak hirigunea zortzi lurralde-eremutan banatzen du—. Edonola ere, eta espedientearen gainerako zatiekiko koherentea izateko, lurralde-eremuen banaketa hori hartu da kontuan esku-hartzeek eragin ditzaketen ondorioak edo inpaktuak multzokatzeko, bereziki erreparatuta esku-hartze handienei. Hala esaten diegu garrantzia zein lurraldean edo ingurumenean eragingo dituzten ondorioengatik, horietako bakoitzean eragingo dituztenak.

Lurralde-eremu hauetan proposatutako jarduketek eragingo dituzten inpaktuen edo eraginen azterketa egingo dugu kapitulu honetan:

- 1. Hirigunea Erdigunea
- 2. Hirigunea Iparra
- 3. Hirigunea Mendebaldea
- 4. Hirigunea Hegoa
- 5. Hirigunea Aldiriak
- 6. Urumea Behealdea
- 7. Urumea Erdialdea
- 8. Urumea Goialdea

Aztertu beharreko ingurumen-alderdiei dagokienez, honako hauek hartu dira kontuan:

Natura-baliabideak	Lurzorua (hirigintza-lanak lurzoru berrietan)
	Ura (ibilguak, babestutako guneen erregistroa)
	Landaredia (intereseko habitatak, zuhaitz bereziak)
	Fauna (fauna aldetik interesa duten areak)
	Lotura ekologikoa
	Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa
	Natura-intereseko guneak (parke naturalak, BIL izendatutakoak, hezeguneak…)
Nekazaritza-produktibitatea	Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak
	Nekazaritzako ustiapenak
kultura-baliabideak	Hirigintza-ondare historikoa eta arkitektonikoa
	Ondare arkeologikoa
	Paisaia
Hiri-ingurumena	Mugikortasuna-Irisgarritasuna
	Etxebizitza babestua izateko aukera
	Gune libreen eta ekipamenduen sistema orokorrak
Hondakinen sorrera	Hondakinak, lurren balantzea
Eragingo dituzten arriskuak	Uholde-arriskua
	Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna
	Area higagarriak
	Lurzorua kutsa dezaketen jardueren kokapena
	Arrisku teknologikoak
	Ingurumen-hotsa

5.2. ERAGINEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEKO ETA ERAGINAK BALORATZEKO METODOLOGIA

Lehenik eta behin, lurralde-eremu bakoitzerako proposatutako esku-hartze nagusiak zehaztu dira. Aurrez aipatu dugun moduan, azpi-eremu bakoitzerako eta araututako unitate bakoitzerako (area-sektoreak) zehaztutako jarduera

ugarien artetik, lurraldean edo ingurumenean duten eraginagatik garrantzitsuenak direnak aukeratu dira eremu bakoitzerako. Esku-hartzeen ezaugarriak eremu bakoitzerako hasierako atal batean laburbiltzen dira, eta zehatzago kontsulta daitezke espedientearen memorian edota area/sektore bakoitzari dagozkion Hirigintza Arau Berezietan.

Lurralde-eremu bakoitzari dagozkion 'B.1a, B.2a, B.3a…' planoetan esku-hartze horiek zehaztu dira.

Eremu bakoitzean eragiten duten ingurumen-eragile nagusiak ere zehaztu dira. Lurralde-eremu bakoitzari dagozkion eragile esanguratsuenak 'B.1b, B.2b, B.3b…' planoetan kartografiatu dira.

Gero Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren proiektuan (Testu Bategina) proposatutako jardueren ondorioz ingurumen-aldagaietan egon daitezkeen aldaketak zehazten dira. .

Behin eraginak identifikatutakoan, haien ezaugarriak zehaztu dira 1131/88 Errege Dekretuan adierazitako irizpideen arabera: izaera, ekintza-mota, iraupena… Eraginen ezaugarriak zehazteko 1131/88 Errege Dekretuan ezarritako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- IZAERA: positiboa edo negatiboa izan daiteke, eta jardueraren aurreko egoerarekin egiten du konparaketa. Jarduera onuragarria edo kaltegarria den adierazten du. Eragin positibotzat joko dira teknikari eta zientzialarien erkidegoek nahiz hiritarrek oro har hala kontsideratzen dituztenak, jarduerak sortutako kostu eta onuren eta kanpo-eraginen azterketa oso bat egin ondoren. Eragina negatiboa dela kontsideratuko da galeraren bat sortzen badu natura, edertasun, kultura, paisaia edo eraginkortasun ekologikoaren aldetik, edo areagotu egiten baditu kalteak, hain zuzen ere, kutsadurak, higadurak edo lohiz betetzeak dakartzan kalteak, edota herri jakin baten egitura ekologiko-geografikoarekin, izaerarekin eta pertsonalitatearekin bat ez datozen gainerako ingurumen-arriskuek sortutakoak.

- EKINTZA-MOTA: ekintzak ingurumenaren elementu edo ezaugarrien gainean nola eragiten duen azaltzen du: ea eragina zuzena den, zeharkakoa den edota beste batzuekin sinergia bidez sortzen den.

- IRAUPENA: irizpide honek eraginak zer denbora-eskalatan jarduten duen adierazten du; aldi baterakoak izan daitezke (denboran iraunkorra ez den aldaketa bat gertatzen da, eta zehaztu edo baloratu daitekeen epe batean agertzen da), edota iraunkorrak (denboran mugagabea den aldaketa bat gertatzen da lekuko erlazio ekologiko edo ingurumen-erlazioen sistemen funtzioan edo egituran nagusiak diren ekintza-faktoreetan).

- UNEA: eragina agertzen den unea da. Epe laburreko eragina, epe ertainekoa edo epe luzekoa izan daiteke. Epe laburrekoa izango da urtebete baino lehen agertzen bada eragina, epe ertainekoa bost urte baino lehen agertzen bada, eta epe luzekoa bost urte baino geroago agertzen bada.

- SINERGIA: zenbait eragin elkartu eta eragin handiago bat sortzen denean esaten da; kasu horretan eragin bakunak, eragin metakorrak eta eragin sinergikoak bereiziko ditugu. Eragin bakuna ingurumen-osagai bakarrari eragiten diona da, edota banaka jarduten duena, beste eragin batzuk sortu gabe, eraginak metatu gabe, edo sinergiarik sortu gabe. Eragina metakorra izateak esan nahi du, eragilearen ekintza denboran luzatzen denean, pixkanaka-pixkanaka haren larritasuna handitzen dela, ez dagoelako kaltea sortzen duen eragilearen hazkundea suntsitzeko denbora aldetik eraginkorra den mekanismorik. Eragina sinergikoa bada, berriz, hainbat eragile batera daude, eta haien eragin bateratuak ingurumenean eragin handiagoa du banaka izango lituzketen eraginak batuta baino.

- ITZULGARRITASUNA: jardueraren aurreko egoerara itzultzea posible den, zaila den edo ezinezkoa den adierazten du.

- BERRESKURAGARRITASUNA: eragin bat berreskuragarria da sortzen duen aldaketa ezaba badaiteke. Aitzitik, eragin bat berreskuraezina da sortzen duen aldaketa edo galera ezin bada konpondu edo lehengoratu, ez naturaren beraren ekintzen bidez ez gizakien ekintzen bidez.

- NEURRI ZUZENTZAILEAK EGOTEA: eragina gutxitu edo ezabatzen duten jarduera edo neurri zuzentzaileak har daitezkeen edo ez adierazten du.

Behin eragin bakoitzaren ezaugarriak zehaztutakoan, eragin negatiboak baloratu dira eraginaren handitasunari buruzko eskala honen arabera:

- BATERAGARRIA: jarduera bertan behera utzitakoan ez dago eraginik eta berehala itzultzen da lehengo egoerara. Ez du jarduera babeslerik edo zuzentzailerik behar.

- ERTAINA: ez da jarduera babesle edo zuzentzaile intentsiborik behar, eta ingurumenak hasieran zuen egoera berreskuratzeko denbora pixka bat behar da.

- HANDIA: eraginaren handitasuna dela-eta, ingurumenaren lehengo egoera berreskuratzeko, jardura babesleak egin behar dira. Jarduera horiek egon arren, lehengo egoerara itzultzeko denbora dezente behar da.

- LARRIA: atalase onargarriaren gainetik dago eraginaren handitasuna. Ingurumen-egoeraren kalitatea betiko galtzen da eta ezin da berreskuratu, ezta neurri babesleak eta zuzentzaileak hartuta ere.

Eragin POSITIBOAK edo onuragarriak ere jaso ditugu. Era horretako eraginei dagokienez, badauden edo ez zehaztuko dugu soilik, bakoitzaren onuraren handitasuna edo maila zehaztu gabe.

Lurralde-eremu bakoitzeko eraginen ezaugarriak eta balorazioa azaltzen dituen taulan, eraginak kolore desberdinetan azaltzen dira handitasunaren arabera. Eragin positiboak (+) sinboloarekin adierazi dira.

Eraginak	Mailak			
Eraginaren balorazioa	Bateragarria	Ertaina	Handia	Larria
	Ba	Er	Ha	La

5.3. HIRIGUNEA ERDIGUNEA (CC) LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENETATIK SORTUTAKO ERAGINEN AZTERKETA.

5.3.1. Lurralde-eremuko proposamenen laburpena

Hernaniko hirigunearen zati garrantzitsuena da; bertan daude Erdi Aroko gune originala eta lehenengo zabalgunea. 12,8 hektareako azalera hartzen du; azalera horren %59,3 bizitegi-erabilerarako da, eta %40,7 sistema orokorretarako, gehienbat parke, gune publiko eta komunitate-ekipamenduetarako. Eremuan bi azpi-eremu daude, Hirigune Historikoa (CH) eta Zabalgunea (EN), eta horien barruan araututako lau unitate bereizi dira, guztiak hiri-lurzoruko eremuetan.

Proposatutako antolamenduak hiri-bilbea ia oso-osorik finkatzen du (%87,7) (11,3 hektarea), eta gainerakoan (1,57 hektarea) bilbea berroneratzeko eragiketak ezartzen ditu. Eragiketa horiek beharrezkoak dira jarritako helburuak lortzeko, eta kasu batzuetan alboko eremuen antolamenduarekin batera planteatu beharko dira, esate baterako, kasu hauetan: zirkulazio-sistema birmoldatzerakoan, merkataritza-gune zentraleko bizilagun eta erabiltzaileentzako aparkalekuak jartzerakoan, edo areak oinezkoentzat bihurtzerakoan edo ibilgailuz iristeko mugatuta dauden eremuak sortzerakoan.

Ingurumenaren ikuspuntutik, hauek dira esku-hartze aipagarrienak:

- 1 Boulervad-berdegune publiko bat sortzea Ezkiaga pasealekua Zinkoenearaino luzatuta (8.850 m^2), aparkamendu-zerbitzua emateko gune batekin sestrapean (120 plaza gutxi gorabehera). Erabiliak izaten ari diren eraikinak (CH.01) eraistea dakar. Lehenengo laurtekorako ezarri da jarduera.

- 2 Ekialdean Hirigune Historikoa inguratzen duen zerrendaren (Balantxa-Leoka) natura- eta paisaia-balioak gordeko direla bermatzea, eta haren erabilera – jabari publikoa. Jarduera horrek orain jabetza pribatukoak diren finkak hartzen ditu (4.363 m^2), eta Panako eta Goiz Eguzkiko parkeen gunea eta funtzionaltasuna hobetzen ditu, Atzieta parkean lotzen baititu (CH.03). Esku-hartzeak zenbait ekintza ezartzen ditu lur gaineko urbanizazioa hobetzeko eta zerbitzu-sare orokorrak hobetzeko Atzieta Kalean eta Pana eta Goiz Eguzki parkeetan. Bigarren laurtekorako ezarri da jarduera.

- 3 Leoka arearekin muga egiten duten orube eraikigarrien bizitegi-erabilera birmoldatzea, Leoka guneko Gune Libreen Sistema Orokorrera gehitzeko. Horren bidez, “Errege Bideko biaduktua”, Katalogatutako Kultur Ondarearen elementu esanguratsua, buru duen gune publikoa berreskuratu nahi da; hor sartzen dira Gurutze Santuaren Gurutze-tokia eta Garbitegia (CH.03). Bigarren laurtekorako ezarri da jarduera.

- 4 Hegoaldeko muturreko gune bat (Atzietaren eta Porturako jaitsieraren artekoa) berrantolatuko da; gune horretan 52 etxebizitza eraikiko direla ezarri da, haietako 18 babes-erregimenen batekoak, babes ofizialekoak edo etxebizitza tasatuak. Eragiketak honako hauek ekarriko ditu: dauden etxebizitzak botatzea (7 etxebizitza); Gune Libreen Tokiko Sistemarako 1.900 m^2 erabiltzea gutxienez goiko aldean, Goiz Eguzki parkearen ondoan; lurraren topografiara egokitutako eraikuntza berriak egitea (gehienezko profila behe-solairua +2 solairu sestra gainean) arearen beheko aldean; eta, azkenik, Goiz Eguzki parkea, Atzieta Kalea, Portuko auzorako jaitsiera eta Leokako eskaileren artean oinezkoentzako sarbideak jartzea (CH.03). Jarduera hau ez da egingo, gutxienez, bigarren laurtekoa amaitu arte.

- 5 Balantxako aldapan (gaur egun ibilgailuen zirkulaziorako bidea) okupatuta dauden lursailen erabilera birmoldatzea, eta Pana parkearekin muga egiten duen Gune Libreen Sistema Orokorra bihurtzea, oinezkoak errazago iritsi ahal izateko eta hiri-egituran sartzeko (CH.02). Zehaztu gabe dago jardueraren epea.

- 6 Bide-diseinua birmoldatzea eta Portu auzora jaisteko kalea urbanizatzea, noranzko bakarreko galtzadarekin (4 m), oinezkoentzako bi espaloirekin (2 m gutxieneko zabalera) eta luzetarako aparkamendurako banda (2 m) (HH.03). Zehaztu gabe dago jardueraren epea.

- 7 Zabalgunea funtzionaltasunaren eta ingurumenaren aldetik berroneratzea. Horretarako, bide- eta zirkulazio-sistema osoa berregituratuko da: paseko zirkulazioa kendu egingo da Elkano eta Txirrita kaleetan izan ezik; Juan de Urbieta etorbidetik ibilgailuen zirkulazioa kenduko da (garraio publikoa eta bizikletak izan ezik); aparkalekuak eta ibilgailuen zirkulazioa mugatzeko sistema jarriko dira Zabalguneko gainerako kaleetan (EN.01). Oinezkoentzako eta bizikletentzako barneko loturak jarriko dira, bai eta eremutik kanpoko loturak ere, eta ADIFen geralekura igogailu publiko bidez joateko lotura ere jarriko da. Zehaztu gabe dago jardueraren epea.

Lurralde-eremuaren mugaketa, hirigintzako azpi-eremuena eta ezarritako esku-hartze nagusien kokapena hemen jaso dira: ***B.1a Planoa: Hirigunea Erdigunea Lurralde Eremuko Jarduerak.***

5.3.2. Ingurumen-baldintza esanguratsuenak

- Katalogatutako zuhaitz berezia: Ginkgo Biloba, Goiz Eguzki parkean.

- Hiriko zuhaitz interesgarriak: Atzieta parkeko (Pana parkea, Goiz Eguzki parkea eta zabalkuntza) hegaleko zuhaitzak, Ezkiaga pasealekuko zenbait zuhaitz esanguratsu, eta Izpizua kaleko finka pribatuetako zuhaiztiak.

- Kultur ondarea: Hirigune Historikoa leku historikoa eta artistikoa da, eta Hirigune Historikoak berak, haren elementuek eta haren inguruan dauden ondarearen beste elementu batzuek zaintzeko eta gordetzeko bereziki interesgarria den multzo bat osatzen dute. Honako elementu katalogatu hauek (monumentuak, monumentu-multzoa, gune arkeologikoa, balizko arkeologia-gunea) edo Testu Bategineko katalogokoaren arabera babes-mailaren bat duten elementu hauek daude:

  - Hirigune Historikoa. Kultur Ondasun Kalifikatua. Monumentu-multzoa. I. motako babes-erregimena.
  - Santiago bidea. Kultur Ondasun Kalifikatua. Monumentu-multzoa. I. motako babes-erregimena.
  - Hirigune Historikoaren gune arkeologikoa. Kultur Ondasuna. Monumentu-multzoa.
  - San Joan Batailatzailearen parrokia zaharra. Balizko arkeologia-gunea.
  - 1873-1876 Gudan Harresia. Balizko arkeologia-gunea.
  - Leoka-Lizeaga etxea. Balizko arkeologia-gunea.
  - Lizeagako biaduktua. II. motako babes-erregimena.
  - Gurutze Santuaren gurutze-tokia. III. motako babes-erregimena.
  - Ezkiaga pasealekuko pilotalekua. IV. motako babes-erregimena.
  - Karabelgo biaduktua. IV. motako babes-erregimena.
  - Biteri eskolak. IV. motako babes-erregimena.

- Atzieta mendebaldeko bizitegi-garapenak malda ertaineko hegal batean daude.

- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten bost leku identifikatu ditugu Lurralde Eremuan, guztiak “leku aldatu” gisa inbentariatuak.

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00138	leku aldatua	CH.01
20040-00132	leku aldatua	CH.02
20040-00122	leku aldatua	EN.01
20040-00136	leku aldatua	EN.01
20040-00137	leku aldatua	EN.01

- Kalitate akustikoa: gaur egun Eremuaren barruan soinuaren aldetik ezaugarri desberdinak dituzten bi eremu bereiz daitezke, eta egungo zirkulazio-eskemaren ondorio da hori. Hirigune Historikoa oinezkoentzako area bihurtu da gehienbat, baina Hirigune Historikoaren mugetan, bereziki Zabalgunearekin lotzen duen mugan, eta Zabalgune osoan, zirkulazio handia dago. Horren ondorioetako bat da soinu handiaren eraginpean dagoela bizitegi-erabilerako area akustiko bat. Bestalde, Atzieta area ibarrera irekiago dago eta tren-zirkulazioaren (Madril-Irun linea) soinua jasotzen du. Horrek ere kalitate akustikoa gutxitzen du.

- Irisgarritasuna: Lurralde Eremu guztia trenaren geralekutik 600 m.l. (10 minutu oinezkoarentzat) baino gutxiagora dago. Lurralde Eremua trenaren geralekuarekin lotzeko oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak daude, eta duela gutxi igogailu publiko bat inauguratu da, geralekuaren eta Hirigune Historikoaren arteko kota-desberdintasuna gainditzeko. Hiriarteko autobusaren zerbitzu publikoa ere gertu dago, bai eta zenbait komunitate-ekipamendu garrantzitsu ere (udaletxea, osasun-zentroa, kiroldegia, kultur etxea, ikastetxeak…).

5.3.3. Eraginen identifikazioa eta ezaugarriak

- Testu Bateginean ondarearen elementuak zaintzeko, gordetzeko eta elementu horiei balioa emateko proposatutako esku-hartzeak eragin positibotzat hartu dira. Alde horretatik, Leoka area berroneratzeko esku-hartzea aipatu behar da, han orube eraikigarriak Gune Libreen Sistema Orokorrera gehitu behar baitira “Errege Bideko biaduktua” babesteko eta balio historiko eta arkitektoniko handia duen gune bat harrotzeko.

- Eragin positibotzat hartzen da, halaber, Hirigune Historikoaren inguruko gune publikoak (Izpizuako parkea eta Atzietako parkea) handitzea. Bi kasuetan guneek naturaren aldetik interesgarriak diren elementuak dituzte (Ezkiaga pasealekuko zuhaiztia, Atzietako hegala), eta elementu horiek elementu naturalak hiri-arean integratzen laguntzen dute, bai eta hiriko paisaia, energia-oreka eta airearen kalitatea hobetzen ere. Ez dira landaredi interesgarria babesteko neurri gehigarriak jarriko, alderdi hori Hirigintza Arau Berezietan landu delako, eta hauxe ezarri delako: *“gaur egun ditugun natura-intereseko zuhaiztien gaineko eraginak ahalik eta gehien gutxitzeko beharrezko diren neurriak landuko dira, bai eta Areako paisaia-balioen gaineko eraginak gutxitzekoak ere”.*

- Berrikuspen Proiektuan aurkeztutako antolamenduan positibotzat jo dira, bestalde, zirkulazioaren eskemarako eta oinezkoen eta motorrik gabeko ibilgailuen mugikortasunerako (oinez edo bizikletaz) proposatutako aldaketak. Zirkulazio mugatuko area Zabalguneko hainbat kaletara hedatzeak, paseko zirkulazioa gutxitzeak erdigunean, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak planifikatzeak, Portura eta Balantxara oinez edo motorrik gabeko ibilgailuen bidez sartzeko aukera hobetzeak, edota Eremua hiriarteko trenbide-sarearekin igogailu publiko baten bidez lotzeak hobetu egiten dute oinez edo motorrik gabeko ibilgailuen bidez sartzeko aukera, eta ingurumena gehiago errespetatzen duten beste bi mugitzeko eraren aldeko apustua egiten dute. Exekutatzeke dauden jarduerak martxan jartzeko epe jakin bat jarri da, eta jarduera horiek eragin onuragarria izango dute baretasunean, soinuaren kalitatean, airearen kalitatean, hiriko paisaian, gizarteratzean eta energiaren kontsumoan.

- Izpizua pasealekuko esku-hartzeak eta Atzietako hegaleko mendi-adarretan Portu auzoko jaitsierarekin mugan ezarritako bizitegi-garapenak direla-eta, bost eta zazpi etxebizitza eraikin eraisteko obrak egin behar dira hurrenez hurren, lurra mugitu behar da (Izpizuaren kasuan indusketak lur azpiko aparkalekuak egiteko) eta horrek eraispen-hondakinak eta materia-soberakinak sortuko ditu. Hori guztia behar bezala kudeatu beharko da. Eragin negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, bakuna, berreskuragarria eta neurri zuzentzaileak onartzen dituena kontsideratu da, eta CH.03 areako Hirigintza Arau Berezian aurreratu dira neurri horiek.

- Eragin negatibotzat hartu da, bestalde, Atzietako hegaleko lurzoruaren okupazioa. Izan ere, gaur egun autokontsumorako baratzeak daude 4.800 m^2 inguruko azaleran, eta ezarritako bizitegi-garapenerako erabiliko dira. Eragin negatiboa, zuzenekoa, iraunkorra, bakuna, metakorra, berreskuraezina eta neurri zuzentzaileak onartzen dituena kontsideratu da. Lursail horiek kudeatzeko, neurri ekonomikoak ere hartu beharko dira.

- Obrak egiten diren bitartean aldi baterako eraginak sortuko dira, areagotu egingo baitira zarata-maila eta dardarak, edota atmosferaren kutsadura (hautsa, makinak…), eta area mugakideetan bizilagun ugari bizi direnez, horrek eragin egingo die, bereziki Izpizuako aparkalekua egiteko obrek. Eragin negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, metakorra, itzulgarria eta berreskuragarria kontsideratu da. Neurri babesleak eta zuzentzaileak onartzen ditu, eta neurriek dagozkien udal-ordenantzetan ezarritako irizpideak bete behar dituztela dio Hirigintza Arau Bereziak.

- Eragin negatibotzat hartu da bizitegi-area berriak trenbide-saretik gertu egoteagatik jasoko duen soinua. Eragin iraunkorra, zuzenekoa, metakorra eta neurri babesleak eta zuzentzaileak behar dituena kontsideratu da. CH.03 areako Hirigintza Arau Berezian hauxe jartzen du: “Area honetarako proposatutako antolamenduari dagozkion plan eta proiektuak aurkezterakoan eta gauzatzerakoan behar diren neurriak hartuko dira ondoan dagoen trenbide-sareko zirkulazioak sortutako soinu-eragina ezabatzeko edo gutxitzeko. Arreta-printzipioa dela-eta, eragin handitzat hartu da, aztertutako beharrezko neurriak ezartzen diren bitartean.

- Atzietako bizitegi-garapena egingo den eremuaren baldintza topografiko bereziak kontuan hartu dira eta, arreta-printzipiori jarraituz, eragin ertain kontsideratu da urbanizazio-obrak eta eraikinak eraikitzeko obrak egiten diren bitartean arrisku geoteknikoak egoteko aukera. Dena den, CH.03 areako Hirigintza Arau Bereziak adierazten duen moduan, garapen-planeamenduak (plan berezia, urbanizazio-proiektua eta eraikuntza-proiektuak), “*eragin horien arriskua zehatz-mehatz aztertu”* behar du, hori egiten baita edo egin behar baita era horretako proiektuetan.

- Aurreko kasuan bezala, ertaintzat jo da lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten leku aldatuak egoteak sor dezakeen eragina. Printzipioz, ez da leku horietarako jarduerarik zehaztu. Jarduerak egiten badira, indarrean dagoen legedian ezarritako protokoloa eta ebazpenak jarraitu beharko dira.

5.1. TAULA. INGURUMEN-ERAGINEN EZAUGARRI ETA BALIOZTAPENAREN MATRIZEA (HIRIGUNEA ERDIGUNEA)

ELEMENTUA	ALDAKETA	ERAGINA																Obretan		Ustiapenean	
		Positiboa	Negatiboa	Zuzenekoa	Zeharkakoa	Aldi baterakoa	Iraukorra	Epe laburrekoa	Epe ertainekoa	Epe luzekoa	Bakuna	Metakorra	Sinergikoa	Itzulgarria	Itzulezina	Berreskuragarria	Berreskuraezina	Neurri zuzentzaileak	Neurri babesle eta zuzentzailerik ez	Neurri babesle eta zuzentzaileekin	Neurri babesle eta zuzentzailerik ez	Neurri babesle eta zuzentzaileekin
Natura-baliabideak	Intereseko landarediari egindako eragina	+			X		X		X		X			X		X			Ba		+	
Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren eremuak	Katalogatutako ondarea	+			X		X		X		X			X		X			Ba		+	
Kultura- eta estetika-baliabideak	Paisaian egindako kalteak	+			X		X		X		X			X		X			Ba		+	
Hondakinak eta kutsaduraren gehikuntza	Lur-soberakinak		X	X		X		X			X			X		X		X	Er	Ba		
	Eraispen-hondakinak sortzea		X	X		X		X			X			X		X		X	Er	Ba		
	Atmosferaren kutsadura (lanetan)		X			X		X				X		X		X		X	Er	Ba		
Nekazaritza-emankortasunaren galera	Nekazaritza-erabilerako lurra ezabatzea		X	X			X			X		X			X		X		Er	Ba	Ba	
Biztanleria	Eraispenek sortutako kaltea		X	X			X	X		X	X				X		X		Er	Ba		
	Lanen garaiko zarata eta dardarak		X	X		X		X				X		X		X		X	Er	Ba		
	Gune berde publikoetarako sarbideak	+		X			X		X			X		X		X					+	
Hiriko ingurumena	Mugikortasun ez-motorizatua	+					X			X			X	X		X			Ba		+	
	Kalitate akustikoa bizitegi-eremu berrietan.		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba	La	Er
	Kalitate akustikoa erdigunean	+					X			X		X		X		X			Ba		+	
	Atmosferaren kutsadura	+					X			X		X		X		X			Ba		+	
Eratorritako arriskuak	Infiltratzeko gaitasuna gutxitzea		X	X			X			X		X			X		X	X	Er	Ba		
	Arrisku geoteknikoak		X	X		X				X	X			X		X		X	Er	Ba	Ba	
	Potentzialki kutsatutako lurzoruak		X		X		X			X	X			X		X		X	Er	Ba		

5.4. HIRIGUNEA IPARRA LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENETATIK SORTUTAKO ERAGINEN AZTERKETA

5.4.1. Lurralde Eremuko proposamenen laburpena

Hernaniko hirigunearen iparrean dago lurralde-eremu hau. 59 hektareako azalera hartzen du gutxi gorabehera; azalera horren %76 (45 hektarea) bizitegi-erabilera orokorrerako da, eta %24 sistema orokorretarako (14 hektarea). 0,12 hektarea bakarrik dira jarduera ekonomikoen erabilera orokorrerako. Potentzial handiko eremua da: izan ere, garai bateko Florida industria-guneak funtzionaltasunaren aldetik eta egituraren aldetik berroneratzeko beharra du, eta Antziola eta Etxeberriren artean okupatu gabe daude lursailek bizitegi-garapenetarako erabiltzeko hirigintza-ezaugarri egokiak dituzte. Hernaniko hiriguneak iparraldean duen amaiera naturala da. Eremuan 1.294 etxebizitza berri egingo direla ezarri da, hau da, Testu Bateginak agindutako bizitegi-eskaintzaren %48.

Proposatutako antolamenduak egungo hiri-bilbea finkatzen du eremuaren azalerako %66n (39 hektarea), bilbea berreskuratu eta berroneratzen du eremuaren %11n (6,8 hektarea), eta garapen berrietarako lurzoruaren okupazioa antolatutako guztizko azaleraren %23ra igotzen du (13,4 hektarea).

Eremuan hirigintzako bost azpi-eremu daude: Agustinak (AG), Antziola (AN), Etxeberri-La Cumbre (ET), Florida (FL) eta Sagastialde (SG). Araututako 34 unitate bereizi dira; horietatik 30 hiri-lurzoruko areak dira, eta 4 sektore barruko lurzoru hiritargarriak, azken horiek Antziolan (AN.07) eta Sagastialden (SG.03; SG.04; SG.05) daude.

Ingurumenaren ikuspuntutik, hauek dira esku-hartze aipagarrienak:

- 1 Egungo antolamendua finkatzea Agustinak (AG) azpi-eremuan. Zinkoeneako biribilgunetik igarotzen den paseko zirkulazioa gutxitzea, eta, horretarako, “Tarteko Ingurabide Banatzailea” sortzea eremutik kanpoko jardueretan; epe ertain-luzerako programatuta daude jarduerak.

- 2 Antziolako (AN) egungo bizitegi-gunea finkatzea eta iparraldeko muturra (AN.07) zabaltzea; 2,5 hektareako sektore urbanizagarria izango da zabalduko dena, horretarako egokienak diren Etxerregeagako lursailetan. Esku-hartzearen bidez, gutxi gorabehera 0,6 hektarea irabazten ditu Gune Libreen Sistema Orokorrak (Mendi Mendian parkea, Villasekin muga egiten duen eremuan), auzotik iristeko aukerak hobetzen ditu eta lehengo Antziola auzoko bide-antolamendua osatzen du. 74 etxebizitza eraikiko direla ezarri da; etxebizitzen profila behe solairua +3 solairu izango da sektorearen beheko aldean, eta behe-solairua/erdisotoa + 2 solairu gainerakoan. Jarduera ez da gauzatuko bigarren laurtekoa amaitu arte gutxienez.

- 3 Mugikortasun Iraunkorrerako Planak proposatzen duen moduan, “Tarteko Ingurabide Banatzailea”ren funtzionamendua normalizatzeko eta eraginkorragoa izateko, zirkulazioaren noranzkoa aldatuko da Latsunbe eta Antziola auzoetako biribilguneen artean, Eduardo Chillida pasealekuan oinezkoentzat eta bizikletentzat dagoen sarearen funtzionaltasunari eragin gabe. Antziola Kalea indartu egingo da oinezkoen eta bizikleten zirkulaziorako ardatz gisa Zinkoenearen eta Galarretaren artean. Jarduera horiek ez daukate epe jakinik programazioan.

- 4 Etxeberri-La Cumbre (ET) azpi-eremuko bizitegi-antolamendua finkatzea, eta La Cumbreko dentsitate gutxiko garapenarekin muga egiten duen hiri-lurzoruan (ET.03 eta ET.04) bizitegi-garapen txiki bat, 2 eta 12 etxebizitzatakoa hurrenez hurren, honako profil honekin: erdisotoa + behe-solairu + 1 solairu + estalkipeko solairua. Esku-hartze horiek guztira 1,2 hektarea hartzen dituzte gutxi gorabehera, 4.200 m^2 ematen dituzte Politena parkea (Gune Libreen Sistema Orokorra) ekialdera zabaltzeko, eta Etxeberri eta La Cumbre auzoak lotzen dituen barruko bideen eskema osatzen dute. ET.04rako antolatutako jarduera lehenengo laurtekorako programatu da.

- 5 Florida azpi-eremua hirigintzaren ikuspuntutik berrantolatzea. Berrantolatzean, egun dauden zenbait industria-gune (FL.07, FL.08 eta FL.09) bizitegi-erabilerarako birmoldatuko dira, eta finkatu egingo da berroneratzeko aukerarekin (FL.03) edo funtzionaltasunaren eta ingurumenaren aldetik bateragarriak diren jarduera ekonomikoen (merkataritzakoak, hirugarren sektorekoak, zerbitzuak eta egungo jarduera industrial batzuk, adibidez Talleres Hernani eta Vitafarma) antolamenduan sartzeko aukerarekin. Berrantolatzean, Florida kalea hiri-ardatz eta jardueren ardatz bihurtuko da, bide-diseinu berria izango du eta paisaia eta funtzionaltasuna ere aldatuko dira. Guztira 13,2 hektarea antolatu dira: horietatik 7,8 hektarea dagoeneko garatuta dauden lurzoruak dira, eta finkatu egiten da haien antolamendua; 5,3 hektarea, berriz, egun okupatuta dauden lurzoruak dira, eta berrantolatzea planteatzen da. 745 etxebizitza egingo direla ezarri da; etxebizitza horien %40 babes-erregimenen batera atxiki da (babes ofizialekoak eta tasatuak, erdi eta erdi). Eragiketa aurrera eramateko 28 etxebizitza eraitsi behar dira. Jarduketako Programan FL.08n egingo den esku-hartzea “Lehentasunezko Jarduketa Integratu” gisa dago adierazita. Programak lehenengo laurtekorako programatzen ditu FL.07 arearako ezarritako jarduerak, eta bigarren laurtekorako FL.09 arean egin beharreko esku-hartzea.

- 6 Florida azpi-eremuko Bide Sistema Orokorra zehaztea, hirigunearen ikuspuntu integral batetik. Horrek Sagastialdeko garapen berriarekin batera berrantolamendu bat egitea eskatzen du, eta trenbidearen azpian pasabide bat egitea (oinezko, bizikleta eta ibilgailuentzat) Tarteko Ingurabide Banatzailearen bidez hiriarteko bide-sarearekin elkartzeko Landare eta Zubiondo guneetatik igarota. Testu Bateginak lehentasuna ematen dio lurpeko pasabide berria egiteari, eta lehenengo laurtekorako programatu du.

- 7 Sagastialdeko egungo hiri-garapena finkatzea eta beste hiru sektore urbanizagarritan (SG.04; SG.05 eta SG.06), bizitegi-garapena gauzatzeko proposamenari eustea. Mugaketa egokitu egin daiteke honako hauen arabera: iparraldeko ingurabidea kentzea, aukeraketa topografikoa, lur-zatien eta funtzionaltasunaren arrazionaltasuna, eraikigarritasuna ematea (SG.04 eta SG.05 sektoreek plan partzial onartua dute). 411 etxebizitza egitea ezarri da, haietako 297 babes ofizialekoak, SG.04 sektorean. Azpi-eremu horretarako proposamenaren barruan Iturmendiko ibarrean hiri-parke berri bat egitea dago, ibar horretan baitaude azpi-eremuko elementu natural aipagarrienak (landaredia, interes geomorfologikoko area). SG.04 eta SG.05 sektoreetarako jarduerek Hiritartze Jarduketako Plana dute. Urtarrilean eta irailean onartu ziren planak behin betiko hurrenez hurren, eta, beraz, jarduerak “Lehentasunezko Jarduketa Integratu” kontsideratzen dira. SG.06 sektorerako ezarritako jarduera ez da egingo, gutxienez ere, bigarren laurtekoa amaitu arte.

Lurralde-eremuaren mugaketa, hirigintzako azpi-eremuena eta ezarritako esku-hartze nagusien kokapena hemen jaso dira: ***B.2a Planoa: Hirigunea Iparra Lurralde Eremuko Jarduerak.***

5.4.2. Ingurumen-baldintza esanguratsuenak

- Ingurumenaren ikuspuntutik, ezaugarri nahiko desberdinak dituzten bi gune bereiz daitezke. Alde batetik, lau samarra den gune bat, Urumearen ibarreraino jaisten den ibar zabala eta metaketa-hegalak hartzen dituena; Lurralde Eremu hau osatzen duten azpi-eremuetako batzuk daude han. Gune urbanizatua da, eta industria-area garrantzitsuak egon dira bertan (Antziola, Florida); haietako batzuk bizitegi-erabilerarako birkalifikatu dira azkeneko hamarkadetan.

- Galarretatik eta Oriamenditik jaisten den ibai-sistema asko aldatu da. Erreken ibilguak beheko aldean Antziola eta Floridako hiri-garapenen azpitik ezkutuan igarotzen dira gehienbat. Horregatik, garrantzitsua da bide irekia duten zatiak eta sistemako gainerako elementuak zaintzea. Horien artean Antziolatik igaroz Galarretatik jaisten den ibarra aipatu behar da: izan ere, Lurralde Eremuan egiten duen bidea dela-eta, Gune Libreen Sistema Orokorraren barruan dago (Mendi Mendian parkea). Intereseko beste elementu bat Iturmendiko iturria da. Iturmendiko ibarrean dago (Sagastialde), eta, aurreko kasuan bezala, Gune Libreen Sistema Orokorraren barruan dago hori ere (Iturmendi parkea).

- Oriamendi inguruko mendietan kare-sistemetan ohikoak diren formazio geomorfologikoak daude (SG.04, SG.05, SG.06), lapiaz biluziak edo erdi biluziak, hain zuzen, eta kareharria azaleratzen da bertan. Azaleratze horietako bat Sagastialdeko hiri-garapenen (SG.01) ondoan dago, eta zaindu beharreko lekutzat hartzen da, ingurune horretako paisaia berezia delako.

- Hiri-garapenak hartzeko ezaugarri egoki samarrak dituzten areen mugan dago Sagastiya-Erregeaga hegala, baina hegal hori kolonizatzeko zenbait zailtasun daude; izan ere, aldapak handitzen hasten dira, eta faktore mugatzaile hori Sagastialdeko eta Antziolako hainbat areatan ikus daiteke (SG.04, SG.06, AN.07).

- Jatorrizko landarediaren aztarna gutxi geratzen dira Eremuan. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerek eta joan den mendeko bigarren erdialdean area urbanizatu izanak aurretik zeuden formazio erriparioak eta hostozabalen zuhaiztiak gutxitu ditu, bai eta haien egitura-aberastasuna ere. Dena den, badaude formazio horietako batzuk oraindik, eta haietako batzuk hiri-parkeetan daude egun. Hona hemen:

  - Villa Politena parkea (ET.02; ET.04).
  - Antziola ubidearen formazio erriparioa (AN.07).
  - Nisuma Parkea apaintzen duen landaredia (magnoliak) (SG.03).
  - Iturmendiko ibarreko formazio erriparioa (SG.04, SG.05).
  - Hostozabalen zuhaiztiak (SG.05, SG.06).

- Kultur Ondareko hainbat elementu identifikatu dira, batzuk kultur ondasun kalifikazioa dute, eta beste batzuk hirigintza-planeamenduaren esparruan egindako Ondarearen Katalogoan daude eta babes-maila jakin bat jasotzen dute.

  - San Agustin komentua eta inguruak. Kultur Ondasun Kalifikatua. Monumentu-multzoa (AG.03).
  - San Joan Batailatzailearen Parrokia zaharra / San Agustin komentua Balizko arkeologia-gunea (AG.03).
  - Sastiako San Martin baseliza (ez zaio egiturarik ikusten). Balizko arkeologia-gunea (SG.06).
  - Santiago bidea. Kultur Ondasun Kalifikatua. Monumentu-multzoa (FL.01; FL.02; FL.03; FL.04; FL.05; FL.06; FL.07; FL.08; FL.09; FL.10).

- San Jose parrokia. IV. motako babes-erregimena.
- Karabelgo biaduktua. IV. motako babes-erregimena.

- .Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten 21 leku identifikatu ditugu. “Leku aldatu” kategorian sartutako lekuen ehunekoak Hirigunea Iparra eremuko azpi-eremu batzuetako erabilera-aldaketen intentsitatea adierazten du; gehienak Antziola auzoan daude, gaur egun bizitegi-erabilera baitu.

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00121	leku aldatua	AN.01
20040-00126	leku aldatua	AN.02, AN.03
20040-00162	leku aldatua	AN.04
20040-00125	leku aldatua	AN.04
20040-00123	leku aldatua	AN.08
20040-00124	leku aldatua	AN.08
20040-00127	leku aldatua	AN.09
20040-00099	leku aldatua	ET.05
20040-00086	leku aldatua	FL.02
20040-00088	industria aktiboa	FL.03
20040-00089	industria aktiboa	FL.03
20040-00090	industria aktiboa	FL.03
20040-00091	leku aldatua	FL.03
20040-00092	leku aldatua	FL.03
20040-00093	industria ez-aktiboa	FL.03
20040-00094	industria aktiboa	FL.03
20040-00095	industria aktiboa	FL.03
20040-00096	industria aktiboa	FL.07
20040-00097	industria aktiboa	FL.08
20040-00098	industria aktiboa	FL.09
20040-00010	industria aktiboa	FL.10

- Aurrez aipatu dugun moduan, Lurralde Eremuaren behealdeko guneak Urumea ibaiaren ibarrean daude (Florida auzoa gehienbat). Hori dela-eta, gune horrek urpean geratzeko arriskua du, Uraren Euskal Agentziak[31] urpean geratzeko arriskua duten orbanei buruz egindako mugaketaren arabera, nahiz eta urtean hori gertatzeko probabilitatea baxua den. Eragindako areak identifikatu dira azaleraren zati batea (AN.03, FL.02, FL.03, FL.08, FL.09, FL.10, SG.02), eta uholdeen birgaitze-aldia 100 urtetik 500 urtera bitartekoa da (urtean gertatzeko probabilitatea %0,2ren eta %1en artean dago).

- Eremuan identifikatutako beste ingurumen-eragileetako bat Oriamendi inguruko mendien azpian dauden formazio litologikoekin lotuta dago, edo hiri-garapen batzuen azpian dauden formazio alubialekin. Akuiferoen kutsaduraren aurrean urrakortasun altua edo oso altua duten guneak dira. Gune horiek sektore urbanizagarrien zati dira (AN.07, SG.04, SG.05, SG.06), edo hiri-areen zati (FL.03, FL.05, FL.07, FL.08, FL.09, FL.10).

- Oriamendiren hegaletan kokatu dira azken hamarkadetako bizitegi-garapenetako batzuk (Etxeberri, La Cumbre) eta bizitegi-area berrietako batzuk hor ezartzea proposatu da (Etxeberri, Sagastialde, Etxerregeaga), baina leku horretan bizitegi-garapenek paisaiari nabarmen eragingo diote. AN.07, ET.04, SG.05, SG.06 sektoreetarako ezarritako proposamen berriak hirigunetik nahiz oinezkoan, bizikleten eta bestelako bideen saretik asko ikusten direnez, ikusmira hausten izango duen eragina ertain-altua da.

- Madril-Irun tren-linearen gertuko areen (FL.03; FL.05; FL.07; FL.08; FL.09; FL.10; ET.01; ET.02; ET.03; ET.04; ET.05) kalitate akustikoa, edota GI-131 Urumeako autobiaren gertuko areena (ET.05; ET.04; ET.03; FL.10), mugatua izan daiteke azpiegitura horiei dagokien zirkulazioaren emisioengatik, nahiz eta ez diren area horiek jasaten duten soinuari buruzko datu zehatzak ezagutzen. Azpiegitura horien eskumenak udalaz gaineko eremuei dagozkie.

- Lurralde Eremuaren zati batek oraindik ere hirigunearen periferia osatzen du, eta nolabaiteko zentralitatea hartu du komunitate-ekipamendu batzuk area zentralaren kanpoko eremuetara eraman baitira, bereziki kirolarekin lotutakoak (kirol-pistak, udal-igerilekuak) edo irakaskuntzarekin lotutakoak. Sarbideak, barnekoak eta area zentralarekin lotzen dutenak, hobetuz joan dira funtzionaltasunaren eta ingurumenaren aldetik; iparraldeko auzoen irisgarritasuna hobetuz doa, bereziki Antziolarena, nahiz eta oraindik ere hutsune handiak dauden sarbideen sisteman, Mugikortasun Planak adierazi duen moduan. Bestalde, mugitzeko beharra gutxitzen duten erabileren nahasketa dute area horiek, bereziki Floridak. Eremuaren zati handi batek, ipar-mendebaldean dauden

[31] GeoEuskadi: Ide Ura Web – Euskadiko Urari buruzko Informazio Sistematik lortutako informazio kartografikoa (Uraren Euskal Agentzia). 2010/06/19

area eta sektoreek izan ezik, hiriarteko trenbide-saretik irisgarritasun ona du, 600 m.l. (10 minutu oinezkoentzat) baino gutxiagora baitago trenbide-sareko geltokitik edo geralekutik, kasuren batean bietatik.

5.4.3. Eraginen identifikazioa eta ezaugarriak

- Testu Bateginean natur ondarearen elementuak zaintzeko, gordetzeko eta elementu horiei balioa emateko proposatutako esku-hartzeak eragin positibotzat hartu dira. Hor sartzen dira, adibidez, Politena (ET.04) eta Mendi Mendian (AN.07) parkeetarako ezarritako zabalkuntzak, Iturmendi parkea (SG.04) sortzea, edo Villa Nisumako (SG.03) landaredia babestea, bai eta aurrez aipatutako parkeetan dagoen landaredia babestea ere.

- Eragin positibotzat hartzen da, halaber, Iturmendiko kareharri-azaleratzea babestea (SG.01), Iturmendi eta Antziolako ibarrak Gune Libreen Sistema Orokorrean zaintzea (SG.04 eta AN.07), bai eta Iturmendiko iturria sistema horretan sartzea ere (SG.04). Jarduera guzti horiek eragin positiboa izango dute ibaien sarean, landaredia erriparioan eta hiriko paisaian.

- Florida kaleko ingurumena hobetzeko jardueren (FL.07, FL.08 areen berrantolamendua) onurak ere jasoko ditu hiriko paisaiak. Izan ere, hiri-ardatz hori Eremuko bizitegi-areen (Florida, Etxeberri eta La Cumbre) oinarrizko erreferentzia bihurtuko da. Dena den, paisaiaren gaineko eraginak identifikatu dira, eta garrantzi handi samarrekoak dira obra-fasean, paisaia-hauskortasun handiko area eta sektoreetarako ezarritako bizitegi-garapenak direla-eta (ET.04, SG.05, SG.06, AN.07), nahiz eta aldapa handienetako guneetako landa-lurzoruan okupazioa gutxitu den.

- Hiri-bilbea harrotzea eta gune publikoak zabaltzea (plaza berriak Florida FL.07 eta FL.08n) ingurumen-balorazioan positibotzat jotzen diren beste alderdi batzuk dira.

- Mugikortasun Planetik espedientera gehitutako proposamenak garatzean, inguruaren irisgarritasuna ere hobetuko da, eta hala baloratu da. Aipatu beharra dago oinezkoentzako edo motorrik gabeko ibilgailuentzako bideak (oinezkoentzakoak eta bizikletentzakoak) garatzeko proposamenak gehitu direla, eta Eremuko egiturarako garrantzitsuak direla, mendebaldeko auzoak Ergobiatik edo Astigarragatik datorren hiriarteko sarearekin lotzen baitituzte. Iraunkortasunaren aldetik positiboak diren elementuak dituen beste alderdi bat izan da Floridako area batzuetan bizitegi-areekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoei eustea eta ordezkatzeko eta birgaitzeko esku hartzeak biziko dituzten areekin tartekatzea (FL.03 FL.07rekin eta FL.08rekin).

- Eragin negatibotzat hartu da Floridako bizitegi-area berriek trenbide-saretik gertu egoteagatik jasoko duten soinua. Eragin iraunkorra, zuzenekoa, metakorra eta neurri babesleak eta zuzentzaileak behar dituena kontsideratu da. FL.07, FL.08 eta FL.09 areetako Hirigintza Arau Berezietan hauxe jartzen du: "*Area honetarako proposatutako antolamenduari dagozkion plan eta proiektuak aurkezterakoan eta gauzatzerakoan behar diren neurriak hartuko dira ondoan dagoen trenbide-sareko zirkulazioak sortutako soinu-eragina ezabatzeko edo gutxitzeko"*. Arreta-printzipioa dela-eta, eragin handitzat hartu da, aztertutako beharrezko neurriak ezartzen diren bitartean.

- FL.07, FL.08, FL.09 eta SG.06 areetarako ezarritako eragiketek 35 etxebizitza eta beste eraikin industrial batzuk eraistea ekarriko dute; beraz, eraispen-hondakinak sortuko dira, eta hondakin horiek behar bezala kudeatu beharko dira. Horiek eta gainerako esku-hartzeak gauzatzeko, bereziki Etxeberriko hegaletakoak (ET.03, ET.04), Sagastialdekoak (SG.04, SG.05 eta SG.06) eta Antziolakoak (AN.07), beharrezkoa da lurrak mugitzea, eta aurreikus daitekeenez, soberakinak sortuko dira. Soberakin horiek kudeatzeko, indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzak bete beharko dira. Eragin negatiboak, zuzenekoak, aldi baterakoak, bakunak, berreskuragarriak eta neurri babesleak onartzen dituztenak kontsideratu dira, eta Hirigintza Arau Berezi espezifikoetan aurreratu dira neurri horiek.

- Obrak egiten diren bitartean aldi baterako eraginak sortuko dira, areagotu egingo baitira zarata-maila eta dardarak, edota atmosferaren kutsadura (hautsa, makinak...). Area mugakideetako bizilagunei edo zenbait bideren erabiltzaileei eragingo die horrek, bereziki Florida auzoan obrak egiteak, beste bizitegi-area batzuetara iristeko hortik pasatu behar baita. Eragin negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, metakorra, itzulgarria eta berreskuragarria kontsideratu da. Neurri babesleak eta zuzentzaileak onartzen ditu, eta neurriek dagozkien udal-ordenantzetan ezarritako irizpideak bete behar dituztela dio Hirigintza Arau Bereziak.

- Landa-lurzorua okupatzea ere eragin negatibotzat hartu da. Landa-lurzoru hori nekazaritzarako ahalmen ertain-baxukoa da, eta gaur egun larretarako erabiltzen da gehienbat, Antziolako ibarrean (AN.07) eta Sagastiya, Sagasti-txiki eta Sagasti-berriko (SG.06) baserri-inguruetan baratzeetarako erabiltzen diren hainbat lur-zatiren kasuan izan ezik. Guztira landa-lurzoruko 14,3 hektarea okupatuko dira Antziola, Sagastialde eta Etxeberriko bizitegi-garapenetan; hektarea horietatik 3,1 egungo egoeran geratuko dira hiri-parkeak sortzeko edo zabaltzeko erabiliko baitira. Horregatik, landa-lurzoruaren kontsumoa gutxi gorabehera 11,2 hektareatakoa izango dela kalkulatzen da. Eragin negatiboa, zuzenekoa, iraunkorra, bakuna, metakorra, berreskuraezina eta neurri zuzentzaileak onartzen dituena kontsideratu da. Lursail horiek kudeatzeko, neurri ekonomikoak ere hartu beharko dira.

- Antziola, Sagastialde eta Etxeberriko bizitegi-garapenak hartuko dituzten area eta sektoreen baldintza topografikoak kontuan hartu dira, eta, arreta-printzipiori jarraituz, eragin ertain kontsideratu da urbanizazio-obrak eta eraikinak eraikitzeko obrak egiten diren bitartean arrisku geoteknikoak egoteko aukera. Dena den, area/sektore hauetako garapen-planeamenduak "*eragin horien arriskua zehatz-mehatz aztertu*" behar du, Hirigintza Arau Bereziek ezartzen duten moduan.

- Ertaintzat jo da lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten leku aldatuak egoteak sor dezakeen eragina. Birkalifikatutako areetan (FL.07, FL.08, FL.09) halako hainbat leku daude, eta haietan lurrak mugituko direla ezarri da. Horretarako, indarrean dagoen legedian ezarritako ebazpenak eta protokoloa jarraitu beharko dira, Testu Bateginean egindako Hirigintza Araudi Berezietan daudenak. Behin lurzoru horiek berreskuratu eta kudeatutakoan, jarduera positibotzat joko da, eta EAEko Ingurumeneko Esparru Programak era horretako lurzoruak berreskuratzeko ezarritako konpromisoa betetzen lagunduko du.

- Azkenik, eragin negatibo eta ertaintzat jo dira Eremuko hainbat gunek akuiferoak kutsatzeko eta urpean geratzeko dituzten arriskuak. Urpean geratzeko arriskuari dagokionez, nahiz eta urtean uholdeak gertatzeko arriskua baxua den, arreta-printzipioa dela-eta beharrezkotzat jotzen da alderdi hori kontuan hartzea garapen-planeamenduan, eta, horretarako, neurri babesleak ezartzen dira dagokion kapituluan.

5.2. TAULA. INGURUMEN-ERAGINEN EZAUGARRI ETA BALIOZTAPENAREN MATRIZEA (HIRIGUNEA IPARRA)

ELEMENTUA	ALDAKETA	ERAGINA																Obretan		Ustiapenean	
		Positiboa	Negatiboa	Zuzenekoa	Zeharkakoa	Aldi baterakoa	Iraunkorra	Epe laburrekoa	Epe ertainekoa	Epe luzekoa	Bakuna	Metakorra	Sinergikoa	Itzulgarria	Itzulezina	Berreskuragarria	Berreskuraezina	Neurri zuzentzaileak	Neurri babesle eta zuzentzailerik ez	Neurri babesle eta zuzentzaileekin	Neurri babesle eta zuzentzailerik ez	Neurri babesle eta zuzentzaileekin
Natura-baliabideak	Intereseko landarediari egindako eragina	+			X		X		X		X			X		X			Ba		+	
Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren eremuak	Katalogatutako ondarea	+			X		X		X		X			X		X			Ba		+	
	Ibilguak	+			X		X		X		X			X		X			Ba		+	
Kultura- eta estetika-baliabideak	Paisaian egindako kalteak		X	X			X	X			X				X		X	X	La	Er	Er	Ba
Hondakinak eta kutsaduraren gehikuntza	Lur-soberakinak		X	X		X		X				X			X	X		X	Er	Ba		
	Eraispen-hondakinak sortzea		X	X		X		X				X			X	X		X	Er	Ba		
	Atmosferaren kutsadura (lanetan)		X			X		X				X		X		X		X	Er	Ba		
Nekazaritza-emankortasunaren galera	Nekazaritza-erabilerako lurra ezabatzea		X	X			X			X		X			X		X		Er	Ba	Er	
Giza osasuna eta baretasuna	Eraispenek sortutako kaltea		X	X			X	X		X	X				X		X		Er	Ba		
	Lanen garaiko zarata eta dardarak		X	X		X		X				X		X		X		X	Er	Ba		
	Gune berde publikoetarako sarbideak	+		X			X		X			X		X		X					+	
Hiriko ingurumena	Mugikortasun ez-motorizatua	+					X			X			X	X		X			Ba		+	
	Kalitate akustikoa bizitegi-eremu berrietan		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba	La	Er
	Kalitate akustikoa gainerako eremuetan	+					X			X		X		X		X			Ba		+	
	Atmosferaren kutsadura	+					X			X		X		X		X			Ba		+	
Eratorritako arriskuak	Infiltratzeko gaitasuna gutxitzea		X	X			X			X		X			X		X	X	Er	Ba		
	Arrisku geoteknikoak		X	X		X				X	X			X		X		X	Er	Ba	Ba	
	Urpean geratzeko arriskua		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba	Er	Ba
	Akuiferoen urrakortasuna		X		X		X	X			X			X		X		X	Er	Ba		
	Potentzialki kutsatutako lurzoruak		X		X		X			X	X			X		X		X	Er	Ba		

5.5. HIRIGUNEA MENDEBALDEA LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENETATIK SORTUTAKO ERAGINEN AZTERKETA

5.5.1. Lurralde-eremuko proposamenen laburpena

Lurralde-eremu hori hirigunearen mendebaldean dago, Antziolaren eta zirkuituko errepidearen artean. Guztira 38,6 hektarea dauzka: %53 bizitegitarako eta %46 Sistema Orokorretarako. Beraz, udalerriko parke eta ekipamenduen gune nagusia da.

Aukerak dauzka, lur erabilgarria dagoelako, erdigunean dagoelako, hiri-bilbetik gertu dagoelako fisikoki eta egitura aldetik, eta ingurumen-balio handia eta orografia mesedegarria dauzkalako. Gauzak horrela, dentsitate ertaineko bizitegi-eremuak jar daitezke eta parke publikoen sistema handitu daiteke.

Antolamenduaren bereizgarriak hauek dira: dagoen hiri-bilbea finkatzea (30,9 hektarea), berreskuratze- eta leheneratze-jarduerak egitea (1,2 hektarea) eta lurzoru gehiago erabiltzea (antolatutako azaleraren %17, hau da, 6,6 hektarea), hiria garatzeko eta etxebizitza eta parke gehiago jartzeko.

Hirigunearen mendebaldeko eremuan lau azpi-eremu daude: Karobieta/Atsegindegi (KA), Latxunbe (LA), Oarso (OA) eta Villas (VI). Zehaztu dira 17 arau-unitate; horietatik 16 hiri-lurzoruko eremuak dira eta bat sektore hiritargarri sektorizatua.

Jarduera nagusiak, ingurumenean izan dezaketen eraginagatik, hauek dira:

- 1 Oarso, Karobieta/Atsegindegi eta Latxunbeko (LA) hiri-garapenak finkatuko dira. Hala ere, aldaketa txiki batzuk egingo dira (25 etxebizitza Villa San Ignacion, e.a.), zirkulazioaren antolamendua eta bide-sistema birmoldatu beharra daudelako.

- 2 Bide-sisteman aldaketa handiak egingo dira: Aristizabal kalea integratzea (OA.01, KA.03, KA.04), erdiguneko zirkulazioa birmoldatzeko gakoa delako; GI-2132 errepidea eta hiri-zirkuitua berriz diseinatzea, eremu horretan zirkulazioa arintzeko (KA.03; KA.05; LA.02); GI-2132 errepidetik Sorgintxulora ibilgailuz errazago sartzeko hobekuntzak egitea (LA.05); eta Sorgintxulora eta hirigunera oinez eta bizikletaz errazago sartzeko hobekuntzak egitea, zehazki, espaloia eta bidegorria jartzea (LA.03; LA.04).

- 3 Villas azpi-eremuan dentsitate ertaineko etxebizitzak jartzea, 6,6 hektareako lurzoru hiritargarrian (VI.06) eta 0,3 hektareakoa hiri-lurzoru mugakidean (VI.05); lurzoru hori etxebizitza-lurzoru gisa sailkatuko da, udal-ekipamenduko eraikina Sagastialde azpi-eremura eraman ondoren (lekualdatze horri dagokion hirigintza-hitzarmena 2009an formalizatu zen). Zehazki, 304 etxebizitza eraikiko dira, etxabeaz gain gehienez lau solairukoak; %66 babestutako etxebizitzak izango dira (babes ofizialekoak eta tasatuak). Jarduera hori bigarren laurtekorako dago programatua.

- 4 Aurreko jarduerari esker 23.000 m^2 egongo dira Mendi Mendian parkea handitzeko, Sorgintxulo erretena eta dauden zuhaitzak baliatuta. Antolamenduari jarraiki, parkearen goialdeko irisgarritasuna hobetuko da (udal-igerilekuak eraiki ondoren kaltetuta daude) eta Villas eta Antziola azpi-eremuak funtzionalki lotuko dira. Parkeak 10 hektarea inguru izango ditu eta hirigune osotik sartzeko modua egongo da.

- 5 Mugikortasun Iraunkorreko Planaren proposamena da erdiko banaketa ingurabidearen funtzionamendua normalizatzea eta ingurabide hori eraginkorragoa izatea. Horretarako, Latxunbe (LA) eta Antziolako biribilguneen arteko zirkulazioaren norabidea aldatu egingo da, Eduardo Txillida pasealekuko oinezkoen eta txirrindularien sarearen baldintza funtzionalak kaltetu gabe.

Lurralde-eremuaren eta hirigintza azpi-eremuen mugak eta aurreikusitako jarduera nagusien kokapena plano honetan daude jasoak: ***B.3a planoa: hirigunearen mendebaldeko lurralde-eremuko jarduerak.***

5.5.2. Ingurumen-baldintza nagusiak

- Lehen esan bezala, eremuko orografia egokia da hiria garatzeko eta, gainera, hutsik dauden eta gaur egungo hiri-garapenaren mugakide diren beste eremu batzuk baino harrera-ahalmen handiagoa dauka. Joan den mendean etxebizitza-lursail handiak sortu ziren eta eremuari horrela eutsi zaio. Ondorioz, ingurumen-balio garrantzitsu batzuk zaindu egin dira eta asmoa da balio horiek garapen eta espazio publikoetan integratzea, udalerriko biztanle guztien eskura jartzeko.

- Ondarearen katalogoaren arabera, eremuan dauden zortzi eraikin babestu egin behar dira (IV. motako babes-erregimenarekin); eraikin horiek Villas auzoan daude, VI.02 eta VI.04 eremuetan, hain zuzen. Eraikin horiek dira Ave Maria, Rosario, Oriamendi, Sorgintxulo, Sorgintxulo (bis), Amalia, Gure Borda eta Gure Borda (bis).

- Natura-ondarean espazio publikoak ere badaude, lehen lursail pribatuak zirenak, besteak beste: Ave Maria parkea (VI.02), Mendi Mendian parkea (VI.02) eta Nere Borda parke botanikoa (VI.04). Leku horietan natura aldetik interesgarriak diren egitura eta aleak daude. Aipatu parke botanikoan, adibidez, zuhaitz berezi izendatzeko bidean den *Pinus radiata* espezieko zuhaitz bat dago. Latxunbe (LA) auzoko zenbait espazio publikotan ere badaude landare interesgarriak, garrantzitsuenak Atarrabio parkean (LA.02). Sistema Orokorra beste espazio publiko batzuekin dago osatua; horietako bat Karrero parkea da (KA.03).

- Oro har, eremuan urbanizatu gabe dagoen lurzorua nekazaritzan erabiltzeko ere egokia da, nekazaritza-ahalmen handia baitauka. Eremuko VI.06 sektorea (5,4 hektarea) multzo horretan dago; sektore horren parte batean dentsitate ertaineko etxebizitzak jarriko dira. Baratzezaintzarako eta frutagintzarako lursail txiki batzuk kenduta, gainerakoan larreak, zuhaitzak eta zuhaixkak daude.

- Hirigunearen iparraldeko eremuan bezala, Latxunbe eta Villas auzoetako eremu hiritartuetatik igarotzen den ibilguaren parterik handiena estalita dago. Hiritartu gabeko lekuetan Santa Barbara eta Galarreta inguruetako mendietatik jaisten diren erretenen jatorrizko ibilgua bere horretan dago, batik bat Villas azpi-eremuan (Sorgintxulo erretena). Ibilgu horiez eta ibilguetako landaretzaz gain, eremuan bi iturburu daude: bata Latxunbe plazan (LA.02) eta bestea Mendi Mendian parkean (VI.02); biak Gune Libreen Sistema Orokorrean daude.

- Eremu horretan, betiko erabileraren eta aurreko hamarkadetako garapenaren ondorioz, lurra kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten edo jasaten dituzten leku gutxiago daude. Zehazki, era horretako bost leku daude: bi Karobieta auzoan eta hiru Villas auzoko eremu urbanizatuetan. Horietako bat, 20040-00133 kodeduna, lursail batean dago.

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00153	Aldatutako lekua	KA.03
20040-00140	Aldatutako lekua	KA.03
20040-00127	Aldatutako lekua	VI.02
20040-00160	Aldatutako lekua	VI.04
20040-00133	Aldatutako lekua	VI.05

- Villas azpi-eremuaren iparraldea, VI.02 eremuaren eta VI.06 sektorearen parte bat, oso iragazkorrak diren egituren gainean daude eta, beraz, akuiferoa errazago kutsatzen da.

- Eremuaren kalitate akustikoari dagokionez, GI-2132 errepidetik gertu dauden eremu eta sektoreetara (KA.03, KA.05, LA.02, LA.03, LA.04, LA.05, VI.06) motordun ibilgailuen zarata heltzen da. Ez dago etxebizitzetara heltzen den soinuari buruzko daturik, baina, beharbada, soinuak era horretako eremu akustikoei dagokien kalitatearen mugak gainditu ditu. Izan ere, errepide zati horretan zirkulazioa handia da eta, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailak egindako txostenen arabera, eremuko leku askotan soinuaren maila 55 dB(A) baino handiagoa da eta errepidetik gertuen dauden eremuetan 65 dB(A) baino handiagoa.

- Oarso, Karobieta, Atsegindegi eta Latxunbe eta Villas auzoetako ekialdeko zonak hiriaren erdiguneko zonatzat har daitezke, jatorrizko hirigunetik gertu daudelako. Zona horiek trenbide-saretik eta errepideko hiri arteko garraio publikoaren geltoki nagusietatik 600 metroko erradioan daude. Latxunbe eta Villaseko mendebaldeko zonak erdigune izaera ertaina dute. Zona horietatik garraio publikoko geltokietara ez dago kilometroa baino gehiago. Deszentralizatutako ekipamendu komunitario batzuk hango azpi-eremuetan daude (osasun-zentroa, adibidez, Atsegindegin dago) eta, beraz, erdigune izaera handiagoa dute.

5.5.3. Eraginen identifikazioa eta ezaugarriak

- Eragin kaltegarritzat hartu da nekazaritza-ahalmen ertain edo handiko landa-lurzorua okupatzea; landa-lur gehienak gaur egun larreak dira, salbu baratzezaintzarako eta frutagintzarako erabiltzen diren lursail batzuk (VI.06 sektorea). Guztira 6,5 hektareako landa-lurzorua okupatuko da; azalera horretatik 2,3 hektarea bere horretan utziko dira, hiri-parkeak handitzeko direlako. Beraz, 4,3 hektareako landa-lurzorua erabiliko da. Eragin hori kaltegarria, zuzena, iraunkorra, sinplea, metatua, berreskuraezina eta babes-neurriak onartzen dituena izango da; gainera, lurzoru hori gestionatzeko neurri ekonomikoak hartu behar dira.

- Eragin kaltegarritzat hartu da, baita ere, Villaseko etxebizitza sektore berriaren parte batean (VI.06) egongo den soinua, GI-2132 errepidetik gertu dagoelako; eragin hori zuzentzeko neurriak har daitezke. Zuhur jokatze aldera eta sektore berriaren soinu-kalitatea zuzentzeko neurriak ezarri bitartean, eragina neurritsutzat hartu da.

- Etxebizitzak egiteko, VI.05 eremuko lursailean dauden eraikin guztiak (Traspasar ikastegia) behera bota behar dira. Gainerako eremu eta sektore mugakideetan (VI.04 eta VI.06) lurra mugitu behar da eta soberakinak gera

daitezke; soberakin horiek indarrean dagoen legeriaren arabera gestionatuko dira. VI.06 sektoreko Arau Bereziari jarraiki, garapenerako planeamenduko antolamenduan *"ahal den neurrian, lur-mailegu eta -isuriak orekatu behar dira, lur-mugimenduek ahalik eta kalte gutxien eragin dezaten. Hiritartze-proiektuan, alde horretatik, egoera ebaluatuko da eta obrak egikaritzeko garaian aplikatu beharreko neurri zuzentzaile eta konponbide teknikoak ezarriko dira".* Eraiste-hondarrak eta -soberakinak sortzea eragin kaltegarri, zuzen, behin-behineko, sinple eta berreskuragarritzat hartu da; alde horretatik, babes-neurriak har daitezke eta babes-neurri horiek Hirigintza Arau Berezi espezifikoetan daude aurreratuta.

- Lurra kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten aldatutako lekuak egotea eragin neurritsutzat hartu da. VI.05 eremuko leku bati, 20040-00133 kodedunari, hain zuzen, sailkapena aldatuko zaio: Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorrean egotetik etxebizitza-erabilera edukitzera pasako da. Leku horretan lurra mugituko denez, indarrean dagoen legeriako ebazpenak eta protokoloa bete behar dira; ebazpenak eta protokoloa Testu Bategineko Hirigintza Arau Berezietan aintzat hartuta daude. Horien arabera, lursail horiei eragiten dieten jarduera eta eraikuntza- zein hirigintza-lanetarako baimen berriak jasotzeko, aurrez "lurzoruaren kalitatearen aintzatespena" lortu behar da. Edozein modutan, behin lur horiek berreskuratu eta gestionatu ondoren, eragina onuragarritzat hartuko da. Horrez gain, jarduera EAEko Ingurumeneko Esparru Programan era horretako lurrak berreskuratzeko konpromisoa betetzeko ekarpen bat izango da.

- Obra garaian behin-behineko kalteak sortuko dira, zarata eta bibrazioak egongo direlako eta airea kutsatuko delako (hautsa, makinak, e.a.). Kalte horiek eremu mugakideetako biztanle gutxi batzuei eta bide jakin batzuk erabiltzen dituen jendeari eragingo die, dauden etxebizitza-eremuetako dentsitatea txikia baita. Eragina izango da kaltegarria, zuzena, behin-behinekoa, metatua, itzulgarria eta berreskuragarria. Babes- eta zuzenketa-neurriak har daitezke. Neurri horien gainean, Hirigintza Arau Bereziek diote dagozkien udal-ordenantzetan ezarritako irizpideetara jo behar dela.

- Natur ondareko elementuak babestu, zaindu eta balioeste aldera testu bateginean proposatutako jardueren eragina onuragarria izango da. Jarduera horiek dira Mendi Mendian (VI.06) parkea handitzea; Misioneros de la Sagrada Familia lursailean (VI.06) dauden zuhaitzak balioestea; Nere Borda parke botanikoko (VI.04) balio botanikoak zaintzea; eta Ave Maria, Mendi Mendian (VI.02), Karrero (KA.03) eta Atarrabio (LA.02) parkeak "Udalak babesteko natura ondasun eta elementuak – hiri-parkeak" atalean sartzea.

- Eragin onuragarritzat hartu dira, baita ere, Sorgintxuloko ibarrari Gune Libreen Sistema Orokorrean eustea (VI.06) eta Curtidos (Ave Maria parkea) eta Latxunbeko iturburuak dauden eremuak sistema horretan sartzea. Jarduera horiek guztiak mesedegarriak izango dira ibaientzat, ibilguetako landareentzat eta hiri-paisaiarentzat. Horri dagokionez, Villasen etxebizitzak egiteko obrek eta beste hiri-eremu batzuetako jarduerek (Villa San Ignacio, KA.03) irauten duten bitartean, hiri-paisaia aldatu egingo da.

- Eremura sartzea errazagoa izango da, Mugikortasun Planetik hartu eta espedientean sartutako proposamenei esker. Proposamen garrantzitsuenak motorrik gabeko ibilbideak dira, adibidez: Villas eta Antziola oinezkoentzako ibilbide batekin lotzea eta txirrinduz hirigunera errazago sartzeko hobekuntzak egitea.

- Azkenik, eragin kaltegarri neurritsutzat hartu da eremuko akuiferoak kutsatzeko arriskua. Zuhur jokatze aldera, gai hori kontuan hartu behar da garapenaren planeamendua egiteko eta, beraz, dagokion kapituluan babes-neurriak ezarri dira.

5.3. TAULA. INGURUMEN-ERAGINEN EZAUGARRI ETA BALIOZTAPENAREN MATRIZEA (HIRIGUNEA MENDEBALDEA)

ELEMENTUA	ALDAKETA	ERAGINAREN EZAUGARRIAK																Obretan		Ustiapenean	
		Onuragarria	Kaltegarria	Zuzena	Zeharkakoa	Behin-behinekoa	Iraunkorra	Epe motzekoa	Epe ertainekoa	Epe luzekoa	Sinplea	Metatua	Sinergikoa	Itzulgarria	Itzulezina	Berreskuragarria	Berreskuraezina	Neurri zuzentzailerik gabe	Neurri zuzentzaileekin	Neurri zuzentzailerik gabe	Neurri zuzentzailerik gabe
Natura-baliabideak	Eragina landare interesgarrietan	+			X		X		X		X			X		X		Ba		+	
Ingurumen aldetik sentikorrak diren eremuak	Katalogatutako ondarea	+			X		X		X		X			X		X		Ba		+	
	Ibilguak	+			X		X		X		X			X		X		Ba		+	
Baliabide estetiko eta kulturalak	Eragina paisaian		X	X			X		X		X				X		X	X	Ba	Ba	
Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea	Lur-soberakinak		X	X		X			X			X			X	X		X	Ba		
	Eraiste-hondarrak sortzea		X	X		X			X			X			X	X		X	Ba		
	Airearen kutsadura (obretan)		X			X			X			X		X		X		X	Ba		
Nekazaritza-produktibitatea galtzea	Nekazaritzarako lurrak kentzea		X	X			X		X			X			X		X	X	Ba	Er	
Giza osasuna eta lasaitasuna	Eraisteen eragina		X	X			X		X		X				X		X	Ba			
	Zarata eta bibrazioak, obretan		X	X		X			X			X		X		X		X	Ba		
	Berdegune publikoetarako irispidea	+		X			X		X			X		X		X				+	
Hiri-ingurumena	Motorrik gabeko mugikortasuna	+					X			X			X	X		X			Ba		+	
	Soinuaren kalitatea bizitegi-eremu berrietan		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba	Er	Ba
	Soinuaren kalitatea gaur egun dauden eremuetan		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba		
	Airearen kutsadura	+					X			X		X		X		X			Ba		+	
Arrisku eratorriak	Infiltrazio-ahalmena gutxitzea		X	X			X		X			X			X		X	X	Er	Ba		
	Arrisku geoteknikoak		X	X		X			X		X			X		X		X	Er	Ba	Ba	
	Uholdeak izateko arriskua																					
	Akuiferoak kaltetzeko arriskua		X		X		X		X		X			X		X		X	Er	Ba		
	Kutsatuta egon daitezkeen lurrak		X		X		X		X		X			X		X		X	Er	Ba		

5.6. HIRIGUNEA HEGOALDEA LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENETATIK SORTUTAKO ERAGINEN AZTERKETA

5.6.1. Lurralde-eremuko proposamenen laburpena

Lurralde-eremu hori 18,9 hektareakoa da eta hirigunearen hegoaldean dago. Txikia izanda ere, udalerriko Ekipamendu Komunitarioen Sistema Orokorreko gune nagusi bat da, ekipamendu horien laurdena han baitago (funtsean asistentzia, irakaskuntza eta zerbitzu publikoa); beraz, zerbitzu-eremua eta ardatza da. Eremuaren %62,3 bizitegitarako da eta %37,7 Sistema Orokorretarako.

Hirigintza aldetik aukerak dauzka bi lurzoru-poltsa garrantzitsu daudelako (Txantxilla eta Villa San Antonio ingurua) eta hiri-bilbearen eta espazioa mugatzen duten azpiegituren (GI-2132 eta GI-131 errepidea eta trenbidea) artean zirrikituak daudelako.

Antolamenduaren bereizgarriak hauek dira: dagoen hiri-bilbea finkatzea (13,6 hektarea, antolatutako azaleraren %72), bilbe hori berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduerak egitea (4,9 hektarea, antolatutako azaleraren %26) eta lurzoru pixka bat gehiago erabiltzea (0,4 hektarea) hiria garatzeko. Azkeneko biei dagokienez, dentsitate ertaineko etxebizitzak egingo dira eta zona libreak eta ekipamendu-eremuak handituko dira.

Eremuak hiru hirigintza azpi-eremu dauzka: Elizatxo (EL), Lizeaga (LI) eta Txantxilla (TX). Zehaztu dira 13 arau-unitate; horietatik 12 hiri-lurzoruko eremuak dira eta bat sektore hiritargarri sektorizatua (EL.07).

Aurreikusitako jarduera nagusiak hauek dira, lurraldean edota ingurumenean duten eraginagatik:

- 1 TX.01 eremuan, Hiri Antolamenduko Plan Berezian jasotako antolamendua finkatzea (plan hori 2008ko apirilaren 24an onartu zen behin betiko), honako hauek jarrita: Zirkuituko errepidean biribilgune berri bat, hirigunera sartzeko beste kale bat, Sandiusterrin aparkaleku publikoa (hirigunerako eta aurreikusitako etxebizitzetarako 200 leku publiko), lurpeko aparkalekua (420 leku) garapen berrirako eta eremu mugakideetarako, parke publikoa (3.000 m^2), oinezkoentzako pasealekua (zuhaitzekin) eta txirrindularientzako sarea GI-2132 errepidean eta 190 etxebizitza; etxebizitza horietatik 68 babes ofizialekoak izango dira (%50 errentan uzteko gizarte etxebizitzak) eta 33 prezioa hitzartutakoak. Txantxillako jarduerarako Hirigintzako Jarduera Plana dago; plan hori 2008ko apirilean onartu zen behin betiko eta orain egikaritze-fasean dago.

- 2 Lizeagako etxebizitza-garapena eta ekipamenduak finkatzea, salbu Urumea ikastola, Sagastialdera eramango baita. Plaza publikoa sortzea, La Milagrosa eraikina nagusi dela, eta plazan oinarritutako etxebizitza, denda eta aparkalekudun eraikina egitea; jarduera hori, Jarduketa Programaren arabera, lehen laurtekorako dago programatua. Zirkulazio-eskema berriz antolatzea, Mugikortasuna Planeko proposamenei jarraiki. Lizeaga kalea hiri-ardatz bihurtzea: pasealekua, zuhaitz eta aparkaleku bandaduna.

- 3 Elizatxon dauden Sistema Orokorrak finkatzea (Gune Libreak eta Ekipamendu Komunitarioak) eta lur zerrenda bat jartzea hilerriko lursaila (EL.07) handitzeko; izan ere, GI-131 errepideko zorrak eta ekipamendu horretan ingurumena (akustika) babesteko irizpideak bete behar dira. Jarduketa Programaren arabera, lursail hori bigarren laurtekoan eskuratuko du Udalak.

- 4 Eremuko ardatzetako bat den EL.02 area berrantolatzea eta Lizeaga, Elizatxo eta Puerto auzoak egituratu eta lotuko dituen espazio bihurtzea; jarduera integratu hori bigarren laurtekorako dago programatua. Partzialki eraiki eta hiritartutako 1,8 hektareako gunean dentsitate ertaineko 100 etxebizitza egingo dira (%20 babes ofizialekoak eta beste %20 tasatuak), etxabeaz gain gehienez lau solairukoak. Horrez gain, Lizeaga kalea berriz diseinatuko da: oinezkoentzako ibilbideak hobetuko dira eta aparkaleku publiko gehiago jarriko dira (baterian aparkatzeko). Villa San Antonio berreraikitzeko lursail bat gorde da.

- 5 Halaber, jarriko dira parke publiko bat (4.000 m^2), Urumea ibairako begiralekuarekin; oinezkoentzako plaza publikoa, lurpean aparkalekua jartzeko aukerarekin (1.700 m^2); eta norabide bakarreko bide bat (ibilgailuentzako lerro batekin eta oinezkoentzako espaloiarekin), Lizeaga eta Leoka kaleak (Puerto auzora jaitsiera) lotzeko (horretarako Piperita bidearen zati bat moldatuko da).

Lurralde-eremuaren eta hirigintza azpi-eremuen mugak eta aurreikusitako jarduera nagusien kokapena plano honetan daude jasoak: ***B.4a planoa: hirigunearen hegoaldeko lurralde-eremuko jarduerak.***

5.6.2. Ingurumen-baldintza nagusiak

- Udalerriko ardatzetako bat da, hirigune historikoaren hegoaldean dago, Urnietara joateko bide zaharrak osatzen zuen ardatzaren gainean ezarrita. Eraikuntza-dentsitate aldetik oso desberdinak diren auzoak daude: Lizeagan,

adibidez, dentsitatea handia da, eta Elizatxon txikia. Gehiena hiritartuta dago eta ez dago elementu natural interesgarri asko.

- Eremua Santiago Bideak zeharkatzen du. Kultur Ondasuna da eta Monumentu Multzo gisa dago sailkatua (TX.01; LI.02; LI.03). Hirigunearen hegoaldean beste ondare bat ere badago, planeamendu orokorreko katalogoan IV motako erregimenarekin babestua: Nuestra Señora de Zikuñaga haurtzaindegia (TX.02)

- Natura-ondareari dagokionez, San Antonioko (EL.04) parkea eta zuhaitzak dira nagusi; neurri handi batean natura-elementu publiko gutxi daudelako.

- Lurra kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten hiru leku bakarrik daude, guztiak “aldatutako leku” gisa sailkatuak. Horietako bat Lizeaga auzoaren hasieran dago eta gainean etxebizitza-eraikin bat dauka. Bestea Puerto auzorako jaitsieran dago: Elizatxo ikastola dagoen lursaila da. Azkena aipatu lursailetik gertu dago, baina utzitako jarduera bati dagokio.

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00135	Aldatutako lekua	LI.02
20040-00134	Aldatutako lekua	EL.01
20040-00139	Aldatutako lekua	EL.03

- Eremua hiri arteko sareko bide- eta trenbide-azpiegiturez inguratua dago. Mendebaldean GI-2132 errepidearekin egiten du muga, hegoaldean Urumeako autobiarekin (GI-131) eta ekialdean Madril-Irun trenbidearekin (ADIF). Azpiegitura horietako zirkulazioak baldintzatzen du, batzuetan gehiago, besteetan gutxiago, hirigunearen hegoaldeko azpi-eremu batzuetako kalitate akustikoa. GI-2132 errepidea, adibidez, bizitegi-eremuetako mugetatik pasatzen da (TX.01; TX.02; TX.03; LI.02; EL.05). Trenbideak EL.03 bizitegi-eremuan dauka eragin gehien eta Urumeako autobiak batik bat EL.03 eta EL.05 bizitegi-eremuetan eta ekipamendu komunitarioko lursailetan (hilerria), orain dauden moduan eta handitu ondoren egongo diren moduan (EL.06, EL.07).

- Urumearen ibar aldera jaisten den hegalak ikusmena xurgatzeko ahalmen handia dauka eta, aldi berean, komunikazio-azpiegituretatik asko ikusten da; beraz, paisaia aldetik leku oso ahula da.

- Hirigunearen ardatzetako bat da (Elizatxoko hegoaldeko muturreko dentsitate gutxiko garapen batzuk kenduta) eta garraio publikoko zerbitzuarekin hel daiteke. Lehen aipatu etxebizitza jarduera nagusiak (Txantxilla eta Elizatxo) tren geltokitik, hiri arteko autobusen geltokietatik eta udalerriko ekipamendu nagusietatik 600 metroko erradioan daude.

5.6.3. Eraginen identifikazioa eta ezaugarriak

- TX.01, LI.03 eta EL.02 eremuetarako aurreikusitako garapenak gauzatzeko behera bota behar dira gutxienez 15 etxebizitza eta ikastegi bat (ikastola). Txantxillan eta, batik bat, San Antonioko lursailean aurreikusitako jarduerak gauzatzeko lur asko mugitu beharko da, topografiagatik eta lurpeko aparkalekua egiteko lursaila zulatu egin beharko delako. Eraiste-hondarrak eta lur-soberakinak sortuko dira eta hondakin eta soberakin horiek indarrean dagoen legeriari jarraiki gestionatuko dira. EL.02 sektoreko Arau Bereziari jarraiki, garapenerako planeamenduko antolamenduan *"ahal den neurrian, lur-mailegu eta -isuriak orekatu behar dira, lur-mugimenduek ahalik eta kalte gutxien eragin dezaten. Hirigintza-proiektuan, alde horretatik, egoera ebaluatuko da eta obrak egikaritzeko garaian aplikatu beharreko neurri zuzentzaile eta konponbide teknikoak ezarriko dira".* Eraiste-hondarrak eta -soberakinak sortzea eragin kaltegarri, zuzen, behin-behineko, sinple eta berreskuragarritzat hartu da; alde horretatik, babes-neurriak har daitezke eta babes-neurri horiek Hirigintza Arau Berezietan daude aurreratuta.

- Eragin kaltegarritzat hartu da nekazaritza-ahalmen ertain edo handiko landa-lurzorua okupatzea (EL.02); landa-lur gehienak gaur egun larreak dira, salbu ekialdeko hegalean dauden baratze batzuk. Guztira 1,8 hektareako landa-lurzorua okupatuko da; azalera horretatik 0,4 hektarea hiri-parke gisa utziko dira. Beraz, 1,4 hektareako landa-lurzorua erabiliko da. Eragin hori kaltegarria, zuzena, iraunkorra, sinplea, metatua, berreskuraezina eta babes-neurriak onartzen dituena izango da; gainera, lurzoru hori gestionatzeko neurri ekonomikoak hartu behar dira.

- Eragin kaltegarritzat hartu da, baita ere, Txantxillako bizitegi-eremu berriaren parte batean (TX.01) egongo den soinua, GI-2132 errepidetik gertu dagoelako. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailak egindako txostenen arabera, hirigintza-eremu berriko parte handi batean soinuaren maila 65 dB(A) baino handiagoa da; behin eraikin guztiak amaituta, maila hori alda daiteke. Zuhur jokatze aldera eta sektore berriaren soinu-kalitatea zuzentzeko neurriak ezarri bitartean, eragina neurritsutzat hartu da.

- Lurra kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten aldatutako lekuak egotea eragin neurritsutzat hartu da. Leku horietan ez da erabilera aldatzea planteatu. Hala ere, dagozkien Hirigintza Arau Berezien arabera, lursail horiei eragiten dieten jarduera eta eraikuntza- zein hirigintza-lanetarako baimen berriak jasotzeko, aurrez “lurzoruaren kalitatearen aintzatespena” lortu behar da.

- Obra garaian behin-behineko kalteak sortuko dira, zarata eta bibrazio gehiago egongo direlako eta airea kutsatuko delako (hautsa, makinak, e.a.). Kalte horiek eremu mugakideetako biztanle askori eta bide jakin batzuk erabiltzen dituen jendeari eragingo die, jarduerak ardatz nagusietan egingo direlako. Eragina izango da kaltegarria, zuzena, behin-behinekoa, metatua, itzulgarria eta berreskuragarria. Babes- eta zuzenketa-neurriak har daitezke. Neurri horien gainean, Hirigintza Arau Bereziek diote dagozkien udal-ordenantzetan ezarritako irizpideetara jo behar dela.

- Eragin onuragarritzat hartu dira Testu Bateginean zirkulazio-eskema orokorrerako proposatutako jarduerak; proposamen horiek Mugikortasun Plana kontuan hartuta egin dira. Hala, adibidez, eremuaren mugan GI-2132 errepidea berriz diseinatuko da (hiri izaera emango zaio, zirkulazio gutxiago ibiliko da, espaloiak zabaldu egingo dira eta bidegorria jarriko da) eta ibilgailuentzako hirigunerako sarbidea berrantolatu egingo da, ibilgailuak osasun-erabilerako eremu akustiko batetik (LI.01) pasa ez daitezen. Proposamen horiek mamitzeko, betiere, aurrez GI-2132 errepidearen mendebaldeko saihesbidea egin behar da; jarduera hori udalaz gaindi egiteko eta finantzatzeko da, eta aldiriei buruzko atalean dago balioetsia.

- Lizeaga kalea funtzio eta ingumen aldetik hobetzeko proposamena ere onuragarria da. Izan ere, asmoa da hiri-paisaia hobetzea; gainera, Mugikortasun Planeko zenbait proposamen gehitu zaizkio espedienteari, adibidez: Elizatxo eta Lizeaga lotzeko igogailu publikoa jartzea eta Lizeaga eta Puerto auzoak oinezkoentzat eta ibilgailuentzat hobeto lotzea, Portun trenbide azpian tunela jarrita (bi proposamen horiek bigarren laurtekorako daude programatuta).

- Azkenik, eragin onuragarritzat hartu da, baita ere, Leoka inguruari balioa ematea, dauden ondare-elementuekin lotutako espazio publiko/parke bat sortuta.

5.4. TAULA. INGURUMEN-ERAGINEN EZAUGARRI ETA BALIOZTAPENAREN MATRIZEA (HIRIGUNEA HEGOALDEA)

ELEMENTUA	ALDAKETA	ERAGINAREN EZAUGARRIAK																Obretan		Ustiapenean	
		Onuragarria	Kaltegarria	Zuzena	Zeharkakoa	Behin-behinekoa	Iraunkorra	Epe motzekoa	Epe ertainekoa	Epe luzekoa	Sinplea	Metatua	Sinergikoa	Itzulgarria	Itzulezina	Berreskuragarria	Berreskuraezina	Neurri zuzentzailerik gabe	Neurri zuzentzaileekin	Neurri zuzentzailerik gabe	Neurri zuzentzailerik gabe
Natura-baliabideak	Eragina landare interesgarrietan	+			X		X		X		X			X		X		Ba		+	
Ingurumen aldetik sentikorrak diren eremuak	Katalogatutako ondarea	+			X		X		X		X			X		X		Ba		+	
	Ibilguak																				
Baliabide estetiko eta kulturalak	Eragina paisaian		X	X			X		X		X				X		X	Er	Ba	Ba	
Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea	Lur-soberakinak		X	X		X		X	X			X			X	X		Er	Ba		
	Eraiste-hondarrak sortzea		X	X		X		X	X			X			X	X		Er	Ba		
	Airearen kutsadura (obretan)		X			X		X	X			X		X		X		Er	Ba		
Nekazaritza-produktibitatea galtzea	Nekazaritzarako lurrak kentzea		X	X			X		X			X			X		X	Er	Ba		
Giza osasuna eta lasaitasuna	Eraisteen eragina		X	X			X		X		X				X		X	Ba			
	Zarata eta bibrazioak, obretan		X	X		X			X			X		X		X		Er	Ba		
	Berdegune publikoetarako irispidea	+		X			X		X			X		X		X				+	
Hiri-ingurumena	Motorrik gabeko mugikortasuna	+					X			X			X	X		X		Ba		+	
	Soinuaren kalitatea bizitegi-eremu berrietan		X		X		X			X		X		X		X		Er	Ba	Er	Ba
	Soinuaren kalitatea gaur egun dauden eremuetan		X		X		X			X		X		X		X		Er	Ba		
	Airearen kutsadura	+					X			X		X		X		X		Ba		+	
Arrisku eratorriak	Infiltrazio-ahalmena gutxitzea		X	X			X		X			X			X		X	Er	Ba		
	Arrisku geoteknikoak		X	X		X			X		X			X		X		Er	Ba	Ba	
	Uholdeak izateko arriskua																				
	Akuiferoak kaltetzeko arriskua																				
	Kutsatuta egon daitezkeen lurrak		X		X		X		X		X			X		X		Er	Ba		

5.7. HIRIGUNEA MENDEBALDEA LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENETATIK SORTUTAKO ERAGINEN AZTERKETA

5.7.1. Lurralde-eremuko proposamenen laburpena

Lurralde-eremu hori Zirkuituko errepidearen (GI-2132) trazan dago oinarritua; izan ere, errepide horrek lotzen du eremua hirigunearekin. Eremuak 56,6 hektarea dauzka. Azalera horren %54,7 Galarretan dago eta jarduera ekonomikoetarako da, oro har; %32,5 funtsean Santa Barbaran dago eta bizitegitarako da; eta gainerako %13 Bide Sistema Orokorrerako eta Ekipamendu Komunitariorako (irakaskuntza).

Eremuak bi arlotan dauzka aukerak. Batetik, Galarreta, planeamendu orokorrean proposatutako jarduera ekonomikoen ardatz nagusi ez ezik, garapen-nodo ere izango da; alde horretatik, dauzkan hedadura eta funtzionaltasunagatik udalerriaren mugak gainditzen ditu. Eta bestetik, okupatu gabeko lurretan, hau da, Zirkuituaren errepidean, Arrigoain eta Sorgintxulo artean, etxebizitzak egin daitezke.

Antolamenduaren bereizgarriak hauek dira: dagoen hiri-bilbea finkatzea (17 hektarea, azaleraren %30), berreskuratze- eta leheneratze-jarduerak egitea (4,5 hektarea, azaleraren %8) eta hiri-bilbea handitzea (35,1 hektarea, azaleraren %62) gehiago garatzeko. Planeamendu orokorrean proposatutako lurzoru-okupazio handiena da. Asmoa da, batik bat, Galarreta jarduera ekonomiko espezializatuen ardatz gisa sustatzea (parke teknologikoa eta hirugarren sektoreko erabilerak).

Galarreta (A) hirigintza azpi-eremu horren antolamenduan “Hernaniko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Galarreta (10 zk.) eremuko elementuen aldaketak” dokumentuan ezarritakoa jaso da; dokumentu hori bideratuta dago.

Lurralde-eremuan, Galarretaz gain, beste bi hirigintza azpi-eremu daude: Sorgintxulo (SO) eta Santa Barbara (SB). Ermuan zehaztu dira 15 arau-unitate; horietatik 10 hiri-lurzoruko eremuak dira eta bat sektore hiritargarri sektorizatua.

Jarduera nagusiak, lurraldean eta ingurumenean izan dezaketen eraginagatik, hauek dira:

- 1 Sustapen publikoko jarduera ekonomikoen sektore bat zedarritzea (GA.05), 14,8 hektarean, parke teknologiko bat egiteko, Miramongoaren (Donostia) hedapen gisa. Ibilgailuentzako irispidea dagoen biribilgunetik egingo da; horrek ez du esan nahi sektore mugakideetatik irispide osagarriak egingo ez direnik. Antolamenduaren asmoa da perimetro-eraztun berde bat egitea eta Gune Libreen Sistema Lokalaren gehiena han biltzea. Jarduera hori Arau Subsidiarioen Aldaketa gisa bideratu da.

- 2 Libre dagoen lurzorua (lurzoru hiritargarri sektorizatua, hiritartua) jarduera ekonomikoetarako antolatzea, Repsol-Butano faktoriako instalazioak kendu eta behin-behineko industria erabilerekin okupatu ondoren (GA.06). Sektorerako sarbide orokor eta bateratua egitea, biribilgune berri batetik. Hegoaldeko mugan (Jauregi landa-eremua) babes-banda berde bat jartzea. Jarduera hori aipatu Arau Subsidiarioen Aldaketa gisa bideratu da.

- 3 Jarduera ekonomikoetarako bi sektore sortzea (GA.07 eta GA.08) eta bitarteko hiri-eremu baten (GA.09) antolamendua eta erabilera berriz aztertzea; bi sektore horiek eta aipatu hiri-eremuak dauzkate 5,9, 3,1, eta 1,9 hektarea, hurrenez hurren, eta Zirkuituaren errepidea (GI-2132) eta Galarreta-Oriamendi errepidea (GI-3410) dituzte oinarri. Bi sektoreak dira industria-jarduerak ezartzeko; alde horretatik, udalerrian dauden jarduerak hara eramateko aukera dago, batik bat Floridakoak. Hiri-eremua da hirugarren sektoreko erabileretarako; asmoa da partzelaren parte batean hotela jartzea. Gainera, zirkulazio-eskema berriz antolatuko da: ibilgailuek sarbide zuzena izango dute GI-3401 errepidetik eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarbideak jarriko dira eremu mugakideetako hiri eta hiri arteko ibilbideetatik. Jarduera hori aipatu Arau Subsidiarioen Aldaketa gisa bideratu da.

- 4 Sorgintxuloko (SO) hiri-garapenak finkatzea. Zehazki, asmoa da ibilgailuek, oinezkoek eta txirrindulariek Zirkuituaren errepidera (GI-2132) eta Latxunbetik hirigunera heltzeko dauzkaten bide-sareen eskema eta diseinua berriz egitea.

- 5 Santa Barbarako bizitegi-ehuna handitzea, iparralderantz (SB.03 eta SB.04), Sorgintxuloko mugaraino; jarduera hori onartutako Arau Subsidiarioen Berrikuspenean aurreikusia dago. Bi hirigintza azpi-eremuetan (bata hiri-lurzoru finkatugabea da, 0,7 hektareakoa; eta bestea lurzoru hiritargarri sektorizatua, 6,1 hektareakoa) 291 etxebizitza egingo dira, %72 babestuak (BOE eta tasatuak). Arrigoaingo jarduerarako (SB.03) Hirigintza Hitzarmena sinatu da 2010ean; beraz, laster gauzatuko da. Sektore hiritargarriko (SB.04) bizitegi-garapenaren epea "zehaztugabea" da. Edozein modutan, Jarduketa Programaren arabera, planeamendu orokorra indarrean jarri eta zortzi urteren buruan egin behar da, gehienez.
- 6 Dagoen irakaskuntza ekipamendua handitzeko eta hobetzeko lurzorua gordetzea, ezinbestekoa baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egindako programa aurrera eramateko. Ekipamendua SB.02 hiri-lurzoruan dago;

mugatutako partzela eraikigarria hiri-lurzoru finkatugabe gisa dago sailkatua. Eraikin berrien profila hau izango da, gehienez: behe-solairua, haren gainetik hiru solairu eta lurpean sotoa.

- 7 Lurzorua gordetzea eta bide-aukeraren antolamenduari (mendebaldeko saihesbideari) Zirkuituko errepidearen (GI-2132) hiri-zatia, Marieluts eta Mandazubi artekoa. Proposamen estrategiko hori Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio; Mugikortasun Iraunkorreko Plana Bide Sistema Orokorrean sartuta dago, eta lehenago Donostiako LPPan. Jardueraren arabera, behin saihesbidea eginda, Zirkuituaren errepideko zatia kale edo hiri-bide bihurtu behar da, Santa Barbarako eremuaren eta Hernaniko hirigunearen arteko pasoko zirkulazioak sortutako oztopo funtzional eta ingurumen-oztopoa kentzeko. Galtzadaren diseinu berriaren arabera, aurreikusitako bizitegi-garapenera sartzeko bi biribilgune berri egongo dira, baita oinezkoentzako espaloia (zuhaitzekin), bi norabideko bidegorria eta ibilgailuek hiri-zatian linean aparkatzeko zerrenda ere; horrez gain, eremuaren eta hirigunearen arteko lurpeko pasabidea hiritartuko da. Jarduketa Programak ez du azpiegituraren exekuzioa arautzen, eskumena duen organoak ezarritako programazioaren mende dagoelako. Gainerako jarduerak programatu aurretik bide-azpiegitura hori egin behar da.

Lurralde eremuaren eta hirigintza azpi-eremuen mugak eta aurreikusitako jarduera nagusien kokapena plano honetan daude jasoak: ***B.5a planoa: hirigunearen aldirietako lurralde eremuko jarduerak.***

5.7.2. Ingurumen-baldintza nagusiak

- Eremu horretan sartzen dira Zirkuitu errepidearen (GI-2132) mendebaldeko jarduerak. Errepide horrek Galarreta, Sorgintxulo eta Santa Barbara auzoak bereizten ditu, funtzio eta ingurumen aldetik, hirigunearen gainerako eremuetatik; gainera, errepidea oztopo nabarmena da hirigunera sartzeko eta hirigunetik ateratzeko (lotura, segurtasuna).

- Errepideko zirkulazioak zarata aldetik eragin handia dauka inguruko bizitegi-eremuetan, hau da, Galarretan, Sorgintxulon, Santa Barbaran eta hirigunearen aldirietan, baina baita Latxunben, Karobietan, Txantxillan, Lizeagan, Elizatxon eta hirigunean ere. Errepideak bizitegi-eremuetan (GA.01, SO.01, SB.01, SB.03, SB.04) eta jarduera ekonomikoen eremuetan (GA.02, GA.03, GA.05, GA.06, GA.08, GA.09) dauka eragina.

- Eremuan eragina daukate, baita ere, GI-3401 errepideko zirkulazioak (GA.01, GA.07, GA.08, GA.09) eta, neurri txikiagoan (zirkulazio gutxiago dagoelako) bigarren gerriko berriko zirkulazioak (GA.07, GA.08, GA.09).

- Errepide ardatz horietan egunero 16.000 ibilgailu ibiltzen dira, batez beste (EBI[32]). Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailak emandako 2008ko edukiera datuen arabera, GI-2132 errepideko EBI 20.841 ibilgailukoa da Galarretan eta GI-3401 errepidekoa 17.733 ibilgailukoa Galarretatik Ospitaleetarako igoeran.

- Eremuko iparraldea (Galarreta azpi-eremua) muino batean dago eta topografia egokia da garapen berriak egiteko. Zona horretan daude, baita ere, lurralde-eremu osoan nekazaritza-ahalmen gehien duten lurrak (GA.05, GA.06, GA.07): 5 hektarea inguru dira eta orain larreak eta baratzeak daude.

- Erliebe hori modu zakarrean hausten da ekialdean (GI-2132 errepidea) eta hegoaldean (Sorgintxulo erretenaren ibarra) eta %50eko malda baino gehiagoko hegalak daude. Santa Barbarako (SB.04) sektore hiritargarriko baldintza topografikoak ere ez dira egokiak hiri-garapenak egiteko, sektoreko zona batzuetan malda ertain eta handiak daudelako.

- Galarreta eta Santa Barbarako hegal horietan daude eremu osoan (GA.05, SB.04) mantendu diren hostozabal baso handienak (hariztiak eta baso misto atlantikoak); hala ere, kareharri-azaleratzeak dauden lekuetan zuhaizti txikiagoak ere badaude. Zuhaizti horiek Galarretan 3,1 hektarea dauzkate eta Santa Barbaran hektarea bat, gutxi gorabehera.

- Eremuan egitura geomorfologiko interesgarriak daude (lapiaz erdi biluziak, kareharri-azaleratzeak, dolinak). Egitura horiek oso iragazkorrak dira eta, beraz, lurpeko ura erraz kutsa daiteke. Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoari[33] dagokionez, Santa Barbara inguruan “Hernani sektorea” dago. Sektore horretan 1,4 km^2-ko arrezife-kareharrien azaleratzea dago, sarrera bolumena 1,5 Hm^3-koa da eta irteera Karrero eta Curtidos iturburuetan dago, hau da, hirigunearen mendebaldeko lurralde-eremuan.

- Area eta sektore hauetan arrisku ertain eta handiko lekuak daude identifikatuta: GA.01, GA.02, GA.03, GA.04, GA.05, GA.07, GA.08, GA.09, SO.01, SO.02, SB.01, SB.03, SB.04.

- Eremuan Sorgintxulo erretena bakarrik pasatzen da eta Sorgintxulo auzoan kanalizatuta eta estalita dago. Galarreta azpi-eremuan aldizkako erreka batzuen goi-ibar zati txikiak daude.

[32] EBI. Eguneko batez besteko intentsitatearen akronimoa. 2008ko edukiera datuak (GFA).
[33] Energiaren Euskal Erakundea (E/1.100.000)

- Lurralde-eremutik kanpo Santa Barbara putzua dago. Mendebaldeko saihesbidearen hegoaldeko loturaren ibilbidea, Hezeguneen LPSaren antolamendu xehakatuaren arabera, “3 zona. Ingurua” delakoaren mugan dago. Zona hori da “*urertzetik 100 metroko erradioko perimetro zerrenda, eta topografiari eta gaur egungo lurzoru-okupazioari egokitzeko modukoa da*”; gainera, LPSean "Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal” kategorian dago. Ibilbidetik putzuaren ertzera dagoen gutxieneko distantzia 100 metrokoa da.

- Eremuan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten edo jasaten ari diren bost leku daude.

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00130	Aldatutako lekua	GA.03
20040-00129	Aldatutako lekua	GA.06
20040-00141	Aldatutako lekua	SB.02[34]
20040-00177	Aldatutako lekua	SB.03
20040-00148	Leku ez aktiboa eta hondakinak	SB.04

- Kokaleku topografikoagatik (muinoa da) eta komunikazio-bide garrantzitsuetatik (ibilgailu, oinezko zein txirrindularientzako bideetatik) eta Hernaniko hirigunetik asko ikusten delako, Galarreta azpi-eremuko sektore batzuk eta Santa Barbarako sektore hiritargarria (GA.05, GA.06, GA.07, GA.08, GA.09, SB.04) paisaia aldetik oso ahulak dira.

- Eremurako gaur egungo irispidea txarra da eta ez da segurua, batik bat motorrik gabekoentzat, hau da, oinezkoentzat eta txirrindularientzat. Santa Barbaran irakaskuntza ekipamendu garrantzitsua dago eta, beraz, jende askok egiten ditu nahitaezko joan-etorriak egunero (ikasketak direla-eta).

5.7.3. Eraginen identifikazioa eta ezaugarriak

- Galarretako azpi-eremuko zenbait sektorerako (GA.05, GA.07) aurreikusitako garapenak landare-eremu interesgarri batzuetan izan dezake eragina, batik bat perimetroan eta kareharri-azaleratzeetan dauden hostozabal-zuhaizti batzuetan. Eragina izango da plan partzialean eta dagokion hirigintza-proiektuan ezarritako antolamendu xehakatuaren araberakoa; eragina txikiagoa edo handiagoa izango da baita ere, eremu horiek Gune Libreen Sistema Orokor edo Lokal gisa sailkatzen direnaren arabera. Halaber, Santa Barbara azpi-eremurako (SB.04) planteatutako gutxi gorabeherako antolamenduak zuhaizti batzuetan eragina izan dezake; zuhaizti horiek, hala ere, tarteka kanpoko espezieak dituztenez, ez daude ondo.

- Azken bizitegi-eremu horretan GI-2132 errepideko zirkulazioko zaratak eragina izango du, mendebaldeko saihesbidea egin ala ez; izan ere, proiektatutako ibilbidearen arabera, sektore horretan jarriko da Santa Barbara inguruko mendiak zeharkatzeko tunela. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Sailak egindako txostenak dio sektore horretan 55 dB(A) baino soinu-maila txikiagoa egongo dela eta errepidetik gertuen dauden lekuetan, hau da, eraikin gehien egingo diren zonetan, 65 dB(A) baino handiagoa.

- Landa-lurzorua okupatzea (GA.05, GA.08, GA.09, SB.04 eta Mandazubiko landa-eremua) eragin kaltegarritzat hartu da. Gutxi gorabehera, 28 hektareako landa-lurzorua okupatuko da (22 Galarretan eta 6 Santa Barbaran); azalera horretatik 4 hektarea bakarrik dira nekazaritza-ahalmen ertain edo handikoak (GA.05, GA.08, GA.09 eta GI-131 errepidearen eta mendebaldeko saihesbidearen arteko lotunearen parte bat, Santa Barbarako tuneleko irteeratik). Landa-lurzoruan gehienbat larreak eta hostozabal-zuhaiztiak daude; hala ere, Galarretako muinoan autokontsumorako baratze asko daude (4,5 hektarea), oso partzelatuta: Hernaniko eta udalerri mugakideetako 30 erabiltzaile inguruk gestionatzen dituzte. Eragin hori kaltegarria, zuzena, iraunkorra, sinplea, metatua, berreskuraezina eta babes-neurriak onartzen dituena izango da. Gainera, lurzoru hori gestionatzeko neurri ekonomikoak hartu behar dira, baratzeak edukitzen jarraitu nahi duten erabiltzaileei aukerak emateko; eskari hori Galarretako aurreko egoeraren sintoma argia da.

- Landa-lurzoru handiak artifizial bihurtzeak, landare eremuak kentzeak, lurra mugitzeak eta abarrek eragiten du elementu antropogenikoak zabaltzea eta Hernaniko hirigunearen inguruko bereizgarri izan den landazabal-paisaia gutxitzen du. Era horretako jarduera asko egitearen ondorioz, natura-elementuak hiri-bilbetik urruntzen dira. Eragina kaltegarria da; hala ere, kalteen zenbaterainokoa honako hauek baldintzatuko dute, azken finean: eraikinen ikusmen-kalitatea, antolamendu xehakatuan natura-elementuei eustea, e.a. Gauzak horrela, aurretiko balioespena egitea zaila da. Edozein modutan, obrek irauten duten bitartean ikus-eragina nabarmenagoa eta eragozten zaila izango da.

[34] Badirudi inbentarioko kokaleku hori lokalizazio akatsa dela edo zona mugitu egin dela, eremu horretan ez baitira gauzatu lurra kutsa dezaketen jarduerak. Beraz, litekeena da zona hori adierazitako kokalekuaren ipar eta ipar-mendebalde artean antzina egindako erauzketa lanena izatea.

- Mendebaldeko saihesbidea udalaz gaindiko azpiegitura bat da eta ingurumen-inpaktuaren berezko txostena egin beharko da, behin eraikuntza aurreproiektua eta proiektua eginda. Saihesbidearen proiektuan honako hauen eragina hartu beharko da kontuan, batik bat: soinua (Marieluts, SB.04), soberakinen gestioa (700 metro tunel), lurpeko uren kutsadura (arrisku handiko eremuak), babestutako eremuak (Santa Barbarako putzu ingurua), paisaia, e.a. Edozein modutan, ingurumen-aldagaien gaineko eraginaren balioespenari azpiegitura horren egikaritzeak sor ditzakeen inpaktuen aurretiko analisia gehitu zaio.

- Lurra kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten aldatutako lekuak egotea eragin neurritsutzat hartu da. Leku horietan ez da erabilera aldatzea planteatu. Hala ere, dagozkien Hirigintza Arau Berezien arabera, lursail horiei eragiten dieten jarduera eta eraikuntza- zein hirigintza-lanetarako baimen berriak jasotzeko, aurrez “lurzoruaren kalitatearen aintzatespena” lortu behar da.

- Obra garaian behin-behineko kalteak sortuko dira, zarata eta bibrazio gehiago egongo direlako eta airea kutsatuko delako (hautsa, makinak, e.a.). Kalte horiek eremu mugakideetako (batik bat GA.01, GA.04, SO.01) biztanle gutxi batzuei eta bide jakin batzuk erabiltzen dituen jendeari eragingo die, GI-2132 errepidean batez besteko zirkulazioa handia delako. Eragina izango da kaltegarria, zuzena, behin-behinekoa, metatua, itzulgarria eta berreskuragarria. Babes eta zuzenketa neurriak har daitezke. Neurri horien gainean, Hirigintza Arau Bereziek diote dagozkien udal-ordenantzetan ezarritako irizpideetara jo behar dela.

- Azkenik, eragin kaltegarri neurritsutzat hartu dira eremuko zona batzuetako akuiferoak kutsatzeko arriskua eta, baita ere, arrisku geoteknikoak (horiek, batez ere, SB.04 sektorean). Zuhur jokatze aldera, gai hori kontuan hartu behar da garapenaren planeamendua egiteko eta, beraz, dagokion kapituluan babes-neurriak ezarri dira.

- Eragin onuragarritzat hartu da GI-2132 errepidearen zati bati hiri izaera ematea; izan ere, mendebaldeko saihesbidea egin eta abian jarri ondoren, zati horrek (1.200 metro) beste funtzio bat edukiko du. Balioespena egiteko kontuan hartu dira arlo hauetako hobekuntzak: irispidea, segurtasuna, soinuaren kalitatea, airearen kalitatea, energia kontsumoa (behera egingo du, motorrik gabe mugitzea erraztuko duelako), espazio publikoetarako irispidea (Santa Barbarako parkea), e.a.

- Aitzitik, polo teknologikora bideratzeko premiari erantzuteko Galarretan jarduera ekonomikoen gune handi bat jartzeak ibilgailu pribatuak askoz gehiago erabiltzea eragin dezake eta, gainera, ibilgailuak sarbideetan (GI-2132 eta GI-3401) pila daitezke; izan ere, Galarretan garraio publikoa eskasa da maiztasun eta ahalmen aldetik. Ez dakigu eskumena duten agintariek hori konpontzeko neurriak aurreikusi dituzten.

- Eremu horretako bizitegiak eta jarduera ekonomikoak jartzeko plataformak egiteko ez da etxebizitzarik eraitsiko. Hala ere, zenbait egitura behera botatakoan hondakinak sortuko dira eta, gainera, Galarretan, Santa Barbaran eta mendebaldeko saihesbidean aurreikusitako jarduerak egiteko lur asko mugitu beharko da, baldintza topografikoak direla eta. Lan horiek egiterakoan, beraz, eraiste-hondakinak eta lur-soberakinak sortuko dira eta hondakin eta soberakin horiek indarrean dagoen legeriari jarraiki gestionatuko dira. SB.04 sektoreko arau bereziari jarraiki, garapenerako planeamenduko antolamenduan *"ahal den neurrian, lur-mailegu eta -isuriak orekatu behar dira, lur-mugimenduek ahalik eta kalte gutxien eragin dezaten. Hirigintza-proiektuan, alde horretatik, egoera ebaluatuko da eta obrak egikaritzeko garaian aplikatu beharreko neurri zuzentzaile eta konponbide teknikoak ezarriko dira".* Eraiste-hondarrak eta -soberakinak sortzea eragin kaltegarri, zuzen, behin-behineko, sinple eta berreskuragarritzat hartu da; alde horretatik, babes-neurriak har daitezke eta babes-neurri horiek Hirigintza Arau Berezietan daude aurreratuta.

5.8. URUMEA ERDIALDEA LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENETATIK SORTUTAKO ERAGINEN AZTERKETA

5.8.1. Lurralde-eremuko proposamenen laburpena

Urumea ibaiaren erriberan, Zinkoeneako biaduktuaren eta Eziagoko meandroaren artean, dauden hiri-garapenek osatzen dute 'Urumea Erdialdea' lurralde-eremua. Eskuinaldean, ehun jarraitua eratzen du, GI-3410 errepidearen eta Urumea ibaiaren ibilguaren artean. Ezkerraldean, hiru pieza isolatu daude; Karabel-Osiñaga erriberako bide zaharra dute oinarri eta erriberako lursailen soilik zati bat kolonizatzen dute.

Eremuak 59,1 hektareako azalera hartzen du, eta azalera horren %83 eskuinaldean dago. Azalera horren %77 ekonomia-jardueretako erabilera orokorrerako (industria-jarduerak) erabiltzen da, %15 Sistema Orokorretarako (Zerbitzuen eta Bideen Azpiegiturak) eta %6 bizitegi-erabilerarako (Zikuñaga auzoa). Proposatutako antolamenduak ezaugarri ditu lehendik den hiri-ehunaren finkatzea (32 hektarea) eta ehun horren barne-bilakaerako eragiketak (15 hektarea). Lurzorua 2 hektarea zabaltzea aurreikusi da, bide-sistema hobetze aldera; bai eta industria-garapen txiki bat ere, zerrategia har dezan, gaur egun dagoen tokitik (Osiñaga) nahitaez lekualdatu behar baita.

Gainerako 9,5 hektareek hiru bizitegi-barruti autonomo hartzen dituzte, eta ezkerraldean daude. Eremu horretan, bizitegi-erabilera orokorra da erabilera nagusia (%78), eta gainerakoan Sistema Orokorrerako utzi da (bide- eta trenbide-sistema). Aipatutakoak hiru bizitegi-barruti autonomo dira. Haietako bi, Karabel eta Portu, trenbideak bereizten ditu hiriguneko hiri-bilbetik. Hirugarren barrutia hiri-garapen isolatua da, eta Osiñagako landa-eremuan dago. Gune horien antolamenduak honako hauek ditu ezaugarri: lehendik den hiri-ehunaren finkatzea (%58) eta ehun horren egitura osatzeko eta ehuna birmoldatzeko eragiketak (%42). Azken eragiketa horietarako 3,5 hektareako okupazio berriko lurzorua behar da, interstizioetan eta finkatutako garapenaren alboko guneetan.

Lurralde-eremuaren barruan hiru azpi-eremu daude: Portu-Karabel (PK), Zikuñaga-Eziago (ZE) eta Osiñaga (OS). 17 arau-unitate mugatu dira; horietatik 15 unitate hiri-lurzoruko areak dira, eta 2 unitate sektorizatutako lurzoru hiritargarriko sektoreak.

Lurraldean eta/edo ingurumenean duten eragina kontuan izanik, honako esku-hartze hauek identifikatu dira:

- 1 Hainbat esku-hartzek egitura-garrantzi estrategikoa hartu dute zirkulazio-eskema orokorraren berrantolamenduan (ibilgailuak, oinezkoak eta bizikletak) Hernaniko hiri-antolamenduaren esparru orokorrean. Hala nabarmendu da Mugikortasun Planean, eta esku-hartze horiek Karabel auzoan antolatu dira. Irteera Landare bideko Karabelgo zubi berriraino; zubi horretan bat egingo du trenbidearen azpiko pasabide berriak. Horretarako, Karabel iparraldetik inguratzen duen bidea birmoldatuko da, eta zirkulazioa saihestuko da Karabel, Landare eta Zubiondo guneetan eta Karabelgo bizitegi-gunetik bideratuko (PK.01 eta PK.02). Orobat, aparkaleku-area bat —irtermodala eta aldirietakoa— sortuko da Karabel-Landaren (PK.01 eta LZ.04), hirigunera sartzeko eta handik irteteko bidean erabiltzeko modukoa (igogailu publikoa izango du); aparkalekua ADIFen geltoki-geralekutik hurbil eta Zikuñaga eta Urumeako autobia lotzen dituen bide-lotunetik gertu izango da. Komunikazio Sistema Orokor eta Tokikoetako jarduera horiek guztiak laurtekorako programatu dira. Bestalde, Testu Bateginean sartu dira Urumea ibaiaren Ibilgua Antolatzeko Azterlanean ezarritako neurriak. Neurri horiek, Bide Sistemari lotuta, honako jarduera hauetan zehaztu dira: Karabelgo zubiaren ordez beste zubi bat egitea, gaur egungoa baino gorago, ibaian gora; eta biribilgune bat egitea, puntu horretan (PK.02) elkartzen diren hiru bideetako zirkulazioa arau dezan. Esku-hartze hori egiteko, gaur egungo zubiaren (PK.02) ondoan dauden hiru eraikinak eraitsi beharko dira. Hala ere, jarduera horien programazioa exekutatzeko eskumena duen erakundearen beraren aurreikuspenen arabera egingo da.

- 2 Jarduera horien osagarri izango dira honako hauek: Karabel eta Portu eremuen artean dagoen bidea berriz diseinatzea, ibilgailuen, oinezkoen eta bizikleten ibilerraztasuna hobe dadin (bizikleten ibilerraztasuna, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareko tarte batean); Portu eremuan trenbidearen azpitik pasabidea eraikitzea, auzoaren eta hirigunearen artean ibilgailu eta oinezkoen ibilerraztasuna hobe dadin; eta biribilgune bat sortzea, Karabel-Portu, Portu-Osiñaga eta Portu-Elizatxo-Lizeaga bideen elkargunea artikula dezan. Trenbidearen azpiko pasabidea eraikitzea bigarren laurtekorako programatu da; gainerako jardueretarako, ordea, ez da epe zehatzik ezarri.

- 3 Bizitegi-garapen intentsiboa, Karabel auzoaren mugakide den zerrendan (PK.02). Eremu horretan 159 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, eta horietatik %38 etxebizitza babestuak izango dira (Babes Ofizialeko Etxebizitzak —BOE— eta tasatuak). Proposamen hori dagoeneko sartuta dago Berrikuspeneko dokumentuan; eta proposamena etenda zegoen, Urumea ibaiaren Azterlan Hidrauliko Orokorra noiz onartuko zain, baina etendura kendu da, dagoeneko. Horretarako, 1,9 hektareako azalera hartu da, eta horietatik 0,3 hektarea parke bat egiteko utzi dira (Gune Libreen Sistema Lokala), lehendik dagoen ubidearen ertzean; parkeak bizitegi-area eta horren mugakide den landa-eremua artikulatuko ditu. Eragiketaren barruan sartu da eraikuntzarik gabeko lurzoru librea gordetzea (3.000 m^2-ko azalera edo handiagoa), bertan kirol-pista jartzeko. Pista hori mugakide den

areatik (PK.01) lekualdatuko da, lehen aipatutako aparkalekua zabaltzeko. Bizitegi-eraikuntzen gehieneko profila BS+6PP izango da, eta gaur egungo auzoan dauden eraikuntzen tipologiarekin bat etorriko dira. Jarduera hori Arau Subsidiarioen Aldaketaren bitartez izapidetu da —aldaketa behin betiko onartu zen 2010eko urtarrilean—, eta Hirigintza Hitzarmen formalizatua du 2010ean.

- 4 Intentsitate ertaineko bi bizitegi-garapen Portun (PK.03, PK.06), sektorizatutako lurzoru hiritargarriko sektorean (1,2 hektarea) eta finkatu gabeko hiri-lurzoruko arean (0,3 hektarea), hurrenez hurren; eremu horretan 124 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, eta horietatik 83 etxebizitza babestuen erregimenetakoren batekoak izango dira (BOE eta tasatuak). 0,2 hektarea utzi dira, alde batetik, parke bat egiteko (Gune Libreen Sistema Lokala) sektorearen ertzean, eta bizitegi-area eta mugakide den landa-eremua artikulatuko ditu; eta, bestetik, 1.000 m^2-ko bi plaza egiteko, unitateetako bakoitzean. Bi kasuetan, eraikuntza-profilak ingurura egokituko dira (gehienez ere BS+4PP PK.03 eremuan; eta BS+3PP PK.06 eremuan), bai eta eremuaren hartze-gaitasunera ere. PK.06 sektorean aurreikusitako jarduera bigarren laurtekorako programatu da. Bestalde, PK.03 sektoreko bizitegi-garapenak ez du epe jakinik programazioan, eta ez da exekutatuko gutxienez bigarren laurtekoa bukatu aurretik.

- 5 Sektorizatutako lurzoru hiritargarriko sektore bat mugatzea Zikuñagan (ZE.09), gaur egungo hiri-garapenen (Andola) mugakide den mendi-mazela batean dagoen 2,2 hektareako eremuan; eremu hori industria-erabilerarako baliatzen da. Partzela bat gorde da Olazaguirre zerrategia hara eramateko; zerrategia Osiñagan dago gaur egun. Eragiketa osatzen du beste biribilgune bat eraikitzeak GI-3410 errepidean; biribilguneak Eziago industrialderako sarbidea ere hobetuko du (GFAko Bide Azpiegituretako Departamentuak idatzi du exekuzio-proiektua). Esku-hartze hori bigarren laurtekorako programatu da.

- 6 Gaur egun Olazaguirre zerrategiak (OS.02) hartzen duen partzelan (5.506 m^2) hirigintza berregituratzea, eraikuntza eginda eta hiritartuta; dentsitate ertaineko bizitegi-erabilera du partzela horrek (gehieneko eraikuntza profila: BS/ES+3PP). 30 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, eta horietatik 12 BOE erregimenekoak izango dira. Gune publiko bat eman da, 1.000 m^2-ko edo gehiagoko azaleraduna, bertan oinezkoentzako plaza, jolaslekua eta lorategia egiteko. Landa-inguruneekin izango duen artikulazioa perimetro-zerrenda berdeak ezarriko du, eta zerrenda horrek 5 m edo gehiagoko zabalera izango du. Programatutakoaren arabera, bigarren laurtekoan exekutatuko da.

Lurralde-eremuaren mugak, hirigintza azpi-eremuak eta aurreikusitako esku-hartze nagusien lokalizazioa ***B.7a planoan (Urumea Erdialdeko Lurralde Eremuko Jarduerak)*** jaso dira.

5.8.2. Ingurumen-baldintza esanguratsuenak

- Urumea Erdialdea eremua Urumea ibaiaren bi ertzetan ere kokatzen da, Lastaola eta Karabel bitartean dagoen tartean. Ibaiaren eskuinaldeko ibarra industria-garapenek hartu dute (Eziago eta Zikuñagako industrialdeak), eta bizitegi-gune txikiak ere egin dira industrialdeen artean tartekatuta (Zikuñaga auzoa). Ezkerraldean nekazaritza da nagusi, baina baditu bizitegi-guneak ere, han-hemenka (Karabel, Portu, Osiñaga). Horien artean lehen sektoreko erabilera mantendu duten areak ere badaude.

- Lurralde-eremuan, ibai-sistemari lotuta, aintzat hartzekoak dira Urumea ibaiaren ibilgua eta ibaiertzak (PK.01, PK.02, ZE.01, ZE.03, ZE.04), Portu edo Errotaberri errekaren ibilgua eta erreka-bazterrak; Portu auzoko hainbat area/sektore ditu muga (PK.04, PK.05 eta PK.06). Ezkerraldeko zati handiena, Karabel auzoari (PK.01, PK.02) dagokion tartea kenduta, lurzoru ez-hiritargarri gisa sailkatu da, 'Babes berezikoak' kategorian.

- 'Urumea ibaia' Europako Komunitaterako intereseko gunearen jatorrizko mugaketaren barruan sartu ziren Urumea ibaiaren bi aldeak, Eziagoko industrialdea hasten den lekutik Eziagoko industrialdearen erdialderaino (ZE.04), gutxi gorabehera. Gune babestu hori berriz mugatzeko proposamenean, gunea 'Urumea Behealdea' eremuan dagoen Antziola ubidearen ahoraino luzatzea aurreikusi da. Hortaz, ibaiaren bi ertzak, 'Urumea Erdialdea' eremuak hartzen duen luzera osoan, sartu dira berriz mugatzeko proposamenean.

- Tarte horretan —bereziki ibaiaren eskuinaldean— Urumea ibaiaren ibilbideak eta erriberek jasan dituzten aldaketak gorabehera, erripako landaretza-eraketa linealak mantendu dira. Landaretza-eraketa horiek ez dute hedadura handirik zeharka, baina tarte osoan bi ibaiertzak ia guztiz estaltzen dituzte. Mota horretako eraketak identifikatu dira honako area hauetan: PK.01, PK.02, ZE.01, ZE.03, ZE.04.

- Tarte guztia identifikatu da fauna-intereseko area bezala, arrain-espezie migratzaileen habitat gisa duen interesagatik eta galzorian dauden bi ugaztun-espezierentzako (bisoi europarra eta muturluze edo desman piriniarra) interes bereziko areatzat jo delako.

- Lurralde-eremuaren zati handia definitzen duten elementu gakoetako bat urak hartzeko arriskua da. Jarraian, uholdeak izateko arriskua dela-eta, zati batean edo osoan, eragin posibleak jasan ditzaketen areak identifikatu ditugu. Horretarako, Uraren Informazio Sistematik eskuratutako datuak erabili ditugu [35]:

  - Uholdeen eragina zati batean jasan duten areak, 10 urteko birgertatze-aldian (urtean uholdeak gertatzeko arriskua %10 baino handiagoa dutenak): PK.01, PK.02, PK.05, PK.06, ZE.01, ZE.03, ZE.04.
  - Uholdeen eragina zati batean edo osoan jasan duten areak, 10 eta 100 bitarteko urteko birgertatze-aldian (urtean uholdeak gertatzeko arriskua %1 eta %10 artean dutenak): PK.01, PK.02, PK.03, PK.04, PK.05, PK.06, OS.01, ZE.01, ZE.03, ZE.04.
  - Uholdeen eragina zati batean edo osoan jasan duten areak, 100 eta 500 bitarteko urteko birgertatze-aldian (urtean uholdeak gertatzeko arriskua %0,2 eta %1 artean dutenak): PK.01, PK.02, PK.03, PK.05, OS.01, ZE.01, ZE.03, ZE.04.

- "Urumea ibaiaren ibilguaren azterlan hidraulikoa eta ordenamendu-azterketa, ibai-ahoa eta Altzueta (Hernani) bitartean" izeneko azterlanean, egiaztatu da uholdeen orbanek (gaur egungo egoera) eragina dutela Karabel-Portu azpi-eremuaren zati handienean, Zikuñaga-Eziago azpi-eremuaren zati batean eta, neurri txikiagoan, Osiñaga azpi-eremuan. Azterlan horretan 'Urumea ibaiko urak har dezakeen lurralde-zerrenda' izeneko eremua mugatzeko proposamena egin da. Halaber, horri lotuta, zenbait neurri ere ezarri dira, ibilguaren funtzionamendu hidraulikoa hobetzeko eta erriberako gune jakin batzuk babesteko, uholderik gerta ez dadin.

- Soilik eremu honi dagokionez, proposatutako jarduerak honako hauetan zehaztu dira: lezoi bat eraikitzea (Landaren egitea aurreikusi denaren jarraipena izango litzateke) Karabel auzoa iparraldetik inguratzen duen bidearen luzetara; gaur egun Karabelen dagoen zubia eraistea eta haren lekuan beste bat egitea, 70 metro argi izango dituena (bitarteko pilarik gabe); Karabelgo zubiaren ondoan dauden hiru eraikin eraistea; Karabel eta Portu auzoak elkarrekin lotzeko bidearen sestra goratzea; Zikuñaga eremuan dagoen erriberako bidearen sestra goratzea; Urumearen gaineko oinezkoentzako bi pasabideak eraistea; eta Eziagoko meandroaren ibaigunea lehengoratzea. Azken jarduera horretarako, urak har dezakeen lurralde-zerrendaren barruan dauden pabilioiak eraitsi beharko dira (aipatutako industrialdean beheko aldea baino ez litzateke eraitsi beharko).

- Lurralde-eremuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak egiten dituzten edo egin izan dituzten 35 leku identifikatu dira. Hona hemen:

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00074	industria aktiboa	ZE.01
20040-00075	industria aktiboa	ZE.01
20040-00076	industria aktiboa	ZE.01
20040-00077	industria aktiboa	ZE.01
20040-00078	industria aktiboa	ZE.01
20040-00079	aldatutako lekua	ZE.01
20040-00081	aldatutako lekua	ZE.01
20040-00085	industria aktiboa	ZE.01
20040-00152	orubea	ZE.01
20040-00082	industria aktiboa	ZE.02
20040-00080	industria aktiboa	ZE.03
20040-00084	aldatutako lekua	ZE.03
20040-00050	industria aktiboa	ZE.04
20040-00051	industria aktiboa	ZE.04
20040-00052	industria aktiboa	ZE.04
20040-00053	industria aktiboa	ZE.04
20040-00054	industria aktiboa	ZE.04
20040-00055	industria aktiboa	ZE.04
20040-00056	industria aktiboa	ZE.04
20040-00057	industria aktiboa	ZE.04
20040-00058	industria aktiboa	ZE.04
20040-00059	industria aktiboa	ZE.04
20040-00062	industria aktiboa	ZE.04
20040-00063	industria aktiboa	ZE.04
20040-00064	industria aktiboa	ZE.04
20040-00065	industria aktiboa	ZE.04
20040-00066	industria aktiboa	ZE.04

[35] GeoEuskadi: Ide Ura Web – Uraren Informazio Sistema agentziak emandako informazio kartografikoa. 2010/06/19

Kodea	Kategoria	Area / Sektorea
20040-00067	industria aktiboa	ZE.04
20040-00068	industria aktiboa	ZE.04
20040-00069	industria aktiboa	ZE.04
20040-00070	industria aktiboa	ZE.04
20040-00071	industria aktiboa	ZE.04
20040-00072	industria aktiboa	ZE.04
20040-00073	industria aktiboa	ZE.04
20040-00083	aldatutako lekua	ZE.06

- Kultura-ondareari lotuta, honako elementu hauek identifikatu dira:

  - Done Jakue Bidea. Kultura-ondasun hori Monumentu Multzoaren kategoriaren barruan sailkatu da (PK.05, PK.06)
  - Lonja-etxea. Balizko Arkeologia Gunea (PK.05)
  - Franco errota. Balizko Arkeologia Gunea (PK.05)
  - Zikuñagako ermita. Balizko Arkeologia Gunea (ZE.03)
  - Eziagoko errota. Balizko Arkeologia Gunea (ZE.03)
  - Karabelgo biaduktua. IV. motako babes-erregimena (PK-01).
  - Portuko lonja-etxea. IV. motako babes-erregimena (PK.05).
  - Aldagaia baserria. IV. motako babes-erregimena (PK.05).
  - Altzega baserria. IV. motako babes-erregimena (ZE.06).

- Urumea ibaiaren ibarrean daude udalerriko agrologia-gaitasun handiena duten lurzoruak; gehienak, baina, ibaiaren ezkerraldean daude. Lurzoru horiek guztiak 'Babes berezikoak' kategorian sartu dira, lurzoru ez-hiritargarrian. Onartutako antolamenduan sartu dira ezaugarri horiek dituzten eremu mugatuak, PK.02, PK.06 areetan eta PK.06 sektorean.

- Oro har, orografia egokia da hiri-garapenak egiteko. Adieraztekoak dira soilik malda ertainak, ZE.09 sektorearen ekialdean daudenak; sektore horretan industria-area mugakidea zabaltzea aurreikusi da.

- Eremu horretan, soinu-kalitatean eragina dute komunikazioen azpiegitura nagusiek, aurreko kasuan bezala. Kasu horretan, Madril eta Irun bitarteko trenbide-sareko zirkulazioan, ADIFek kalkulaturiko eragin-eremuan (55 dB(A) baino soinu-immisio handiagoa) PK.01, PK.02, PK.03 eta PK.05 areak sartu dira; guztiak 'Bizitegi erabilerako area akustiko' gisa definitu dira. Bestalde, GI-131 errepidean sortutako soinu-emisioen (65 dB(A) baino soinu-immisio handiagoa) eraginik handiena jasaten duten eremuak dira PK.02, PK.03 eta PK.06 sektoreak (garapen berriak bizitegi-erabilerako area akustikoetan) eta ZE.01area (industria-erabilera finkatuko area akustikoa), Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren kalkuluaren arabera.

- ZE.09 sektoreak maila ertain-altuko paisaia-hauskortasuna duela jo da, duen posizio topografikoa eta komunikazioen azpiegituretatik (GI-3410) duen ikusgaitasuna dela-eta.

- 'Urumea erdialdea' eremuan sartutako azpi-eremuen irisgarritasun-maila oso askotarikoa da. Hirigunetik hurbilen dauden auzoak (Karabel, Portu), ibilgailu, oinezko eta bizikletentzako hirigunearekiko loturetan dauden hutsak gorabehera, bizitegi-eremu zentral samarrak dira; trenbide-sareko geltoki-geralekutik hurbil daude, eta komunikazio on samarra dute hiri arteko bide-sarearekin, Ibaiondo-Akarregi eremuaren bitartez. Osiñaga nukleoa isolatu samar dago, eta tokiko errepide baten bidez dago Portu auzoarekin komunikatuta. Bestalde, eskuinaldean dauden industrialdeek (Zikuñaga, Eziago) komunikabide onak dituzte hiri arteko bide-sarearekin, GI-3410 errepiderako sarbidearen bidez. Hala ere, huts handiak dituzte barne-sareetan eta eremuaren gainerako tokiekiko eta hiri arteko sareekiko motorizatu gabeko loturetan.

5.8.3. Eraginen identifikazioa eta ezaugarriak

- Testu Bateginean jasotako Azterlan Hidrauliko osagarrian honako hau adierazi da, aparkaleku publikoa dagoen arearen (PK.01) eta Karabelgo kirol-pista dagoen arearen (PK.02) kasuan: "zalantzarik gabe, bai aparkalekua bai kirol-pista urak har dezakeen zonan geratuko lirateke, gaur egungo kotan, eta ez litzateke goratzeko aukerarik izango, horrek ibaiko hustubide-sekzioa murriztuko bailuke. Hasiera batean, bi erabilerak bateragarriak dira urak har ditzakeen eremuetan, betiere ez bada eraikuntza egonkorrik egiten aldagelen, kontrol-guneen eta abarren mailan, eta zoladurak bateragarri badira uraren ekintzarekin".

- Aurreikusitako bizitegi-garapena (PK.02) Arau Subsidiarioen Aldaketaren bitartez izapidetu da eta behin betiko onartu da. Bizitegi-garapen horri dagokionez, honako hau adierazi du: "jarduera hori gaur egun urak har

dezakeen eremuan dagoen arren, proposatu da jarduera hori etorkizunean urak hartzen duen kotatik kanpora exekutatzea; hortaz, lehentasunezko fluxu-lerrotik kanpo geratuko litzateke erabat. Azterlanean azaldu da, halaber, Karabelgo zubia ordezteari eta ibaiaren ezkerraldean elkarren ondoan eta gaur egungo zubitik oso gertu dauden hiru eraikinak kentzeari esker, "Karabelgo zubiko hustubidea hobetuko da (…); hobekuntza horren bidez zuzenean murriztuko da ur-orria, gaur egungo egoerarekin alderatuta, eta argi eta garbi orekatuko da planteatutako hirigintza-garapenaren bidez sortuko den urak har dezakeen eremuaren okupazioa". Azterlanean jakinarazi da balioztapen horrek esan nahi duela "hirigintza-garapena lotuta dagoela hiru eraikinak eta gaur egungo zubia eraistearekin, eta zubi horren lekuan beste bat jartzearekin".

- Azterlan Hidraulikoan aztertu da, orobat, Portu auzoan hiri-garapena egiteko proposamena. Portu auzoa "urak har dezakeen eremu ezeraginkorrean dago eta, hortaz, bete daiteke, gaingoratzerik sortu gabe". Azterlanean adierazi denaren arabera, zona horretan Karabeletik sartzeko errepidea da area 'eraginkorraren' muga; "beraz, jarduera arazorik gabe egin daiteke". Gainera, honako hau jaso da: "Horrez gain, Karabelgo zubian egingo den jarduerak hobetuko ditu gune horretako urak har ditzakeen eremuen mailak, ur-orria 13-14 cm beheratuko baitu, gaur egun duen mailarekin alderatuta (...)". Azterlanean azaldu da, behin 'Urumea ibaiaren Antolamendu Azterketan' aurreikusitako jarduera multzoa egiten denean, or-orria 30 eta 60 cm bitartean beheratuko dela, aztertuko diren birgertatze-aldien arabera.

- Eziagoko urak har dezakeen eremuari dagokionez, azterketan honako hau aipatu da: "Eziagoko industrialdearen beheko eremua urak har dezakeen eremua izango da aurrerantzean ere, hala izan ez dadin beharrezko bailitzateke Urumea ibaiko hustubide-sekzioa zabaltzea, estugunea sortzen duten ibaitik hurbilen dauden pabilioiak handik kenduz". Jarduera hori ez da jaso Testu Bateginean, mota horretako jarduerak zailtasun ekonomikoak eta kudeaketa-zailtasunak ekarriko bailituzke, zalantzarik gabe. Dena den, urak har dezakeen eremuaren orbanak soilik industrialde horretan eta industrialdea baino gorago, ibaian gora, ezkerraldean dauden landa-lurretan (Altzueta eremua) du eragina, ia-ia. Testu Bateginean babes bereziko landa-eremutzat jo du eremu hori.

- Testu Bateginera sartu diren bestelako jarduerak egiteko ere (besteak beste, Zikuñaga, Eziago, Ibarluze, Lizarraga, Lastaola eta Epeleko industrialdeak lotzen dituzten oinezko eta bizikletentzako ibilbideen sarea, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sektorekako Lurralde Planean proposatua) aintzat hartu beharko dira, halaber, eremu horretako baldintza hidraulikoak. Izan ere, Urumea ibaia bi puntutan zeharkatzea eskatzen dute (Eziago-Altzueta eta Altzueta-Ibarluze puntuetan); zehazki, Azterlan Hidraulikoan eta Urumea ibaiaren Antolamenduan aurreikusi da lehendik dauden oinezkoentzako pasabideak kentzea.

- Eragin negatibotzat jo dira eremuko hainbat gunetan dauden arriskuak, urak hartzeko arriskuari dagokionez. Hala ere, azterlan hidraulikoan adierazitakoaren arabera, Testu Bateginak eremurako onartutako antolamendua bateragarri da lehendik dauden edo etorkizunean izango diren baldintza hidraulikoekin. Arreta-irizpideei jarraikiz, alderdi hori kontuan hartu behar dela jo da, dagokion garapen-planeamendua egiteko. Eragindako areetako Hirigintza Araudi Berezian esplizituki adierazitakoaren arabera, "(…) areako antolamendu xehakatuak bete beharko ditu EAEko ibilguen Sektorekako Lurralde Planeko, Azterlan Hidraulikoko eta Urumea ibaiaren ahoa eta Altzueta (Hernani) bitarteko ibilguaren Antolamenduko zehaztapenak, sestrei, hiritartzeari eta eraikuntza- eta hiritartze-tarte eta lerrokadurei buruzkoak".

- Eragin positibotzat jo da aldizkako ubide txikia duen PK.02 area mugakidearen zati bat (3.000 m^2) gune librerako utzi izana. Horrek aukera eman du landa-lurzoruarekiko mugan dauden zuhaitzen artean balio handiena dutenak mantentzeko.

- Natura-intereseko eremuei lotuta, positibotzat jo da Karabel-Portuko ibarrean hiri-garapenetarako hartutako landa-eremuak murriztea, eta 'Babes berezikoak' kategoriara sartzea. Testu Bateginean jasotako proposamena izan da hori, eta koherentea da bai Urumea ibaiaren ezkerraldeko gune horretako baldintza hidraulikoekin, bai Eziago eta Karabel bitartean 'Urumea ibaia' Europako Komunitaterako intereseko gunea zabaltzeko proposamenekin.

- Neurrizkotzat jo da lurzorua kutsa dezaketen jarduerak hartu dituzten leku aldatuak izateak sortutako eragin posiblea. Ez da identifikatu birkalifikatutako areetan edo lurrak mugitzea ekarriko duten jarduerak egitea aurreikusi duten areetan dagoen lekurik. Nolanahi ere, indarrean den legedian ezarritako protokoloa eta zehaztapenak bete beharko dira; zehaztapen horiek Testu Bateginak egindako Hirigintza Arau Berezietan ere jaso dira.

- Negatibotzat jo da eremuan dauden industria-areek jasotzen duten soinu-eragina; eta, batez ere, berriki egin diren bizitegi-area/sektoreetako soinuaren kalitatea (PK.02, PK.03, PK.06). Beharrezkoa da adieraztea igorpen-gune nagusiak udalaz gaineko komunikazioen azpiegituretatik datozela eta planeamendu orokor hau egin aurretik daudela. Dena den, beharrezkotzat jo da eragin hori kontuan izatea, eragina jasaten duten areetako kalitate akustikoko helburuak betetzeko hartu behar diren neurri posibleak hartzeko orduan.

- Ibilgailuen ibilerraztasunerako eta motorizatu gabeko mugikortasunerako aurreikusi diren hobekuntzak (Zikuñaga eta Epele arteko bizikleta eta oinezkoentzako ibilbidea) eragin positibotzat jo dira, mugikortasun iraunkorraren ikuspegitik; hain zuzen, udalerriko industrialde nagusietara egunero joateko (mugikortasun behartua) ibilgailu pribatua ez den bestelako aukera bat eskaintzen dutelako.

- Obrak egin bitartean, aldi baterako eraginak sortuko dira, goratu egingo baitira zarata- eta bibrazio-mailak eta atmosferaren kutsadura (hautsa, makinak eta abar), baina egoiliar gutxi batzuek jasango dituzte eragin horiek (PK.01, PK.05 eta OS.01 eremuetakoek, batez ere). Aipatutakoa eragin negatibo, zuzen, aldi baterako, metatzaile, itzulgarri eta lehengoragarritzat jo da. Jarduera horrek onartzen ditu babes- eta zuzentze-neurriak, Hirigintza Arau Bereziek kasuan kasuko udal-ordenantzetan ezarritako irizpideetara eraman dituztenak.

- Karabel (PK.02) eta Portu (PK.04) auzoetako bizitegi-garapena exekutatu aurretik 10 etxebizitza eraistea aurreikusi da, bai eta eremuan aurreikusitako beste jarduera batzuetan eraikinak edo egiturak eraistea ere. Orobat, zerrategia lekualdatzeko asmoa ere agertu da, Osiñagako (OS.02) bizitegi-garapena exekutatzeko. Lurrak mugitzea ere aurreikusi da, Andolako (ZE.09) industria-garapen berria hartuko duen plataforma eraikitzeko edo Eziagon biribilgunea egiteko. Eraisteak eragindako hondakinak eta lurrak mugitzetik eta hondeaketetatik sortutako soberakinak kudeatzeko, indarrean den legedian xedatutako eskakizunak bete beharko dira. Eraistean hondakinak sortzea eta soberakin posibleak izatea eragin negatibo, zuzen, aldi baterako, soil eta lehengoragarritzat jo da, eta babes-neurriak ezar daitezke; neurri horiek Hirigintza Arau Berezi berariazkoetan aurreratu dira.

5.7. TAULA INGURUMEN-ERAGINEN EZAUGARRI ETA BALIOZTAPENAREN MATRIZEA (URUMEA ERDIALDEA)

ELEMENTUA	ALDAKETA	ERAGINAREN EZAUGARRIAK																Obretan		Ustiapenean	
		Positiboa	Negatiboa	Zuzena	Zeharkakoa	Aldi baterakoa	Iraunkorra	Epe motzekoa	Epe ertainekoa	Epe luzekoa	Soila	Metatzailea	Sinergikoa	Lehengoragarria	Lehengoraezina	Berreskuragarria	Berreskuraezina	Zuzentze-neurriak	Babes- eta zuzentze-neurririk gabe	Babes- eta zuzentze-neurriekin	Babes- eta zuzentze-neurririk gabe	Babes- eta zuzentze-neurriekin
Natura-baliabideak	Intereseko landaretzan eragina	+			X		X			X	X			X		X					+	
Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren eremuak	Katalogatutako ondarea																					
	Azaleko ibilguak		X		X	X			X		X			X		X		X	Er	Ba		
	Babestutako naturguneak (Europako Komunitaterako intereseko guneak)	+			X		X			X	X			X		X					+	
Baliabide estetiko-kulturalak	Paisaian eragina		X	X			X		X	X	X				X		X	X	Er	Ba		
Hondakinak eta kutsadura gehitzea	Lur-soberakinak		X	X		X		X	X			X			X	X		X	Er	Ba		
	Eraistean hondakinak sortzea		X	X		X		X	X			X			X	X		X	Er	Ba		
	Atmosferaren kutsadura (obrak)		X			X		X	X			X		X		X		X	Er	Ba		
Nekazaritza-produktibitatea galtzea	Nekazaritza-erabilerako lurzorua kentzea	+			X		X			X		X		X		X					+	
Gizakion osasuna eta lasaitasuna	Eraisteen eragina		X	X			X		X		X				X		X		Ba			
	Zarata eta bibrazioak obra-fasean		X	X		X			X			X		X		X		X	Er	Ba		
	Berdegune publikoetarako sarbidea	+		X			X		X			X		X		X					+	
Hiriko ingurumena	Mugikortasun ez-motorizatua	+			X		X			X		X		X		X					+	
	Bizitegi-eremu berrietako kalitate akustikoa		X		X		X			X		X		X		X		X	La	Er		
	Atmosferaren kutsadura	+					X			X		X		X		X			Ba		+	
Arrisku eratorriak	Infiltratzeko gaitasuna murriztea		X	X			X		X			X			X		X		Ba			
	Urak hartzeko arriskua		X		X		X	X	X		X			X		X		X	La	Er		
	Akuiferoen zaurkortasuna																					
	Kutsatuta izan daitezkeen lurzoruak		X		X		X		X		X			X		X		X	Er	Ba	Ba	

5.9. URUMEA GOIALDEA LURRALDE-EREMUAN EGINDAKO PROPOSAMENEN ERAGINEN ANALISIA

5.9.1. Lurralde-eremuko proposamenen laburpena

Lurralde-eremu horrek barnean ditu Urumea ibaiaren erriberako lursailetan dauden hiri-garapenak (ibaiaren goiko tartean, hiri-arearen parean, Eziagoko presatik ibaian gora). Bi asentamenduk osatzen dute eremua, eta bereizita daude bai espazioan bai funtzionalki. Lehen asentamenduak ehun jarraitua osatzen du, Urumea ibaiaren ibilguaren bi ertzetan: Ibarluze-Lizarraga eta Epeleko erriberetan, eskuinaldean; eta Lastaolako meandroaren erriberan, ezkerraldean. Bigarren asentamendua Ereñozuko hirigunea da; isolatuta dago (hirigunetik 5 km-ra), ibaiaren eskuinaldean.

Eremu horrek 53 hektareako azalera du, eta azalera horretatik soilik 4,2 hektarea hartzen ditu Ereñozuko guneak. Planeamendu orokorrean 44 hektarea utzi dira jarduera ekonomikoen erabilera orokorrerako (industria-jarduerak), eta 5,8 hektarea, bizitegi-erabilera orokorrerako (Epele eta Ereñozu auzoak). Gainerako eremua sistema orokorretarako utzi da. Udalerriko hiri-pieza industrial handiena da, eta enpresa ertain eta handiak ditu barnean; besteak beste, Electroquímica de Hernani eta Arkema. Industria kimiko horien jarduera arriskutsu gisa dago sailkatuta.

Proposatutako antolamenduan jaso da, funtsean, lehendik dagoen hiri-ehuna finkatzea, beteta dagoen lurzorua zabaldu gabe; eta ehun horren barne-garapena arautzea, aurrez onartutako planeamenduko zehaztapenen arabera.

Lau azpi-eremu sartu dira aipatutako eremuaren barruan: Ibarluze-Lizarraga (IL), Lastaola (LS), Epele (EP) eta Ereñozu (ER). 12 unitate arauemaile mugatu dira; horietatik 11 hiri-lurzorudun areak dira, eta beste unitatea sektorizatutako lurzoru hiritargarriko sektore bati dagokio.

Honako esku-hartze hauek identifikatu dira, ingurunean edo lurraldean duten eraginagatik:

- 1 Berrantolamendua Ibarluze-Lizarraga azpi-eremuan, udalaren jabetzako ekipamendu-partzelaren inguruan, Zerbitzuen Azpiegiturako Sistema Orokorreko partzela berri bat mugatze aldera, Hernaniko 'Garbigunea' eraikitzeko helburuarekin. AHTren ibilbidea zehazteko erreserbako zerrenda adieraztea.

- 2 Mantendu da Ibarluze-Lizarraga, Lastaola eta Epele azpi-eremuetan industria-partzelen gehieneko okupazioaren muga. Muga hori 1994ko Arau Subsidiarioetan onartu zen, baina aldatu egin zuen 2007ko Arau Subsidiarioen Berrikuspenak (dokumentu horretan gehienez ere azaleraren %70 hartzeko aukera eman zen).

- 3 1994ko Arau Subsidiarioek SU-31.1 (EP.03), SU-33.1, SU-33.2 eta SU-33.3 (EP.04) lurzoru hiritarretarako onartutako antolamendua finkatzea. SU-33.3 (EP.04) lurzoru hiritarreko bizitegi-garapena exekutatzeko, dagokion Azterlan Hidraulikoa onartzea baldintzatzat jartzea, urak hartzeko arriskua desagerrarazteko. SUE-31.2 (EP.01 eta EP.02) lurzoru hiritargarriko Plan Partzialaren antolamendua (eta horren ondoko aldaketa) sartzea; behin betiko onartuta dago, eta jarduera hori lehenengo laurtekorako programatu da. Erriberako pasealekua eraikitzeko lurzorua gordetzeko betebeharra mantentzea EP.03 areako antolamenduan, ibaiaren eskuinaldeko ur-bazterra tratatze eta GI-3410 errepidean espaloia egite aldera.

- 4 Motorizatu gabekoentzako (oinezkoak eta bizikletak) ibilerraztasun-ibilbidea, hirigunea udalerriko industria-pieza handienarekin lotzeko aukera emango duena, bai eta Epele eta Ereñozuko bizitegi-guneekin ere.

Lurralde-eremuaren mugak, hirigintza azpi-eremuak eta aurreikusitako esku-hartze nagusien lokalizazioa ***B.8a planoan (Urumea Erdialdeko Lurralde Eremuko Jarduerak)*** jaso dira.

5.9.2. Ingurumen-baldintza esanguratsuenak

- Urumea Garaia eremuak ere Urumea ibaiaren bi aldeak hartzen ditu, Epeletik Eziagora bitarteko tartea. Ibaiaren eskuinaldeko ibarra garapen industrialaren ondorioz sortutako eraikinek bete dute (Ibarluze, Lizarraga eta Epele poligonoek). Ezkerraldeak izaera nekazaria du nagusiki, oraindik ere, eta garapen industrialak Lastaola meandroa bete du. Eremu horretan txertatu da Ereñozu gunea, ibaian gora, Urumea ibaiaren eskuinaldean.

- Lurralde-eremuko ibai-sistemari dagokionez, Urumea ibaiaren ibilgua eta ibaiertzak (IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03, ER.01, ER.02 y ER.03) eta Landarbaso errekaren ibilgua eta ibaiertzak hartu behar dira kontuan. Landarbaso errekak Epele auzoko zenbait arearekin/sektorerekin egiten du muga (EP.01, EP.02, EP.03, EP.04). Ezkerreko ibaiertzaren zatirik handiena babes bereziko kategoriako lurzoru ez-hiritargarritzat jotzen da.

- 'Urumea ibaia' garrantzi komunitarioko lekuak Urumea ibaiaren bi aldeak hartzen ditu, Nafarroako Arano udalerriko mugatik Eziago poligonoaren erdiraino (ZE.04), gutxi gorabehera. Dena dela, eremu babestuak 'Urumea Garaia' eremu osoa zeharkatzen du (IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03, ER.01, ER.02,

ER.03). Eremu babestu hau berzedarritzeko proposamenean, handitu egiten da eremu horren azalera, eta horrek badu eragina Epele gunean ere (EP.04).

- Landarbaso errekaren ibilguko eta ibaiertzetako habitatak fauna aldetik interes berezikoak dira, eta hori da 'Urumea ibaia' garrantzi komunitarioko lekua berzedarritzeko proposamenerako arrazoietako bat. Horrela, toki hori udalerriko beste naturagune babestu batekin lotu ahal izango litzateke ('Aiako Harria' natura-parke eta garrantzi komunitarioko tokiarekin). 'Urumea Garaia' lurralde-eremuari dagokionez, identifikatu da zer eremutan den garrantzitsua fauna aldetik interes bereziko eremuetako bereizgarri diren habitatak babestea (IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03, EP.04, ER.01, ER.02, ER.03); hau da, Urumea ibaiaren eta Landarbaso errekaren ibilguen eta ibaiertzen mugakide diren eremu guztiak.

- Urumea ibaiaren ibilguak eta ibaiertzek tarte honetan aldaketak jasan dituzten arren, eskuinaldean batez ere (Ibarluze-Lizarraga eta Epele poligonoak), hainbat ibaiertzeko landare-multzo linealak daude oraindik ere, eta zeharka azalera handirik osatzen ez badute ere, ia tarte osoa estaltzen dute bi ibaiertzetan. Era horretako landare-multzoak identifikatu dira eremu hauetan: IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03, ER.01, ER.02 eta ER.03.

- Urpean geratzeko arriskua da lurralde-eremu honetako zati handi baten elementu giltzarri bereizgarrietako bat. Jarraian, zati batean edo osorik uholde-arriskuen ondorioz kalteak izan ditzaketen eremuen zerrenda osatu dugu. Horretarako, Uraren Informazio Sistematik eskuratutako datuak erabili ditugu[36]:

  - Zatiren batean 10 urtean behin uholdeak izaten dituzten eremuak (urtero % 10etik gorako arriskua dutenak): IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03 eta ER.01.
  - Zatiren batean edo osorik 10-100 urtean behin uholdeak izaten dituzten eremuak (urtero % 1 eta % 10 arteko arriskua dutenak): IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03, EP.04, ER.01, ER.02 eta ER.03.
  - Zatiren batean edo osorik 100-500 urtean behin uholdeak izaten dituzten eremuak (urtero % 0,2 eta % 1 arteko arriskua dutenak): IL.01, IL.02, IL.03, LS.01, EP.01, EP.02, EP.03, EP.04, ER.01, ER.02 eta ER.03.

- Urumea ibaiaren ibilguaren ahokaduratik Altzuetarainoko (Hernani) tartearen ur- eta antolamendu-azterketak ez du hartzen ibaiaren zati hori, eta ez du ekintzarik zati horretan.

- Kultura-ondareari dagokionez, elementu hauek identifikatu dira:

  - Epele dorretxea (ez du egiturarik ikusgai). Ustezko arkeologiagunea (EP.04)
  - Ereñozuko burdinola. Ustezko arkeologiagunea (ER.01 eta ER.02))
  - Ereñozuko dorretxea. Ustezko arkeologiagunea (ER.01))
  - Epeleko labeak. III. motako babes-erregimena (EP.04)
  - Ereñozu baserria (dorrea). III. motako babes-erregimena (ER.01)
  - Ereñozuko zentral hidroelektrikoa. III. motako babes-erregimena (ER.01)
  - Ereñozuko San Antonio eliza. IV. motako babes-erregimena (ER.01)
  - Lonja baserria (Ereñozu). IV. motako babes-erregimena (ER.01)

- Nekazaritzarako gaitasun handieneko lurzoruak ere Urumearen ibaiertzean daude, ibaiaren ezkerraldean. Ia lurzoru horiek guztiak lurzoru ez-hiritargarriko 'babes bereziko' kategorian sartu dira (Altzueta). Ezaugarri bereko lursail txiki batzuk identifikatu dira LS.01 (Lastaola poligonoaren zabalkuntzan) eta EP.04 eremuetan (Epeleko bizitegi-zonaren zabalkuntzan).

- Oro har, orografia egokia da hiri-garapenerako. Soilik aipatu behar dira IL.01 eremuaren mendebaldean (Garbigunea kokatu nahi den tokian) dauden malda ertainak/handiak. Duen kokapen topografikoa eta naturaguneetatik eta aisiaguneetatik (Altzuetako ibaiertza) asko ikusten dela kontuan hartuta, aipatutako gunea paisaia-hauskortasun ertainekoa/handikoa dela jotzen da.

- Lurralde-eremu honetan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten 51 leku identifikatu dira. Beheko taula honetan jaso ditugu:

Kodea	Kategoria	Area/Sektorea
20040-00033	industria martxan	IL.01
20040-00034	industria martxan	IL.01
20040-00035	industria martxan	IL.01
20040-00036	industria martxan	IL.01
20040-00037	industria martxan	IL.01

[36] Informazio kartografikoaren jatorria:
GeoEuskadi, Ide Ura Web – Uraren Informazio Sistema (Uraren Euskal Agentzia). 2010/06/19

Kodea	Kategoria	Area/Sektorea
20040-00038	industria martxan	IL.01
20040-00039	industria martxan	IL.01
20040-00040	industria martxan	IL.01
20040-00041	industria martxan	IL.01
20040-00042	industria martxan	IL.01
20040-00043	industria martxan	IL.01
20040-00044	industria martxan	IL.01
20040-00045	industria martxan	IL.01
20040-00046	industria martxan	IL.01
20040-00047	industria martxan	IL.01
20040-00048	industria martxan	IL.01
20040-00049	industria martxan	IL.01
20040-00061	industria martxan	IL.01
20040-00031	industria martxan	IL.02
20040-00032	industria martxan	IL.02
20040-00007	industria martxan	IL.02
20040-00007	industria ez-martxan	IL.03
20040-00006	industria martxan	IL.03
20040-00008	industria martxan	LS.01
20040-00009	industria martxan	LS.01
20040-00011	industria martxan	LS.01
20040-00012	industria martxan	LS.01
20040-00013	industria martxan	LS.01
20040-00014	industria martxan	LS.01
20040-00015	industria martxan	LS.01
20040-00016	industria martxan	LS.01
20040-00017	industria martxan	LS.01
20040-00018	industria martxan	LS.01
20040-00019	industria martxan	LS.01
20040-00020	industria martxan	LS.01
20040-00021	industria martxan	LS.01
20040-00022	industria martxan	LS.01
20040-00023	industria martxan	LS.01
20040-00024	industria martxan	LS.01
20040-00025	industria martxan	LS.01
20040-00026	industria martxan	LS.01
20040-00027	industria martxan	LS.01
20040-00028	industria martxan	LS.01
20040-00029	industria martxan	LS.01
20040-00030	industria martxan	LS.01
20040-00158	tokiz aldatuta	LS.01
20040-00005	industria martxan	EP.02
20040-00001	tokiz aldatuta	EP.03
20040-00002	industria martxan	EP.03
20040-00003	industria martxan	EP.03
20040-00004	industria martxan	EP.03

- Eremu honek berezigarri hau du: bertan dauden enpresa askok arriskutsutzat jotzen diren jarduerak dituzte, Arau Subsidiarioek eragindako ingurumenaren diagnosia eta balorazioa izeneko kapituluan xehatu den moduan. Jarraian, horrela sailkatutako jardueretatik 600, 1.000 eta 1.500 m.-ko eragin-erradioaren barruan zer eremu dauden adierazten da:

  - Jarduera arriskutsuen segurtasun-area (600 m): EP.01, EP.02, EP.03 eta EP.04.
  - Jarduera arriskutsuen segurtasun-area (1.000 m): EP.01, EP.02, EP.03, EP.04, LS.01, IL.03, IL.02 eta IL.01.
  - Jarduera arriskutsuen segurtasun-area (1.500 m): EP.01, EP.02, EP.03, EP.04, LS.01, IL.01, IL.02, IL.03, ER.01, ER.02, ER.03 eta R.04.

- Eremu honetako soinu-kalitateak aurreko eremuetan baino kalte txikiagoa du, industria-poligonoetara eta Epele eta Ereñozu guneetara doan hiriarteko errepideak (GI-3410) zirkulazio txikiagoa baitu. Ez daukagu errepide honen eraginpeko eremuei buruzko daturik; izan ere, eguneko batez besteko zirkulazio-intentsitatea 16.000 ibilgailutik beherakoa da, eta kopuru horretatik aurrera egin dira azpiegitura horien gaineko agintari eskudunei dagozkien txostenak.

- Edonola ere, esan behar trenbide-sare berriaren ibilbideak bai erabilera industrialeko soinu-eremuei (IL-01) bai babes bereziko landa-eremuei (Altzueta) eragingo diela, eremu honetatik igarotzean, EAEko Trenbide Sarearen LPSak adierazitako ibilbidearen arabera (erreserba).

- Eremu honetako industria-poligonoek eta bizitegiguneek lotune egokiak dituzte hiriarteko errepide-sarearekin, GI-3410 errepidearen bidez GI-131 errepidearekin lotzen baita Zikuñagan. Hala ere, baditu gabeziak barne-sareetan, eta bereziki, ez-motordunentzako gainerako udalerriarekiko lotuneei dagokienez. Horrez gain, ez dago garraio publiko egokirik eremu honetan bizi diren pertsonen beharrei erantzuteko. Mugikortasun-planak dio egoera horrek konponbide zaila duela, eta eremu honetan auto pribatua dela toki batetik bestera joateko egungo aukera bakarra.

5.9.3. Eraginak identifikatzea eta ezaugarriak zehaztea

- Testu bateginean txertatutako ekintzek finkatu egiten dute eremuaren zati handi batean dagoen egungo antolamendua. Hauek dira area honetan aurreikusitako ekintza bakarrak: Garbigunearen kokapenerako erreserba (IL.01), Lastaola poligonoa hegoaldetik handitzea (LS.01), EP.02 sektore industrialaren garapenaren exekuzioa (Epele), eta 1994ko Arau Subsidiarioek Epeleko bizitegi-arearako zehaztutako eraikuntza-aprobetxamendu berrietarako eskubidea finkatzea. Jarduketa horiek guztiak behin betiko onartutako planeamendu orokorretik eta garapen-planeamendutik abiatuta txertatu dira Testu Bateginean.

- Garbigunearen exekuzioa. Horretarako gorde den partzelak ez du harrera-plataforma bat sortzeko baldintza topografiko egokirik. Ez dakigu zer ezaugarri izango dituen proiektuak. Hori dela eta, zaila da zer eragin izango dituen eta zenbaterainokoak izango diren zehaztea. Dena dela, behin-behinean ibaiko uren kalitateari eragingo zaiola aurreikus daiteke, lanek dirauten bitartean urak materialak eraman baititzake. Bestalde, baliteke malda horren zati bat estaltzen duten hainbat hostozabal kendu behar izatea ere. Azkenik, paisaiaren kalitatea gutxituko da, bai lanek dirauten bitartean bai jarduketa amaitutakoan; izan ere, zenbait ezponda sortuko dira, partzela artifizialdu egingo da…, hain zuzen ere herritarrentzako aisialdigune baten mugakide den eta handik ikusgai dagoen eremu batean; hau da, Altzuetako ibarrean.Ez da aurreikusten eragin esanguratsurik sortzerik, proposatutako gainerako jarduketen ondorioz. Aurreikusitako garapen apurretarako, hala nola EP.02 eta EP.04 garapenetarako, Hirigintza Arau Berezietan ezarritako zehaztapenak daude, eta bertan, EAEko ibaien eta erreken ibaiertzak antolatzeko LAPak erretiroei buruz ezarritakora egokitzera behartzen da, eta eraikuntza-eskubideen baldintzei dagokienez, Uraren Euskal Agentziaren baimena izatera, Landarbaso errekaren ibarreko zati batzuk urpean geratzeko dagoen arriskuaren eta ibilgu horren hobekuntza hidraulikorako egiten diren planen arabera.

- Planeamenduan aurreikusitako beste jarduketa-mota batzuk eragin positibotzat jo dira; esate baterako, gainazalaren hirigintza-lanetan hobekuntzak egitea, GI-3410 errepidearen ertzetan espaloiak jartzea eta Landarbaso ubidearen eta Urumea ibaiaren babes-banda sortzea. Izaera hori bera ezarri da, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak eremu horretara zabaltzeko eta bide horien bidez eremua gainerako hirigunearekin lotzeko.

5.8. TAULA. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINEN EZAUGARRIEN ETA BALORAZIOAREN MATRIZEA (URUMEA GOIALDEA)

ELEMENTUA	ALDAKETA	ERAGINAREN EZAUGARRIAK																Obretan		Ustiapenean	
		Positiboa	Negatiboa	Zuzenekoa	Zeharkakoa	Aldi baterako	Iraunkorra	Epe laburrekoa	Epe ertainekoa	Epe luzekoa	Bakuna	Metakorra	Sinergikoa	Itzulgarria	Itzulezina	Berreskuragarria	Berreskuraezina	Neurri zuzentzaileak	Neurri babesle eta zuzentzailerik ez	Neurri babesle eta zuzentzaileekin	Neurri babesle eta zuzentzailerik ez	Neurri babesle eta zuzentzaileekin
Natura-baliabideak	Intereseko landarediari egindako eragina		X		X		X			X	X			X		X		X	Er	Ba		
Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren eremuak	Katalogatutako ondarea																					
	Lur gaineko ibilguak		X		X	X			X		X			X		X		X	Er	Ba		
	Naturagune babestuak (garrantzi komunitarioko lekuak)	+			X		X			X	X			X		X					+	
Kultura- eta estetika-baliabideak	Paisaian egindako kalteak		X	X			X		X	X	X				X		X	X	Er	Ba		
Hondakinak eta kutsaduraren gehikuntza	Lur-soberakinak		X	X		X		X	X			X			X	X		X	Er	Ba		
	Eraispen-hondakinak sortzea		X	X		X		X	X			X			X	X		X	Er	Ba		
	Atmosferaren kutsadura (lanetan)		X			X		X	X			X		X		X		X	Er	Ba		
Nekazaritza-emankortasunaren galera	Nekazaritza-erabilerako lurra ezabatzea		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba		
Giza osasuna eta baretasuna	Eraispenek sortutako kaltea																					
	Obra-faseko zarata eta dardarak		X	X		X			X			X		X		X		X	Er	Ba		
	Gune berde publikoetarako sarbideak	+		X			X		X			X		X		X					+	
Hiriko ingurumena	Mugikortasun ez-motorizatua	+			X		X			X		X		X		X					+	
	Kalitate akustikoa bizitegi-eremu berrietan		X		X		X			X		X		X		X		X	Er	Ba		
	Atmosferaren kutsadura		X				X			X		X		X		X		X	Er	Ba		
Eratorritako arriskuak	Infiltratzeko gaitasuna gutxitzea		X	X			X		X			X			X		X		Ba			
	Urpean geratzeko arriskua		X		X		X	X	X		X			X		X		X	Ha	Er		
	Akuiferoen urrakortasuna																					
	Potentzialki kutsatutako lurzoruak		X		X		X		X		X			X		X		X	Er	Ba	Ba	

5.10. UR-ARLOAN DITUEN ERAGINEN AZTERKETA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legea –EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa– garatzeko premiazko neurriak zehazten dituen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoari buruzko txostenean hirigintza-jarduketen eraginari buruz eta lurraldeak duen harrera-gaitasunari buruz adierazten denari jarraituz, hornikuntza-eskaeretan eta saneamendu-premietan espero diren gehikuntzen estimazio bat egin da, baina erabaki da Gipuzkoako Uren Partzuergoaren eskumena izango dela estimatutako eskaera horretarako nahikoa baliabide ba ote dagoen zehaztea.

5.10.1. Arau subsidiarioetan hornikuntza-sistemari buruz egiten diren proposamenen eraginen azterketa

Hernaniko hornikuntza-sistema 'Mancomunidad de Aguas del Añarbe – Añarbeko Urak, S.A' erakundeak kudeatzen du, eta Donostialdeko 10 udalerritako 200.000 biztanle baino gehiagori ematen die hornikuntza-zerbitzua, tartean Hernaniri (19.289 biztanle, Udalmap 2009).

Añarbeko urtegitik, ubide baten bidez eramaten da ura Petritegiko EUTEra (Astigarraga), eta han edateko ur bihurtu ondoren, lau adarretan banatzen da, udalerrietara banatzeko. Sistema honek segundoko 1.277,17 l-ko ur-eskaerari erantzuten dio; hau da, urtean 40 Hm^3 ematen ditu, urteko eta biztanleko 133 m^3 (365 litro, biztanleko eta eguneko).

Horixe da Hernani (19.289 biztanle, Udalmap 2009) hornitzen duen sistema nagusia, ia erabat hornitzen baitu udalerria. Hala ere, sistema nagusi horrekin zerikusirik ez duten beste bi hornikuntza-sistema identifikatu dira, Hernaniko eremu jakin batzuk hornitzen dituztenak.

Batetik, 'Ereñozu-Fagollaga-Epele' sistema, ura Urumea ibaiaren eskuin-ibaiertzeko bi iturburutatik hartzen duena, eta ura Aparraingo EUTEra bideratzen duena. Eremu horretako 557 auzotarren premiak estaltzen ditu (2001eko errolda). Bestetik, 'Martindegi' sistema, ura Landarbaso errekaren eremuko iturburu batetik hartzen duena, handik ura tratatu gabe 'Juanato-enea' ur-biltegira eramateko: Martindegi auzoko zenbait eraikin hornitzen ditu.

Añarbeko urtegia kudeatzen duen enpresak segundoko 2.200 l-ko emakida du, Petritegiko EUTEa eskualdeko eskaerari erantzuteko behar adina ur-emariz hornitzeko. Nahiz eta gaur egun segundoko 1.650 l-ko edukiera nominala duen eta nahiz eta egungo eskaera bere guztizko edukiera baino % 20 gutxiagokoa den, segundoko 2.200 l-ra arte handitzea aurreikusten da. Horrek ura edateko ur bihurtzeko guztizko gaitasuna % 25 handitzea ekarriko luke, eta ustiapenerako onartutako gehieneko ur-emariaren parera iritsiko litzateke.

Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Testu Bateginean 2.693 etxebizitza gehiago izatea proposatzen da, planaren amaiera-datarako (2026), eta horrek biztanleria 6.463 pertsona gehiagokoa izatea ekarriko lukeela kalkulatzen da; hau da, Añarbe sistemak hornitzen duen biztanleria % 2,08 igoko litzateke.

Testu Bateginean ez da proposatzen jarduera ekonomikoetarako eremu berririk sortzea, indarrean den planeamenduan (2007) onartutakoez gain. Edonola ere, indarrean den planeamenduan proposatzen den oinplanoko okupazio berriarekin, industria-lurzorua 300.000 m^2 handituko litzateke; hau da, gaur egun udalerrian den industria-lurzorua % 24 gehituko litzateke, gutxi gorabehera.

Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Testu Bateginean aurreikusitako hirigintza-garapenetarako aurreikusten den hornikuntza-eskaeraren estimazioa egiteko, erreferentziazko datu hauek hartu dira:

- Egungo biztanleria (Udalmap, 2009): 19.289 biztanle
- Planak indarrean dirauen aldirako aurreikusten den biztanleria: 25.752 biztanle
- Aurreikusitako biztanleria-gehikuntza: 6.463 biztanle
- Biztanleko eta eguneko ur-eskaera, etxeko erabilerarako (Udalmap, 2001): 200 l biztanleko eta eguneko
- Biztanleko eta eguneko ur-eskaera, industria-erabilerarako (Udalmap, 2001): 32,34 l biztanleko eta eguneko

Datu horien arabera kalkulatu da zenbateko hornikuntza-eskaera izango den, testu bateratuan 2026rako aurreikusten diren bizitegi- eta industria-garapenekin lotuta.

- Bizitegi-garapen berrien ur-eskaera, etxeko erabilerarako: 200 l biztanleko eta eguneko * 6.463 biz = 1.292.600 l eguneko
- Industria-garapen berrien ur-eskaera, industria-erabilerarako: 32 l biztanleko eta eguneko * 6.463 biz = 206.816 l eguneko

Testu Bateginean proposatutako hirigintza-garapen berrietarako aurreikusitako eskaera	
Etxeko erabilerarako: 1.292,6 * 365	471.799 m^3
Industria-erabilerako: 206,8 * 365	75.482 m^3
GUZTIRA.....	547.281 m^3

5.10.2. Arau subsidiarioetan saneamendu-sistemari buruz egiten diren proposamenen eraginen azterketa

Donostialdearen saneamendu-eskeman hiru hodi biltzaile hauek daude: Santa Katalinako hodi biltzailea, Donostiako mendebaldeko ur zikinak biltzen dituena; Urumeako hodi biltzailea, Hernaniko, Astigarragako, Urnietako eta Martuteneko urak biltzen dituena; eta Herrerako hodi biltzailea, eskualdeko gainerako udalerrietako urak biltzen dituena. Laugarren ardatza Oria Behealdearen saneamendu-proiektuari dagokio, eta Usurbilgo eta Lasarte-Oriako urak biltzen ditu.

Hodi biltzaile horiek Loiolako hondakin-uren araztegian elkartzen dira. Araztegi horretan, 628.000 'biztanle baliokideren' hondakin-urak arazten dira, karga handiko tratamendu biologiko baten bidez, eta segundoko 6.000 l-ko edukiera du.

Saneamenduaren egoerari buruz jarraian azaltzen dugun informazioa 'Gipuzkoako Lurralde Historikoko saneamenduaren egungo egoerari buruzko azterketa' izeneko txostenetik jaso dugu. Dokumentu hori 'Gipuzkoako uraren erabilera iraunkorrari buruzko norabideak zehazteko oinarriak' izeneko lanean (2006ko uztaila) erantsitakoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuarentzat egin zen.

Azterketa horretan Hernaniri buruz lortutako datuak, beheko taulako hauek dira:

Gunea	Udalerria (2001)	Guztizko kontsumoa (behekoa) *m^3 urtean*	Hiri-kontsumoa (behekoa) *m^3 urtean*	Isuria *m^3 urtean*	Industria-isuriak *m^3 urtean*	Guztizko isuria *m^3 urtean*	Biztanle baliokideen kopurua
Akarregi	114	8.331	8.331	6.664	593.047	599.712	12.639
Hernani erdigunea	14.861	1.085.991	1.085.972	868.778	2.212.515	3.081.307	64.938
Jauregi	385	28.134	28.134	22.507	0	22.508	474
Sta.Barbara	795	58.096	58.095	46.476	0	46.477	979
Zikuñaga	772	56.415	56.414	45.131	6.176.340	6.221.472	131.116
Epele	125	8.785	6.159	4.928	564.102	571.13	12.036
Ereñozu	432	30.359	21.287	17.029	0	24.287	512
Martindegi	149	10.471	7.342	5.874	0	8.377	177
Pagoaga	65	4.568	3.203	2.562	0	3.654	77
Sakabanatuak	731	51.372	36.020	28.816	0	41.098	866
Guztira	18.429				9.546.004		223.815

Bestetik, azterketa horretan bertan, urak Loiolako hondakin-uren araztegian isurtzen dituen saneamendu-sarea osatzen duten udalerrien biztanle baliokideen estimazioa egiten da:

Udalerria	Biztanleria (2001)	Biztanleria (2009)	Biztanle baliokideak (2001)
Donostia	184.877	185.357	252.230
Errenteria	38.061	38.767	116.919
Hernani	18.429	19.289	223.815
Lasarte-Oria	17.495	17.782	23.860
Pasaia	16.516	15.990	18.936
Oiartzun	9.401	9.894	17.822
Lezo	5.868	6.003	9.403
Urnieta	5.603	6.135	26.084
Usurbil	5.405	5.919	11.704
Astigarraga	3.655	4.678	8.032
Guztira	305.310	309.814	708.805

Gaur egun, Oria Behealdea bidean hartzen duen hodi biltzailea, Usurbilgo eta Lasarte-Oriako urak biltzen dituena, exekuzio-fasean dago, eta bi udalerri horietako ur zikinak oraindik ez dira Loiolako hondakin-uren araztegian tratatzen. Beraz, araztegiak 673.241 biztanle baliokide ingururi dagokien ura jasotzen du.

Horrenbestez, Hernaniko arau subsidiarioen berrikuspenean aurreikusitako 6.463 pertsonako biztanleria-gehikuntza onargarria da Loiolako hondakin-uren araztegiak duen edukiera kontuan hartuta. Izan ere, Loiolako hondakin-uren araztegiak gaur egun zerbitzua zer biztanleriari ematen dion kontuan hartuta, biztanleriaren gehikuntza hori % 2,08koa da.

Bestalde, ez da erraza jarduera ekonomikoko area berrietan zenbateko isuriak izango diren aurreikustea. Edonola ere, garapen horiek jada onartuta daude indarrean den planeamenduan (2007) eta, beraz, ez da jotzen Hernaniko Arau Subsidiarioen Testu Bateginean proposatutako antolamendutik eratortzen den eragintzat.

6. NEURRI BABESLEEN, ZUZENTZAILEEN ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA

6.1. TESTU BATEGINEKO HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA

Hernaniko Arau Subsidiarioen Testu Bateginean, iraunkortasun-irizpideetan oinarritutako hirigintza-planeamendu baterako irizpide estrategikoak biltzen dira, *3.5. Garapen iraunkorraren printzipiotik abiatuta onartutako antolamenduaren justifikazioa* atalean egindako analisian ikusi den bezalaxe.

Beraz, ez dugu uste aztertutako planaren helburuak eta estrategiak aldatu behar direnik.

6.2. IDENTIFIKATUTAKO INPAKTUEI AURRE EGITEKO NEURRI BABESLEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Testu Bategina lantzeko prozesuan, dokumentua idatzi duen lantaldeak Mugikortasun-planari eta Azterketa Hidrauliko Osagarriari dagokien Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren arduradun teknikoen aholkularitza izan du. Hortaz, dokumentuari ikuspegi askotatik proposatutako hainbat neurri jaso dira azken proposamenean.

Zehazki esateko, Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena idatzi duen lantaldeak eta Hernaniko Udal Hirigintza Bulegoak modu koherentean landu dute lurzoru ez-hiritargarriaren antolamendurako proposamena, eta horrela, udalerriko baliabide estrategikoei buruzko hainbat neurri babesle txertatu dituzte. Horregatik ez dira eransten txosten honetan beste neurri batzuk, proiektuan jada ezarritakoez gain (Testu Bategina). Neurri horiek jada txertatu dira bai 'Eremu globalen eraikuntza, erabilera eta jabetzako erregimen orokorra' dokumentuan eta 'Gainjarritako baldintzen' ondoriozko araudi partikularrean, bai planeamenduak zedarritutako araudi-unitateen Hirigintza Araudi Partikularretan.

Jarraian, gomendiozko zenbait neurri espezifiko eransten dira, planeamendu orokorretik (zatikako planak, hirigintza-antolamendurako plan bereziak, babes-plan bereziak eta abar) eratorritako garapen-planeamenduaren lanketarako. Neurri horiek bai aurreikusten diren jarduketak formulatzeko garaian bai geroko exekuzioan arreta handiena behar duten elementuen arabera multzokatu dira.

6.2.1. Ingurumen-elementu baliotsu eta esanguratsuenak babesteko neurriak

<u>Udalerriko natura-interes handiko areak babesteko neurri orokorrak</u>

- Garrantzi komunitarioko lekuei dagokienez, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikuluaren 2., 3. eta 4. atalak eta 1997/1995 E. D.-aren 6 artikulua izango dira kontuan hartu beharreko legedia. Beraz, '*edozein planek edo proiektuk, lekuaren kudeaketarekin zerikusi zuzenik ez badu edo leku horretarako beharrezkoa ez bada, eta nabarmen eragin badiezaieke leku horiei, bai bere aldetik bai beste plan eta proiektu batzuekin batera, leku horretan dituen ondorioen ebaluazio egokia egin beharko da, leku hori kontserbatzeko helburuak aintzat hartuta'.*

- Europar bisoiarentzat eta europar desmanarentzat interes berezikoak diren areetan (*CS.4b. Fauna-interes handiko areak*) egiten den edozein plan edo proiektuk eragin nabarmena badu, zuzenean edo zeharka, espeziearen kontserbazioan eta berreskurapenean, bai bere aldetik bai beste plan eta proiektu batzuekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren nahitaezko txostena beharko du. Ibilguari eragiten dioten lanak egiteko, saihestu egingo dira europar bisoiarentzat eta Pirinioko desmanarentzat kritikoak diren garaiak (martxoaren 15etik uztailaren 31ra, eta otsailaren 15etik uztailaren 31ra, hurrenez hurren).

- Arrain-hazkuntzaren migrazioa eragozten duten jarduketak saihestu egingo dira. Ibaiaren hondotik egiten diren lanak emaria ibilguan zehar etengabe igarotzeko moduan diseinatutako *ataguía* batetik egingo dira. Ibilguari eragiten dioten lanak egiteko, izokinarentzat kiritikoak diren garaiak eragotziko dira (irailetik martxora bitartean migratzen du).

- Lurzoruaren erreserba bat sortzea programatuko da, interes bereziko lurrak lurzoruaren udal ondarera erantsita, lurzoru ez-hiritargarria babesteko eta zaintzeko.

<u>Udalerriko ibai-sistemak babesteko neurri orokorrak</u>

- Garapen-planeamenduak (zatikako planak, sektorekako planak, plan bereziak) antolamendu xehatuak zehaztuko ditu, ibilguek gaur egungo ibilbidea izaten jarrai dezaten, antolamenduan txertatuta, eta ibaiertzetan eragindako ibai- eta erreka-tarteen egoera ekologiko ona lortzea edo mantentzea helburu duten jarduketak zehaztu beharko ditu.

- Garapen-planeamendua (zatikako planak, sektorekako planak, plan bereziak) egokitu egingo da EAEko ibaien eta erreken ibaiertzak antolatzeko LAPak eraikuntzarako eta urbanizatzeko gutxieneko erretiroei buruz

ezarritakora. Horretarako, eragindako tartearen osagai hidraulikoa, hirigintza eta ingurumena hartuko dira kontuan.

Intereseko landaretza babesteko neurriak

- Jarduketa-eremuan dauden intereseko zuhaitz-multzo sakabanatuak errespetatu egingo dira, baldin eta ez badira nahitaez antolamendu xehatuarekin bateraezinak; batez ere, gainjarritako baldintza hauetan identifikatutako zuhaitz-multzo sakabanatuak: *CS.4c Natura-interes handiko landaretza*, *CS.4e Hiri-eremuko parkeak eta zuhaiztiak.*

- Lurzoru ez-hiritargarrian ezarri beharreko sarbide, azpiegitura, zerbitzu eta eraikin berriek interes handiko landaretza-komunitateei eragitea eragotziko da (*CS.4c Natura-interes handiko landaretza*).

- Interes handiko landaretza-multzo sakabanatuen arteko loturak bultzatzeko, zuhaiztiak, heskaiak, landaretza-pantailak, erreken ibaiertzeko eta orlako landaretza eta lursailen mugak sortu eta mantenduko dira.

Paisaia babesteko eta leheneratzeko neurriak

- Landa-bide eta oihanbide berriak sortzeko proiektuetan, ingurumen-inpaktuaren azterketa sinplifikatu bat egin beharko da, nahitaez, otsailaren 27ko 3/1998 Legea betez.

- Hirigintza-proiektu bakoitzak Ingurumena eta paisaia leheneratzeko programa bat izango du, jarduketa bakoitzaren berezitasunera egokitua. Arreta berezia eskaini behar zaio txosten honetako ingurumen-baldintzen planoetan paisaia-hauskortasun handiko eremutzat identifikatutako areei/sektoreei dagokien garapen-planeamenduari.

- Programa horretan jasoko dira jarduketa paisaian behar bezala txertatzeko egin beharreko ekintzak. Alderdi hauetan jarriko da arreta berezia: isurketa-uren drainatze-sare berria, sektorea orografia kontuan hartuta ongi txertatzea, area zolagarriak mugatzea, natura-interes handiko zuhaiztiekiko eragina minimizatzea, zuhaiztiak eta artifizialdu gabeko areak antolamenduan txertatzea, leheneratzean erabiliko diren landaretza-espezieen deskribapena…

Ingurumeneko zaratari buruzko neurriak

- Area eta sektore batzuetan, atzeman da soinu-mailak gainditu egiten duela kokatuta dauden soinu-areari dagokion kalitate akustikoari buruzko helburua. Area edo sektore horien garapen-planeamendua formulatzean, ingurumen-zaratari buruzko azterketa espezifiko bat egingo da, gune igorle guztien eragina aintzat hartuta, inpaktua gutxitzeko neurri babesleak eta zuzentzaileak zehazten dituena.

- Ez badago ziurtatzerik bete egingo dela indarrean den legedian dagokion soinu-eremuaren kalitate-helburu gisa ezarritako mugak, neurriak hartuko dira barneko ingurumenetako helburuak bete daitezen. Soinu-kalitatearen helburuak finkatzeko, Zaratari buruzko 37/2003 Legean eta hura garatzen duen 1367/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Arriskuak minimizatzea

- Urpean geratzeko arriskua duten area edo sektoreetan egin beharreko jarduketak exekutatzeko, Uraren Euskal Agentziak (Eusko Jaurlaritza) jarduketek bete beharreko baldintzak finkatu beharko ditu aurrez (kargen esleipena, udalerriko beste area/sektore batzuetako edo udalerritik kanpoko uholdeen aurkako jarduketekin koordinatutako programa), administrazio horrek unean-unean onartutako Azterketa Hidrauliko Globalaren eta horren exekuziorako formulatu diren planen eta programen arabera. Area/sektore horien garapen-planeamenduan aipatutako baldintzei buruzko azken erabakiaren berri eman beharko da, eta planeamendu horretan baldintza horiek bete direla egiaztatzen duen memoria aurkeztu.

- Ibaiertzetan hasten diren jarduketa hidraulikoak arau hauetan ezarritako irizpideetan oinarrituta arautuko dira: Iparra III Plan Hidrologikoan, 5. sekzioaren ‘Azterketei, jarduketei eta lanei buruzko irizpideak, uholdeen eta beste fenomeno hidrauliko batzuen ondoriozko kalteak eragozteko eta haiei aurre hartzeko’ izeneko 1. azpisekzioaren 2.1.5.1.1.-etik 2.1.5.1.17.-erako arauak.

Mugikortasuna

- Plan edo proiektu batzuek sortutako mugikortasunari buruzko azterketa bat behar dute, behin betiko onartu aurretik, beren garrantzia edo lurraldean eta ingurumenean duten eragina dela eta. Halakoetan, udalak zehaztuko ditu plan edo proiektu horien ezaugarriak definitzen dituzten irizpideak. Bestalde, azterketa horrek elementu hauek izan behar ditu: proiektuari egotz dakiokeen sortutako mugikortasunari buruzko azterketa,

desplazamenduak eragiten dituen tokirako joan-etorrietarako dauden beste desplazamendu-aukeren diagnosia, eta garraio publikoa erabilita edo motorizatu gabe desplazatzea bultzatuko duten neurriak.

6.2.2. Hirigintza- eta eraikuntza-proiektuak idazteko gomendioak

- Azpieremuen antolamendu xehatua inguruko topografiara egokituko da, ahal den neurrian, ahalik eta lur-mugimendu gutxien eta ahalik eta paisaia-inpakturik txikiena eragiteko. Eraikuntzarako erabilerak lur lauenetan kokatzeko eta zuhaitz-landaretza malda handieneko eremuetan mantentzeko ahalegina egingo da. Eremu horiek espazio libreen tokiko sistema osatzen dute.

- Era berean, intereseko zuhaitz-aleak antolamendu xehatuan txertatzeko ahalegina egingo da; batez ere, jardute-eremuan dauden tamaina eta itxura ederreko aleak, baldin eta ez badira nahitaez bateraezinak proposatutako antolamenduaren exekuzioarekin.

- Hirigintza-araudian, kalitate-bermearen bereizgarria eta ingurumen-ziurtagiriak dituzten materialak eta produktuak erabiltzea aurreikusiko da. Ahal den guztietan, iraupen luzekoak, berrerabilgarriak edo birziklagarriak diren materialak erabiltzea sustatuko da.

- Areetako espazio publikoetan eta eraikuntza berrietako espazio komunetan azaroaren 14ko 1890/2008 E. D.-aren xedapenak betetzen dituzten argiztapen-sistemak erabiliko dira. Errege-dekretu horren bidez, Kanpoko argiteria-instalazioen energia-eraginkortasunerako araudia eta bere EA-01etik EA-07rako jarraibide tekniko osagarriak onartzen dira.

- Inguruneko ingurumen-baldintzak kontuan hartuta, eta eraikuntzak inguruko paisaian txertatuz ikusmen-intrusioak eragozteko asmoz, udalerriko eraikuntza- eta estetika-tipologiarekin bat datozen zenbait eraikuntza-baldintza zehaztuko dira (morfologia, materialak, koloreak, altuerak…).

- Beharrezkoa baldin bada, Eraikuntza sismoerresistenterako araua: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02) aplikatuko da, irailaren 27ko (NCSR-02) 997/2002 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Eraikuntza-proiektuetan, zehaztu egingo da zer neurri hartuko diren ura, elektrizitatea eta gasa bezalako baliabideen erabilera ahalik eta eraginkortasun handienekoa izan dadin. Hurrengo epigrafe hauetan zehazten dira:

    - Eraikinek tratamendu termiko berezitua izatera joko dute, orientazioaren arabera: isolatuago iparraldean eta irekiago hegoaldean.

    - Eraikinen barne-espazioen antolamenduan, gehien erabilitako espazioetan argiztapen-baldintzak eta eguzkiaren probetxua optimizatzen ahaleginduko da.

    - Ura aurrezteko sistemak ezarriko dira: banantzeko bi sare aurreikusiko dira, bata hondakin-urentzat eta bestea euri-urentzat.

    - Eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiria urtarrilaren 19ko 47/2007 E. D.-an ezarritako oinarrizko prozeduraren arabera lortuko da.

    - Martxoaren 17ko 314/2006 E. D.-ren bidez onartutako Eraikuntza-kode teknikoaren 15. artikuluaren arabera, eraikuntza berriek eguzki-energiaren bidezko gutxieneko energia-ekarpen bat izan behar dute, etxeko ur berorako edo klimatizaziorako.

    - Eraikuntza-materialak isolamendu termiko handikoak eta ahalik eta iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak izan daitezen ahaleginduko da, Eraikuntza-kode teknikoan dioenari jarraituz.

- Hirigintza-proiektuetan, akuiferoen zaurkortasun handiarekin lotutako babes-neurriak ezarri behar dira, horrela identifikatutako eremuetan (*CS.2a)*.

- Area zolagarri iragazgaitzak mugatu egingo dira akuiferoak kutsatzeko zaurgarriak ez diren areetan, ibaian behera dauden areetarantz doan isurketaren emaria murrizteko.

- Hirigintza-proiektuetan, aurrez dauden balio handieneko lurzoru-horizonteak eraberritzeko lanetan berrerabiltzeko neurriak zehaztuko dira. Soberakinak egoten badira, ahalik eta erabilerarik eraginkorrena emango zaie (berriz gertuko lanetan ezartzeko, lursailak hobetzeko…). Kosta ahala kosta, hondakindegietara ez eramateko eta lurrak betetzen ez erabiltzeko ahalegina egingo da.

- Paisaia eta ingurumena lehengoratzeko programek alderdi hauek bete behar dituzte:

- Lanen exekuzioak eta jarduketa osagarriek eragindako eremuei eragingo die; esate baterako: instalazio osagarriei, hondakindegi edo obra-hondakindegi berriei, lanetan erabili beharreko materialak ateratzeko eremuei, gainazaleko isurketa-uren drainatze-sareari, lanetarako irekitako sarbide eta bideei, eta abarri.

- Ezpondak eta harri-lubetak berriz landaretzaz estaltzeko neurriak ezarriko dira. Ezpondak berreskuratzeko eta lehengoratzeko lanak ahalik azkarren egingo dira, ezpondak gorri ikustea eta haien higadura eragozteko.

- Espazio berdeetako eta hiri-lorategietako landaretzan zer landare-espezie erabiliko diren zehaztuko da. Horrekin lotuta, landaretza babesteko neurriei buruzko atalean landaretza babesteko xedatutako neurriak beteko dira.

- Lanek hurbileko landaretza-eremuetan izan ditzaketen eraginak aztertu beharko dira, bai eta eremu horiek lehengoratzeko jarduketak ere.

- Laneko hondakin guztiak ezabatzeko, amaieran garbiketa-lana egiteko betebeharra duela adieraziko du.

6.2.3. Lanek dirauten aldirako neurri orokorrak

Jarraian, zenbait neurri orokor azaltzen dira, dagozkien hirigintza-proiektuen baldintza teknikoen agirietan txerta daitezkeenak.

Eragindako gainazalak seinaleztatzea

- Lanek eragindako gainazalak zuinkatu egingo dira, guztiz nahitaezkoa dena baino gainazal handiagoari ez eragiteko.

- Indusketaguneen kanpoko eremuak eta lanetarako instalazio osagarriak seinalen bidez adieraziko dira, makineria astunak lanen mugen barruan lan egin dezan eta bertan ibil dadin.

- Materialak zuinkatutako gainazaletatik kanpoko eremuetatik ateratzea edo bertara botatzea ekidingo da.

Lurren mugimenduak:

- Lurren mugimenduak eta zimenduak jartzea egiten diren txosten geoteknikoetan zehaztutako gomendioak kontuan hartuta egingo dira.

- Lurzoru-horizonte baliotsuenak selektiboki berreskuratzeko aukera emango duten prozesuak definituko dira. Lurren mugimenduak egin baino lehen, kendu egingo da dagoen landare-lurra. Lurzoru emankorrak zenbait gunetan pilatuko dira, jarduketa-eremuetan zehar, 2 m-tik gorakoak ez diren tontorrak osatuz, eta gero, berreskuratu behar diren gainazaletan erabiliko dira.

Sarbideak:

- Jada badiren bideak erabiliko dira lanetara sartzeko. Lanetarako sarbideak lanei ekin aurretik zehaztuko dira eta, ahal bada, ez da lanetarako sarbide berririk sortuko.

Gainazaleko ibilguak eta akuiferoak babestea

- Urak ibai-sarera ahalik eta solido gutxien eramateko neurriak ezarriko dira; hala nola dekantagailuak, jalkinentzako tranpak edo filtroak (lastozko balak, metalezko sareak edo material plastikoak).

- Erregaien, olioen eta beste konposatu toxikoen isuriak ekiditeko behar diren neurriak hartuko dira, geroago adierazten den bezala.

- Obretan sortutako hondakinen biltegia isurketen ondorioz ibai-ibilguei eragin diezaiekeen eremuetatik kanpo jarriko da; ahal bada, makineriaren parkerako bereizitako eremuan bertan.

- Makineria konpontzeko gune bat instalatuko da; eta lurzorua eta ura kutsa ez daitezen, eremu bat mugarritu beharko da gutxienez 10 cm-ko lodierako hormigoizko zolataz, edo efluenteak biltzeko sistema ziurtatuko duen beste edozein estalduraren bidez. Eremu hori ez da kokatuko ez jabari hidrauliko publikoan ez akuiferoak kutsatzeko zaurkortasun handiko eremuetan.

Hondakinak

- Lanean sortutako hondakinak (eraispenetatik sortutakoak barne) hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak –hondakinak hondakindegian utzita hondakinak ezabatzea eta betelanen exekuzioa (EAEn) erregulatzen dituena– ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

- Izan litezkeen lur-soberakinak indarrean den araudiaren arabera tratatuko dira; bereziki, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera –haren bidez, hondakinak hondakindegian utzita hondakinak ezabatzea eta betelanen exekuzioa erregulatzen dira–. Proiektu-fasean, balizko lur-soberakin horren bolumena eta xedea finkatuko dira: legalki baimendutako egituretan utzita kudeatuko da, hala nola 'betelanerako' edo 'lurraren egokitzapenerako', aipatutako 49/2009 Dekretuan dioen bezala.

- Bai erabilitako olioak bai galipota hondakin toxikotzat eta arriskutsutzat tratatuko dira, eta hondakinei buruzko 10/98 Legean eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan eta horiekin bat datorren gainerako araudietan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira. Dekretu horren bidez, erabilitako olioaren kudeaketa arautzen da EAEn.

- Lanetan hondakinak jasotzea behar bezala etiketatutako ontzien bidez egingo da. Ontzi horiek aurrez erabilera horretarako aurreikusitako guneetan utziko dira, eta gune horiek behar bezala iragazgaiztuta egongo dira, hormigoizko zolataren gainean, estalpean eta bilketa selektiboa bermatzeko moduan.

- Era berean, gune espezifiko batzuk izendatuko dira lanetako hondakin solidoak pilatzeko. Hondakinak pilatzeko guneetan zenbait su-itzalgailu egongo dira, sutze-iturriak, bero-iturriak eta abar ekidingo dira, suteak eragitea ekiditeko.

Kultura-ondarearen babesa

- Euskal kultura-ondareari buruzko 7/1990 Legearen beste xedapen batzuk betetzeari kalterik egin gabe, lanetan izaera arkeologikoa izan dezakeen aurkikuntzaren bat egingo balitz, bertan behera geratuko dira lanak eremu horretan, prebentziorako, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailari jakinaraziko zaio berehala, hark adieraz dezan zer neurri hartu behar diren.

Orokorrak

- Lanek dirauten bitartean, zirkulazioaren kontrola egingo da, enbarazurik ez eragiteko eta arrisku gehigarririk ez sortzeko zirkulazioaren gehikuntzak eraginda. Jarduketa-eremuan zehar ibiltzen diren ibilgailuen abiadura-muga eta ibilgailu-kopurua kontrolatuko da; batez ere, egun lehorretan eta haize handikoetan.

- Airearen kutsadura arintzeko, bideak aldian-aldian ureztatuko dira, lanen inguruan pilatutako hauts-geruzak garbituko dira, materialak kargatu eta deskargatzerakoan ahalik eta hautsik gutxien harrotuko da, eta abar.

- Makineriak zarata ahalik gehien gutxitzeko behar diren gailuak izango ditu eta, ingurumenaren babes-maila handia lortzeko, zorrotz beteko ditu 86/662/EEE eta 95/27/EE Zuzentarauak, lanetako makineriaren soinu-igorpenak mugatzeari buruzkoak.

- Makineriaren mantentze-lan egokia egingo da, eta uneoro beharrezkotzat jotzen diren azterketak egingo dira. Horrekin lotuta, agente atmosferikoen igorpenari eta zaraten igorpenari buruzko araudia betetzen duen makineria erabili beharko da.

7. ARAU SUBSIDIARIOEN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

Atal honetan, urratsez urrats azaltzen da zer prozedurari jarraitu behar zaion ikuskatzeko bermatzen direla hiri-arean mugatutako areetako/sektoreetako Hirigintza Arau Berezietan ezarritako babes-neurriak eta lurzoru ez-hiriztagarriko jarduketen inguruan Araudi Orokorrean zehazten diren babes-neurriak.

7.1. KONTROL-HELBURUAK

Ikuskapen-programak helburu orokor hauek ditu:

- Arau Subsidiarioen Testu Bategineko ingurumen-proposamenen exekuzioa ikuskatzea.
- Proposatutako jarduketak garatzeko planeamenduari dagozkion dokumentuak kontrolatzea.
- Hirigintza Arau Berezietan eta Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean ezarritako babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak behar bezala hartzen direla bermatzea.
- Txosten horretan agertzen ez diren beste babes-neurri eta neuri zuzentzaile batzuk ere hartzen direla egiaztatzea.

Proposatutako jarduketen exekuzioari dagokionez, Ingurumena Zaintzeko Programaren helburua ingurumenaren kalitatea babesten dela bermatzea da; hau da, jarduketa horiek direla-eta hari ez eragitea. Hortaz, beharrezkotzat jotzen da zenbait jarduketen garapenaren ingurumen-kontrola egitea, Arau Subsidiarioetan eta Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean ezarritakoa betetzeko. Ingurumen-kontrola zuzenean Udaletik egingo da nagusiki, ingurumen-gaietako teknikari espezialista baten bidez; izan ere, jada badago udal-administrazioaren organigraman.

7.2. SEGIMENDUA EGIN BEHARREKO SISTEMA, ALDERDI EDO ALDAGAIAK IDENTIFIKATZEA

Jarraian, plan honen bidez ikuskatu behar diren alderdi garrantzitsuenak zein diren azaltzen da:

- Lurzoruaren okupazioa: artifizialtzea, intereseko eremuen babesa, gaitasun handiko lurzoruak.
- Naturagune Babestuen sareari (parke naturala, Santa Barbara putzua, zuhaitz bereziak) edo garrantzi komunitarioko lekuei eragin diezaieketen jarduketak, batez ere Urumea ibaia garrantzi komunitarioko lekuarekin lotuta.
- Natura-interes handiko landaretzari eragiten dioten jarduketak.
- Ibai-sistemei eragiten dieten jarduketak.
- Ondare kulturalaren elementuei eragiten dieten jarduketak
- Urpean gera litezkeen guneetako jarduketak.
- Fauna-interes bereziko areetako jarduketak.
- Akuiferoak kutsatzeko zaurkortasun handiko eremuetako jarduketak.
- Lurzorua kutsatzen duten jarduerak dituzten edo izan dituzten guneetako jarduketak.Ekosistemen arteko loturari eragiten dieten jarduketak.
- Mugikortasun Iraunkorrerako Plana garatzeko jarduketak.
- Kalitate akustikorako planen garapena, zonifikazio akustikoaren arabera.

7.3. IKUSKAPEN-PROGRAMAREN DISEINUA

Planeamenduaren eta proiektuaren ondoz ondoko faseetan, Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean jasotzen diren enuntziatu nagusiak bete daitezen zaindu beharko da, planeamendu eta proiektu horiek osatzen dituzten dokumentuen bidez.

- Proposatutako neurri zuzentzaileak gauzatzeko behar diren zehaztapenak jasoko dituzte planeamenduko ondoz ondoko dokumentuek, eta dagokion araudian txertatuko dituzte.

- Proiektuetan, bai memorian bai baldintzen eta planoen agirietan txertatuko dira neurri zuzentzaileak, eta aurrekontuko partidak garatuko dira, baldin eta neurriak ekonomikoki baloratzekoak badira.

Jarduketa bakoitzaren garrantzia ikusita, Ingurumena Zaintzeko Plan bat ezartzeko aukera aztertzeko proposatzen da, hirigintza- eta eraikuntza-faseetarako. Ingurumena Zaintzeko Programa bakoitzerako ezarritako helburuekin bat etorriz, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, programa horren segimendurako:

- Hiritartze-lanetarako eta espazioaren antolamendurako irizpideak:

    - Lurzoruaren okupazioa
    - Intereseko landaretza
    - Natura-interes handiko espazioekiko eragina
    - Egokitzapen topografikoa

- Lurraren infiltrazioa
- Mugikortasuna

- Arriskuak minimizatzea:

  - Lurzoruaren kalitatea, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lekuetan.
  - Azterketa hidrauliko espezifikoa
  - Akuiferoak kutsaduratik babesteko neurriak
  - Dagoen ingurumen-zarataren azterketa

- Ingurumena eta paisaia berreskuratzea

  - Ingurumena eta paisaia berreskuratzeko programa

- Eraikuntzen energia-iraunkortasunerako irizpideak

Ingurumen-kontrol horretarako, aldizkako hainbat ikustaldi egin beharko dira obra-fasean, eta aldizkako txostenak egin beharko dira, puntu hauetan adierazten denari jarraituz:

- Aldizkako txostenetan, gertakari nagusiak, babes-neurrien eta neurri zuzentzaileen aplikazio-egoera, nabaritutako arazoak eta abar jasoko dira.

- Lanetarako egindako okupazioa kontrolatu egingo da: ziurtatuko da okupazio hori bat datorrela proiektuetan egindako aurreikuspenekin, eta egiaztatuko da ez zaiola eragiten aipatutako proiektuan adierazitakoa baino gainazal handiagoari. Bereziki, proiektuaren premien ondorioz ezabatu behar ez diren intereseko landaretza-orbanak errespeta daitezen zainduko da.

- Eraikuntza-fasean, induskatutako materialen eta egon daitezkeen hondakinen kontrola egingo da, haien ezaugarriak zehaztu eta kuantifikatzetik hasi eta azken xedera arte. Azken xede hori baimendutako kudeatzaile baten onarpen-agiriaren bidez egiaztatu beharko da.

- Lanen eraikuntzaren fasean, aldatutako topografia birmoldatzeko jarduketak egiaztatuko dira, berezko topografiaren ahalik eta antzekoena izan dadin: ezpondak biribildu, bai oinplantan bai aurretiko bistan, ertzak eta gainazal lauak ekidin, eta abar. Ateratzen diren ezpondek zenbateko malda duten egiaztatuko da, bertako landaretza birsortu ahal izatea bermatzeko.

- Obrako makineriaren aldizkako azterketak egiten direla kontrolatuko da, batez ere igorpenei eta zaratei dagokienez, indarrean den araudira egokitzeko.

- Ingurumen-zarata ahalik gehien gutxitzeko neurrien exekuzioa eta eraginkortasuna kontrolatuko da.

- Aldizkako ureztatzeak kontrolatuko dira, eta argi adieraziko da zer fasetan den premiazkoa ureztatzea.

- Landaretza eta paisaia lehengoratzeko neurri guztiak egiten direla eta neurri horiek beren proiektu espezifikora egokitzen direla kontrolatuko da.

- Azkenik, behin lanak amaitutakoan, segimenduaren amaierako txostena egin beharko da, proposatutako prebentzio-neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna eta lanek irauten duten bitartean gertatu diren gertaerak biltzeko eta azken balorazioa egiteko.

7.4. BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK. ERREFERENTZIA-MAILAK

Segimendua errazteko, Udalmap aplikazioa (Eusko Jaurlaritza) aplikatzean lortutako zenbait adierazle hautatu dira, izan ere, adierazleen segimendua egiteko abantaila interesgarritzat jo da adierazle horiek kalkulurik eta azterketa xehaturik egin beharrik gabe lortzea.

Oraingoan, adierazleen gaikako aukeraketa egiteko ahalegina egin da, adierazle horiek azterketa honetako aurreko kapituluan zehaztutako prebentzio-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurri guztiei egokitzeko asmoz.

- Lurzoruaren okupazioa eta artifizializazioa

  Udalerriko lurzoruaren erabileraren segimendua egiteko adierazleak:

Adierazlea	Urtea	Emaitza

Hiri-lurzorua	2008	% 6,82
Babes bereziko gainazala (guztizko gainazalaren %-a)	2008	% 2,16
Errepideetarako gordetako gainazala	2008	% 0,60
Parke, lorategi eta hiriko berdeguneez okupatutako gainazala	2007	% 16,83
Parke, lorategi eta hiriko berdeguneez okupatutako gainazala	2007	15,60 m^2 pertsonako

- Ur-kontsumoa

  Aurreikusitako bizitegi- eta industria-garapenak udalerrian exekutatu ondoren ur-eskaerak zer bilakaera duen kontrolatzeko adierazleak.

Adierazlea	Urtea	Emaitza
Guztizko ur-eskaera biztanle eta eguneko	2001	199,58 l biztanle eta eguneko
Industriarako ur-eskaera biztanle eta eguneko	2001	32,34 l biztanle eta eguneko

- Energia-kontsumoa

  Energia-kontsumoa eta kontsumo horren efizientzia kontrolatzeko adierazleak, egoiliar-kopurua gehitzeak eta jarduera ekonomikoetarako udalerrian gordetako areak zabaltzeak eragindako eskaera-igoera zehazteko:

Adierazlea	Urtea	Emaitza
Udalerriko urteko energia-kontsumoa	2008	19.506,86 Kwh biztanleko
Industria-sektorearen urteko elektrizitate-kontsumoa	2008	16.886,65 Kwh biztanleko
Instalatutako potentzia fotovoltaikoa	2008	37,70 kW 10.000 biztanleko
Eguzki-energia termikoa instalatzeko erabilitako gainazala	2008	31,67 m^2 10.000 biztanleko

- Airearen kalitatea

Adierazlea	Urtea	Emaitza
Kalitate oneko edo onargarriko egun-kopurua	2008	% 98,63

- Hondakinak

  Batetik kutsatuta egon daitekeen lurzorua duten lekuetako deskontaminazio-prozesua eta 'Lurzoruaren kalitatearen aitorpena' lortzeko prozesua eta bestetik lurzorua kutsatuta izan dezaketen leku berriak kontrolatzeko segimendu-adierazleak.

  Era berean, biztanle eta eguneko sortzen den hondakin-kopuruari aurreikusitako garapenen aurretik eta ondoren segimendua egitea ere proposatzen da.

Adierazlea	Urtea	Emaitza
Kutsatuta egon daitekeen lurzorua	2008	Guztizko gainazalaren % 2,06
Sortzen diren hiri-hondakinak, biztanle eta eguneko	2006	1,29 kg biztanle eta eguneko
Hondakin arriskutsuen kudeaketa biztanleko	2004	90,41 kg biztanle eta eguneko

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna

  Udalerrian dauden garraiobide iraunkorren egoeraren bilakaerari segimendua egiteko, adierazle hauek proposatzen dira:

Adierazlea	Urtea	Emaitza
16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua, bizi den udalerritik kanpo lan egiten duena	2001	% 60.08
Udalerriaren irisgarritasuna	2007	68,76
EAEko gainerako herrietara desplazatzeko behar den batez besteko denbora	2007	49,05 minutu
Errepide nagusietara iristeko behar den batez besteko denbora	2006	7,30 minutu
Udalerriak garraio publikoaren bidez (herriarteko autobusa) duen	2007	4 udalerri

konexio-maila		
Bidegorri-sarea	2007	0,73 km 10.000 biztanleko

7.5. AZTERKETA XEHATUA GERORAKO UTZITAKO ALDERDIAK

Garapen-planeamenduaren lanketa-fasean –hasiera batean, era horretako izapidea dagokien sektoreen zatikako planetan–, eskumeneko ingurumen-organoari kontsultatuko zaio, hala badagokio, ea ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateraturako prozedura ezarri behar den.

2009ko abenduaren 23ko Arartekoaren Ebazpenak –EAEn izapidetzen diren hirigintza-antolamendurako planetan ingurumenari buruzko ebaluazioa egiteko premiari buruz abiatutako ofiziozko jarduketa amaitzen da, ebazpen horren bidez–, '*berriz esan behar dugu, ingurumen-araudiak dioena kontuan hartuta, bai hiri-antolamendurako plan berezietan, bai zatikako planetan, bai hirigintza-antolamendurako planen aldaketa guztietan, ingurumenaren ebaluazio estrategikoa egin behar dutela, izapidetzean, baldin eta ingurumen-administrazioak frogatzen badu ingurumenarekiko eragin esanguratsuak dituela, ingurumen-legediaren arabera*'.

Edonola ere, eskumeneko ingurumen-organoari dagokio; hau da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari.

Hiritartze-lanetarako proiektuei dagokienez, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Indibidualizatua egin behar zaion galdetu behar da, 'ingurumen-aldetik sentikorra' den eremuren bati eragin badakioke. Euskadiko ingurumenaren babes orokorrerako 3/1998 Legeak zehazten du zein diren eremu sentikor horiek. Honela dio:

'1.- Ingurumen-aldetik sentikortzat joko dira, dituen ingurumen-balioei dagokienez dituzten ezaugarri bereziak eta balio horien hauskortasuna direla-eta ingurumen-narriadura handia jasan dezaketen guneak.

2.- Kapitulu honetan xedatutakoa aplikatzean, betiere lege hau ateratzeko unean hiri-lurzorutzat sailkatutako lurrak alde batera utzita, honako gune hauek joko dira, gutxienik, gune sentikortzat:

a) Itsasoko nahiz lurreko jabari publikoa eta haren babes-zortasuna

b) Jabari publiko hidraulikoa, hauek barne: etengabeko korronteko ibilgu naturalak, aintzira eta urmaelen hondoak, eta ibilgu publikoetako azaleko urtegiak. Poliziaguneei eta ibaiertzetako zortasunguneei dagozkien areak, baldin eta katalogatuta badaude.

c) Akuiferoak birkargatzeko eremuak eta akuiferoak kutsatzeari dagokienez zaurgarriak diren guneak, baldin eta katalogatuta badaude.

d) Natura-interes handiko eremu edo guneak, baldin eta katalogatuta badaude.

e) Ondare historiko-artistikoaren parte direlako katalogatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo guneak, gune horien ingurua barne.

8. LABURPEN-DOKUMENTUA

2007ko ekainaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kongresuak behin betiko onartu zuen Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren espedientea. Erabaki horretan, Testu Bategina lantzeko hainbat baldintza zehazten dira; besteak beste, 2004an aurkeztutako ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-azterketa bateratu osoa berrikustea, hasierako onarpen-testuarekin batera.

'Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena' izeneko dokumentu hau aurreko paragrafoan aipatutako Testu Bateginaren zati da, eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozeduraren barnean dago. Hortaz, aipatutako egoeran landu da dokumentu hau, eta asmoa ez da izan berrikuspen-prozesuaren ebaluazio bateratuaren eremuan jada eginda dauden lanak berriz hastea, baizik eta lan horien edukiari jarraipena ematea, osatzea eta Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginera egokitzea.

Kapitulu hauek ditu:

- Sarrera.
- 1- Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren helburu estrategikoak eta aintzakotzat hartutako bestelako aukerak.
- 2- Lurralde-esparruaren eta esparru fisikoaren azterketa eta diagnosia.
- 3- Testu Bategineko esku-hartze estrategikoak eta garapen iraunkorraren printzipioan oinarritutako antolamenduaren justifikazioa.
- 4- Berrikuspen Dokumentuaren (2007) eta Testu Bateginaren (2010) proposamenen ingurumen-azterketa konparatua.
- 5- Arau Subsidiarioen Testu Bategineko proposamenetatik eratortzen diren inpaktuen identifikazioa eta balorazioa.
- 6- Neurri babesleen, zuzentzaileen eta konpentsatzaileen proposamena.
- 7- Arau Subsidiarioen eraginak ikuskatzeko programa.
- 8- Laburpen-dokumentua.

Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean planoen dokumentu bat dago, 27 planoz osatua: horietatik 11 informazio-planoak dira (A1, A2…), lurralde-esparruaren eta esparru fisikoaren diagnositik abiatuta sortuak, eta gainerako 16etan, Hernaniko hiri-area osatzen duten zortzi lurralde-eremuetako bakoitzaren antolamendu argigarria (B.1a, B.2a, B.3ª…) eta eremu horietako bakoitzean identifikatutako ingurumen-baldintzak jaso dira (B.1b, B.2b, B.3b…).

Lehen kapituluan, udalerrirako hirigintza-antolamendurako proposamena egitean Testu Bateginak dituen helburuak biltzen dira, eta 1998. urtetik gaur arte Araua Subsidiarioen berrikuspen-prozesu guztian zehar esku-artean izan diren aukeren laburpena egiten da. Bestalde, Testu Bateginean zehaztutako exekuzio-faseak eta lehentasunak ere identifikatu dira lehen kapitulu horretan. Kapitulu hori amaitzeko, parte-hartze prozesuaren laburpena egiten da, eta horretarako zer prozedura erabili diren azaltzen da.

Bigarren kapitulua txosteneko kapitulurik luzeena da, eta bertan, Arau Subsidiarioak antolatzeko oinarria diren lurralde-esparruaren eta esparru fisikoaren azterketa sakona egin da. Horretarako, hasierako onarpenaren fasean nabarmen egokitu da 2004an aurkeztutako testua, Diputatuen Kongresuaren erabakian zehaztutako eskakizunei erantzuteko.

Kapitulua hasteko, Arau Subsidiarioen eta lurralde-antolamenduko nahiz arlokako antolamenduko beste plan batzuen arteko elkarreragina aztertzen da, eta azken plan horien zehaztapenen artean Hernaniko hirigintza-planifikazioan gehien eragiten dutenak jaso dira. Aztertutako planen artean, hauek hartu dira kontuan: lurraldearen antolamendurako artezpideak (LAA), Donostialdeko zatikako lurralde-plana (ZLP), eta arloko lurralde-planak, bai behin betiko onarpena jaso dutenak, bai oraindik izapidetze-faseren batean daudenak. Horrez gain, udalerrian garrantzi handia duten naturaguneak babesteko eta kudeatzeko planak ere jaso dira.

Kapitulu horri jarraipena emateko, udalerriko inguru fisikoaren diagnosia eta balorazioa egiten da. Bertan, ingurumen-aldagai nagusien egoera aztertzen da (kokapena, klima, orografia, geologia, geomorfologia, hidrologia, itsas zedarritzea eta lurrekoa, lurzoruak eta agrologia-motak, landaretza eta lurzoruen erabilera, fauna, naturagune babestuak eta natura-interes handiko bestelako eremuak, paisaia eta ondare kulturala), eta hainbat alderdirekin lotuta, dauden arrisku-baldintzak aztertzen dira (urpean geratzeko arriskua, akuiferoen kutsadura, higadura, arrisku sismikoa, lurzoru kutsatuak, arrisku teknologikoak edo jarduera arriskutsuak, ingurumen-zarata eta airearen kalitatea). Azterketa amaitzeko, espedientearekin batera doan Mugikortasun Iraunkorrerako Planari buruzko aipamen bat egiten da.

Esparrua aztertu ondoren, Testu Bateginean udalerriaren antolamendurako onartzen diren esku-hartze estrategikoak, globalak eta arlokakoak aztertzen dira. Hori guztia garapen iraunkorraren ikuspuntutik eta Ingurumenaren Esparru Programan eta Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategian ezarritako jomugak eta konpromisoak kontuan hartuta aztertzen da. Hirugarren kapitulua amaitzeko, ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenean eta Diputatuen Kongresuaren erabakian zehaztutako eskakizunen betetze-maila aztertzen da.

Laugarren kapituluan, berriz, ingurumen-balorazioa egiten da, 2007an behin betiko onartutako Arau Subsidiarioen berrikuspenean jasotako proposamena eta Testu Bateginean aurkeztutako egungo proposamena alderatuta.

Bosgarren kapituluan, Testu Bateginak hiri-area banatu duen zortzi eremuetako bakoitzerako (Hirigunea Erdialdea, Hirigunea Iparra, Hirigunea Mendebaldea, Hirigunea Hegoa, Hirigunea Aldiriak, Urumea Behealdea, Urumea Erdialdea eta Urumea Goialdea) proposatu dituen jarduketetatik eratortzen diren inpaktuen azterketa xehatua egiten da. Eremu bakoitzean, ingurumenean edo lurraldean eraginik handiena izan dezaketen proposamenak laburbiltzen dira, eta interes handieneko ingurumen elementuak nabarmentzen dira, bai eta jarduketak muga ditzaketen ingurumen-baldintzak ere. Gero, izan litezkeen eraginak identifikatzen dira, eta legedian ezarritako ohiko metodoen arabera definitzen eta baloratzen dira.

Txostenaren amaieran, aipatutako inpaktuekin lotuta zer neurri babesle eta zuzentzaile hartu behar diren aipatzen da, eta berrikuspen-programa bat ere azaltzen da, hainbat adierazle biltzen dituena udalerriko ingurumen-egoeraren jarraipenerako.

Azkenik, zabaltzeko interesgarritzat jo den eta egindako azterketa osatzen duen informazio sektoriala erantsi da: mehatxatutako florari eta faunari buruz, ondare kulturalari buruz, kutsatzaileak izan litezkeen jarduerak jasan dituzten edo jasaten dituzten lekuak eta garraio-azpiegitura nagusien soinu-eragina duten guneak (Madril-Irun trenbide-sarea, GI-131, GI-2132 eta GI-3401).

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

ERANSKINAK

I. eranskina. Mehatxatutako landare-espezieak

Mehatxatutako landare-espezieen zenbait ale dituzten UTM 1x1 koadrikulak	
UTM 1X1 koadrikula	Izen zientifikoa
WN8192	*Ophioglossum vulgatum*
WN8292	*Stachys palustris*
WN8582	*Dryopteris aemula. Soldanella villosa*
WN8585	*Dryopteris aemula. Trichomanes speciosum*
WN8587	*Hymenophyllum tunbrigense. Soldanella villosa.*
WN8588	*Pinguicula lusitanica. Trichomanes speciosum. Ilex aquifolium.*
WN8681	*Soldanella villosa. Veratrum album.*
WN8682	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum. Dryopteris aemula. Hymenophyllum tunbrigense*
WN8683	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum. Hymenophyllum tunbrigense.*
WN8684	*Stachys palustris. Trichomanes speciosum*
WN8687	*Trichomanes speciosum*
WN8780	*Soldanella villosa.*
WN8781	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum. Veratrum album.*
WN8782	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum*
WN8783	*Trichomanes speciosum*
WN8785	*Trichomanes speciosum*
WN8788	*Trichomanes speciosum*
WN8790	*Ilex aquifolium*
WN8883	*Trichomanes speciosum*
WN8884	*Dryopteris aemula. Trichomanes speciosum. Hymenophyllum tunbrigense*
WN8885	*Trichomanes speciosum*
WN8886	*Ilex aquifolium*
WN8887	*Trichomanes speciosum*
WN8888	*Trichomanes speciosum. Soldanella villosa. Hymenophyllum tunbrigense. Prunus lusitanica*
WN8889	*Trichomanes speciosum*
WN8987	*Ilex aquifolium*
WN8988	*Hymenophyllum tunbrigense*
WN8989	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum.*

Identifikatutako espezie mehatxatuen babes-maila			
Izen zientifikoa	Euskal katalogazioa	EAEko zerrenda gorriaren proposamena	Bestelakoak
Ophioglossum vulgatum	Interes berezikoa	Ez-mehatxatua (NT: ia mehatxatua)	-
Stachys palustris	-	Ez-mehatxatua (NT: ia mehatxatua)	-
Dryopteris aemula	-	Ez-mehatxatua (NT: ia mehatxatua)	Espainiako Zerrenda Gorria: zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: lehentasunezkoa
Soldanella villosa	Arraroa	VU: zaurgarria	Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinak Espainiako Zerrenda Gorria: zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: lehentasunezkoa
Trichomanes speciosum	Interes berezikoa	VU: zaurgarria	Habitat Zuzentarauaren II. eranskina Espainiako Zerrenda Gorria: zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: lehentasunezkoa
Hymenophyllum tunbrigense	Arraroa	VU: zaurgarria	Espainiako Zerrenda Gorria: zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: lehentasunezkoa
Pinguicula lusitanica	Interes berezikoa	Ez-mehatxatua (NT: ia mehatxatua)	-

Identifikatutako espezie mehatxatuen babes-maila			
Izen zientifikoa	Euskal katalogazioa	EAEko zerrenda gorriaren proposamena	Bestelakoak
Ilex aquifolium	Interes berezikoa	Ez-mehatxatua (LC: galtzeko arrisku txikiagoa)	-
Veratrum album	Interes berezikoa	Ez-mehatxatuta (LC: galtzeko arrisku txikiagoa)	-

II. eranskina. Mehatxupekotzat katalogatutako animalia-espezieak. 30T WN88 eta 30T WN89 koadrikulak

IZEN ZIENTIFIKOA	GAZTELANIAZKO IZEN ARRUNTA	EUSKAL IZEN ARRUNTA	ESTATUSA	OHARRAK
Alosa alosa	Sábalo	Kolaka	Arraroa	Oso gutxi dago
Elaphe longissima	Culebra de Esculapio	Eskulapioren sugea	Interes berezikoa	Egon daiteke
Phalacrocorax aristotelis	Cormorán moñudo	Ubarroi mottoduna	Arraroa	Negutea
Pernis apivorus	Abejero europeo	Zapelatz listorjalea	Arraroa	Egon daiteke (Errenteria - Urnieta)
Milvus milvus	Milano real	Miru gorria	Zaurgarria	Oso litekeena da egotea (Urumea)
Circaëtus gallicus	Aguila culebrera	Arrano sugezalea	Arraroa	Egon daiteke (Adarra)
Circus cyaneus	Aguilucho pálido	Mirotz zuria	Interes berezikoa	Egon daiteke (Urnieta)
Corvus corax	Cuervo	Erroia	Interes berezikoa	Egon daiteke (Urnieta)
Accipiter gentilis	Azor	Aztorea	Arraroa	Egon daiteke (Leitzaran)
Accipiter nisus	Gavilán	Gabiraia	Interes berezikoa	Egon daiteke (Urnieta)
Falco subbuteo	Alcotán	Zuhaitz belatza	Arraroa	Egon daiteke (Urnieta)
Bubo bubo	Búho real	Hontza handia	Arraroa	Santa Barbaran jaso da
Caprimulgus europaeus	Chotacabras gris	Zata arrunta	Interes berezikoa	Egon liteke (San Marcos - Leitzaran)
Alcedo atthis	Martín pescador	Martin arrantzalea	Interes berezikoa	Oso litekeena da egotea (Urumea)
Jynx torquilla	Torcecuello	Lepitzulia	Interes berezikoa	Egon daiteke (Urnieta)
Dendrocopos minor	Pico menor	Okil txikia	Interes berezikoa	Egon liteke (Elduain)
Riparia riparia	Avión zapador	Uhalde-enara	Zaurgarria	Oso litekeena da egotea (Urumea)
Cinclus cinclus	Mirlo acuático	Ur-zozo	Interes berezikoa	Oso litekeena da egotea
Galemys pyrenaicus	Desmán del Pirineo	Muturluze piriniarra	Galzorian	Egon daiteke (Urnieta)
Mustela lutreola	Visón europeo	Bisoi europarra	Galzorian	Oso litekeena da egotea
Mustela putorius	Turón	Ipurtatsa	Interes berezikoa	Oso litekeena da egotea
Felis silvestris	Gato montés	Basakatua	Interes berezikoa	Egon daiteke
Glis glis	Lirón gris	Muxar grisa	Zaurgarria	Oso litekeena da egotea

III. eranskina. Hernaniko udalerriko ustezko arkeologiaguneak

Fitxa	Izena	Babes-eremuaren tipologia
8	1873tik 1876rako gerrako harresia	E
9	Antzinako Done Joane Bataiatzailea eliza / Agustindarren komentua	B
10	Leoka etxea	A
12	Lonja (gaur etxea)	A
13	Done Joane Bataiatzailea eta Oriamendiko S. Sebastian baseliza (ez zaio egiturarik ikusten)	E
14	Sastiako San Martin baseliza (ez zaio egiturarik ikusten)	E
15	Santa Barbara baseliza (gaur baserria)	A
17	Zeagoko errota (gaur industria)	D
18	Osinaga errota	D
19	Errotaran burdinola (ez zaio egiturarik ikusten)	E
20	Epeletorre dorretxea (ez zaio egiturarik ikusten)	A
21	Fagollaga burdinola	D
22	Ereñozuko burdinolak (gaur baserria)	D
23	Ereñozuko dorretxea (gaur baserria)	A
24	Bazterrola burdinola (hondakinak)	D
25	Abillats burdinola (ez zaio egiturarik ikusten)	E
26	Ubarruatua burdinola (hondakinak)	D
27	Lasa burdinola (ez zaio egiturarik ikusten)	E
28	Pikoaga burdinola (ez zaio egiturarik ikusten)	E
29	Pagoaga burdinola	D
30	Aparrain burdinola (gaur ukuilua) (ez zaio egiturarik ikusten)	E
31	Urruzuno burdinola (ez zaio egiturarik ikusten)	E

IV. eranskina. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lekuak

Iturria (kartografia, kodeak eta azalera): kutsatuta egon daitezkeen lekuen inbentarioa.
Irailaren 30eko 165/2008 Dekretua

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-7932/es/contenidos/inventario/inventario_suelos/es_inv/indice.html


Kodea	Lurralde-eremua	Hirigintza-azpieremua	Area /Sektorea	Azalera (m^2)
20040-00001	8. Urumea Goialdea (UA)	Epele (EP)	EP.03	802,4
20040-00002	8. Urumea Goialdea (UA)	Epele (EP)	EP.03	399,6
20040-00003	8. Urumea Goialdea (UA)	Epele (EP)	EP.03	35.116,6
20040-00004	8. Urumea Goialdea (UA)	Epele (EP)	EP.01, EP.02, EP.03	26.390,5
20040-00005	8. Urumea Goialdea (UA)	Epele (EP)	EP.02	771,7
20040-00006	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.03	5.725,2
20040-00007	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.03	11.123,1
20040-00008	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	2.050,4
20040-00009	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	2.241,3
20040-00010	6. Urumea Behealdea (UB) / 2. Hirigunea Iparra (CN)	Landare-Zubiondo (LZ) Florida (FL);	LZ.05 FL.10	10.824,1
20040-00011	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	650,8
20040-00012	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	1.131,8
20040-00013	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	542,0
20040-00014	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	358,8
20040-00015	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	325,4
20040-00016	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	235,7
20040-00017	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	200,6
20040-00018	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	877,9
20040-00019	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	9.680,3
20040-00020	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	982,0
20040-00021	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	670,0
20040-00022	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	263,0
20040-00023	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	192,5
20040-00024	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	6.560,1
20040-00025	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	402,6
20040-00026	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	2.668,2
20040-00027	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	177,9
20040-00028	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	112,9
20040-00029	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	60,9
20040-00030	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	188,7
20040-00031	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.02	3.544,6
20040-00032	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.02	1.482,7
20040-00033	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	633,3
20040-00034	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	319,9
20040-00035	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	278,9
20040-00036	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	482,6
20040-00037	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	474,9
20040-00038	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	485,3
20040-00039	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	944,6
20040-00040	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	645,1
20040-00041	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	1.041,8
20040-00042	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	476,9
20040-00043	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	264,0
20040-00044	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	302,6
20040-00045	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	353,8
20040-00046	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	304,9
20040-00047	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	386,4
20040-00048	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	914,3
20040-00049	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	5.039,1
20040-00050	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	718,4

Kodea	Lurralde-eremua	Hirigintza-azpieremua	Area /Sektorea	Azalera (m^2)
20040-00051	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	466,5
20040-00052	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	114,6
20040-00053	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	438,3
20040-00054	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	111,2
20040-00055	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	181,9
20040-00056	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	227,7
20040-00057	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	259,7
20040-00058	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	1.984,2
20040-00059	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	1.918,5
20040-00060	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	623,7
20040-00061	8. Urumea Goialdea (UA)	Ibarluze-Lizarraga (IL)	IL.01	4.349,0
20040-00062	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	286,6
20040-00063	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	1.834,7
20040-00064	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	2212,0
20040-00065	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	187,6
20040-00066	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	2.092,0
20040-00067	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	639,7
20040-00068	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	750,0
20040-00069	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	1.480,1
20040-00070	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	949,1
20040-00071	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	285,9
20040-00072	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	212,9
20040-00073	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.04	1.914,4
20040-00074	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	3.207,1
20040-00075	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	772,2
20040-00076	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	1.860,3
20040-00077	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	943,5
20040-00078	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	5.630,5
20040-00079	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	1.150,3
20040-00080	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.03	36.692,8
20040-00081	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	1.102,1
20040-00082	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.02	47.253,4
20040-00083	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.06	135,6
20040-00084	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.03	7.135,7
20040-00085	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	1.390,0
20040-00086	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.02	7.555,9
20040-00087	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.01	162,6
20040-00088	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	531,9
20040-00089	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	421,3
20040-00090	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	1.821,5
20040-00091	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	564,0
20040-00092	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	915,5
20040-00093	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.07	1.565,8
20040-00094	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	1.275,5
20040-00095	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.03	1.146,2
20040-00096	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.07	5.313,4
20040-00097	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.08	8.812,4
20040-00098	2. Hirigunea Iparra (CN)	Florida (FL)	FL.09	373,2
20040-00099	2. Hirigunea Iparra (CN)	Etxeberri (ET)	ET.05	799,1
20040-00100	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.01	5.998,2
20040-00101	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.02	3.886,9
20040-00102	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.02	642,7
20040-00103	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.02	2.505,2
20040-00104	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.02	793,5
20040-00105	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.02; LZ.03	5.491,3
20040-00106	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.02; LZ.03	1.665,6
20040-00107	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.03	13.963,1
20040-00108	6. Urumea Behealdea (UB)	Akarregi (AK)	AK.03	649,9
20040-00109	6. Urumea Behealdea (UB)	Akarregi (AK)	AK.02	786,1

Kodea	Lurralde-eremua	Hirigintza-azpieremua	Area /Sektorea	Azalera (m^2)
20040-00110	6. Urumea Behealdea (UB)	Akarregi (AK)	AK.02	828,4
20040-00111	Lurzoru ez-hiritargarria 6. Urumea Behealdea (UB)	Lurzoru ez-hiritargarria Ibaiondo (IB)	IB.01	70.339,7
20040-00112	6. Urumea Behealdea (UB)	Ibaiondo (IB)	IB.01	2.798,3
20040-00113	6. Urumea Behealdea (UB)	Akarregi (AK)	AK.01	305,9
20040-00114	6. Urumea Behealdea (UB)	Akarregi (AK)	AK.04	494,9
20040-00115	6. Urumea Behealdea (UB)	Martindegi (MA)	MA.02	5.112,7
20040-00116	6. Urumea Behealdea (UB)	Martindegi (MA)	MA.02	724,4
20040-00117	6. Urumea Behealdea (UB)	Martindegi (MA)	MA.02	415,4
20040-00118	6. Urumea Behealdea (UB)	Martindegi (MA)	MA.02	436,4
20040-00119	6. Urumea Behealdea (UB)	Martindegi (MA)	MA.02	941,3
20040-00120	6. Urumea Behealdea (UB)	Martindegi (MA)	MA.02	1.088,8
20040-00121	2. Hirigunea Iparra (CN)	Antziola (AN)	AN.01	1.033,6
20040-00122	1. Hirigunea Erdigunea (CC)	Zabalgunea (EN)	EN.01	312,1
20040-00123	2. Hirigunea Iparra (CN)	Antziola (AN)	AN.08	1.035,9
20040-00124	2. Hirigunea Iparra (CN)	Antziola (AN)	AN.08	158,8
20040-00125	2. Hirigunea Iparra (CN)	Antziola (AN)	AN.04	382,6
20040-00126	2. Hirigunea Iparra (CN)	Antziola (AN)	AN.01; AN.02; AN.03	6.061,3
20040-00127	2. Hirigunea Iparra (CN) 3. Hirigunea Mendebaldea (CO)	Antziola (AN) Villas (VI)	AN.08 VI.02	4.566,1
20040-00128	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		7.705,1
20040-00129	5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Galarreta (GA)	GA.06	37.523,0
20040-00130	5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Galarreta (GA)	GA.03	874,7
20040-00131	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		1.511,7
20040-00132	1. Hirigunea Erdigunea (CC)	Hirigune Historikoa (CH)	CH.02	82,3
20040-00133	3. Hirigunea Mendebaldea (CO)	Villas (VI)	VI.05	1.002,5
20040-00134	4. Hirigunea Hegoa (CS)	Elizatxo (EL)	EL.01	2.537,6
20040-00135	4. Hirigunea Hegoa (CS)	Lizeaga (LI)	LI.02	268,0
20040-00136	1. Hirigunea Erdigunea (CC)	Zabalgunea (EN)	EN.01	179,0
20040-00137	1. Hirigunea Erdigunea (CC)	Zabalgunea (EN)	EN.01	128,3
20040-00138	1. Hirigunea Erdigunea (CC)	Hirigune Historikoa (CH)	CH.01	150,8
20040-00139	4. Hirigunea Hegoa (CS)	Elizatxo (EL)	EL.03	116,3
20040-00140	3. Hirigunea Mendebaldea (CO)	Karobieta-Atsegindegi (KA)	KA.03	97,1
20040-00141	Lurzoru ez-hiritargarria 5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Lurzoru ez-hiritargarria Santa Barbara (SB)	SB.01; SB.02	34.574,5
20040-00142	5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Sorgintxulo (SO) Galarreta (GA)	SO.01 GA.05	119,6
20040-00143	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		22.847,0
20040-00144	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		6.781,9
20040-00145	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		100.449,0
20040-00146	Lurzoru ez-hiritargarria 5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Lurzoru ez-hiritargarria Santa Barbara (SB)	SB.04	11.291,7
20040-00147	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		21.923,7
20040-00148	Lurzoru ez-hiritargarria 5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Lurzoru ez-hiritargarria Santa Barbara (SB)	SB.04	11.669,5
20040-00149	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		19.627,0
20040-00150	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		16.345,6
20040-00151	Lurzoru ez-hiritargarria 6. Urumea Behealdea (UB)	Lurzoru ez-hiritargarria Akarregi (AK)	AK.04	29.134,8
20040-00152	7. Urumea Erdialdea (UM)	Zikuñaga-Eziago (ZE)	ZE.01	1.585,9
20040-00153	3. Hirigunea Mendebaldea (CO)	Karobieta-Atsegindegi (KA)	KA.03	228,4
20040-00154	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria	431,0
20040-00155	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.01	262,3
20040-00156	6. Urumea Behealdea (UB)	Landare-Zubiondo (LZ)	LZ.01	1.878,2
20040-00157	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		209,7
20040-00158	8. Urumea Goialdea (UA)	Lastaola (LS)	LS.01	3.085,0

Kodea	Lurralde-eremua	Hirigintza-azpieremua	Area /Sektorea	Azalera (m^2)
20040-00159	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		2.169,5
20040-00160	3. Hirigunea Mendebaldea (CO)	Villas (VI)	VI.04	450,2
20040-00161	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		7.044,3
20040-00162	2. Hirigunea Iparra (CN)	Antziola (AN)	AN.04	963,3
20040-00172	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		11.100,0
20040-00173	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		3.313,5
20040-00174	Lurzoru ez-hiritargarria 6. Urumea Behealdea (UM)	Lurzoru ez-hiritargarria Ibaiondo (IB)	IB.01; IB.02	12.317,8
20040-00175	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		5.906,0
20040-00176	Lurzoru ez-hiritargarria	Lurzoru ez-hiritargarria		15.880,0
20040-00177	5. Hirigunea Aldiriak (CP)	Santa Barbara (SB)	SB.03; SB.04	2.660,2

V. eranskina. Bide- eta trenbide-azpiegituren eraginguneak



UNIDAD DE MAPA

U.M.E.: TOLOSA - IRÚN
CLAVE: 11500.11600/07

TABLAS DE DATOS

Lden (dBA)	Superficie Expuesta (Km2)
> 55	7,7
> 65	2
> 75	0,1

Lden (dBA)	Población Exp. (centenas)	Viviendas Exp. (centenas)
> 55	133	103
> 65	21	17
> 75	0	0

Lden (dBA)	Edif. Educativos (unidades)	Edif. Sanitarios (unidades)
> 55	28	2
> 65	6	1
> 75	0	0

LEYENDA TEMÁTICA

Zona de Afección

- Zona de Afección
- Isófona de 55, 65 y 75 dB

Tipos de edificio

- Uso residencial
- Uso industrial o comercial
- Uso sanitario o docente


Elementos cartográficos

- Ferrocarril en estudio
- Curva de nivel
- Piscina / río / lago
- Límite de municipio
- Carreteras
- Otros elementos cartográficos

Otros elementos

- Pantalla acústica
- Dique de tierra

DISTRIBUCIÓN DE MINUTA



MINISTERIO DE FOMENTO
SECRETARÍA DE ESTADO DE INFRAESTRUCTURAS Y PLANIFICACIÓN
SECRETARÍA GENERAL DE INFRAESTRUCTURAS
DIRECCIÓN GENERAL DE FERROCARRILES

adif

DIRECCIÓN GENERAL DE SEGURIDAD, ORGANIZACIÓN Y RECURSOS HUMANOS
DIRECCIÓN DE CALIDAD Y MEDIO AMBIENTE
DIRECCIÓN DE MEDIO AMBIENTE

CONSULTOR
AAC CENTRO DE ACÚSTICA APLICADA, S.L.

AUTORES DEL ESTUDIO
ALBERTO BAÑUELOS IRUSTA
SUSANA MALÓN GIMENEZ

ESCALAS
1:25.000
0 62,5125 250 375 500 Meters
UNE A3 ORIGINALES

TITULO COMPLEMENTARIO
M.E.R. GRANDES EJES FERROVIARIOS
U.M.E. TOLOSA - IRÚN

FECHA
AGOSTO 2007

Nº DE PLANO
A.1.Af
HOJA 3 DE 5

DESIGNACIÓN
MAPAS DE AFECCIÓN LDEN

580000 581000 582000 583000 584000 585000 586000

4794000 4793000 4792000 4791000 4790000

N

DONOSTIA-
SAN
SEBASTIAN

ASTIGARRAGA

HERNANI

LASARTE-
ORIA

URNIETA

N-I-A
AP-8-10
AP-8
N-I
N-634
GI-2132
GI-3401
GI-131
GI-3832
GI-3410

ZARATA MAILAK (dBA)
NIVELES SONOROS (dBA)

Exposición

- < 55
- 55 - 64
- 65 - 74
- > 75

ADMINISTRAZIO MUGAK
LIMITES ADMINISTRATIVOS

- UDALERRIAK / MUNICIPIOS
- BESTE LURRALDE BATZU / OTROS TERRITORIOS

ERABILERAK
USOS

- IKASTETXEAK / COLEGIOS
- OSPITALEAK / HOSPITALES
- BESTE ERABILERAK / OTROS USOS
- ETXEGUNEA / RESIDENCIAL


AZPIEGITURAK-ALDUNDIAREN SAREA
INFRAESTRUCTURAS- RED FORAL

- SARE GORRIA / RED ROJA
- SARE LARANJA / RED NARANJA
- SARE HORIA / RED AMARILLA
- SARE BERDEA / RED VERDE
- 1. MAILAKO SARE GRISA / 1. RED GRIS PRINCIPAL
- 2. MAILAKO SARE GRISA / 2. RED GRIS SECUNDARIA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

064-2-C



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Bide Azpiegituretako Departamentua
Departamento de Infraestructuras Viarias

AZTERLANAREN IZENBURUA/TITULO DEL ESTUDIO:
GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK
MAPAS ESTRATEGICOS DE RUIDO DE LA RED FORAL DE CARRETERAS DE GIPUZKOA

GAKOA/CLAVE: 24-ES-539/2007

AHOLKULARIA/CONSULTOR: labein tecnalia

AZTERLANAREN ZUZENDARIA/DIRECTOR DEL ESTUDIO:
SUSANA LUZURIAGA MOCOROA
ERREPIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIERIA
INGENIERO DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS

PLANOA/PLANO:
ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOA: AFEKZIO EREMUA
MAPA ESTRATÉGICO DE RUIDO: ZONA DE AFECCIÓN

ZBK/Nº: 4.5

ZBK/Nº: _3_ TIK _2_ ORRIA
HOJA _2_ DE _3_

DATA/FECHA: 2008ko MARTXOA
MARZO DE 2008

ESKALA/ESCALA: 1:20.000
0 50 100 200 300 400 500 metros

580000 581000 582000 583000 584000 585000 586000

4794000 4793000 4792000 4791000 4790000

N

DONOSTIA-
SAN
SEBASTIAN

ASTIGARRAGA

HERNANI

LASARTE-
ORIA

URNIETA

N-I-A
N-I
N-634
GI-2132
GI-3401
GI-131
GI-3410
GI-3832
GI-134

ZARATA MAILAK (dBA)
NIVELES SONOROS (dBA)

Exposición

- < 55
- 55 - 64
- 65 - 74
- > 75

ADMINISTRAZIO MUGAK
LIMITES ADMINISTRATIVOS

- UDALERRIAK / MUNICIPIOS
- BESTE LURRALDE BATZU / OTROS TERRITORIOS

ERABILERAK
USOS

- IKASTETXEAK / COLEGIOS
- OSPITALEAK / HOSPITALES
- BESTE ERABILERAK / OTROS USOS
- ETXEGUNEA / RESIDENCIAL


AZPIEGITURAK-ALDUNDIAREN SAREA
INFRAESTRUCTURAS- RED FORAL

- SARE GORRIA / RED ROJA
- SARE LARANJA / RED NARANJA
- SARE HORIA / RED AMARILLA
- SARE BERDEA / RED VERDE
- 1. MAILAKO SARE GRISA / 1. RED GRIS PRINCIPAL
- 2. MAILAKO SARE GRISA / 2. RED GRIS SECUNDARIA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

064-2-C



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Bide Azpiegituretako Departamentua
Departamento de Infraestructuras Viarias

AZTERLANAREN IZENBURUA/TITULO DEL ESTUDIO:
GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK
MAPAS ESTRATEGICOS DE RUIDO DE LA RED FORAL DE CARRETERAS DE GIPUZKOA

GAKOA/CLAVE: 24-ES-539/2007

AHOLKULARIA/CONSULTOR: labein tecnalia

AZTERLANAREN ZUZENDARIA/DIRECTOR DEL ESTUDIO:
SUSANA LUZURIAGA MOCOROA
ERREPIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIERIA
INGENIERO DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS

PLANOA/PLANO:
ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOA: AFEKZIO EREMUA
MAPA ESTRATÉGICO DE RUIDO: ZONA DE AFECCIÓN

ZBK/Nº: 7.5

ZBK/Nº: _2_TIK _2_ ORRIA
HOJA _2_ DE _2_

DATA/FECHA: 2008ko MARTXOA / MARZO DE 2008

ESKALA/ESCALA: 1:20.000
0 50 100 200 300 400 500 metros

580000 581000 582000 583000 584000 585000 586000

4794000 4793000 4792000 4791000 4790000

N

N-I-A
N-I-10
N-I-B
N-I
N-634
I-N
GI-3401
GI-2132
GI-131
GI-2432
GI-3832
GI-3410

DONOSTIA-
SAN
SEBASTIAN

ASTIGARRAGA

HERNANI

LASARTE-
ORIA

URNIETA

580000 581000 582000 583000 584000 585000 586000

ZARATA MAILAK (dBA)
NIVELES SONOROS (dBA)

Exposición

- < 55
- 55 - 64
- 65 - 74
- > 75

ADMINISTRAZIO MUGAK
LIMITES ADMINISTRATIVOS

- UDALERRIAK / MUNICIPIOS
- BESTE LURRALDE BATZU / OTROS TERRITORIOS

ERABILERAK
USOS


- IKASTETXEAK / COLEGIOS
- OSPITALEAK / HOSPITALES
- BESTE ERABILERAK / OTROS USOS
- ETXEGUNEA / RESIDENCIAL

AZPIEGITURAK-ALDUNDIAREN SAREA
INFRAESTRUCTURAS- RED FORAL

- SARE GORRIA / RED ROJA
- SARE LARANJA / RED NARANJA
- SARE HORIA / RED AMARILLA
- SARE BERDEA / RED VERDE
- 1. MAILAKO SARE GRISA / 1. RED GRIS PRINCIPAL
- 2. MAILAKO SARE GRISA / 2. RED GRIS SECUNDARIA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

064-2-C



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Bide Azpiegituretako Departamentua
Departamento de Infraestructuras Viarias

AZTERLANAREN IZENBURUA/TITULO DEL ESTUDIO:
GIPUZKOAKO ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK
MAPAS ESTRATEGICOS DE RUIDO DE LA RED FORAL DE CARRETERAS DE GIPUZKOA

GAKOA/CLAVE: 24-ES-539/2007

AHOLKULARIA/CONSULTOR: labein tecnalia

AZTERLANAREN ZUZENDARIA/DIRECTOR DEL ESTUDIO:
SUSANA LUZURIAGA MOCOROA
ERREPIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIERIA
INGENIERO DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS

PLANOA/PLANO:
ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOA: AFEKZIO EREMUA
MAPA ESTRATÉGICO DE RUIDO: ZONA DE AFECCIÓN

ZBK/Nº: 8.5

ZBK/Nº: _2_ TIK _2_ ORRIA
HOJA _2_ DE _2_

DATA/FECHA: 2008ko MARTXOA
MARZO DE 2008

ESKALA/ESCALA: 1:20.000
0 50 100 200 300 400 500 metros

Hernaniko Udala

HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINA

A.2. AGIRIA

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

BEHIN-BEHINEKO ONARPENERAKO ERANSKINA

EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

UDALEKO HIRIGINTZA BULEGOA

A-2 DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA (ERANSKINA). INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

Sarrera 1
Dokumentuaren xedea 1
Aurrekariak 1
Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua 1
1. Arau subsidiarioen testu bateginaren helburu estrategikoak eta pentsatutako alternatibak 2
1.1. Arau subsidiarioen helburuak 2
1.2. Kontuan hartutako alternatibak 2
1.3. Arau subsidiarioen exekuzio-faseak 7
1.4. Arauen dokumentuan hautemandako informazio-hutsuneak 7
1.5. Herritarren parte-hartzea: partaidetza eta erabilitako prozedura 7
2. Lurraldearen eta esparru fisikoaren analisia ..... **¡Error! Marcador no definido.**
2.1. Beste plan eta programa batzuekin dituen elkarreraginen analisia 9
2.2. Hernaniko hirigintza-planeamenduko arau subsidiarioek eragindako eremuaren ingurumen-arloko analisia, diagnostikoa eta balorazioa 12
3. Erabakitako esku-hartze estrategikoak. Garapen iraunkorraren ikuspuntutik onartutako antolamenduaren justifikazioa **¡Error! Marcador no definido.**
4. Arau subsidiarioen berrikuspenean (2007) eta testu bateginean (2010) proposatutako alternatiben ingurumen-azterketa konparatua ..... **¡Error! Marcador no definido.**
5. Arau subsidiarioen testu bategineko proposamenek eragindako ondorioak identifikatu eta baloratzea **¡Error! Marcador no definido.**
5.1. Sarrera 16
5.2. Casco centro (cc) lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 16
5.3. Casco norte lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 17
5.4. Casco oeste lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 19
5.5. Casco sur lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 20
5.6. Casco periferia lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 20
5.7. Urumea bajo lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 20
5.8. Urumea medio lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 20
5.9. Urumea alto lurralde-eremurako planteatutako proposamenek eragindako ondorioen analisia 21
6. Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamena ..... **¡Error! Marcador no definido.**
6.1. Identifikatutako ondorioetarako proposatu diren neurri babesle eta zuzentzaileak 22
7. Arau subsidiarioen ondorioak gainbegiratzeko programa ..... **¡Error! Marcador no definido.**

ERANSKINA

I. Flora-espezie mehatxatuak

SARRERA

DOKUMENTUAREN XEDEA

Ingurumen Iraunkortasunaren Txosteneko (IIT) Eranskin honen xedea da hasierako onespen-faseari dagokion eta 2010eko ekainean aurkeztu zen IIT dokumentuaren informazioa eguneratzea eta hura baloratzea, hastapenezko onespen-agiriaren (2010eko ekaina) eta behin-behineko izaeraz onartutako agiriaren (2010eko abendua) artean Hernaniko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategineko espedientean egin diren aldaketei dagokienez.

AURREKARIAK

2010eko uztailaren 14ko osoko bilkuran, Udalbatzak hasierako onespena eman zion Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginari, eta beraz, baita Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanari edo Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenari ere, espedientea osatzen baitu.

2010eko uztailaren 29an, Udalbatzak Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartu zuen, txosten honetako hurrengo kapituluan deskribatzen dena, alegia. Atal horretan, uztaila eta azaroa bitartean egindako jendaurrean jartzeko erakusketa-prozesuarekin zerikusia duten alderdiak laburbiltzen dira.

Espedientea behin-behineko izaeraz onartu ondoren, txostena eskatu zaie eragindako administrazioei (sektoreko administrazioei edo horiekin muga egiten dutenei) eta honako hauen erantzunak jaso ditugu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentua (2010/08/31)
- Donostiako Udala (2010/09/13)
- Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioren Itsasertz eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusia (2010/09/21)
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza (2010/09/30)
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (2010/10/15)
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzaren Zuzendaritza (2010/10/19)

INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUA

Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena bideratu ahal izateko, 2010eko uztailaren 10ean Ingurumen Inpaktuari buruzko Aurretiazko Txostena eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari, baina eranskin hau idazten ari garen une honetan, oraindik ez dugu txostenik jaso.

2010eko ekainean egindako Ingurumen Iraunkortasunaren Txosteneko Eranskina izango den dokumentu honek espedientean egindako aldaketak jasotzen ditu behin-behineko onespenerako dokumentuan, horietatik IITan egindako identifikazioa eta balorazioa aldatu dezaketen ingurumen-inpaktu garrantzitsuak eragin baitaitezke.

Horregatik, dokumentu hau egituratzeko orduan jatorrizko dokumentuko kapituluak mantendu dira:

- 1- Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren helburu estrategikoak eta kontuan hartutako alternatibak.
- 2- Lurraldearen eta esparru fisikoaren analisia eta diagnostikoa.
- 3- Testu Bategineko esku-hartze estrategikoak eta garapen iraunkorraren ikuspuntutik onartutako antolamenduaren justifikazioa.
- 4- Berrikuspen Dokumentuko (2007) eta Testu Bategineko (2010) proposamenen ingurumen-azterketa konparatua.
- 5- Arau Subsidiarioen Testu Bategineko proposamenetatik eratorritako ondorioen identifikazioa eta balorazioa.
- 6- Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamena.
- 7- Arau Subsidiarioek eragindako ondorioak gainbegiratzeko programa.

1. ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PENTSATUTAKO ALTERNATIBAK

1.1. ARAU SUBSIDIARIOEN HELBURUAK

Hasieran onartutako dokumentuan adierazitako helburu berak mantentzen dira Testu Bateginean, eta beraz, ez da aldaketarik egin horien balorazioari dagokionez.

1.2. KONTUAN HARTUTAKO ALTERNATIBAK

Atal honetan, Ingurumen Iraunkorraren Txostenean nabarmendu behar diren aldaketak aipatzen dira, horien garrantzia, egitura-izaera edo ingurumen-eragina dela eta.

1.2.1. ETXEBIZITZA-GARAPENERAKO ALTERNATIBAK

2007an behin betiko izaeraz onartu zen Arau Subsidiarioen Berrikuspen-dokumentuan 2.857koa zen etxebizitza berrien erreserba (357 etxebizitza/urtean, 8 urteko indarraldian), baina aurreikuspen horrek % 25 inguruan gainditzen du (538 etxebizitza) Lurralde Antolamendurako Sailak ezarritako gehienezko kopurua.

Testu Bateginak hasierako onespen-fasean onartutako etxebizitza-garapenaren muga 2.693 etxebizitza berrikoa zen, hau da, onartutako Berrikuspen-proiektuan (2007) aurreikusitakoa baino 164 etxebizitza gutxiagokoa. 2007an Arau Subsidiarioen Berrikuspena onartu ondoren, gaur egun 238 etxebizitza ari dira exekutatzen, eta beraz, proposatutako etxebizitza kopurua 2.455era igo zen. Aurreikuspen horrek hurrengo 16 urteetarako etxebizitza-garapena bermatzen zuen, batez beste, urtean 150 etxebizitza exekutatuz gero.

Dokumentua jendaurrean jarri eta herritarrek parte hartzeko prozesua amaitu ostean, Testu Bateginean 2.549ra murriztu da etxebizitza-eskaintza, hots, 2.310 etxebizitza berri proposatu dira exekutatzen ari direnez gain; horrenbestez, urtean 145 etxebizitza egitea aurreikusten da hurrengo lau laurtekoetan. Hala, planeamendu orokorra exekutatu ondoren, Hernanin 10.026ra igoko litzateke, gutxi gorabehera, etxebizitza kopurua (2009ko abenduan hiri-eremuan zeuden 7.535 etxebizitza gehi Testu Bateginean proposatutako 2.549 etxebizitza berri ken kendu egin behar diren 58 etxebizitza).

Fase horietan izan den aldaketarik garrantzitsuena Florida auzoko etxebizitza-eskaintzaren murrizketa izan da (263 etxebizitza gutxiago), lehengo FL.07 eremuaren zati handi bat finkatu egin baita (gaur egungo mugaketan, FL.03 eremuan sartzen da), “Papelera del Norte” eraikina eta haren industria-erabilerak, hain zuzen (lantegi txiki eta zerbitzuen bitartez, 200 lanpostu baino gehiago eskaintzen dituzten 52 enpresa).

Gainera, horrela beste bide bat aukeratu daiteke trenbide azpiko pasabidearen ordez, bertan dagoen eraikina bota beharrik izan gabe. Dena den, mantendu egin da gaur egun jarduerarik ez duen “Tudor” enpresaren lur-zatirako proposaturiko etxebizitza-erabilera, FL.07 eremuan, finkatu egin den merkataritzarako lur-zatiaren (Lidl) ondoan. Eremu hori berrantolatu egingo da, zirkulazio-eskemak komunikazio berri bat irekitzea eskatzen baitu Florida eta Montebideo kaleen artean.



1. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Hasierako onespena.



2. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Behin-behineko onespena.

Testu Bateginean proposaturiko etxebizitza kopuruaren murrizketa arindu egin da beste eremu edo sektoreetako etxebizitza kopurua handitzean. Birdoitze puntualez gain (Lizeaga, Santa Barbara, Karabel...), jabeek ebazpen judizialen bidez edo gauzatutako hirigintza-hitzarmenen bidez eskuratutako eskubideak errespetatzen dituzten aldaketak gaineratu izanaren ondorio izan dira aldaketa nagusiak (CN-SG.05 sektorearen antolamendu xehatuari eragiten dion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2010eko ekainaren 25eko epaia; CN-SG.06 sektorearen mugaketa, 2007an onartutako Arau Subsidiarioen Berrikuspen-dokumentuan ezarritakoaren arabera), jendaurrean jartzeko prozesuan hainbat alegazio egin baitira. Hori da Sagastialdeko bi sektore hauen kasua, etxebizitza berrien kopurua 71 igo baita.



3. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Hasierako onespena.



4. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Behin-behineko onespena.

1.2.2. EKONOMIA-JARDUEREN GARAPENERAKO ALTERNATIBAK

Arestian aipatutako Floridako esku-hartzeak lotura zuzena du hiri-bilbean isolatuta geratu diren industria-gune zaharkituen zaharberritze eta birgaitzearekin. FL.07 eremuaren zati baten kasuan, orain FL.03 eremuari dagokio, azkenean jarduera ekonomikoetarako erabilerak mantentzea erabaki baita (“Papelera del Norte” eraikineko tailerrak), eta ez eremuaren zatirik handiena etxebizitza-erabilerara xedatzea, lehen pentsatzen zen moduan, eraikineko erabiltzaile eta langileek alegazioak jarri baitituzte kontu horren inguruan.

Horrenbestez, Florida eta Zubiondo trenbide azpiko igarobide bidez lotzen dituen bidearen trazadura aldatu egin denez, ez da arestian aipatutako eraikina bota beharrik izango, eta beraz, lehengo erabilerak finkatu ahal izango dira.



5. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Hasierako onespena.



6. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Behin-behineko onespena.


Bestalde, “Galarreta” azpieremuko eremu eta sektoreen (GA.05, GA.06, GA.07, GA.08 eta GA.09) Hirigintza Arau Partikularretan Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak finkatutako hainbat zehaztapen jasotzen dira “Hernaniko Galarreta Eremuko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Elementuen Aldaketari” buruzko txostenean —espediente horrek behin betiko onespena jaso zuen 2010eko urriaren 28ko hitzarmen bidez—. Honako alderdi hauei buruzkoak dira bertan jasotzen diren zehaztapenak:

- Saneamendu-soluzio integrala eremu osorako, edo modu bateratuan garapen berriak izan ditzaketen sektore eta eremuetan, lehen aipatutako horietan, adibidez.


- Beharrezko prebentzio-neurriak hartzea lur azpiko urak ez kutsatzeko eta sektore desberdinetan kokatutako ur-bilketak eta urguneak babesteko.

- Hirigintza-proiektuek onartu beharreko neurri zuzentzaile eta babesleak, "GB-4.c gainjarritako baldintza” gisa identifikatutako natura-intereseko landaredi-guneak izanez gero; neurri horien exekuzioa eta finantzazioa hirigintza-karga gisa egotzi ahal izango dira eremu edo sektore bakoitzean.

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eskatutako zehaztapena Epelen dagoen (UA)EP.02 industria-erabilerako sektorearen Hirigintza Arau Partikularrean gaineratu ahal izateko ere aldatu da Testu Bategina, hala, hirigintza-proiektuak Urumea ibaiaren ertzak lehengoratzeko beharrezko neurriak har ditzan, ibaiaren eta ibaiertzeko basoaren baldintza ekologikoak berreskuratzen lagunduko duten ekintzak proposatuz.



7. irudia. Testu Bategina. Hasierako onespenerako dokumentua. 2010eko uztaila. Antolamendu argigarria. Antolamendu-proposamena



8. irudia. Testu Bategina. Hasierako onespenerako dokumentua. 2010eko abendua. Antolamendu argigarria. Antolamendu-proposamena

1.3. ARAU SUBSIDIARIOEN EXEKUZIO-FASEAK

Testu Bateginak hasierako onespen-fasean egindako proposamena mantentzen du jarduketen programazioari eta lehentasunari dagokionez.

Lehen laurtekorako, Programak “Jarduera Integratu (JI)” batzuei ematen die lehentasuna, antolamendurako eskuhartzeak, zirrikituen betelanak, behar dituzten eta egiturazko helburu estrategikoak lortzearekin lotuta dauden hiri-lurzoruko eremuetan, hain zuzen. Espazio Libreen Sistema Orokor eta Lokal, Ekipamendu Komunitario, eta Komunikabideekin loturiko jarduerak exekutatzea ere aurreikusten da lehen laurteko honetan.

Bigarren laurtekorako programatutako Jarduera Integratuak hiri-lurzoruko eta lurzoru hiritargarriko eremuei dagozkie, horiek ekarpen handia egiten baitiete Sistema Orokorrei.

Gainerako etxebizitza-garapenen kasuan, hau da, gaur egungo hiri-bilbean kokapen periferikoa duten lurzoru hiritargarriko eremuen kasuan, Jarduera Programak ezartzen du horiek ezin izango direla exekutatu planeamendu orokorra behin betiko izaeraz onartu eta zortzi urteko epea igaro arte.

Sistema Orokor eta Lokaletan aurreikusitako gainerako jarduerak "epe mugagabean” programatuko dira.

1.4. ARAUEN DOKUMENTUAN HAUTEMANDAKO INFORMAZIO-HUTSUNEAK

Ez da horrelakorik hauteman.

1.5. HERRITARREN PARTE-HARTZEA: PARTAIDETZA ETA ERABILITAKO PROZEDURA

Jarraian, herritarren partaidetzarekin loturiko gertakariak laburbiltzen dira osoko bilkuran dokumentua behin-behineko izaeraz onartu zenetik (2010eko uztailaren 14an) dokumentu hau idatzi den arte.

- Dokumentua jendaurrean jartzeko epea irekitzeko, beharrezko argitalpenak egin ziren, 2010eko uztailaren 22an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta honako egunkari hauetan: Gara (2010-07-22), Berria (2010-07-22), Noticias de Gipuzkoa (2010-07-22) Diario Vasco (2010-07-22), Hernaniko Kronika (2010-07-22).

- 2010eko uztailaren 29ko osoko bilkuran, Udalbatzak Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartu zuen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikuluan xedatutakoa betetzearren. Onartutako Programa betetzeko, jendaurrean agertzeko epean hainbat jarduera gauzatu ziren, hala nola:

  - “Hernani” udal-aldizkariak zenbaki berezi bat eskaini zion dokumentuari, eta bertan, edukiaren laburpen bat jaso zen.

  - Irailean, erakusketa grafiko azalpen-emaile bat izan zen Viteri Kultura Etxean.

  - Jendaurreko bi hitzaldi azalpen-emaile egin ziren irailaren 9an eta 15ean, Viteri Kultura Etxean. Gainera, bertan parte hartzeko berariazko deia egin zitzaien Udal Planeamenduko Aholku Batzordeko kideei.

  - Prentsan azaldu diren albisteen bitartez, dokumentuaren edukia eta haren proposamen esanguratsuenak jakinarazi dira. Horien kopiak ere gaineratu dira espedientean.

  - Udalaren Web Orrian Testu Bategineko dokumentu grafiko eta idatzi guztiak egon dira ikusgai, herritarrek horiek kontsultatu ahal zitzaten.

  - Espedientea jendaurrean egon den bitartean, Testu Bategina idatzi duen Udaleko Hirigintza Bulegoak kontsulta bat izan du irekia partikularrei hasiera batean onartutako dokumentuari buruzko informazioa eta aholkuak emateko.

- Horregatik, eta eskaera ugari egin zirela ikusirik, jendaurrean jartzeko epea beste berrogeita bost egun baliodunetan luzatzea erabaki zuen Udalbatzak 2010eko irailaren 30eko osoko bilkuran. Horretarako, zegokion argitalpena egin zen 2010eko urriaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Gara (2010eko urriaren 2an), Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa eta Berria (2010eko urriaren 3an) aldizkarietan.

- Arau Subsidiarioen Berrikuspenerako Testu Bateginaren dokumentua jendaurrean jartzeko epea amaitzean 253 alegazio-idatzi zeuden.

- Bestalde, argibideak emateko hainbat deialdi egin ostean, Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak dokumentua termino hauetan ematea erabaki zuen 2010eko azaroaren 3ko bilkuran:

  "*Horrela, Planeamenduko Aholku Batzordeak "Hernaniko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren" aldeko txostena egin du eta honako hau proposatu dio Udalbatzari:*

  - *Urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretu bidez Ereñotzuko entitate lokal txikia sortu dela kontuan hartuta, erakunde horren mugak bideratzen ari den planeamendu-dokumentuan gaineratu daitezela.*
  - *Dokumentuaren dokumentazio grafikoan behar bezala islatu dadila berriki berregokitu den Fagollagako bidea.*
  - *Dokumentuak dagozkion aurreikuspenak jaso ditzala etorkizunean auzoan ekipamenduak eraiki ahal izan daitezen, frontoi bat edo bestelakoak, gaur egun Eliza, eskola eta plaza dauden Sistema Orokorreko lur-zatian, alegia.*

- Prozesu parte-hartzaile hau amaitu ostean, Testu Bategina idatzi duen taldeak aztertu eta teknikoki informatu ditu aurkeztu diren alegazioak eta igorri diren txosten sektorialak; hala, dagokion proposamena gaineratu da 2010eko abenduaren 7an igorritako txostenean. Dena den, dokumentuan hauteman diren desadostasun batzuen inguruko zuzenketak eta birdoitzeak gaineratzea komeni dela adierazten da txostenean, baita igorritako txosten sektorialetan aipatzen diren gaiak kontuan hartzeko ere.

- Bestalde, gobernu-taldeak eta Ezker Batua udal-taldeak, aipatutako txosten teknikoan egiten diren proposamenak onartzeaz gain, beren proposamenak egin dituzte, eta horien bidez aldaketa txiki batzuk gaineratu nahi dituzte dokumentuan. Horregatik, hasiera batean onartutako dokumentuaren testu bategina egiteko agindu dute, bertan aldaketa guztiak gaineratu eta Udalbatzak behin-behineko onespena eman diezaion.

Txostenaren ingurumen-izapideei dagokienez, 2010eko uztailaren 19an berariaz eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aurretiazko txostena bidal zezala. Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 18. artikuluan aurreikusitako epea amaitu ondoren, ingurumen-organoak ez du aipatutako txosten hori bidali.

Txostenaren izapidetze-fase honetan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko txosten sektorialen artean, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak eta Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzaren Zuzendaritzak igorritakoak nabarmentzen dira (2010eko irailaren 22an eta urriaren 6an, hurrenez hurren), biak ere Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailekoak.

2. LURRALDEAREN ETA ESPARRU FISIKOAREN ANALISIA

Aurreko dokumentuarekin alderatuta, kapitulu hau berregokitu eta luzatu egin da administrazio eskudunek igorritako txosten sektorialak kontuan hartuta eta espedientearen izapidetze-epean egin diren informazioari, planifikazioari eta lurralde- eta ingurumen-legeriari buruzko aldaketak aintzat hartuta.

2.1. BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN DITUEN ELKARRERAGINEN ANALISIA.

2.1.1. "DONOSTIAKO" LURRALDE PLAN PARTZIALA

Donostiako Eremu Funtzionaleko (Donostialdea - Behe Bidasoa) Lurralde Plan Partzialak —bertan sartzen da Hernani— 2010eko uztailaren 16ko Agindu bidez behin-behineko izaeraz onartutako dokumentu bat du, hau da, Testu Bategina behin-behineko izaeraz onartu eta berehala.

Udalerrian eragina duten LPPko antolamendu-proposamenen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Ingurune fisikoaren lurralde-antolamendu orokorrerako oinarrizko zonifikazioa**

  - Naturaren eta/edo basoen babes berezia duten lurzoruak, udalerriaren hegoaldeko zatian, Epele auzotik hegoaldera. Horien natura- eta paisaia-balioak sustatzea proposatzen da, horiekin bateragarriak diren nekazaritzako eta basozaintzako ustiaketarako jarduerak eta eraikuntzak mantentzea, eta hiri-inguruetako parkeetan jarduera eta eraikuntza bateragarriak izatea. Gune horietan debekatuta egongo dira hirigintza-hazkundeak, eta erabilera publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak saihestuko dira, ingurumen-hobekuntzarako eta/edo baso-jarduerarako beharrezkoak direnak salbu.

  - Landa-habitatak eta/edo hiri-inguruko gune berdeak finkatzeko babes bereziko lurzoruak. Lurzoru hauetan lehen sektoreko landa-jarduerak eta landa-eraikuntzak finkatu eta hobetzea defendatuko da, hiriarteko eta hiri-inguruko parkeetan jarduera eta eraikuntza horiek mantendu edo garatzea, alegia. Gune hauetan debekatuta egongo dira hirigintza-hazkundeak, eta erabilera publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak saihestuko dira, ingurumen-hobekuntzarako eta/edo baso-jarduerarako beharrezkoak direnak salbu.

  - Urumeako ibai-korridorea. Funtsean, udalerri arteko esparru honek ibai-izaera du eta ibaiaren behe-ibilgua, lehentasunezko fluxuaren eremua, urpean gera daitezkeen ibarrak, ibar-basoak eta ur-bazterreko zuhaitz-zerrendak hartzen dituzten espazio libreen segidek eta haien ertzetan berdegune gisa edo oinezkoentzako urbazterreko pasealeku gisa jarritako gainerako espazio libreek osatzen dute. Sektore anitzeko izaera eta udalaz gaindiko irismena izango duen Ibaien Antolamendu Integralerako Plan Berezi baten xede izango dira.


  - Hirigintzarako okupa daitezkeen lurzoruak. Haren denbora-tartean programatu den hirigintza-hazkundea mugatzea proposatzen da.

- **Izaera osagarria eta gainjarria duen antolamendu xehatua**

  - Hiriarteko landa-parkea: Zabalaga. Udalaz gaindiko berdegune gisa finkatuko da etorkizuneko eskualde-konurbazioan eta paisaiaren babesa eta ingurune fisikoaren kontserbazioa bermatuko ditu, inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak irautea eta indartzea ahalbidetuko du, eta hiriguneetatik hurbil baina haien kanpoan dagoen landa-ingurunean kokatzeko ezaugarri egokiak dituzten ekipamendu eta zuzkidura bereziak jartzeko aukera eskainiko du.

  - Urumeako hiri-inguruko landa-parkea. Hiriaren kanpoaldeko hurbileko landa-ingurunean garatzen den jolas-hedapenaren lehentasunezko gune gisa arautuko da, eta beraz, izaera ludikoa duten jarduera eta instalazioen presentzia bateragarria izango da ingurune naturalaren kontserbazioarekin, haren ingurumen- eta paisaia-balioak babestearekin, eta inguruarekin bateragarriak diren lehen sektoreko jarduerak finkatu eta indartzearekin. Haren mugaketa zehatza udal-planeamenduak zehaztuko du eta hura garatzeko Antolamendurako Plan Berezi bat egin beharko da.

- **Mugikortasun-eredua: garraio eta komunikabideak** (EM: epe motza; EE: epe ertaina; EL: epe luzea)



9. irudia. Komunikabideen eskema orokorra. Lurralde Plan Partziala. Hasierako onespenerako dokumentua

- Errepide-sarea. EM-02: Urumea autobiaren bikoizketa; EE-08: Gaur egungo GI-131 errepidearen hiri-eraldaketa Hernanitik pasatzen den tartean; EL-08: GI-2132 errepidearen Hernani Mendebaldeko saihesbidea.

- Trenbide-sarea. EE-11: AHTaren trenbide-sare berria (IUC zabalera), LPSaren trazaketaren arabera.

- Hiriarteko oinezkoen eta txirrindularien oinarrizko bide-sarea. Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSaren Aurrerapenean planteatutako proposamen guztiak sartuko dira. Irizpide orokor gisa, haranen barrualdean kokatu dadila, ahal bada ibaiertzetan eta haranetan arteko lotura-korridoreetako puntu baxuetan.

- Garraio-zerbitzu publikoa. Errepide bidezko hiriko eta hiriarteko zerbitzu publikoa osatu egingo da aldiriko trenen zerbitzuaren bidez. Eremu funtzional osorako sistema bateratua.


- Disuasio-aparkalekuak. Aldiriko trenen sareko hiri-inguruetako geltoki guztietan eta etorkizuneko banatzaile nagusiaren lotune guztietan.

- **Hiri-ingurunearen antolamendu orokorra**

  - "Donostiako erdialdea eta Urumea" hiri-elkarketa. Etengabeko jarraitutasuneko eta erabateko osotasun funtzionaleko hiri-bilbe gisa konfiguratzea, ekipamendu osagarriak gehituz eta hutsik edo zaharkituta dauden espazio-zirrituak berrantolatuz.

  - Hiriko ibai-korridorea: Urumea ibaia. Ereñotzutik bokaleraino. Modu iragankorrean definitu den mugaketa hori izaera loteslearekin gehituko da udal-plangintza orokorrean, eta Ibai Korridorearen kategoria espezifikoari atxikita geratzen diren gainazalak ezarriko dira. Ibaien Antolamendu Integraturako Plan Berezietan behar bezala definituko dira, ibai-korridorearen mugaketaz gain, oztopo hidraulikoak ezabatzeko aurreikusitako eragiketak eta urpean gera daitezkeen hiri-lurzoru eta/edo lurzoru hiritargarri gisa sailkatutako lurzoruetan uholdeei aurrea hartzeko programatutako obrak.

  - Izaera estrategikoko eremua: Urumeako korridorea. Sektorearteko eta Udalaz gaindiko izaera izango duen Antolamendu Integratuko Plan Berezi bat egingo da.



10. irudia. Izaera estrategikoko eremua: Urumeako korridorea. Lurralde Plan Partziala. Hasierako onespenerako dokumentua

- **Etxebizitza-parkearen eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendua**

  - Udalerri guztietarako antzeko batez besteko hazkunde-erritmoa lortzea: 5,26 etxebizitza urteko eta mila biztanleko 2010-2017 aldian, eta 4,60 etxebizitza urteko eta mila biztanleko 2018-2025 aldian. Horrenbestez, 20.000 etxebizitza inguruko dimentsionamendu orokorra izango dugu Donostia erdialdeko, Astigarragako eta Hernaniko udal-plangintzen batura konpentsatuan.

  - 430/450 ha-ko dimentsionamendu orokorraren proposamena Donostia erdialdeko, Astigarragako eta Hernaniko LPPan planifikatutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztirako. Kopuru hori bat dator, oro har, hurrenez hurrengo udal-plangintzetako aurreikuspenen baturarekin.

  - Galarretan, jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako lurzoruaren sorkuntza eskualde-eskalako eragiketa estrategikotzat jotzea (30 ha).

2.1.2. HIRIGINTZA-ALORREKO LEGE-ESPARRUA

Hirigintza Alorreko lege-esparruan Udal Plangintza Orokorrak ditugu, eta guri dagokigun kasuan, Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren behin betiko onespen-erabakian (2007ko ekainaren 12an) jasotakoari dagokionez. Onespenik jaso ez zuten gainerako eremuen kasuan, 1996ko ekainaren 27an behin betiko izaeraz onartutako Arau Subsidiarioen dokumentua izango da hirigintza-alorreko legeria.

2.1.3. SEKTORE-LEGERIA EDO INGURUMEN-LEGERIA

Behin-behineko onespena egin denetik behin betiko onespena egin den arte ez da aldaketarik identifikatu Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenak egindako balorazioari eragiten dioten sektore- edo ingurumen-legerian.

Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren Itsasertz eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostenean behar bezala zehazten da Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko Testu Bateginean birdoitzeak egin behar direla, eta hori jasota geratu da behin-behineko izaeraz onartutako dokumentuan.

Hala, testu hau gaineratu da Hirigintza Arau Orokorretako 85-1 artikuluan:

- *Babeseko zortasun-zonaren erabilerek Kosta Legearen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute, eta zona horietan baimentzen diren erabilerek Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren baimena izan beharko dute, Kosta Legearen Araudia zati batean aldatzen duen 1112/92 Errege Dekretuaren 48.1. eta 49. artikuluetan zehaztutakoaren arabera.*

- *Kosta Legearen 27. eta 28. artikuluetan ezartzen diren itsasoratzeko eta pasabideko zortasunak errespetatzen direla bermatu beharko da hurrenez hurren, eta 30. artikuluan adierazten diren eragin-gunerako baldintzak bete beharko dira.*

- *Kosta Legea indarrean jartzean, jabari publikoko guneetan edo zortasun-zonetan dauden obrak eta instalazioak Kosta Legearen Laugarren Xedapen Iragankorrean zehaztutakoaren arabera arautuko dira.*

- *Saneamendu-sareko instalazioek Kosta Legearen 44.6. artikuluan eta haren Araudiarekin bat datozen artikuluetan adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte.*

2.1.4. IKERKETA-EREMUAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN BATZUK

2.1.4.1. Natura 2000 Sarea

Europako Batzordeak IKLak deklaratu zituen eta horrek gune horietako interes komunitarioko habitat edo espezieak babesteko beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak hartzeko konpromisoa dakar. Neurri horien eraginez, Leku bakoitzerako berariazko kudeaketa-planak landu behar dira; horiek idazketa-fasean daude orain (2010. urtea), baina amaitzean, “Babes Bereziko Eremu (BBE)” izendapena jasoko dute.

- A.- Urumea Ibaia Interes Komunitarioko Lekua (ES2120015 kodea).
- B- ‘Aiako Harria’ Interes Komunitarioko Lekua (ES2120016 kodea).

Leku horiek “Babes Bereziko Eremu” gisa izendatu ahal izateko behar diren Kudeaketa Planak lantzeko, eremu horien gaur egungo mugak doituko dira —“Urumea Ibaia” IKLaren kasuan behintzat— eta Kudeaketa Plan horiek egokitzat jotzen dituzten aldaketak egingo dira. Horretarako, lurzoru ez-hiritargarriaren antolamendurako baldintza gainjarria egokitu beharko da, eta Testu Bateginak egokitzapen hori aurreikusten du dagoeneko Hirigintza Arau Orokorretan.

2.2. HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEK ERAGINDAKO EREMUAREN INGURUMEN-ARLOKO ANALISIA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

Hasierako onespen-faseari dagokion Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean egiten den ingurumenaren analisia, diagnostikoa eta balorazioa baliozkotzat jotzen da, Testu Bateginaren behin-behineko onespenaren ostean eskatuko den Ingurumen Eraginaren Behin Betiko Txostenak zehaztuko duena jakin arte.

Dena den, Hernaniko udalerrian dauden flora-espezie mehatxatuei eta udal-babesa duen kultura-ondareari buruzko bi aldaketa gaineratzen dira jarraian.

2.2.1. LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

2.2.1.1. Flora-espezie mehatxatuak

2010eko ekainean ‘Hernaniko Landare Mehatxatuen Mikroerreserben Sarea’[1] aurkeztu zen jendaurrean. Bertan, Hernanin dauden flora-espezie mehatxatuen kokalekuen inbentario xehatu bat azaltzen da.

Azterlanak ematen duen informazioa kontuan hartuta, udalerrian identifikatutako espezie mehatxatuen habitatak eta kokapenak jasotzen dituen IIT taula aldatu egin behar da, eta baita horiek aurkitu diren 1x1 km-ko laukiak jasotzen dituen I. Eranskina ere.

Hernanin identifikatutako espezie mehatxatuen habitatak eta kokapenak		
Izen zientifikoa	Habitata	Identifikatutako kokapenak
Ophioglossum vulgatum	Belardi hezeak: haranaren barrualdeko hariztiak, iturburuak, haltzadiak	Galarreta-Zabalegi
Stachys palustris	Belardi hidrofiloak: ibaiertz eta hezeguneak	Galarreta (areka belartsua)
Dryopteris aemula	Lurzoru azidoak, ezpondak	Azketa, Bartola eta Ursaltueta errekak
Soldanella villosa	Erreka artekatuen bazterretako ezpondak edo zohikaztegiak, substratu silizeoen gainean	Izeneder, Apaizeta, Azketa, Kartola, Santodomingo, Sagarreta, Saratsain, Usoko eta Ursaltueta errekak
Trichomanes speciosum	Ur-jauzietako kofaguneak, erreka silizeoetan	Apaizeta, Usoko, Branketa, Larrakaitz, Sagarreta, Kartola, Purgatorio, Azketa, Erramuerreka, Saratsain eta Urmendi errekak
Hymenophyllum tunbrigense	Gune itzaltsuetako harkaitz silizeoak, oro har, ur-jauzi txikiak eta ur-negarrak dituzten sakan estuak	Onddi mendia eta Apaizeta, Azketa, Izeneder, Sagarreta eta Kartola errekak

[1] Aranzadi Zientzi Elkartea eta EHU. Iñaki Sanz-Azkue, Ibai Olariaga eta Joserra Diezek egina.

Hernanin identifikatutako espezie mehatxatuen habitatak eta kokapenak		
Izen zientifikoa	Habitata	Identifikatutako kokapenak
	eta erreka mehartuak	
Pinguicula lusitanica	Zohikaztegi, iturburu eta ur-negarren gainean, substratu silizeoaren gainean	Onddi mendia
Ilex aquifolium	Harizti-orla, harizti eta ameztiak	Fagollaga, Urdaburu mendiaren hegoaldeko hegala
Veratrum album	Askotarikoak, batez ere mendiko larre hezeetan sakabanatuta	Santodomingo errekako goi-ibarra, Antxista eta Unamuno mendien artean
Prunus lusitanica	Gune itzaltsuetako haitz silizeoen gainean, oro har, sakan estu eta errekak	Erramuerreka eta Apaizeta errekak

Flora mehatxatuarentzako habitat interesgarriak

Nolanahi ere, mantendu egin da espezie hauen kontserbaziorako interes handieneko habitaten identifikazioa; Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenaren arabera, honako hauek dira garrantziaren arabera antolatuta:

- Material silizeoen gaineko sakan eta errekak.
- Material silizeoen gaineko harkaitzak.
- Zohikaztegi, iturburu eta material silizeo edo lurzoru azidotuen gaineko leku hezeak.

2.2.2. KULTURA-ONDAREA

Honako elementu hauek gaineratu dira Testu Bategineko Katalogoko IV Motako Babes Erregimenean (udal-babesa) sartzen diren ondareen zerrendan:

- Osiñagako errotako presa eta ubidea
- Elorrabi eta Oianederreko zubi esekiak
- Urumea ibaiko garbitegia (Oianeder)
- Tolarietako zubia
- Arriatsuko eskola
- Hilerriko fusilamenduen horma

3. ERABAKITAKO ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK. GARAPEN IRAUNKORRAREN IKUSPUNTUTIK ONARTUTAKO ANTOLAMENDUAREN JUSTIFIKAZIOA

Ingurumenaren aldetik orain arte egin den eragin handieneko aldaketak, hau da, Florida azpieremuan zeuden jarduera ekonomikoak finkatu izanak eta horiek Galarretako azpieremura ez eraman izanak, indartu egiten ditu hiri-eremuan erabilera-nahasketa mantentzeko irizpide estrategikoak, eta era berean, lan-arrazoiak direla-eta egunero egiten diren joan-etorrietarako garraio-moduen banaketa iraunkorragoa eragiten du.

Sagastialdeko hainbat sektoretako etxebizitza-gehikuntzari dagokionez —hiri-bilbearen kanpoaldeko guneetan—, testuak berak defendatzen dituen ingurumen-irizpide estrategikoekin kontraesankorrak diren irtenbideak aurkitu behar izan ditu Testu Bateginak; nolanahi ere, eta hura idatzi duen taldeak egindako alegazio-txostenean adierazten den moduan, eragindako lursailen jabeek bereganatutako eskubideen eta ebazpen judizialen eraginez hartu behar izan dira erabaki horiek.

Dena den, Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena idatzi duen taldeak uste du Testu Bateginaren izapidetze-faseen artean egindako aldaketa horiek ez dutela aldatzen erabakitako antolamenduaren ingurumen-iraunkortasunari buruzko balorazio orokorra, hasierako onespen-fasean egin zena.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENEAN (2007) ETA TESTU BATEGINEAN (2010) PROPOSATUTAKO ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETA KONPARATUA

Hasierako onespen-fasearen eta behin-behineko onespen-fasearen artean egindako Testu Bategineko aldaketen ingurumen-eraginari dagokionez, ez da beharrezkoa 2007ko Berrikuspenean eta 2010eko Testu Bateginean proposatutako alternatiben arteko ingurumen-azterketa konparatutik ateratako balorazioa aldatzea.

Nolanahi ere, IITan adierazitako datuak zertxobait aldatu direnez, honako paragrafo hauek eguneratu dira Testu Bategin berriko datuak erabiliz.

- Testu Bateginak proposatutako antolamendu berrian 356 ha-ko hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriko azalera aurreikusten da, eta ez Berrikuspen Dokumentuan ezarritako 384 ha-k[2]; nolanahi ere, onartutako Arau Subsidiarioetan aurreikusitako garapen-gaitasuna mantentzen da. Onartutako antolamendu horren eraginez, lurzoru ez-hiritargarriko 30 ha okupatu gabe geratuko dira, Testu Bateginak "Babes Bereziko" lurzorutzat jotzen baitu lurzoru horren gehiengoa (Urumea ibaiaren ibarra).

- Hiri-eremuan, 34 ha murriztu da etxebizitza-lurzorura xedaturiko azalera, hots, % 22 murriztu da hasieran aurreikusitako 153,9 ha-tatik Testu Bateginak onartutako 120,0 ha-tara. Etxebizitza berrien kopurua % 10,8 murriztu da, hau da, 2.549 etxebizitza eraikiko dira, eta ez hasiera batean Berrikuspen-dokumentuan aurreikusitako 2.857ak.

- Testu Bategineko proposamenak gizarteratze-maila handiago baten alde egiten du, 1.063 etxebizitzetara igo baitu babes publikoko etxebizitzen kopurua (tasatuak eta BOE); beraz, etxebizitza babestuen / etxebizitza berrien ratioa % 56ra handitu da Berrikuspen-dokumentuko % 47tik. Etxebizitza horiek hiri-eremuan dauden zortzi lurralde-eremuen artean banatuko dira, hau da, etxebizitza berrien % 35 eta % 71 artean osatuko dute.

- Dentsitate txikiko etxebizitza-erabilerara xedaturiko azalera 13 ha murriztu da 2007an onartutako dokumentuarekin alderatuta, hots, hiri-eremuaren azaleraren % 10,7tik % 7,8ra. Berrikuspen-dokumentuan antolatutako 41,1 ha-tatik 27,8 ha baino ez dira antolatzen Testu Bateginean; dokumentuaren Memoriak adierazten duen moduan, hori da egin daitekeen murrizketarik handiena (% 32) eskubide kontsolidatuen arabera.

- Antolatutako azalera berria 40,4 ha-tatik 32,7 ha-tara pasatzen da, eta beraz, hala kalifikatutako lurzoruaren gehikuntza % 34tik % 27ra murriztu da lehendik zegoen lurzoruari dagokionez. Lurzorua murriztu egin bada ere, etorkizuneko jardueretara xedaturiko eraikigarritasuna 210.147 m^2(t)tik 255.482 m^2(t)ra handitu da. Jarduera ekonomikoetara xedaturiko lurzoruaren ehunekoa ere puntu bat baino zertxobait gehiago handitu da hiri-eremuko azalerarekin alderatuta, % 41,9tik % 43,4ra, alegia. Galarreta eremuko 19,3 ha hirugarren sektoreko erabilerarako (B.20) finkatu direla eta hark teknologia-parkearen erabilera izango duela kontuan hartuta, ulergarria da hiri-eremuan mota honetako lurzoruen ehunekoa handitu izana, hiri-eremu osoaren % 0,9tik % 5,7ra igo baita.

- Testu Bateginak jarduera ekonomikoetara xedaturiko lurzoruaren gehikuntza gutxitzen du Berrikuspen-dokumentuarekin (2007) alderatuta. Lehendik jarduera ekonomikoetara xedaturik zeuden 118 ha finkatu dira (antolatutako azalera guztiaren % 76,7). Florida auzoan zegoen industria-lurzoruaren zati bat bakarrik (2,50 ha) dago etxebizitza-lurzoru gisa birkalifikatzeko, lurzoru horretan etxebizitza-inguruneekin bateragaitzak ziren jarduera batzuk zeudelako edo Mugikortasun Planak proposaturiko bide-antolamenduak horretara behartzen duelako. Nolanahi ere, azpieremu honetan erabilera-nahasketa bat mantentzea erabaki da (etxebizitza-erabilera eta horiekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak), izaera misto eta desberdina emango baitio Florida auzoari.

- Testu Bateginak (2010) 26.462 m^2 handitzen du, Arau Subsidiarioen Berrikuspenarekin (2007) alderatuta, Hiriko Espazio Libreen Sistema Orokorrera xedaturiko azalera, eta beraz, 193.788 m^2ko azalera du orain. Hala, Sistema Orokorrari dagozkion hiriko espazio libreen estandarra 7,99 m^2ra igo daiteke biztanle bakoitzeko[3]. Praktikan, Testu Bategineko proposamenak exekutatzen direnean, % 51 handituko da gaur egungo hiri-parkeen azalera, lehendik planifikatuta zeudenak (162.826 m^2) exekutatzeko sortu diren zailtasunak kontuan hartuta; horietatik 128.043 m^2 bakarrik dira titulartasun publikokoak.

[2] 2006ko irailaren 15eko "Hutsen Zuzenketa Berriaren" Memoriatik ateratako datuak, 2007ko ekainaren 12ko Diputatuen Kontseiluko akordio bidez egiaztatu eta zuzenduak.
[3] Hiriguneak 24.257 biztanle izango dituela kontuan hartuta ondorioztatu da datu hori.

5. ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINEKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOAK IDENTIFIKATU ETA BALORATZEA

5.1. SARRERA

Aurreko kapituluetan adierazi den moduan, Testu Bateginean ez da egin ondorioen balorazio orokorra aldatzeko moduko aldaketarik.

Nolanahi ere, Testu Bategineko proposamen esanguratsuenetan egin diren lurralde-eremu bakoitzeko aldaketak adierazten dira kapitulu honetan, betiere Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean ezarritako egiturari jarraiki. Aldaketek dagoeneko egina dagoen hasierako onespen-fasean eragina izan duten kasuetan, ondorioen balorazio bat gaineratu da.

5.2. CASCO CENTRO (CC) LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.2.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean adierazitako esku-hartzeak mantentzen dira, Irrigoenea etxea (Leoka inguruan) eraisteari dagokiona salbu, IITan 3. jarduera gisa azaltzen dena alegia, finkatu egin baita. Aldaketa honen eraginez, Espazio Libreen Sistema Orokorra 214 m^2 murriztu da, hau da, “Erdigunea” eremuaren aurreikusitako azaleraren % 0,6.



11. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Hasierako onespena.



12. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Behin-behineko onespena.

5.2.2. Ondorioak identifikatu eta karakterizatzea

- Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean egindako ondorioen identifikazio eta balorazio bera mantentzen da. Dena den, esan behar da Ondarearen elementuak babestu eta horiei balioa ematearen ondorio positiboa murriztu egin dela —besteak beste, Leoka eremua lehengoratzea aurreikusten zen—, egindako balorazio orokorra mantentzea ahalbidetuko duten beste jarduera batzuk mantentzen diren arren.

5.3. CASCO NORTE LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.3.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Lurralde Eremu honetan daude ingurumen-ikuspuntutik garrantzia gehien duten bi aldaketak.

61 ha-ko azalera du gutxi gorabehera; % 72a (44 ha) etxebizitza-erabilera orokorrera xedaturik dago (% 76 hasierako onespenean), % 23a (14 ha) Sistema Orokorretara eta % 5a (3,1 ha, eta ez hasierako onespen-fasean xedaturiko 0,12 ha) jarduera ekonomikoen erabilera orokorrera. Eremu honetan 1.103 etxebizitza berri egitea aurreikusten da, hau da, Testu Bateginean antolatzen den etxebizitza-eskaintzaren % 43a eta Hasierako Onespen-dokumentuan aurreikusitakoak baino 191 etxebizitza gutxiago.


Proposatutako antolamenduaren ezaugarri nagusiak dira gaur egungo hiri-egitura finkatu egingo dela (42,2 ha), hiri-egitura berreskuratu eta lehengoratzeko lanak egingo direla (3,6 ha) eta hiri-garapen berrietarako lurzoruaren okupazioa handituko dela (15 ha).

Ingurumenaren aldetik, proposamen hauetan egindako aldaketak dira azpimarragarrienak:


- 5 Florida azpieremuaren hirigintza-berrantolamendua. Antolatutako azalera 13,2 ha-koa da; horietatik 9,6 ha dagoeneko garatuta dauden lurzoruak dira eta horien antolamendua finkatu egin da, eta 3,6 ha dagoeneko okupatuta dauden lurzoruak dira eta horiek berrantolatzea proposatzen da. Etxebizitza-erabilerarako birkalifikatutako lurzorua murriztu egin da hasierako onespena izan zuen Testu Bategineko proposamenean jasotzen zenarekin alderatuta.

- 6 Trenbide azpiko pasagune berriaren trazaduraren aldaketa (oinezko, txirrindulari eta ibilgailuentzat); horri esker, ez da “Papelera del Norte” eraikina eraitsi beharrik izango, eta bertan lehendik zeuden jarduera ekonomikoak finkatuko dira.

- 7 Mantendu egin da Sagastialdeko etxebizitza-egituraren handitzea (3 sektore berri), onartutako Arau Subsidiarioen Berrikuspenean aurreikusten zena. Berriz aztertu da SUE 15.10 sektoreari eman dakiokeen eraikigarritasuna (SG.05 Testu Bateginean), hala, 2008an onartutako haren Plan Partzialaren deuseztatze-epaiak eragindako arazoari aurre egiteko. SG.06 sektorearen mugak 2007ko Arau Subsidiarioen Berrikuspen-dokumentuan ezartzen direnetara egokitu dira.



13. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Hasierako onespena.



14. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Behin-behineko onespena.

5.3.2. Ondorioak identifikatu eta karakterizatzea

- IITan, hasierako onespen-fasean, garrantzia handiko kalteak identifikatu dira paisaian, batez ere obra-fasean, paisaia-hauskortasun handieneko eremu eta sektoreetan (ET.04, SG.05, SG.06, AN.07) aurreikusitako etxebizitza-garapenak direla eta. SG.06 sektorean aurreikusitako aldaketari dagokionez, Sagastialderen hegalean dagoen lurzoru hiritargarriko sektorea handitzeak ez dakar hiri-lurraren okupazio handiagorik, lursail horiek Espazio Libreen Sistema Lokalari atxikita geratuko baitira. Nolanahi ere, SG.06 sektorean (76-110 etxebizitza) eta SG.05 sektorean (38-76 etxebizitza) aurreikusitako eraikigarritasuna handitzeak eragina izan dezake hauskortasun-maila altua duen eremu honetan aurreikusitako inpaktu bisualean.

- IITan adierazten den moduan eta dokumentu honetan azpimarratzen den moduan, Antziola, Sagastialde eta Etxeberri etxebizitza-garapenek kokalekutzat hartuko dituzten eremu eta sektoreen baldintza topografikoak kontuan hartuta, gomendagarria litzateke, arretaren printzipioa kontuan izanik, etxebizitzen hirigintza- eta eraikuntza-lanak egiten diren bitartean gerta daitezkeen arrisku geoteknikoak neurrizko ondorio gisa bereiztea. Dena den, eremu/sektore hauen garapen-planeamenduak "*zuhurtziaz aztertu behar du afekzio horien arriskua*", Hirigintza Arau Partikularretan zehazten den moduan.

- FL.03 eta FL.07 eremuetan murriztu egin da eraispen-lanak behar dituzten jardueren kopurua, lehendik zeuden jarduera ekonomikoak mantendu baitira, eta beraz, hondakin gutxiago sortuko dira.

- Mugikortasun iraunkorraren ikuspegitik, hasierako onespen-dokumentuan identifikatuta geratu ziren elementu positiboak sendotu egin dira, etxebizitza-eremuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak mantendu baitira Floridako zenbait eremutan, ordezkatu eta birgaitzeko esku-hartzeak egingo diren eremuekin tartekatuta.

- Ondorio negatibotzat jo da Floridako etxebizitza-eremu berrietan izango duten zarata, trenbide-saretik gertu baitaude. Kasu honetan, aurreikusitako ondorioa murriztu egiten da etxebizitza-erabilerarako birkalifikatuko eremuak murriztean. Nolanahi ere, egoera berean dauden beste etxebizitza-gune berri batzuk mantendu egin direnez, FL.07, FL.08 eta FL.09 eremuen Hirigintza Arau Partikularretan aurreikusitako neurri babesleak eta ondorioaren balorazio orokorra mantendu egin dira.

5.4. CASCO OESTE LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.4.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Lurralde-eremu honetan ez da oinarrizko aldaketarik egin; nolanahi ere, berregokitze zehatz batzuk egin dira Villas eta Karobietako lur-zatietan, baina ez da hasierako onespeneko IITan egindako ondorioen identifikazioa eta balorazioa aldatu behar.

Atxikitako irudietan ikus daitekeen moduan, aldaketa garrantzitsuenak Villas azpieremuan egin dira (Familia Santuko Misiolarien Egoitzako lur-zatiaren handitzea, bide lokalaren berrantolaketa), baina halere, mantendu egin da proposatutako etxebizitza kopurua, espazio libreen azalera eta abar.



15. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Hasierako onespena.



16. irudia: Antolamendu argigarria. Proposatutako jarduerak. Iturria: Testu Bategina. Behin-behineko onespena.

5.4.2. Ondorioak identifikatu eta karakterizatzea

- Arestian esan bezala, aldaketa hauek ez dute aldaketarik eragin IIT dokumentuan aurreikusitako ondorioen identifikazio eta balorazioan.

5.5. CASCO SUR LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.5.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Lurralde-eremu honetan ez da aldaketa garrantzitsurik egin, karga-banaketaren inguruko birdoitze zehatz batzuk salbu. Gainera, hasierako onespen-dokumentuan hilerriko lur-zatia (EL.07) handitzera xedaturik zegoen lur-zerrenda —ingurumen-babeserako banda gisa (akustikoa)— ezabatu egin da, eta beraz, lurzoru horrek lurzoru ez-hiritargarri izaten jarraituko du.

Aurreikusitako jarduerek ez dute aldaketarik eragiten hasierako onespeneko IITan aurreikusitako ondorioen identifikazio eta balorazioan.

5.6. CASCO PERIFERIA LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.6.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Testu Bateginak garapen berriak izango dituen Galarretako eremu eta sektoreen Arau Partikularretan gaineratu ditu behin betiko izaeraz onartutako (2010eko azaroa) “10. zk.ko Galarreta eremuari dagozkion Arau Subsidiarioen elementuen aldaketa” dokumentutik eratorritako landare interesgarrien babesari, lur azpiko uren babesari eta saneamenduari buruzko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak.

Lurralde-eremu honetan ez da oinarrizko aldaketarik egin, lur-zati batzuetan egin diren birdoitze, argipen eta zuzenketa zehatzez gain.

Horrenbestez, baliozkotzat jotzen da hasierako onespeneko IITan egindako ondorioen analisia eta balorazioa.

5.7. URUMEA BAJO LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.7.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Eremu honetan ez da oinarrizko aldaketarik egin.

LZ.03 eremuko industria-erabilerako bi lur-zati eraikigarritan tarteko solairuak eraikitzeko aukera arautzen du Testu Bateginak. Bestalde, Martindegi azpieremuaren behin betiko antolamendua atzeratu egin da harik eta Uraren Euskal Agentziak (URA) aldez aurretik egindako ebazpenari buruzko adierazpen bat egiten duen arte Oialumeko zubia Zamokan beste zubi berri baten bidez ordezkatzeari buruz.

Lurralde-eremu honetan ez da oinarrizko beste aldaketarik egin, lur-zati batzuetan egin diren birdoitze, argipen eta zuzenketa zehatzez gain.

Bide Zortasuneko Eremuan (Kostei buruzko Legea) zeuden bi Ibaiondoko aparkaleku-plazei dagokienez, kendu eta behar bezala grafiatu dira IB.01 eremuaren bide-antolamenduko planoan.

Testu Bateginean egindako aldaketek ez dute aldatzen hasierako onespeneko IITan aurreikusitako ondorioen analisia eta balorazioa.

5.8. URUMEA MEDIO LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.8.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Lurralde-eremu honetan ez da oinarrizko aldaketarik egin, lur-zati batzuetan egin diren birdoitze, argipen eta zuzenketa zehatzez gain. Horrenbestez, baliozkotzat jotzen da hasierako onespeneko IITan egindako ondorioen analisia eta balorazioa.

5.9. URUMEA ALTO LURRALDE-EREMURAKO PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEK ERAGINDAKO ONDORIOEN ANALISIA

5.9.1. Lurralde-eremurako proposamenen laburpena

Epele azpieremuan, Urumea ibaiaren eskuineko bazterrean dagoen EP.02 sektorean, Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzaren Zuzendaritza-txostenean jasotzen den zehaztapena gaineratu da, industria-erabilerako sektore honen Hirigintza Proiektuan ibaiertzak lehengoratzeko neurriak hartzeari buruzkoa.

Lurralde-eremu honetan ez da beste funtsezko aldaketarik egin, baina etorkizunean frontoia edo bestelako ekipamenduak jarri ahal izateko aurreikuspena gaineratu da Ereñotzuko Hirigintza Araudian.

Ez da hasierako onespeneko IITan egindako ondorioen identifikazio eta balorazioa aldatzeko moduko aldaketarik identifikatu.

6. NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA

6.1. IDENTIFIKATUTAKO ONDORIOETARAKO PROPOSATU DIREN NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILEAK

Ez da beharrezkotzat jotzen Hasierako Onespeneko dokumentuaren Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean gaineratutakoez gain beste neurri batzuk gaineratzea.

7. ARAU SUBSIDIARIOEN ONDORIOAK GAINBEGIRATZEKO PROGRAMA

Ez da beharrezkotzat jotzen Hasierako Onespen-faseko Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean gaineratutako Gainbegiratze Programa aldatzea.

INGURUMEN-IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

ERANSKINAK

I. Eranskina. Flora-espezie mehatxatuak

Flora-espezie mehatxatuak aurkitu diren lekuen 1x1 laukiak	
1x1 UTM laukia	Izen zientifikoa
WN8192	*Ophioglossum vulgatum*
WN8292	*Stachys palustris*
WN8582	*Dryopteris aemula. Soldanella villosa*
WN8585	*Dryopteris aemula. Trichomanes speciosum*
WN8587	*Hymenophyllum tunbrigense. Soldanella villosa.*
WN8588	*Pinguicula lusitanica. Trichomanes speciosum. Ilex aquifolium. Prunus lusitanica*
WN8681	*Soldanella villosa. Veratrum album.*
WN8682	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum. Dryopteris aemula. Hymenophyllum tunbrigense*
WN8683	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum. Hymenophyllum tunbrigense.*
WN8684	*Stachys palustris. Trichomanes speciosum. Hymenophyllum tunbrigense.*
WN8687	*Trichomanes speciosum*
WN8780	*Soldanella villosa.*
WN8781	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum. Veratrum album. Dryopteris aemula.*
WN8782	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum*
WN8783	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum*
WN8785	*Trichomanes speciosum*
WN8788	*Trichomanes speciosum*
WN8790	*Ilex aquifolium*
WN8882	*Soldanella villosa.*
WN8883	*Trichomanes speciosum*
WN8884	*Dryopteris aemula. Trichomanes speciosum. Hymenophyllum tunbrigense*
WN8885	*Trichomanes speciosum*
WN8886	*Ilex aquifolium*
WN8887	*Trichomanes speciosum*
WN8888	*Trichomanes speciosum. Soldanella villosa. Hymenophyllum tunbrigense. Prunus lusitanica*
WN8889	*Trichomanes speciosum*
WN8987	*Ilex aquifolium*
WN8988	*Soldanella villosa. Hymenophyllum tunbrigense*
WN8989	*Soldanella villosa. Trichomanes speciosum.*

Identifikatutako espezie mehatxatuen babes-maila			
Izen zientifikoa	Euskal Katalogoa	EAEko Zerrenda Gorriaren proposamena	Beste batzuk
Ophioglossum vulgatum	Interes Berezikoa	Ez Mehatxatua (NT: Ia mehatxatua)	-
Stachys palustris	-	Ez Mehatxatua (NT: Ia mehatxatua)	-
Dryopteris aemula	-	Ez Mehatxatua (NT: Ia mehatxatua)	Espainiako Zerrenda Gorria: Zaurgarria Frantziako Liburu Gorria: Lehentasunezkoa
Soldanella villosa	Arraroa	VU: Zaurgarria	Habitat Zuzentarauko II. eta IV. Eranskinak Espainiako Zerrenda Gorria: Zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: Lehentasunezkoa
Trichomanes speciosum	Interes Berezikoa	VU: Zaurgarria	Habitat Zuzentarauko II. Eranskina Espainiako Zerrenda Gorria: Zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: Lehentasunezkoa
Hymenophyllum tunbrigense	Arraroa	VU: Zaurgarria	Espainiako Zerrenda Gorria: Zaurgarria Frantziako Zerrenda Gorria: Lehentasunezkoa
Pinguicula lusitanica	Interes Berezikoa	Ez Mehatxatua (NT: Ia mehatxatua)	-
Ilex aquifolium	Interes Berezikoa	Ez Mehatxatua (LC: Galtzeko arrisku gutxi duena)	-
Veratrum album	Interes Berezikoa	Ez Mehatxatua (LC: Galtzeko arrisku gutxi duena)	-
Prunus lusitanica	Arraroa	Mehatxatua (CR: Desagertzeko zorian)	Espainiako Zerrenda Gorria: Zaurgarria Frantziako Liburu Gorria: Lehentasunezkoa